

HIZKUNTZA ALDAKORTASUNA LARRABETZUN

HIZKUNTZA ALDAKORTASUNA LARRABETZUN



Iñaki Gaminde, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria
Naia Eguskiza, Ursua Gaminde



Larrabetzuko udala
www.larrabetzu.eus



Larrabetzuko udala
www.larrabetzu.eus



Hizkuntza Aldakortasuna Larrabetzun

Iñaki Gaminde

Ander Olalde

Aintzane Etxebarria

Naia Eguskiza

Ursua Gaminde



Larrabetzuko Udala

1.Hasiera

1.1. Hizkuntza aldakortasunaz.....	13
1.2. Larrabetzu.....	15
1.3. Corpora eta metodologia.....	16
1.3.1. Datuak jasotzeko metodologia.....	17
1.3.2. Datuak prozesatzeko metodologia.....	19
1.3.3. Datuak aztertzeko metodologia.....	20
1.4. Lanaren banaketa.....	21

2.Soinuak

2.1. Bokalak.....	24
2.2. Herskariak.....	25
2.3. Sudurkariak.....	29
2.4. Frikariak.....	31
2.5. Afrikatuak.....	31
2.6. Dardarkariak.....	32
2.7. Albokariak.....	34
2.8. Fonologia segmentalaren bilakaera.....	34

3.Prosodiaz

3.1. Silabak.....	54
3.1.1. Silaba motak.....	54
3.1.2. Silaben iraupenaz.....	59
3.2. Azentuaz.....	60
3.3. Esaldien intonazioaz.....	65
3.3.1. Adierazpen esaldiak.....	65
3.3.2. Bai/ez galderak.....	66
3.3.3. N-z galderak.....	67
3.3.4. Hautazko galderak.....	68
3.3.5. Oihartzun galderak.....	70
3.3.6. Zalantzazko galderak.....	71
3.3.7. Informatzaileen sailkapena.....	72
3.4. Talde prosodikoak.....	73
3.5. Etenak.....	74
3.5.1. Eten motak.....	74
3.5.1. Isiluneen iraupenaz.....	77

Egileak: Iñaki Gaminde, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria, Naia Eguskiza eta Ursua Gaminde

Argitaratzailea: Larrabetzuko Udala

ISBN: 978-84-697-7547-9



Lege Gordailua: BI-1854-2017

3.6. Muga-tonuak.....	77
3.6.1. Muga-tonuen banaketa.....	77
3.6.2. Muga-tonuak eta etenak.....	78
3.6.3. Informatzaileen sailkapena.....	79
3.7. Erritmoa.....	80
3.8. Abiadura.....	85

4.Izen morfologia

4.1. Artikulua.....	88
4.2. Erakusleak.....	88
4.3. Izenordainak.....	91
4.4. Adjektiboak.....	94
4.5. Bizidunen deklinabidea.....	100
4.6. Bizigabeen deklinabidea.....	107
4.7. Aditzondoak.....	109
4.7.1. Leku aditzondoak.....	109
4.7.2. Denbora aditzondoak.....	112
4.7.3. Modu aditzondoak.....	112
4.8. Datuen azterketa kuantitatiboa.....	113

5.Aditz morfologia

5.1. Aditz ez jokatuak.....	115
5.1.1. Partizipioak.....	116
5.1.2. Aditz izenak.....	123
5.1.2.1. -TE/-TZE.....	123
5.1.2.2. -KERAN.....	130
5.2. Aditz jokatuaren aspektuak.....	130
5.3. Aditz laguntzaileak.....	133
5.3.1. Indikatiboa.....	133
5.3.1.1. Nor.....	134
5.3.1.2. Nor-Nori.....	134
5.3.1.3. Nork-Nor.....	138
5.3.1.4. Nork-Nori-Nor.....	144
5.3.2. Baldintzako aditzak.....	149
5.3.4. Ahalezkoak.....	152
5.3.5. Agintera.....	153
5.4. Aditz trinkoak.....	153
5.4.1. Aditz trinko iragangaitzak.....	153
5.4.2. Aditz trinko iragankorrak.....	154
5.4.2.1. Jakin.....	155
5.4.2.2. Eduki.....	155

5.4.2.3. Eroan.....	156
5.4.2.4. Ekarri.....	157
5.4.2.5. Erabili.....	158
5.4.2.6. Esan.....	158
5.4.2.7. Eretxi.....	159
5.4.2.8. Eragon.....	159
5.4.2.9. Gainerakoak.....	160
5.4.2.10. Aditz trinkoen ezaugarrien azterketa kuantitatiboa.....	160
5.5. Alokutiboak.....	161
5.5.1. Aditz laguntzaileen alokutiboak.....	162
5.5.1.1. Indikatiboa.....	162
5.5.1.2. Baldintzak.....	164
5.5.1.3. Ahalezkoak.....	165
5.5.2. Aditz trinkoen alokutiboak.....	165
5.6. Juntagailuak.....	167
5.6.1. Emendiozkoak.....	167
5.6.2. Hautakariak.....	168
5.6.3. Aurkaritzakoak.....	169
5.7. Lokailuak.....	169
5.8. Menderagailuak.....	171
5.8.1. BA.....	172
5.8.2. "-LA".....	175
5.8.3. "-N".....	178
5.8.3.1. -N.....	178
5.8.3.2. -N eta deklinabidearen morfemak.....	182
5.8.3.3. -N eta postposizioak.....	186
5.9. Datuen azterketa kuantitatiboa.....	188

6.Lexikoa

6.1. Giza gorputzaren lexikoa.....	192
6.2. Lexikoaren bilakaera gaika.....	195
6.2.1. Meteorologia.....	197
6.2.2. Landareak.....	199
6.2.3. Piztiak.....	201
6.2.4. Abereak.....	203
6.2.5. Ondorioak.....	205
6.3. Bat-bateko testuaren lexikoa.....	209
6.3.1. Berben azterketa.....	210
6.3.2. Lexikoaren aberastasuna.....	213

7. Gerorantz

7.1. Fonemak eta alofonoak.....	218
7.1.1. Fonemen maiztasunak.....	218
7.2.1. Arau fonologikoak.....	223
7.2. Silabak.....	226
7.1.1. Silaba motak.....	227
7.1.2. Silaben iraupenaz.....	229
7.3. Azentua.....	230
7.4. Esaldien intonazioa.....	232
7.5. Testuen prosodia.....	236
7.5.1. Talde prosodikoen tamaina.....	236
7.5.2. Etenak.....	237
7.5.3. Muga-tonuak.....	240
7.5.3.1. Muga-tonuen banaketa.....	240
7.5.3.2. Muga-tonuak eta etenak.....	241
7.5.3. Erritmoa.....	243
7.5.4. Abiadura.....	248
7.6. Izen morfologia.....	249
7.7. Aditz morfologia.....	250
7.7.1. Aditz laguntzaileen eta trinkoen aldakortasuna.....	250
7.7.2. Aditz ez jokatuak eta sintaxi arloko erabilerak.....	253
7.8. Lexikoaren erabilera.....	254
7.8.1. Berben azterketa.....	255
7.8.2. Lexiko aberastasuna.....	256
7.9. Ondorioak.....	258

8. Amaiera**9. Bibliografia**

Arin bizi gara, arinegi, zalantza barik. Eta aurreko gizaldietan horrela ez bazen ere, atzera begiratzen dugunean, atzokoa ere gaurkoa izan daitekeela ematen du. Baina ez. Goroldioa lotzen ez zaion harriaren antzera, bizitzak aurrera egiten du, sekulan ezeri lotu barik. Gizakia badoa, baina bizitzak hortxe darrai, betiereko bidean.

Hizkuntzetan halako zeozer gertatzen da. Halaxe gertatzen da gurean, behinik behin. Ezin dugu erabateko ziurtasunez azaldu euskara non jaio zen, noiz, nola... Lantzean lantzean zeozer gehiago jakiten dugu honetaz eta hartaz. Hala ere, jakin badakigu euskarak mendeetan zehar bizirautea lortu duela, eta horregatik dagoela gure artean bizirik gaur egun, batzuen aburuz, inoiz baino zabalduago.

Euskara ezagutzen dugu, besteak beste, hainbat ikerlari, filologo, idazle eta hizkuntzalari zein hizkuntzazalek jagon eta aztertu egin dutelako, bai. Baina ezagutzen dugu, batez ere, aurreko gizaldietan gure arbasoek erabili izan dutelako, arazoak arazo, debekuak debeku, gorabehera guztien gainetik. Eta horrela helarazi digutelako, euren erabiltze horrek izan duen garrantziaz ohartu barik, agian. Era xume baina sendoan gorde baitute euren komunikazio hizkuntza.

Altxor honen jakitun, lagun batzuek ondo baino hobeto ikertu dute aspaldiko larrabetzuarren hizkera, bai eta hizkera honetatik zer dagoen bizirik gudan, gaur egungo larrabetzuarrongan. Hori guzti hori harro egoteko modukoa da, eta arduraz jokatzera behartzen gaitu, ikerlari hauek eskutan jarri diguten ondarea zain dezagun; izan ere, hura gabe, zailago litzaiguke gure iragana ulertzea eta gure geroa eraikitzea. Gure hizkuntzaz, euskaraz.

Eskerrik asko, beraz, aukera hau eman diguten lagunei: Iñaki Gaminde, Ander Olalde, Aintzane Etxebarria, Naia Eguskiza eta Ursua Gaminde, euren lanaren uzta eskaini digutelako, eta, batez ere, gure hizkuntza gehiago ezagutzen, ikertzen eta maitatzen jarraitzen dutelako, mundu globalizatu eta nahasi honetan, euskarak etorkizun xume baina sendoa izaten jarrai dezan.

Larrabetzuko hizkuntza aldakortasunaren alderdi batzuk aztertzea da hemen aurkezten dugun lan honen helburua. Badakigu ezin heda gaitzkeena berdin alderdi guztietara; hala ere, ikuspegi orokorra eman nahi dugu etor litezkeen beste batzuek oinarria eta zurkaitza eduki dezaten.

Aldakortasunaren labirintoan sartzeko eta ez galtzeko komeni ei da hari mataza harilkatzen joatea irteteko atea bueltan aurkitzeko; atal honetan mataza horren hari begia egingo dugu gerora etorriko diren ataletan barna tenk egiten joateko.

Labirintoaren ateetan barneratu baino lehen hausnarketa batzuk egin gura ditugu orain hartu dugun jarrera argitzekotzat. Argi dago azken urteotan makina bat lan egin direna bai herri hizkerak deskribatzeko (Camino, 2009; Badihardugu Euskara Elkartea, 2010 bibliografiaren gaineko zertzelada nagusiak edukitzeko), bai eta aldakortasunaren alde soziala aztertzeko (Ensunza, 2015; Lujanbio, 2016) ere.

Gure ustez honelako lan batean hiru helburu lortu behar dira: deskribatzea, azaltzea eta aurreikuspenak egitea. Datuak eta gertakari linguistikoak deskribatu behar dira; honetarako ikertzaileek egiten dituzten hautu teorikoekin batera oso garrantzitsua izaten da erabiliko den metodologia. Datuak eta gertakari linguistikoak azaltzeko teoria linguistikoetara jo behar da. Hemen Bermeorako Gamindek et al., ek (2012a) aldarrikatzen zuten ikuspuntu eklektiko berbera hartu da, hau da, teoria ez da xedea ezpada bitartekoa gure aztergaiak azaltzeko. Behin datuak eta gertakari linguistikoak deskribatu eta azaldu ondoren, hurrengo urratsa aurreikuspenak egitea litzateke. Aurreikuspenak egiteko esaten dugunean, esan nahi dugu horien bidez hizkuntzaren bilakaera eta nondik-norakoak susma ditzakegula aldagai sozialen arabera aztertzen baditugu, hau da, bariazio diastratikoaren esparruan. Honetarako matematikan eta estatistikan oinarritutako azterketek ezinbesteko laguntza emango digute.

Honela ulertuta, gure lan hau txertatzen da sistema konplexu dinamiko moldagarriak aztertzeko markoan, Léonard et al., (2015) euskararako proposatu eta urratzen hasitako ildoan, nahiz berau ez den proposamen bakarra (Beckner et al., 2011; Ellis, 2011; López Rivera, 2013; Moreno Cabrera, 2008; besteak beste). Alta, ez ditugu

aipatu barik utzi nahi gure ibilbidean susmatu ditugun arazo handi bi; bata, laginaren arazoa da eta, bestea, neurriarena.

Estatistikaren erabileran askotan aipatzen da lagina ausaz hartu beharra (Herrera et al., 2003; Díaz de Rada, 2009; Etxeberria, 2011; Murillo & Martínez-Garrido, 2012; Romero, 2016; besteak beste). Ez dugu ukatuko gure esparruan laginak honela hartzeko egon litekeen bideragarritasuna helburu zehatzagoak eduki ditzaketen lan batzuetan; gurean, berriz, lagina jasotzeko teknika ez da ausazkoa izan estratifikatua baizik. Eta honetaz ere, esan behar dugu informatzaileen parte hartzearen aldeko jarrerak zein jarrera ezak baldintzatu egiten dutela euron hautaketa. Hau da, informatzaileak aukeratu dira, baldintza batzuk beteta, prestutasuna eduki dutenen artean eta sarritan ez da aukera handirik egoten eta daudenekin pozik egon behar izaten da. Lagina horrela jasotzeak lanaren emaitzak baldintzatu ditu eta horrekin irakurlea ohartarazi behar dugulako gogorra daukagu.

Bestalde, neurriaren zehaztasunaren arazoa dugu. Esaten da ze (Gell-Man, 1994), objektu edo gertakari bat behatze hutsak objektuaren edo gertakariaren egoera aldarazten duela. Honi behatzailearen paradoxa esaten izan zaio (Labov, 1972) eta ekiditeko edo apaltzeko ahaleginak egin diren arren, ez dirudi guztiz ekidinezina denik (Gell-Man, 1994). Beraz, probabilitateen eremuan mugitzen gara eta horren ondorioz errakuntza marjina bat onartu beharra dago.

Hemen egiten ditugun analisien eta aurreikuspenen oinarrian erabili ditugun datuak gure informatzaileek eman dituztenak dira; datu horiek egoera, leku eta sasoi zehatzetan jaso dira eta horien isla ematen dute, hots, egia da Larrabetzukoak direna, baina, kasu!! Honek ez du esan nahi Larrabetzuko euskara % 100ean islatzen dutenik. Hau esanda, aprobetxatu behar dugu gure informatzaile guztiei, direnei eta honezkero ez direnei, gure eskerrik bihozkorrenak hemendik adierazteko, eman dizkiguten datuengatik ez eze, kuantifikatzen zailagoa den euren denboragatik, interesagatik eta atsegintasunagatik ere. Aztertzean eta aurreikuspenak egitean egin diren akatsak geure geureak dira.

Hau guztia gogotan, lehen atal hau lau azpiataletan banatuta aurkeztu dugu. Lehen azpiatalean hizkuntza aldakortasunaz arituko gara. Bigarren azpiatalean Larrabetzu herriaren ezaugarri orokor batzuk aurkeztuko dira eta baita bertako euskararen gainean egin diren erreferentzia bibliografiko batzuk ere. Hirugarren azpiatalean lana gauzatzeko eta corpusa osatzeko erabili dugun metodologia eta lana

bera aurkezteko hartu ditugun erabakiak emango ditugu. Azkenik, laugarren azpiatalean, lan osorako egin dugun banaketa aurkeztu eta azaldu ere egingo dugu.

1.1. Hizkuntza aldakortasunaz

Hizkuntzak aldatuz datozena ez da gauza berria. Aldatu ezak dakarkio heriotza hizkuntzari. Hizkuntzen aldakuntza, adaptazioa kameleoien aldatzeko gaitasunarekin aldera genezake. Hizkuntzek izaera dinamikoa baitaukate, aldatzekoa, kameleoiena bezalakoa, ingurura moldatzekoa, hiztunen ahoen arabera forma, itxura, hartzekoa.

Gerra-osteak, euskara hezkuntza formalean irakasten hasi izanak, euskara estandarrak, asfaltoak, hiztun zaharren erreferentziaren apurkako galerak, IKT berriek, komunikazio bide zabal-berriek, globalizazioak eta horien antzeko beste fenomeno batzuek daragite hizkuntzaren aldakortasunean. "All languages change through time. We do not really know why this is, but it is a characteristic of all human languages. They also change in different ways in different places" (Trudgill, 2003: 7).

Hizkuntzak, historian zehar aldatuz etorri dira, diakronian, baina baita sinkronian ere, zaharrentatik gazteenetarako ibilbidea eginez. Aldaketa linguistikoak hizkuntzaren alderdi guztietan gertatzen dira: fonetikan, fonologian, lexikoan, semantikan, morfologian, sintaxian, eta abarretan.

Hizkuntza aldakorra da. Edozein hiztunek daki bere hizkuntza ez dena uniforme, ez hizkuntza komunitatean, ez hizkera-komunitatean, ez eta bere jardunean ere. Ezagun da hizkuntza ez dena beti berdin erabiltzen. "Ahoskera, intonazioa, lexikoa eta egitura sintaktikoak aldatu egiten dira hiztunen ahotan. Gramatiketan eta hiztegiatan biltzen diren egiturak eta lexikoa aukeratu eta moldatu egiten dira hitz egitean" (Martínez, 2010: 69).

"Partimos de un principio general: la lengua es variable y se manifiesta de modo variable" (Moreno, 1999). "Es producto de las relaciones sociales, políticas e históricas que tienen sus hablantes. De ahí que las características regionales y sociales de los hablantes puedan intervenir como factores que afectan al uso de la lengua y, eventualmente, al cambio lingüístico". (Hualde, Olarrea, Escobar & Travis, 2009: 393).

Estandarraren eta euskalkien arteko hartu-emanetan bateratze mota bi daude: bateratze bertikalak eta horizontalak. Bertikalak, estandarraren eta aldaera desberdinen arteko ezaugarriek bat egitea adierazten du eta besteak, bateratze horizontalak, dialektoen arteko ezaugarriek bat egitea (Ezenarro, 2008).

Estandarraren eta dialektoen arteko ukipenak ondorio ezberdinak dauzka. Dialektoak urtuz joan daitezke, fusioa eginez eta estandarraren antza hartuz, estandarrari berdintzeko joera har baitezakete (advergence). Eta bestetik, estandarrak dialektoaren ezaugarriak har ditzake (destandardization); edota oreka puntua aurki dezakete (levelling) aurretik aipatutako bateratze maila bertikalek zein horizontalek (Auer, 1998; Santazilia, 2009; Ezenarro, 2008).

Aldakuntza hiru mailatan gertatzen da: maila diatopikoan, diastratikoan eta diafasikoan. Lehenengoa geografiaren arabera gertatzen diren hizkuntza aldaketei deritze. Bigarrenak, gizarte-aldagaien arabera aldaketak barnebiltzen ditu; azkenak, bariazio diafasikoak, hiztunak erregistroaren arabera egiten dituen hautuak biltzen ditu.

Hizkuntzan daragiten gizarte-aldagaiak lau dira: adina, generoa, gizarte-klasea eta ikasketa-maila (Gaminde, Romero & Legarra, 2012a). Lan honetan lehenengo biak baino ez ditugu aintzakotzat hartu.

Aldaketa linguistikoak eragile biren baldintzapean jazotzen dira: kanpotik datorren aldaketa da bata, mailegua; eta bestea hizkuntzaren barnean sortutakoa, analogia (Zarraga et al., 2010; Gaminde et al., 2012a).

Euskarak beste hizkuntza batzuekin bizi behar du, erdal hizkuntzekin, dela gaztelaniarekin, dela frantsesarekin. Erdal hizkuntzetako zantzuak euskarari topatzen ditugu zenbaitetan. Diaglosiaz eta diglosia terminoak jarduten du Aurrekoetxeak (2008). Diaglosiak aldaera estandarreko ezaugarriak aldaera dialektal ezberdinetan barruratzten eta nabarmentzen doazela adierazten du eta bestetik diglosiak, hizkuntzen barneko aldaera ezberdinen erabilera estratifikatua adierazten du (Coyos, 2010).

Orain artean aipatutako faktore eta eragileak hainbat izan dira, beraz, askotariko ikuspegietatik begira diezaiokigun gero, hizkuntza aldakortasuna ikergai dinamikoa eta konplexua da.

“Sociolinguistics is the science which deals with the relationship between language and society. It is therefore a very broad topic, encompassing the study of social dialects, language attitudes, stylistic variation, conversational interaction, multilingualism, language change, and much more” (Trudgill, 1984: 2).


Euskarari gagozkolarik, atzetik aurrerako begirada botata gurean egindako lanek eta ikerketek erreparatu, aldakortasunaren ikuspegitik egindako ekarpen gehienak maila diatopikoari dagozkienak izan dira gutxira arte, euskararen aldakortasun geografikoaren gainerakoak, alegia. Bonaparteren lanean hasita beste hainbat egin dira egunotaraino. Hala ere, aldakortasun soziolinguistikoarekiko interesa piztua da eta gero eta gehiago


dira ekarpenak eta argitalpenak gurean (Gaminde, 1998a, 2003, 2007a, 2010a; Gaminde & Romero, 2011; Gaminde, Romero & Legarra, 2012a; Aurrekoetxea, 1995, 2008, 2009; Ormaetxea, 2002, 2006; Pérez Landa, 2006; Garmendia, 2008; Iglesias 2015; Ensunza, 2015; Lujanbio, 2016).

1.2. Larrabetzu

Larrabetzuk 21,39 km²-ko azalera hartzen du eta Txorierrri haraneko ekialderengo herria da (1.1. irudia). Herriak 17 auzotegi dauzka Huriaraz gainera: Alaio (Aláyo), Astoreka (Astróka), Barrenetxe (Barrénetze), Basara (Basáras/Marúti), Belarrinaga (Bélarrene), Bersonaga (Bersóa), Erkinko (Erkínko), Galartza (Galártza), Gaztelu (Gastélu), Goikola (Goikóla), Goikoelexea (Goikólixalde/Élixalde), Legina (Legíne), Loroño (Lóroño), Sarrikolea (Sarrikóla), Ugalde (Úgelde), Zarandoa (Sarandóa) eta Zubitalde (Súbitalde). 1.2. irudian auzo horietako batzuen kokagunea ikus daiteke.

Biztanleria 2016. urtean 2057koa zen; esan behar da Larrabetzuko biztanleria haziz etorri dela azken urteotan. 2014 datuen arabera populazioaren % 73,5 euskaldunak izan dira eta azken kale neurketan euskararen erabilera % 55,2koa izan da.





1.2. irudia: Larrabetzuren zabalera eta auzoak.

Larrabetzuko euskararen gainean lan monografikorik ez dagoen arren, hainbat dira han hor hemen barreiatuta azken lau hamarkadetan agertzen diren erreferentziak eta materialak. Denak aipatu gura izan ezta, arloka sailkatzen baditugu, arlo askotan agertzen direla materialak ikus dezakegu: Fonologia segmentalean (Gaminde, 1993a, 1993b; Hualde & Gaminde, 1997); Prosodian (Gaminde, 1994, 1995a, 1997, 1998a, 2010a; Gaminde & Hualde, 1995; Gaminde et al., 2015; Hualde et al., 2002); Aditz morfologian (Gaminde, 1984, 1985, 1988a, 1988b, 1988c, 1991c; Yrizar 1981, 1992); Morfosintaxian (Gaminde, 1987a, 1987b, 1989b, 1990a, 1990b, 1990c, 1991a, 1991b, 1991d, 1992a, 1992b, 1992c, 1992d, 1995b; Gaminde et al., 2002); Testu etnografikoetan eta lexikoan (Gaminde, 1993c, 1998b, 1999, 2006a, 2007b; Gaminde et al., 2004, 2005; Zuazo & Goiti, 2016), Lan orokorrak (Gaminde, 2007a; Euskaltzaindia 2008tik gora) eta Aldakortasunean (Etxebarria et al., 2016; Gaminde et al., 2016a, 2016b).

1.3. *Corpusa eta metodologia*

Azpiatal honetan gure azterketa burutzeko jaso eta erabili dugun corpusa deskribatuko dugu eta baita zeintzuk izan diren oinarri metodologikoak. Horrenbestez, azpiatal hau hiru sekziotan banatuta aurkeztzen dugu; lehen sekzioan datuak jasotzeko metodologia aurkeztuko da, bigarrenean datuak prozesatzeko eta prestatzeko erabili dena eta hirugarrenean datuak aztertzeke metodologia.

1.3.1. *Datuak jasotzeko metodologia*

Sekzio honetan datuak jasotzeko erabili den metodologia orokorra aztertzean hiru alde hartuko dira kontuan: informatzaileak, inkesta sistema eta baliabide teknikoak.

Gure lan honen corpusa osatzeko datuak Larrabetzun jaiotako 52 informatzailearen laguntzarekin jaso dira. Azken inkesta guztiak 2015-2017 urte artean egin dira 44 informatzailearekin; haatik, lehenago urteetan zehar 8 informatzailearekin jasota eduki ditugun datuak ere erabili ahal izan dira; informatzaileok 1941 urtean baino lehenago jaiotakoak izan dira denak. Lan hau denbora aparente deritzon metodologian koka daiteke (Chambers & Trudgill 1994). Honen arabera, aldi berean belaunaldi batzuetako lekukoak datuak jasotzen dira, denbora tarte horretan gertatzen diren aldaketak aztertzeke. Horrela, adina aldagai garrantzitsua den edo ez azter daiteke. Informatzaileen adina aldagaiarekin batera, generoa aldagaiaren eragina ere aztertu nahi izan dugunez gero, hartu dugun laginean gizonezkoen eta andrazkoen ehunekoak orekatua izan da datuak aztertzean.

Informatzaileak lau belaunalditan banatu ditugu, belaunaldiak mugatzeko erabili dugun tarte 20 urtekoa izan da, 1.1. taulan belaunaldi banaketa eta bakoitzeko eduki dugun informatzaile kopurua euren generoaren arabera sailkatuta ematen dugu.

Belaunaldia	Urte tarteak	Andrazkoak	Gizonezkoak	Guztira
1	1921-1940	5	3	8
2	1941-1960	7	5	12
3	1961-1980	4	4	8
4	1981-2000	14	10	24

1.1. taula: Belaunaldiko eduki ditugun informatzaile kopuruak generoaren arabera banatuta.

Informatzaile guztiak¹ Larrabetzun jaiotakoak dira eta bertan bizi dira. Lehen hiru belaunaldietako informatzaile guztiak euskaldun zaharrak dira eta laugarren belaunaldiko 17 ere bai; hala ere, zazpigarren atalean landuko ditugun gaien corpus berezia osatzeko hiru informatzaile euskaldun berriak izan dira eta beste lau euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharrak izan dira, hots, euren ama hizkuntza euskara izan bada ere, ez dute jaso Larrabetzuko barietate tradizionalen bat (ikusi zazpigarren atalean honen gaineko xehetasunak).

Beraz, gure corpusean aldi bi bereiz daitezke; batetik, lehendik eginda eduki ditugun grabazioak, hauen bidez "0" belaunaldiaren datuak osatu ahal izan ditugu eta,

¹ Gure eskerrik beroenak hemendik Migel Angel Lekue "Txirri" informatzaile eta lankideari, bera arduratu da kontaktuak egiten eta azpiegitura topatzen. Bere laguntza barik nekez egin zitekeen behar hau.

bestetik, azken hiru urteotan lan hau osatzeko burutu ditugunak. Arteragoko grabazioen bidez aspektu batzuk landu nahi izan ziren, hala nola aditza, azentua, intonazioa, morfosintaxia eta lexikoa. Grabazio horietako lehenak 80. hamarkadan egin ziren eta gero, aldi berean interesen arabera, noizbehinka baten bat egiten izan da lan honi ekin arte.

Corpusa osatzeko era bitako datu bildumak egin dira. Alde batetik, eta edadeko informatzaileekin batez ere, testu gidatuen teknika erabili da; testu hauek jasotzeko gai etnografikoak erabili dira, adibidez umezaroa, landaretza, abelazkuntza, meteorologia, sineskerak, e.a. Lan honen alderdi batzuk landu ahal izateko 1.3. irudian erakusten den komikiaren istorioa jaso dugu hainbat informatzaileekin (hirugarren atalaren azterketak material hauen bidez burutu dira neurri handi batez). Berau lortzeko informatzaileei komikia erakusten zitzaizkion une labur batez istorioa ulertzeko eta jarraian kontatzeko eskatzen zitzaizkion; esan behar da edadeko informatzaileekin teknika honek ez duela oso ondo funtzionatzen, beharbada horrelako jarduerak egiteko ohituta ez daudelako.



1.3. irudia: Bat-bateko testua jasotzeko erabili den komikia.

Testu gidatuen teknikaren bidez eskuratutako informazio guztia osatzeko, 74 itemek osatutako inkesta bat ere erabili da, fonologiaren eta morfosintaxiaren alde batzuk lantzeko eta informatzaile guztien datuak orekatzeko. Lexikoaren bilakaera aztertzeko (seigarren atalean) inkesta bereziak erabili dira informatzaileen erantzunak kuantifikatu ahal izateko (hemen aurreko behar batzuetan hasitako ildo beretik segituko dugu, Gaminde et al., 2012a, 2016a).


Informazio gehiena audio hutsean jaso da, badaukagu ordu beteko bideo bat balio etnografiko handiko testuekin, baina kasu gehienetan audioa izan da jaso duguna. Audio seinalak jasotzeko erabili diren azken tresnak Sony Minidisc, Marantz PMD620 eta

ZOOMH4n izan dira. Grabazioen kalitatea bermatzeko kanpo mikrofonoak erabili dira kasu gehienetan eta zuzenean “wav” formatuan jaso dira.

1.3.2. Datuak prozesatzeko metodologia

Audio seinalearen azterketa egin ahal izateko aldi batzuk burutu dira: seinalaren etiketazioa, seinaleen transkripzioa eta informazioaren iraulketa.

Hiru aldi hauek gauzatzeko “Praat” izeneko programa erabili da (Boersma & Weenink 2016). Behin seinalean etiketak ipiniz gero, programa honen bidez transkripzioak egin dira soinua eta testua aldi berean alineatuta edukitzeko. Transkripzioak egin dira lau mailatan: fonologikoa talde prosodiko mailan, fonetikoa talde prosodiko mailan, fonetikoa silaba mailan eta fonetikoa soinu mailan (1.4. irudia).



1.4. irudia: Testu zati baten transkripzio eta etiketen adibideak.

Programa hau eta beronekin erabiltzeko dauden script batzuk erabilia informazioa irauli dugu beste programa batzuetan erabili ahal izateko.

Ahozko testuen transkripzio fonologikoa egiteko ezin erabil daitezke estandarrerako Euskaltzaindiak ematen dituen arau berberak eta honelakoetarako egin diren proposamen batzuk kontuan hartu ditugu (Txillardeggi, 1982; Aurrekoetxea, 1997) eta baita honelako lanak egiteko dagoen tradizio luzea ere.

Transkripzio fonetikoa egiteko *The International Phonetic Alphabet* - IPA (2005) erabili dugu [] artean adierazita. Hala ere, zehaztapen bat egin behar dugu: fonema frikariak eta afrikatuak adierazteko hainbat transkripzio sinbolo erabili direnez gero (Yarnoz, 2002), bateratasun gabezia horri aurre egiteko, guk honela irudikatuko ditugu: frikari albeolare ahoskabea [ɟ], afrikatu bizkar-albeolare ahoskabea [tʃ] eta sabaiaurreko afrikatu ahoskabea [tʃ]. Edozelan ere, bigarren atalaren hasieran erabili ditugun ikur guztiak ematen dira. Goranzko diptongoak adierazteko IPAk ematen ez dituen aukera batzuk adierazi behar izan ditugu, hala nola, [i] eta [ø] diptongoaren bokal ez silabikoa

adierazteko. Prosodiaren transkripzioa egiteko erabili ditugun ikurrak, dela etenak dela muga-tonuak adierazteko, hirugarren atalean azaltzen dira.

Arau fonologikoak irudikatzeko fonologia sortzailearen konbentzioak erabili ditugu (Txillardegi, 1982). Bide horretatik, aldaketa, txertaketa edota ezabaketa arauak adieraz ditzakegu. Horrela, 1.2. taulan adierazi bezala, aldaketa badugu, A elementua B berridatzi eta ahoskatu behar da X__Y ingurunean, hau da, bere ezkerretara X eta eskuinetara Y dituenean. Txertaketa badugu, A txertatu behar da X eta Y artean. Ezabaketa badugu, A ezabatu egin behar da X eta Y artean. Zilegi da X edo Y hutsik egotea.

$A \rightarrow B / X_Y$
$\emptyset \rightarrow A / X_Y$
$A \rightarrow \emptyset / X_Y$
1.2. taula: Aldaketa, txertaketa eta ezabaketa arauen irudikapena.

1.3.3. Datuak aztertze metodologia

Sekzio honetan audio seinaleen azterketa akustikoa eta estatistikoa egiteko erabili ditugun teknikak eta estatistikoak aurkeztuko ditugu.

Azterketa akustikoak egiteko gorago aipatu dugun “Praat” programa bera erabili dugu. Azterketa akustikoak esaldien intonazioan eta testuaren prosodian erabili ditugu batez ere. Erritmoaren metrikak aztertze (ikus hirugarren atala) “Correlatore” izeneko programa (Mairano, 2017) erabili dugu “Praaten” egindako transkripzioen moldaketekin batera.

Hiru eratako azterketa estatistikoak egin ditugu lan honetan: deskriptiboa, inferentziala eta informatzaileak sailkatzeko erabili duguna.

Estatistiko deskriptiboetan gehienetan batez bestekoak (\bar{x}), desbideratzea (sd), minimoa (min.), maximoa (max.) eta heina ematen ditugu, kasu kopuru osoa adierazteko “N” erabili dugu. Datu guztiak batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak direnean baino ez ditugu emango, hala ez denean batezbestekoak eurak emango ditugu bakarrik.

Arrazoizko eskalak erabili ditugunean, batez bestekoen erkaketak egiteko erabili ditugun proba parametrikokoak Studenten T eta ANOVA izan dira (Etxeberria, 2011), ANOVA erabili denean Tukey-ren post hoc proba erabili da taldeen arteko erlazioa aztertzeke. Proba bi hauek ezin erabil daitezkeenean (Pérez, 2008), orduan Mann-Whitney-ren U eta Kruskal Wallis-en H proba ez parametrikokoak erabili ditugu

(Etxeberria, 2011). Proba hauetan guztietan emaitzak esanguratsuak diren ala ez adieraztean erabili dugun “ α ” 0,05 izan da. Pearsonen korrelazioa ere kasu batzuetan erabili dugu.

Aldakortasuna aztertzeke erabili ditugun ezaugarriek aukera bat baino gehiago daukatenean, aukera bakoitzaren ehunekoak belaunaldien eta generoaren arabera hierarkikoki aurkeztzen dira. Hierarkia adierazteke “>” eta “=” ikurrak erabili ditugu.

Informatzaileak sailkatzeko era bitako teknikak erabili ditugu, multzokatze azterketa eta dimentsio aniztun eskala (Pérez, 2008). Lehenaren kasuan beti Ward-en multzokatze metodoa eta dintantzia euklidear karratua erabili ditugu. Bigarrenaren kasuan erabili den distantzia euklidearra izan da (Pérez, 2008).

1.4. Lanaren banaketa

Hemen aurkeztzen dugun lan hau zortzi atalek osatzen dute. Hasiera orokor honen ostean sei atal nagusik lanaren gunea osatzen dute eta azken atalean ondorio orokorrak batzen ahaleginduko gara.

Bigarren atalean fonemak eta alofonoak aztertuko ditugu. Fonemen inbentarioa oinarritzat hartuta, fonemen eta alofonoen ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, euron frekuentziakin batera. Frekuentziak erabiliko ditugu informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren araberrako aldeak aztertzeke. Azkenik, arau fonologikoen emaitzak aztertuta, fonologia segmentalaren bilakaera aztertuko da.

Hirugarren atalaren hasieran silaba motez eta euron iraupenez jardungo dugu, gero azentuaz, oinarritzko esaldien intinazioaz eta testuen prosodiaz jarduteko. Atal honetako hautu teorikoak eta xehetasun metodologikoak atalean bertan azaltzen dira.

Morfologia arloa atal bitan banatuta aurkeztzen dugu; laugarren atalean izen morfologia aurkeztzen da eta bosgarrenean aditz morfologia.

Seigarren atala lexiko arloko aldakortasunari dagokio, atal honetan era bitako azterketak aurkeztzen dira; batetik, gai zehatz batzuen hitzen bilakaera ikertzen da eta, bestetik, bat-bateko testu baten lexikoa oinarritzat hartuta informatzaileen aberastasun lexikoaren indizeak hartu dira oinarritzat.

Gerorantz izeneko zazpigarren atalean informatzaile gazteen erabilerak aztertzen dira; atal honetan aldagai garrantzitsua da informatzaileen ama hizkuntza, izan ere, batzuek Larrabetzuko barietate tradizionalen bat eduki dute ama hizkuntzat, beste batzuek, euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zaharrek, barietate berriren bat jaso

dute eta beste batzuek gaztelania eduki dute ama hizkuntzatzat. Atal honetan aztertu diren ezaugarrien arabera hiztunen arteko homogenizazio prozesua zenbaterainokoa den agirian utzi nahi izan da.

Azkenik, zortzigarren atalean aurreko atal guztietan lortu ditugun ondorio nagusiak laburbiltzen dira eta etorkizunerako iradokizun batzuk plazaratzen dira.

2. Soinuak

Atal honetan Larrabetzuko euskararen fonemez eta alofonoez jardungo dugu. Gure helburua bikoitza da; alde batetik, fonemen eta alofonoen deskripzioekin batera euron agerpen maiztasunak eta arau fonologiko nagusiak aurkeztuko ditugu sailik sail, informatzaileen adina eta generoa aldagaitzat hartzen ditugula. Beste alde batetik, fonologiaren bilakaeraren azterketa ere aurkeztuko dugu azken atalean.

Barietate baten fonologia segmentala aztertzeko barietate horretan erabiltzen den inbentario fonologikoa abiapuntutzat hartzen da gero gertatzen diren arauak aztertzeko (Arretxe, 1994; Aranbarri, 1996; Errazti, 1994; Etxebarria, 1991; Gaminde, 1992a, 2007a; Gaminde et al., 2012a; Hualde et al., 1994; Ormaetxea, 2006; Uriarte, 1995; besteak beste). Larrabetzun erabiltzen den kontsonanteen inbentario fonologikoa 2.1. taulan agertzen dena da. Parentesien artean paratu ditugun fonema batzuk ez dituzte informatzaile guztiek erabiltzen. 2.1. taulan agertzen diren kontsonantez gain bost bokal ere erabiltzen dira: /i, e, a, o, u/.

	Ezpain	Ezp-Hortz	Hortz-Albe	Sabaia	Beloa
Herskariak	p b		t d	ʃ	k g
Sudurkariak	m		n	ɲ	
Frikariak		f	ɣ	(ʃ)	x
Afrikatuak			tʃ	tʃ	
Dardarkariak			r-f		
Albokariak			l	(ʎ)	

2.1. taula: Larrabetzuko kontsonanteen inbentario fonologikoa.

Atala zortzi azpiataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen azpiatalean bokalak aztertuko ditugu, bigarreanean herskariak, hirugarreanean sudurkariak, laugarreanean frikariak, bosgarreanean afrikatuak, seigarreanean dardarkariak, zazpigarreanean albokariak eta, azkenik, zortzigarreanean fonologiaren bilakaeraz jardungo dugu.

2.1. Bokalak

Corpuseko bokalak 4195 izan dira (corpus osoaren % 50,76). Bokal bakoitzaren arabera honako kopuruak eta ehunekoak dauzkagu: /a/ 1530 (% 18,51); /e/ 1176 (% 14,23); /i/ 564 (% 6,82); /o/ 515 (% 6,23) eta /u/ 410 (% 4,96). Orokorrean informatzaileen batezbestekoa 50,92 da, desbideratzea 1,46, minimoa 46,52 da, maximoa 54,31 eta heina 7,79 da. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (48,17), 2b (51,57), 3b (50,73) eta 4b (51,15), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (50,7) eta gizonezkoek (51,15), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/a/ bokala da maiztasunik handiena daukana; orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 18,64 da, desbideratzea 2,33, minimoa 13,51, maximoa 22,34 eta heina 8,83. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 2.2. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 9,313; p = 0,025$). Taulan ikusten den bezala, bokalaren batezbestekoa haziz datoz belaunaldi berrienekin. Generoaren arabera aldea, andrazkoek (19,32) eta gizonezkoek (17,91), ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	14,72	1,70	13,51	15,92	2,41
2	17,99	2,12	13,89	20,54	6,65
3	18,70	1,98	16,33	21,81	5,48
4	20,20	1,76	16,84	22,34	5,50

2.2. taula: /a/ bokalaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

/e/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 14,33 da, desbideratzea 2,01, minimoa 11,66, maximoa 22,86 eta heina 9,20. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b¹ (15,14), 2b (15,1), 3b (13,96) eta 4b (13,77), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (14,13) eta gizonezkoek (14,55), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/i/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 6,82 da, desbideratzea 1,53, minimoa 4,30, maximoa 10,49 eta heina 6,19. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (6,27), 2b (6,35), 3b (6,71) eta 4b (7,56), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (6,4) eta gizonezkoek (7,27), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

¹ Belaunaldiak adierazteko honako laburpenak erabiliko ditugu: 1. belaunaldia (1b), 2. belaunaldia (2b), 3. belaunaldia (3b) eta 4. belaunaldia (4b).

/o/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 6,10 da, desbideratzea 1,77, minimoa 1,60, maximoa 8,97 eta heina 7,37. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (6,26), 2b (6,56), 3b (6,1) eta 4b (5,63), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (6,02) eta gizonezkoek (6,2), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/u/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 5,02 da, desbideratzea 1,40, minimoa 3,05, maximoa 7,53 eta heina 4,48. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (5,79), 2b (5,57), 3b (5,27) eta 4b (4), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (4,83) eta gizonezkoek (5,23), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Bokaletan /i/, /o/ eta /u/ bokalek alofonoak dituzte, silabifikazio arauen eraginez bokal erdi bihur daitezke beheranzko diptongoetan [i], [o] eta [u], eta kontsonante erdi goranzko diptongoetan [i], [ö] eta [w]; /i/ halaber kontsonantizazio arauen eraginez [j] bihur daiteke.

/i/ren kasuan gehien erabiltzen den alofonia [i] da (% 84,93), [i] (% 12,06), [j] (% 2,48) eta gutxien [i] (% 0,53). /o/ren kasuan [o] alofonia % 90,87 kasutan erabiltzen da, [o] % 8,93 kasutan eta [ö] % 0,19 kasutan. Azkenik /u/ren alofonia banaketa honela gertatzen da: [u] % 53,90, [u] % 40,98 eta [w] % 5,12.

Euskararen barietate askotan gertatzen den moduan, Larrabetzun ere, bokal altuen osteko "a" asimilatu egiten da "e" bihurtuz. Prozesu hau (1) arauaren bidez adieraz dezakegu. Arauaren murriztapenak 2.8. azpiatalean ikusiko ditugu.

$$(1) \quad a > e / i, u (C_0) _$$

2.2. Herskariak

Herskariak serie bitan banatzen dira; ahostunak /b/, /d/ /j/ eta /g/ eta ahoskabeak /p/, /t/ eta /k/. Gure corpusean jaso ditugunak 2075 izan dira, corpus osoaren % 25,11. Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 25,11 da, desbideratzea 1,67, minimoa 22,22, maximoa 27,18 eta heina 4,96. 2.3. taulan kontsonante bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

	/p/	/t/	/k/	/b/	/d/	/j/	/g/
Kopurua	146	676	364	276	325	55	233
%	1,77	8,18	4,40	3,34	3,93	0,67	2,82

2.3. taula: Fonema herskarien kopuruak eta ehunekoak.

Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (23,28), 2b (25,59), 3b (25,08) eta 4b (25,12), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (25,65) eta gizonezkoek (24,53), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/p/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 1,80 da, desbideratzea 0,79, minimoa 0,31, maximoa 3,56 eta heina 3,25. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (2,12), 2b (1,27), 3b (1,84) eta 4b (2,2), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (1,8) eta gizonezkoek (1,81), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/t/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 8,27 da, desbideratzea 1,27, minimoa 5,73, maximoa 11,51 eta heina 5,78. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (8,17), 2b (8,27), 3b (8,53) eta 4b (7,98), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (8,39) eta gizonezkoek (8,13), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/k/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 4,27 da, desbideratzea 1,29, minimoa 1,61, maximoa 7,17 eta heina 5,56. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (4,13), 2b (3,85), 3b (4,47) eta 4b (4,52), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 2.4. taulako emaitzak lortzen dira; bertan agertzen den moduan, andrazkoek gehiagotan erabiltzen dute gizonezkoek baino; aldea estatistikoki esanguratsua da Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -2,281$, $p = 0,023$; andrazkoen batezbesteko heina 17,36 da eta gizonezkoen batezbesteko heina 10,38.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
andrazkoak	4,78	1,45	1,61	7,17	5,56
gizonezkoak	3,73	0,86	2,16	5,28	3,12

2.4. taula: /k/ herskariaren datuak informatzaileen generoaren arabera.

/b/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 3,25 da, desbideratzea 0,90, minimoa 1,52, maximoa 4,94 eta heina 3,42. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (3,74), 2b (3,63), 3b (2,85) eta 4b (3,2), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (3,32) eta gizonezkoek (3,19), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/d/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 4,00 da, desbideratzea 1,39, minimoa 0,28, maximoa 6,17 eta heina 5,89. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 2.5. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak

dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 9,290$; $p = 0,026$). Generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (3,73) eta gizonezkoek (4,28), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	2,82	0,11	2,74	2,90	0,16
2	5,07	0,80	4,02	5,91	1,89
3	3,70	1,20	1,63	5,38	2,75
4	3,55	1,68	0,28	6,17	5,89

2.5. taula: /d/ herskariaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

/j/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 0,71 da, desbideratzea 0,51, minimoa 0,00, maximoa 2,00 eta heina 2,00. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (0,32), 2b (0,89), 3b (0,7) eta 4b (0,64), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (0,82) eta gizonezkoek (0,59), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/g/ herskariaren ehunekoen batezbestekoa 2,81 da, desbideratzea 0,97, minimoa 0,79, maximoa 4,58 eta heina 3,79. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (1,99), 2b (2,61), 3b (2,99) eta 4b (3,01), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (2,82) eta gizonezkoek (2,8), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Alofonoen dagokienez, eskuarki [β], [ð] [j] eta [ɣ] baizik ez dira /b/, /d/ /j/ eta /g/ren alofonotzat jotzen. 2.6. taulan herskari ahostunen alofono bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak agertzen dira. Taulan ikus daitekeen bezala, aurreko herskariekin gehiago erabiltzen dira alofono herskariak eta atzeko herskariekin, berriz, hurbilkariak.

	/b/		/d/		/j/		/g/	
	[b]	[β]	[d]	[ð]	[j]	[j]	[g]	[ɣ]
Kopurua	135	141	192	133	27	28	57	176
%	48,91	51,09	59,08	40,92	49,09	50,91	24,46	75,54

2.6. taula: Herskari ahostunen alofonoen kopuruak eta ehunekoak.

[b], [d] eta [g] /p/, /t/ eta /k/ren alofonoak izan daitezke, bokalen arteko ingurunean. Honek ez du esan nahi ingurune honetan [b], [d] eta [g] alde batetik, eta [β], [ð] eta [ɣ] bestetik, kontrastiboak direnik. Corpusean bokalen artean ahostundu diren herskari ahoskabeak 125 izan dira (% 16,78). Ahoskabeen eta ahostunen ehunekoak erakusten dira 2.7. taulan; bertan ikus daitekeen moduan erdiko belaunaldietan gehiagotan ahostuntzen da gainerakoetan baino. Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 3) 12,171$; $p = 0,007$).

	1	2	3	4
Ahoskabea	83,56	79,91	79,49	90,41
Ahostuna	16,44	20,09	20,51	9,59

2.7. taula: Ahoskabeen eta ahostunen ehunekoak informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, 2.8. taulako emaitzak lortzen dira, bertan ikusten den bezala, gizonzkoen artean ehuneko handiagoa da andrazkoen artean baino, alde hau estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.: 1) 49,414$; $p = 0,000$).

	Andrazkoak	Gizonzkoak
Ahoskabea	91,55	72,10
Ahostuna	8,45	27,90

2.8. taula: Ahoskabeen eta ahostunen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

/p/ 16 aldiz (% 20,25) ahoskabetu da, /t/ 50 aldiz (% 10,53) eta /k/ 59 (% 32,60). /p/ren kasuan adinaren arabera gertatzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, generoaren arabekoak, ostera, bai ($X^2 = (a.m.: 1) 4,553$; $p = 0,033$), 2.9. taulan ikus daitekeen bezala, gizonzkoek ahostuntzeen ehuneko handiagoa daukate andrazkoek baino.

	Andrazkoak	Gizonzkoak
Ahoskabea	87,5	67,74
Ahostuna	12,5	32,26

2.9. taula: /p/ren ahostuntzeen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

/t/ren kasuan adinaren arabeko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak eta generoaren arabekoak bai ($X^2 = (a.m.: 1) 11,654$; $p = 0,001$), 2.10. taulan agertzen den bezala, gizonzkoek ahostuntzeen ehuneko handiagoa daukate andrazkoek baino.

	Andrazkoak	Gizonzkoak
Ahoskabea	93,68	83,98
Ahostuna	6,32	16,02

2.10. taula: /t/ren ahostuntzeen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

Azkenik, /k/ren kasuan adinaren arabera agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 3) 13,321$; $p = 0,004$), 2.11. taulan belaunaldi bakoitzeko ehunekoak erakusten dira,

	1	2	3	4
Ahoskabea	67,86	68,25	53,85	87,50
Ahostuna	32,14	31,75	46,15	12,50

2.11. taula: /k/ren ahostuntzeen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

Era berean, generoaren arabera agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 1) 42,768$; $p = 0,000$), 2.12. taulan agertzen den bezala, gizonzkoek ahostuntzeen ehuneko handiagoa daukate andrazkoek baino.

	Andrazkoak	Gizonzkoak
Ahoskabea	88,07	43,90
Ahostuna	11,93	56,10

2.12. taula: Ahoskabeen ahostuntzeen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

Herskarietara eragiten dieten arauak hainbat dira, asimilazioak eta galerrak nahastean agertzen zaizkigu ingurune zehatz batzuen arabera. Arauok gertatzen dira gehienbat berba amaierako herskariak, /t/ eta /k/, hurrengo berbaren hasierako kontsonante batekin topo egitean. Hainbat gauzapean aurkitzen ditugu; gauzape horiek arau fonologiko eta euren murriztapenen emaitzak dira (azalpen linguistiko zehatzagoetarako Gaminde 2007a eta Gaminde et. al., 2012a ikus daitezke). Batzuetan amaierako gunean dagoen herskariak bere ahoskabetasuna hurrengo herskariari kutsatu diezaiokie eta gero bera gal daiteke (2).

(2) estakit ba > esdakit pa > estaki pa

Herskari bilkura sintagmen artean gertatzen denean, amaierako ahoskabea ahostun bihurtu daiteke (3).

(3) gisonak basoan > gisonag basoan

Azkenik, elkartzen diren kontsonanteak berberak direnean, bat baino ez da ahoskatzen degeminazio arau batek eraginda (4).

(4) estekot trapurik > esteko trapurik

2.3. Sudurkariak

Jaso ditugun sudurkariak 715 izan dira (corpus osoaren % 8,65) Orokorrean ehuneko batezbestekoa 8,59 da, desbideratzea 1,54, minimoa 6,22, maximoa 11,94 eta heina 5,72. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (11,09), 2b (8,67), 3b (8,29)

eta 4b (8,21), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (8,72) eta gizonezkoek (8,45), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/m/ sudurkariaren ehuneko batezbestekoa 1,52 da, desbideratzea 0,64, minimoa 0,25, maximoa 2,76 eta heina 2,51. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (0,61), 2b (1,87), 3b (1,51) eta 4b (1,4), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (1,52) eta gizonezkoek (1,52) batezbesteko bera daukatela ikusten dugu.

/n/ sudurkariaren ehuneko batezbestekoa 7,07 da, desbideratzea 1,74, minimoa 4,00, maximoa 11,69 eta heina 7,69. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (10,48), 2b (6,8), 3b (6,79) eta 4b (6,81), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (7,2) eta gizonezkoek (6,93), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/n/ da alofono gehien daukan fonema, izan ere, ondoko kontsonantearen ahoskunea bereganatzen du. 2.13. taulan corpusean agertzen izan zaizkigun alofonoak eta ehunekoak ematen ditugu.

	[m]	[ŋ]	[ɲ]	[ɳ]	[n]	[nʲ]	[p]	[ɸ]	[s]
Kop.	46	1	141	15	324	22	15	28	1
%	7,76	0,17	23,78	2,53	54,64	3,71	2,53	4,72	0,17

2.13. taula: /n/ sudurkariaren alofonoen kopuruak eta ehunekoak.

Sudurkarietara eragiten dieten arauetan palatalizazioa, galera eta degeminazioa aipatuko ditugu jarraian. “n” edozein “i”ren ondoan, bokala izan zein bokalerdia izan, palataliza daiteke (5) arauaren arabera; arau hau ez da guztiz automatikoa informatzaile guztientzat.

$$(5) \quad n > \text{ɲ} / i, i_$$

“n” galdu daiteke aditzetan laguntzailea albokari batekin hasten denean (6): “*esalei*” (esan liteke). Galera degeminazioz ere gertatzen da partizipioa “n”z amaitu denean eta laguntzailearen lehen kontsonantea “n” denean: “*egonas*” (egon naiz), “*yoanas*” (joan naiz). Azken hau (7) arauaren bidez adieraz dezakegu.

$$(6) \quad n > \emptyset / _l [+laguntzailea]$$

$$(7) \quad n > \emptyset / _n [+laguntzailea]$$

2.4. Frikariak

Frikarietan lau fonema daukagu: /f/, /s/, /ʃ/ eta /x/. Corpusean jaso ditugunak 468 izan dira (corpus osoaren % 5,66). Ehunekorik altuena daukana /s/ da (438, % 5,30); /f/ (18, % 0,22), /ʃ/ (3, % 0,04) eta /x/ (9, % 0,11), berriz, oso kasu gutxitan agertzen dira. Orokorrean ehuneko batezbestekoa 5,61 da, desbideratzea 1,26, minimoa 2,75, maximoa 9,16 eta heina 6,41. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (6,01), 2b (4,93), 3b (5,8) eta 4b (5,99), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (5,51) eta gizonezkoek (5,72), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Frikarien alofonoetara dagokienez, /s/ baino ez dauzkala esan behar dugu. Hiru alofono agertzen zaizkigu: [s] bera, [z] zenbaitetan (% 5,02 gure corpusean), kontsonante ahostunaren aurrean gertatzen dena, eta [ʃ] “i”ren ostean ager daitekeena palatalizazio arau batek eraginda (% 3,20). Ahostunaren araua (8) izan daiteke eta sabaikariarena (9).

$$(8) \quad s > z / _ C [+ahostuna]$$

$$(9) \quad s > ʃ / i, i_$$

2.5. Afrikatuak

Fonema afrikatu bi daukagu bata hobikaria /tʃ/ eta bestea sabaikaria edo sabai aurrekoa /tʃ/. Beste lan batean adierazi dugun bezala (Gaminde et al., 2015), gazteek bien arteko berizkuntza galdu dute bokalen arteko gunean. Denetara corpusean 73 kasu agertu dira (corpus osoaren % 0,88). /tʃ/ da gehien erabiltzen dena 51 kasu (corpus osoaren % 0,62) eta /tʃ/ 22 kasutan baino ez zaigu agertu (corpus osoaren % 0,27). Orokorrean ehuneko batezbestekoa 0,83 da, desbideratzea 0,60, minimoa 0,00, maximoa 2,24 eta heina 2,24. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 2.14. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 10,739; p = 0,013$). Informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, andrazkoek (0,73) eta gizonezkoek (0,94), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	2,00	0,35	1,74	2,24	0,50
2	0,71	0,35	0,39	1,31	0,92
3	1,06	0,55	0,47	2,04	1,57
4	0,40	0,40	0,00	1,02	1,02

2.14. taula: Afrikatuaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

/tʃ/ afrikatuaren ehunekoaren batezbestekoa 0,57 da, desbideratzea 0,46, minimoa 0, maximoa 1,74 eta heina 1,74. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (1,36), 2b (0,49), 3b (0,62) eta 4b (0,4), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (0,44) eta gizonezkoek (0,72), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/tʃ/ afrikatuaren ehunekoaren batezbestekoa 0,26 da, desbideratzea 0,37, minimoa 0, maximoa 1,57 eta heina 1,57. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 2.15. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 10,407$; $p = 0,015$). Generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (0,29) eta gizonezkoek (0,23), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	0,63	0,19	0,50	0,77	0,27
2	0,22	0,25	0,00	0,53	0,53
3	0,44	0,51	0,00	1,57	1,57
4	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

2.15. taula: /tʃ/ afrikatuaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

Afrikatuaren arauai dagokienez, esan behar dugu eurak kontsonante baten aurrean frikari bihurtzen direla (10) talde klitikoan gertatzen denean.

(10) Afri > frika / __ C

2.6. Dardarkariak

Fonema dardarkariak bi dira: /r/ eta /r̄/. Corpusean jaso ditugunak 610 izan dira (corpus osoaren % 7,38). Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 7,52koa da, desbideratzea 1,10, minimoa 5,79, maximoa 9,68 eta heina 3,89. 2.16. taulan kontsonante bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

	/r/	/r̄/
kopurua	301	309
%	3,64	3,74

2.16. taula: Dardarkarien kopuruak eta ehunekoak.

/r/ dardarkariaren ehunekoaren batezbestekoa 3,73 da, desbideratzea 1,02, minimoa 0,94, maximoa 5,33 eta heina 3,73. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (3,67), 2b (3,97), 3b (3,17) eta 4b (4,13), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (3,68) eta gizonezkoek (3,78), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

/r/ dardarkariaren ehunekoaren batezbestekoa 3,79 da, desbideratzea 0,91, minimoa 1,93, maximoa 5,50 eta heina 3,57. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (3,21), 2b (3,2), 3b (4,32) eta 4b (3,93), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (3,84) eta gizonezkoek (3,74), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Dardarkari bakunaren alofonoak aztertzeko Gaminde et al.en (2016c) lanari jarraituko diogu. Horren arabera corpusean sei alofono agertu zaizkigu, bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak 2.17. taulan erakusten dira.

	[r]	[ɹ]	[ɹ̄]	[r̄]	[r̄̄]	[ɹ̄̄]
kopurua	68	201	19	3	7	3
%	22,59	66,78	6,31	1,00	2,33	1,00

2.17. taula: Dardarkari bakunaren alofonoen kopuruak eta ehunekoak.

[r] alofonoaren kasuan hertsigune bat gertatzen da, [ɹ] hurbilkariaren kasuan hertsigunerik ez da gertatzen eta aldameneko bokalen formakinek kontsonantea zeharkatzen dute alderik alde, [ɹ̄] aurrekoaren antzekoa da baina beronek zarata edukitzen du goiko maiztasunetan, [r̄̄] alofonoaren kasuan hertsigunearen amaieran formakinak agertzen dira, [r̄̄̄] kasuan formakinekin batera zarata ere agertzen da, azkenik, [ɹ̄̄̄] alofonoaren kasuan formakinak agertzen dira hertsigunearen hasieran eta zarata hertsigunearen amaieran.

Dardarkari anizkunaren alofonoak bokalen arteko egonguneetan baino ez ditugu aztertu. Egongune horretan lau alofono agertu zaizkigu; [r2] alofonoan hertsigune bi erabiltzen dira, [r3] alofonoaren kasuan hertsiguneak hiru dira, [r̄̄]ren kasuan hertsigune bakarra egiten da eta beronen ondoren formakinen trantsizio gune bat, azkenik, [r̄̄̄]ren kasuan formakinen trantsizio gunean zarata ere agertzen da. 2.18. taulan alofono bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak ematen dira.

	[r2]	[r3]	[r̄̄]	[r̄̄̄]
kopurua	54	6	18	5
%	65,06	7,23	21,69	6,02

2.18. taula: Dardarkari anizkunaren alofonoen kopuruak eta ehunekoak.

2.7. Albokariak

Albokariak kontsonanterik urrienak dira (128, % 1,55). Erabili dugun corpusean fonema albokari bi agertu zaizkigu /l/ (126, % 1,52) eta /ʎ/ (2, % 0,02). Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 1,43 da, desbideratzea 1,21, minimoa 0, maximoa 5,56 eta heina 5,56. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (2,61), 2b (1,36), 3b (1,54) eta 4b (1,07), agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (1,18) eta gizonetzkoek (1,7), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Larrabetzun ez da palatalizazio automatikorik gertatzen eta /l/ eta /ʎ/ fonematzat hartu behar dira. /l/ren alofonoak gertatzen dira horzkarien [ll], laminarren [ll] eta sabai aurrekoen [l̪] aurrean. Gure corpusean [l̪] ez da behin ere agertu eta beste bien ehunekoak oso urriak dira; 2.19. taulan corpuseko alofonoen kopuruak eta ehunekoak ematen ditugu.

	[l̪]	[ll]	[ll]
kopurua	106	16	4
%	84,13	12,70	3,17

2.19. taula: Albokariaren alofonoen kopuruak eta ehunekoak.

2.8. Fonologia segmentalaren bilakaera

Azpiatal honetan fonologia segmentalaren bilakaeraz jardungo dugu. Azterketa egin ahal izateko ezaugarri batzuk aztertu ditugu gerra ostean jaiotako 24 informatzaileekin. Helburu hori betetzeko fonemen inbentarioan agertzen diren aldaketa batzuk aztertu ditugu eta baita arau fonologikoen aplikazioan susmatu ditugun aldaketa batzuk ere.

Fonemen inbentarioari dagokionez, “tx” eta “tz” bokalen artean bereizkuntza egitea eta albokari sabaikaria erabiltzea edo ez aztertuko ditugu. Bestalde, aukeratu ditugun arau fonologikoak bost multzotan banatuta aurkeztuko ditugu.

Lehen multzoan “n”, “l” eta “s” kontsonanteen palatalizazioari dagokion arauen aplikazioak ikusiko ditugu; arauak (1), (2) eta (3) dira.

(1) $n > \eta / i, i _$

(2) $l > \lambda / i, i _$

(3) $\xi > f / i, i _$

Bigarren multzoan “a” bokalaren asimilazioari dagokiona sartu dugu. Larrabetzun (4) arauaren arabera “a” “e” bihurtzen da aurreko bokala altua denean.

(4) $a > e / i, u (C_0) _$

Gauza jakina da hitz konposatuen osagaien artean arau hau ez dena aplikatzen eta morfema batzuek onartzen dutena arauaren aplikazioa eta beste batzuek ez. Hemen aukeratu ditugun aplikazio eremuak batzuk izan dira. Batetik “nas” eta “da” aditz laguntzaile klitikoak aukeratu ditugu; bestetik, deklinabidearen “ra” eta “gas” morfemak eta, azkenik, “la” eta “ta”. Gerra aurreko informatzaileek kasu guztietan araua aplikatzen izan dute (5).

- (5)
- “asi nes yaten” - (hasi naiz jaten)
 - “emetik ibili de” - (hemendik ibili da)
 - “errire” - (herrira)
 - “niges” - (nigaz, nirekin)
 - “entzun dot in dosule” - (entzun dut egin duzula)
 - “entzunde” - (entzunda)

Hirugarren multzoan “ez” aditzondoa aditz laguntzailearekin edo trinkoarekin batera agertzen denean gertatzen diren arau batzuk bildu ditugu (6).

- (6)
- es + g
 - es + d
 - es + b
 - es + n

Laugarren multzoan “eu” amaiera daukaten partizipioekin gertatzen diren arauak aztertzen dira. Gaztelaniaz “-ar” amaitutako aditz partizipioak mailegatzean, mendebaldeko euskarari hiru aukera agertzen dira (Gaminde: 2007a): “au” (*amatau*), “eu” (*amateu*) eta “á” (*amata*); hau da multzo honetan aztertuko dugun lehen araua. Partizipioa laguntzailearen aurrean agertzen denean, “eu” diptongoa “e” bihurtzen da. Azkenik, “ta” morfemarekin batera “amateta” eta “amateute” erabiltzen direnez gero, berau da aztertuko dugun hirugarren araua.

Bosgarren multzoan herskari bilkuretan gertatzen diren arauak batu ditugu. Atal honetan amaierako “k” eta “t” ondorengo “d”z eta “b”z hasitako klitiko batzuekin elkartzean gertatzen diren emaitzak aztertzen dira batetik, eta bestetik, sintagma biren

“t” eta “d” elkartzean gertatzen dena ere aztertzen da. Inguruneak (7) zerrendan agertzen dira.

- (7) “lagunek dire” – (lagunak dira)
 “suk baño” – (zuk baino)
 “orrek be” – (horiek ere)
 “bat dau” – (bat dago)
 “estekot dirurik” – (ez daukat dirurik)

Datuak jasotzeko metodo bi erabili dira; batetik, beren beregi prestatutako galdekizun bat egin da 23 galderarekin eta, bestetik, komiki baten bidez jasotako testu gidatu baten emaitzak ere erabili dira. Gure azterketa burutu ahal izateko 24 informatzaile eduki ditugu, hiru belaunalditan banatuta eta belaunaldi bakoitzeko lau gizonezko eta lau andrazko.

Datuen azterketa linguistikoa egitean galdera bakoitzaren tasunak definitu dira geroagoko azterketa kuantitatiboa egin ahal izateko. Azkenik, azterketa kuantitatiboan, behin tasunen hedadura finkatuz gero, SPSS programaren bidez estatistiko batzuk erabili ahal izan dira. Datuak gutxi direnez gero, datuetan ager daitezkeen balizko aldeak estatistikoki esanguratsuak diren ala ez erabakitzeke Mann-Whitney U proba ez parametrikoa eta khi karratua erabili dira eta informatzaileen artean egon daitezkeen multzoak agirian uzteko Multzokatze hierarkikoa deritzon estatistikoa erabili da.

1. galdera bokalen arteko afrikatu sabaikari eta albeolarren arteko bereizkuntzari dagokio. Bereizkuntzari eusten dioten informatzaileek (7)ko pareak argi eta garbi bereizten dituzte.

- (7) “*gatxa*” (gaitza, zaila) - “*gatza*”
 “*apatxa*” (ganaduarena) - “*apatza*” (biguna)
 “*atxa*” (haitza) – “*atza*” (hatsa)

Informatzaile gazteagoen artean hitz hauetako batzuk galdu direnez gero, badirudi lexikoa galdu den heinean soinuaren arteko bereizkuntza ere galdu dela. Horrela bada, gaurko informatzaile batzuek “*gatxa*” eta “*gatza*” biak afrikatu hobikariz egiten dituzte. Une honetan gazteenek sabaikaria hitz hasieran erabiltzen dute eta hobikaria bokalen artean; beraz, biak banaketa osagarrian agertzen dira. Beste barietate batzuetan ez bezala (Gaminde, 2010a; Gaminde et al., 2012a, Iglesias et al., 2016), generoak ez dauka eraginik banaketan.

Afrikatu biak bereizteko akustikoki erabiltzen diren irizpide guztietan garrantzitsuenak grabitate zentroan eta une herskari eta frikariaren iraupenean dauden aldeak izaten dira (Gaminde et al, 2012a; Gandarias et al., 2014). Bereizkuntzari eusten dion informatzaile baten datuak aztertuta gauza bera ikusten dugu; sabaikariak grabitate zentroa baxuagoa dauka (5165 Hz.) hobikariak baino (8617 Hz.). Afrikatuen une bakoitzaren iraupeneko aldeari dagokionez, 123 ms.ko iraupena daukaten afrikatu biak aztertuta, ikusten dugu sabaikariaren une herskariaren iraupena 72 ms.koa dela eta hobikariarena 56 ms.koa; haatik, sabaikariaren une frikariaren iraupena 51 ms.koa da eta hobikariarena 67 ms.koa.

Bokalen artean afrikatu biak bereizten dituztenak 16 informatzaile dira (% 66,67) eta bereizten ez dituztenak 8 (% 33,33). Datuak belaunaldien arabera aztertuta, lehen belaunaldian bereizkuntzari eusten diote % 100ean, bigarren belaunaldian % 62,5ean eta 3. belaunaldian % 37,5ean; ikusten den bezala, zenbat eta gazteagoak izan orduan gutxiago eusten zaio bereizkuntzari. Aldea estatistikoki esanguratsua da (X^2 (a.m.2; N= 24) 7,125. $p < 0,028$). Generoaren arabera aztertuta ez dago ezelako alderik, izan ere, gizonezkoetan 8k eusten diote bereizkuntzari eta andrazkoetan beste horrenbestek.

Bigarren galdera albokari sabaikariaren erabilerari dagokio, berau erabiltzen dute 12 informatzailek (% 50). Lehen belaunaldiko informatzaile guztiek eusten diote, bigarren belaunaldian hiruk baino ez diote eusten (% 37,5) eta hirugarren belaunaldian batek (% 12,5); beraz, esan dezakegu albokari sabaikariaren galera oso azkarra dela eta adinarekin estuki erlazionatuta dagoela (X^2 (a.m.2; N= 24) 13,000. $p < 0,003$). Andrazkoetan % 41,67k eusten dio bereizkuntzari eta gizonezkoetan % 58,33k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hirugarren galdera “n” sudurkariaren “i”ren osteko palatalizazioari dagokio; informatzaileen % 37,5ek ez dute palatalizatzen eta % 62,5ek bai. Lehen belaunaldiko informatzaileak dira gutxien palatalizatzen dutenak (% 37,5), beste belaunaldi bietan % 75ek palatalizazioa egiten dute; aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera gizonezkoetan % 41,67k ez dute palatalizatzen eta andrazkoetan % 33,33k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Laugarren galdera “l” albokariaren palatalizazioari dagokio. Hemen hiru aukera daude; batetik palatalizazioa bai edo ez egitea, egiten ez dutenak % 66,67 dira eta palatalizazioa egiten dutenen artean, albokaria erabiltzea (% 12,5) edo hurbilkaria erabiltzea (% 20,83). Lehen belaunaldian % 25ek baino ez dute palatalizatzen, bigarren

belaunaldian % 62,5ek eta hirugarren belaunaldian % 12,5ek; aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoari dagokionez, andrazkoen artean gehien erabiltzen dena hobikaria da % 58,33, gero hurbilkaria % 33,33 eta gutxien sabaikaria % 8,33. Gizonezkoetan gehien erabiltzen dena hobikaria da % 75, gero sabaikaria % 16,67 eta gutxien hurbilkaria % 8,33; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Bosgarren galdera “s” frikariaren “i”ren osteko palatalizazioari dagokio; informatzaileen % 54,17k ez dute palatalizatzen eta % 45,83k bai. Lehen belaunaldiko informatzaile guztiek palatalizatzen dute, bigarren belaunaldian % 25ek eta hirugarren belaunaldian % 12,5ek baino ez; ikusten denez, palatalizazioa adinarekin estuki erlazionatzen da (X^2 (a.m.2; N= 24) 14,434. $p < 0,002$). Generoaren arabera, gizonezkoetan % 50ek palatalizatzen dute eta andrazkoetan % 41,67k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Seigarren galdera “u” eta “i”ren osteko “a”ren asimilazioari dagokio “nas” aditz laguntzailearekin; ingurunea “*asi nas*” (hasi naiz) izan da. “e” egin duten informatzaileak % 20,83 izan dira. Lehen belaunaldiak % 50ek “a” egiten dute, bigarren belaunaldian % 100ek eta hirugarren belaunaldian % 87,5ek; aldea estatistikoki esanguratsua da (X^2 (a.m.2; N= 24) 6,568. $p < 0,038$). Generoari dagokionez, andrazkoen % 33,33k eta gizonezkoen % 8,33k egin dute; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Zazpigarren galdera “la” morfemaren “a”ren asimilazioari dagokio; informatzaileen % 79,17k egin dute asimilazioa eta % 20,83k ez. Lehen belaunaldian % 100ek egin dute asimilazioa, bigarren belaunaldian % 75ek eta hirugarrenean % 62,5ek; ikusten den moduan, zenbat eta gazteagoak izan orduan asimilazio gutxiago egiten da; aldea edozelan ere ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera, gizonezkoetan % 66,67k egin dute asimilazioa eta andrazkoetan % 91,67k, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Zortzigarren galdera “ra” adlatibo kasuaren “a”ren asimilazioari dagokio; kasu honetan informatzaile guztiek burutu dute asimilazioa.

Bederatzigarren galdera “ta” aditzondo morfemaren “a”ren asimilazioari dagokio; hemen ere, aurreko kasuan bezala, informatzaile guztiek egin dute asimilazioa.

Hamargarren galdera “gaz” morfema soziatiboaren “a”ren asimilazioari dagokio; informatzaileen % 45,83k egin dute asimilazioa. Lehen belaunaldian asimilazioa egin dute informatzaileen % 75ek, bigarren belaunaldian % 25ek eta hirugarrenean %

37,5ek, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoari dagokionez, gizonezkoetan % 33,33k egin dute eta andrazkoetan % 58,33k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hamaikagarren galdera “da” aditz laguntzailearen “a”ren asimilazioari dagokio; informatzaileen % 33,33k egin du asimilazioa. Lehen belaunaldian % 75ek egin dute asimilazioa, bigarren eta hirugarren belaunaldietan, berriz, % 12,5ek. Aldea estatistikoki esanguratsua da (X^2 (a.m.2; N= 24) 9,375. $p < 0,010$). Generoaren arabera, gizonezkoetan % 25k egin dute eta andrazkoen % 41,67k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hamabigarren galderan “es” aditzondoa “g”z hasten den adizki batekin batera ahoskatzean “g” ahoskabetzen den ala ez aztertzen da; informatzaileen % 62,5ek ahoskabetzea egiten dute. Informatzaileen belaunaldien arabera ez zaigu alderik agertu, belaunaldi guztietan % 62,5ek ahoskabetu du eta % 37,5ek ez. Generoaren arabera gizonezkoetan % 83,33k egiten dute eta andrazkoetan % 41,67k; aldea estatistikoki esanguratsua da (X^2 (a.m.1; N= 24) 4,444. $p < 0,036$).

Hamahirugarren galderan “es” aditzondoa “d”z hasten den adizki batekin batera ahoskatzean “d” ahoskabetzen den ala ez aztertzen da; informatzaileen % 95,83ek ahoskabetzea egiten dute. Ahostuna bigarren belaunaldiko informatzaile bakarrak egin du; aldea, jakina, ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera gizonezkoetan % 100ek egiten dute ahoskabea eta andrazkoetan % 91,67k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hamalagarren galderan “es” aditzondoa “ba” morfemarekin batera ahoskatzean “b” ahoskabetzen den ala ez aztertzen da; informatzaileen % 91,67k ahoskabetzea egiten dute. Ahostuna informatzaile bik baino ez dute egin, bata bigarren belaunaldikoa izan da eta bestea hirugarrenekoa, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera ez dago alderik, bai gizonezkoetan bai andrazkoetan % 91,67k egiten dute ahoskabetzea.

Hamabosgarren galderan “es” aditzondoa “n”z hasten den adizki batekin batera ahoskatzean “s” galtzen den ala ez aztertzen da; informatzaileen % 95,83k “s” galtzen dute. “s”ri hirugarren belaunaldiko informatzaile bakarrak eutsi dio. Generoaren arabera gizonezkoetan % 91,67k galtzen dute eta andrazkoetan % 100ek; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hamaseigarren galderan gaztelaniaz “ar” amaiera duten partizipioak mailegatzean “eu” edo “au” amaiera erabiltzen den aztertzen da. Informatzaileen %

95,83k “eu” erabili dute. “au” erabili duen informatzaile bakarra bigarren belaunaldiko andrazko bat izan da.

Hamazazpigarren galderan “eu” amaieradun partizipioak aditz laguntzaile batekin erabiltzen direnean “eu” “e” bihurtzen den ala ez aztertu nahi izan da. Informatzaile guztiek “e” erabili izan dute: “amate dot” – (amatatu dut).

Hamazortzigarren galderan “eu” amaieradun partizipioak “ta” aditzondo morfemarekin batera egitean “eu” “e” bihurtzen den ala ez aztertu nahi izan da. Informatzaileen % 95,83k “e” erabili dute. Lehen belaunaldiko andrazko bat izan da “eu” erabili duen informatzaile bakarra.

Hemeretzigarren galderan sintagma baten amaierako “k” ondoko adizki klitiko baten hasierako “d”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da. Aukera bi agertzen izan zaizkigu; batean, sintagmaren amaierako “k” galtzen da eta aditzaren hasierako “d” “t” bihurtzen da, bestean sintagmaren amaierako “k” “g” bihurtzen da eta aditzaren “d”ri bere horretan eusten zaio. Lehen aukera informatzaileen % 41,67k egiten dute. Lehen eta hirugarren belaunaldietako % 37,5ek “t” egiten dute eta bigarren belaunaldiko % 50ek; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera andrazkoen eta gizonezkoen % 41,67k “t” egiten dute.

Hogeigarren galderan sintagma baten amaierako “k” ondoko klitiko baten hasierako “b”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da. Kasu honetan hiru aukera agertu zaizkigu. Batean, sintagmaren “k” galtzen da eta klitikoaren “b” “p” bihurtzen da, aukera hau informatzaileen % 37,5ek egiten dute; belaunaldien arabera ez dago alderik. Generoaren arabera, gizonezkoetan % 33,33k egiten dute eta andrazkoetan % 41,67k. Bigarren aukeran sintagmaren “k” “g” bihurtzen da klitikoaren “b”ri eusten zaion artean, aukera hau informatzaileen % 41,67k egiten dute. Lehen eta bigarren belaunaldietako informatzaileen % 50ek egiten dute eta hirugarren belaunaldian % 25ek. Generoaren arabera ez dago gizonezkoen eta andrazkoen arteko alderik. Azkenik, hirugarren aukeran sintagmaren “k” galdu egiten da eta klitikoaren “b”ri eusten zaio; aukera hau informatzaileen % 20,83k egiten dute. Lehen eta bigarren belaunaldietan informatzaileen % 12,5ek egiten dute eta hirugarren belaunaldian % 37,5ek. Generoaren arabera, gizonezkoen % 25ek egiten dute eta andrazkoen % 16,67k.

Hogeita batgarren galderan sintagma baten amaierako “k” ondoko klitiko baten hasierako “b”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da. Aurreko galderaren ingurunea “suk baño” – (zuk baino) izan da eta oraingo honetan “orrek be” – (horiek ere) da. Kasu honetan lau aukera agertu zaizkigu. Lehen aukeran sintagmaren “k”

galtzen da eta klitikoaren “b” “p” bihurtzen da, aukera hau informatzaileen % 37,5ek egiten dute; lehen eta hirugarren belaunaldietan % 50ek egiten dute eta bigarren belaunaldian % 12,5ek. Generoaren arabera, gizonezkoetan % 25ek egiten dute eta andrazkoen % 50ek. Bigarren aukeran “sintagmaren “k” “g” bihurtzen da klitikoaren “b”ri eusten zaion artean, aukera hau informatzaileen % 54,17k egiten dute. Lehen belaunaldian % 50ek egiten dute, bigarren belaunaldian % 75ek eta hirugarrenean % 37,5ek. Generoaren arabera gizonezkoetan % 58,33k egiten dute eta andrazkoetan % 50ek. Hirugarren aukeran sintagmaren “k” galdu egiten da eta klitikoaren “b”ri eusten zaio; aukera hau informatzaileen % 4,17k egiten dute. Informatzaile bakarra da eta gazteen taldeko gizonezkoa da. Azkenik, laugarren aukeran sintagmaren amaierako “k”ri eta klitikoaren hasierako “b”ri eusten zaie; aukera hau bigarren belaunaldiko gizonezko batek egiten du (% 4,17).

Hogeita bigarren. galderan sintagma baten amaierako “t” klitiko baten hasierako “d”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da. Kasu honetan hiru aukera agertu zaizkigu. Batean sintagmaren “t” galtzen da eta klitikoaren “d” “t” bihurtzen da, aukera hau informatzaileen % 66,67k egiten dute; lehen belaunaldian informatzaileen % 87,5ek egiten dute, bigarren belaunaldian % 75ek eta hirugarrenean % 37,5ek. Generoaren arabera, gizonezkoetan % 58,33k egiten dute eta andrazkoetan % 75ek. Bigarren aukeran “sintagmaren “t” galtzen da eta aditzaren “d”ri eusten zaio; aukera hau informatzaileen % 29,17k egiten dute. Lehen belaunaldian % 12,5ek, bigarrean % 25ek eta hirugarrenean % 50ek. Generoaren arabera, gizonezkoen % 41,67k egiten dute eta andrazkoen % 16,67k. Azkenik, hirugarren aukeran ez dago ezelako aldaketarik; aukera hau gazteen taldeko andrazko batek egiten du (% 12,5).


Hogeita hirugarren galderan sintagmen arteko herskari bilkuren gauzapekak aztertu nahi dira. Beste lan batzuetan deskribatu denaren arabera (Gaminde, 1998c, 2007a), adizki baten amaierako “t” ondoko sintagma baten hasieran dagoen “d”rekin elkartzen denean, “t” galtzen da baina, “d” ez da hurbilkarizatzen. Gure Larrabetzuko informatzaileen artean honez gain badago beste aukera bat, alegia, amaierako “t”ri eta hasierako “d”ri eustea. Lehen aukera informatzaileen % 70,83k egiten dute. Lehen belaunaldian informatzaileen % 100ek “d” egiten dute, bigarren belaunaldian % 75ek eta hirugarrenean % 37,5ek; aldea estatistikoki esanguratsua da (X^2 (a.m.2; N= 24) 7,664, $p < 0,023$). Generoaren arabera, gizonezkoetan % 58,33k egiten dute eta andrazkoetan % 83,33k; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Datuen azterketa kuantitatiboa egiteko ikusi berri dugun galdera bakoitzaren azterketaren emaitzetan oinarrituko gara. Ikusi dugun bezala, galdera batzuek aukera bakarra daukate informatzaileen erantzunetan; beste batzuek aukera bi, hiru eta lau daukate. Galdera batek aukera bakarra daukanean berori izango da datu-matrizean erabiliko duguna, aukera bi daudenean eurretari bat agertuko da eta erabiltzen den tasuna informatzaileek erabiltzen dutenean 1 ezarriko da eta erabiltzen ez dutenean 0. Galderaren aukerak 3 eta 4 direnean, aukera bakoitzeko tasun bat sartuko da datu-matrizean.


Era honetara 23 galderek 33 tasun ematen dizkigute. Datu-matrizearen tasunak, informatzaileen erabileren arabera, 1 eta 0 zenbakien bidez beteko dira matrize dikotomikoa osatuz. Azkenean, informatzaile bakoitzaren erantzunek bektore bat osatuko dute. Azterketa kuantitatiboaren emaitzak aurkezteko sekzio honen sarreran aipatu ditugun sei galdera multzoak banan ikusiko ditugu, azkenean datu guztien emaitzak batera aztertzeke. Sei galdera multzoak honako hauek dira:

- (1) Inbentarioari dagozkion tasunak
- (2) Kontsonanteen palatalizazioak
- (3) "a"ren asimilazioa
- (4) "es" aditzondoaren arauak
- (5) Aditz partizipioen amaierako arauak
- (6) Herskari bilkurak

Lehen multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.1. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira². Bertan ikusten den bezala; A multzoan hirugarren belaunaldiko 9 informatzaile agertzen dira, gizonezko guztiak eta hiru andrazko; horrez gain, bigarren belaunaldiko andrazko guztiak agertzen dira eta gizonezko bat. B taldean lehen belaunaldiko informatzaile guztiak agertzen dira, bigarren belaunaldiko hiru gizonezko eta laugarren belaunaldiko andrazko bat. Khi karratu probaren arabera belaunaldien artean dagoen aldea estatistikoki esanguratsua da (χ^2 (a.m.2; N= 24) 13,000. $p < 0,003$). Generoaren arabeko aldea, berriz, ez da estatistikoki esanguratsua.




Bigarren multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.2. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira. Bertan ikusten den bezala, A multzoan lehen belaunaldiko 6 informatzaile, bigarren belaunaldiko 3 eta hirugarren belaunaldiko 7 kokatzen dira; aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera A taldean 9 gizonezko eta 7 andrazko agertzen dira eta B taldean 3 gizonezko eta 5 andrazko; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




² Multzokatze azterketa egiteko Ward metodoa erabili da distantzia euklidiar karratuarekin.


Hirugarren multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.3. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira. Bertan ikusten den bezala, A multzoan lehen belaunaldiko informatzaile bat, bigarren belaunaldiko 6 informatzaile eta hirugarreneko 5 agertzen dira; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.:2, N = 24) 7,000; p < 0,031$). Generoaren arabera A taldean 8 gizonezko eta 4 andrazko agertzen dira eta B taldean 4 gizonezko eta 8 andrazko; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




Laugarren multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.4. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira. Bertan ikusten den bezala, 9 informatzaile A multzoan kokatzen dira eta 15 B multzoan. A multzoan belaunaldi bakoitzeko hiru informatzaile agertzen zaizkigu, aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera A multzoan 7 andrazko eta 2 gizonezko kokatzen dira eta B multzoan 5 andrazko eta 10 gizonezko; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.:1, N = 24) 4,444; p < 0,036$).




Bosgarren multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.5. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira. Bertan ikusten den bezala, 22 informatzaile A multzoan kokatzen dira eta B multzoan informatzaile bi bata lehen belaunaldikoa eta bestea bigarren belaunaldikoa eta biak andrazkoak. Tasun hauek ez daukate balio sailkatzailearik eta aldea ez da estatistikoki esanguratsua ez belaunaldien arabera ez eta generoaren arabera ere.



Seigarren multzoko tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 2.6. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira. Bertan ikusten den bezala, A multzoan 13 informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 11. A multzoan lehen belaunaldiko 5 informatzaile eta bigarren eta hirugarren belaunaldietako beste launa agertzen zaizkigu; aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera, A multzoan 7 andrazko eta 6 gizonezko kokatzen dira eta B multzoan 5 andrazko eta 6 gizonezko; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.



Informatzaileak tasun guztien arabera multzokatuz gero, 2.7. irudiko dendograman erakusten diren multzoak lortzen dira. Multzo bakoitzeko 12 informatzaile kokatzen dira. A multzoan lehen belaunaldiko informatzaile guztiak, bigarren belaunaldiko hiru informatzaile eta hirugarren belaunaldiko bat kokatzen dira; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.:2, N = 24) 13,000; p < 0,003$). Generoaren arabera aztertuta A multzoan 5 andrazko kokatzen dira eta B multzoan 7; gizonezkoen kasuan alderantziz gertatzen da; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.



Egin berri ditugun azterketen emaitzak laburbilduta, lehenengo eta behin esan behar dugu ezen, multzokatze azterketaren ondorioz informatzaileak multzo nagusi bitan sailkatuta agertzen zaizkigula; multzokatze honetan adina da aldagairik garrantzitsuena, izan ere, lehen belaunaldiko informatzaile guztiak multzo berean agertzen dira. Genero aldagaia estatistikoki esanguratsua ez den arren, ikusten dugu bigarren belaunaldiko gizonezko gehienak lehen belaunaldiko informatzaileekin batera agertzen direla, honek esan gura du kontserbatzaileagoak direla andrazkoak baino.

Bestalde, espero zitekeen bezala, bigarren eta hirugarren belaunaldietako multzoak ez dira guztiz homogeneoak. Honek argi adierazten du aldaketak abiatzen direla belaunaldi batean eta hurrengoan orokortu egiten direla.

Generoari dagokionez, ikusi izan dugun bezala, tasun gehienetan faktore honek ez dauka eraginik multzoak egitean. Laugarren multzoko tasunetan baino ez da estatistikoki esanguratsua izan.

Azkenik, Bermeorako adierazi izan den bezala (Gaminde et al., 2012a), tasun guztiek ez daukate balio diskriminatzaile bera. Diskriminatzaileak diren tasunak 1., 2., 3. eta 6. multzokoak dira; 4. eta 5. multzoez ez daukate balio diskriminatzailerik. Bestalde, tasunak bakarka aztertuta, ikus dezakegu hiruk ez dutela ezer diskriminatzen eta beste hiru informatzaile bakarrak erabiltzen dituztela. Honen arabera argi agertzen da, gure ikerketa sasoiari aldaketa batzuk gertatzen hasiak izan direla, beste batzuk lehian daudela eta azkenik beste batzuk joera berritatzat jo behar direla.

3. Prosodiaz

Hizkuntza baten alde fonikoa deskribatzean, eskuarki, alde segmentala eta suprasegmentala bereizten dira. Alde segmentalean fonemak eta alofonoak aztertzen dira, bigarren atalean egin dugun moduan, eta alde suprasegmentalean kokatzen dira fonemen eta alofonoen gainera dauden ezaugarri guztiak, hala nola, azentua, intonazioa, erritmoa, melodia, abiadura, e.a. Alderdi hauek guztiak fonologikoki zein fonetikoki azter daitezke. Prosodia da generikoki honez guztiaz arduratzen den arloa.

Atal hau osatzeko aukeratu ditugun arloak silabak, azentua, oinarrizko esaldien intonazioa, talde prosodikoak, etenak, muga-tonuak, erritmoa eta abiadura izan dira. Azentua eta oinarrizko esaldien intonazioa lantzeko beren-beregi prestatutako galdekizunez baliatu gara, gainerako arloak lantzeko, berriz, testu askeetan oinarritu gara. Azentuaren eta esaldien intonazioaren aldakortasuna eta bilakaera aztertzeko gerra osteko belaunaldien datuak baino ez ditugu erabili; gainerakoetan lau belaunaldiren datuak erabili ditugu.

Silaben azpiatalean testuetan agertu zaizkigun silaba motak aztertu ditugu (euskaraz honez lan batzuk egin dira: Txillardeggi, 1984; Hualde, 1988, 2003; Artiagoitia, 1990; Jauregi, 2007) eta silaba mota baten iraupena, izan ere, lan batzuetan adierazi den moduan (Jauregi, 2007; Gaminde et al., 2012a), silabaren iraupenari kanpo faktoreek eragin diezaiokete eta.

Azentuaren arloan Larrabetzuko ereduaren deskripzio orokorarekin batera gertatzen diren aldaketa batzuk ere landuko dira.


Euskararen esaldien intonazioaren gaineko azterketetan gehien erabili den eredu metriko autosegmentala izan da (Elordieta, 1999, 2000, 2003; Gaminde, 2010a; Gaminde et al., 2012a; Jun eta Elordieta, 1997; Legarra, 2011; besteak beste). Eredu hau aplikatzeko ezinbestekoa da jakitea zein den silaba azentudunaren egongunea, izan ere, intonazioaren azentu tonudunak silaba azentudunekin ainguratzen dira. Euskal azentuaren konplexutasuna hain handia izanik (Hualde, 1997, 1999, 2006; Gaminde, 2007a, 2011), oso zaila izaten da barietate guztietako ereduaren deskripzio zehatzak edukitzea gero intonazioa deskribatu ahal izateko. Gure oraingo azterketa honetarako

nahiago izan dugu erabili esaldien f0ren azterketa fonetikoan oinarritzen den erudia (Gaminde & Gandarias, 2015).

Esaldiaren f0ren konfigurazioa aztertzean hiru atal nagusi bereiz ditzakegu; sintagma bakoitzaren gailur prosodikoa, esaldi osoaren gailur prosodikoaren kokapena eta esaldiaren azken silaban gertatzen den f0ren mugimendua. Behin esaldien osagaiak mugatuz gero, osagai bakoitzeko gailurra zein silabatan kokatzen den aztertu behar da. Jarraian esaldi osoaren gailur prosodikoa zein osagaian kokatzen den adierazten da. Azkenik esaldiaren azken silaban gertatzen den muga-tonua adierazi beharko genuke.

Orain arte egin diren lan batzuetan adierazi den moduan (Gaminde, 2007a, 2010a; Gaminde et al. 2014; Gaminde & Gandarias, 2015), esaldiaren amaierako silaban f0ren mugimendua aztertuta lau aukera agertzen zaizkigu. Batean f0ren apalaldia aurreko silabaren batean hasten da eta azken silaban zehar gertatzen da amaitu arte, berau L% muga-tonua izango litzateke. Beste kasu batzuetan, f0ak gorantz egiten du azken silabaren hasieratik amaitu arte, berau H% muga-tonua litzateke. Kasu batzuetan f0 mugimendua ez dira sinpleak izaten konposatuak baino; honelakoetan aukera bi dauzkagu, batean f0ak gorantz egiten du azken silabaren hasieran beherantz egiteko silaba berean, hau HL% muga-tonua da. Bestean, arteko silabaren batean hasitako beheranzko joerari eusten zaio azken silabaren hasieran silaba berean gorantz egiteko berriro, hau LH% muga-tonua da. Laburbilduz lau muga-tonuak ondoko era honetara defini ditzakegu (3.1. irudian grafikoki erakusten dira).

- (1) L %: Beheranzko norabidean egiten den tonua azken silaba osoan zehar.
- (2) LH%: Beheranzko-goranzko norabidean egiten den tonua.
- (3) H%: Goranzko norabidean egiten den tonua azken silaba osoan zehar.
- (4) HL%: Goranzko-beheranzko norabidean egiten den tonua.



Muga-tonu hauek berberak izango dira oinarritzko esaldiak aztertzean zein testuen muga-tonuak aztertzean.

Talde prosodikotzat hartzen dugu testu batean eten biren artean dagoen hizketa zatia (Gaminde, 2010a). Hemen landuko ditugu talde prosodikoaren luzera, euron silaba kopuruetan oinarrituta, eta euron iraupena.

Aurreko behar batzuetan iradoki den moduan (Gaminde 2004, 2006b, 2010a; Gaminde et al., 2012a, 2014), etenak isilune baten bidez egin daitezke edo isilunea egin barik. Horren arabera batzuk isilunedunak izango dira (%) eta beste batzuk hain bakoak (\$). Zenbaitetan kurba zatien arteko loturak egiteko edo pentsatzeko denbora hartzeko bokalak luzatu edo txertatu egiten dira isilunearen aurrean. Luzapenaren kasuan, luzatzen den bokala hainbat luzeagoa izaten da arrunten batezbestekoaren aldean. Txertaketa dugunean, azken silabaren bokal bera edo besteren bat –gehienetan /e/ bokala– txertatzen da. Orokorrean esanda, azken silaba bokalez amaitzen denean, berori luzatzea normalagoa da; azken silaba kontsonantez amaitzen denean, ostera, bokal txertaketa gauza daiteke. Isilunea egin gabe eta bokalak txertatu edo luzatu gabe egiten diren etenetan, kurbaren formaren berehalako aldaketak adierazi ohi du etena. Hortaz, txertaketa edo luzaketa hauek aurrekoekin konbinatuta lau aukera gertatzen dira:

- (a) + Isilunedun etenak / - bokal txertaketa edo luzapena (%)
- (b) + Isilunedun etenak / + bokal txertaketa edo luzapena (v%)
- (c) - Isilunedun etenak / - bokal txertaketa edo luzapena (\$)
- (d) - Isilunedun etenak / + bokal txertaketa edo luzapena (v\$)

Muga-tonuen atalean etenaldiekin batera agertu zaizkigunak landuko ditugu eta eurak sailkatuko dira oinarritzko esaldien intonazioan gorago adierazi dugun moduan.

Erritmoa hizketaren denbora egiturarekin lotuta agertzen zaigu. Patroi baten errepikapenak osatzen du erritmoa eta patroia hori ezinbesteko osagaia da pertzepzioan. Erritmoa hizkuntzaren berezko propietatea da. Erritmoa ikertzean kontsonanteen (C) eta bokalen (V) denboren proportzioak aztertzen dira kate mintzatuan; horrela bada patroia nagusiak agirian uzten dira.

Munduko hizkuntzak erritmoan errepikatzen diren patroien arabera hiru mota nagusitan banatzen dira (Toledo, 2010a): hizkuntza isosilabikoak, isoazentualak eta isomoraikoak. Hizkuntza isoazentualek silaba barietate handiagoa daukate.

Hizkuntza isosilabikoek bokalen proportzio handiagoa daukate isoazentualek baino, izan ere, hizkuntza isoazentualetan bokalen murrizketak gertatzen dira usuago

(van der Hulst et al., 2010); Hizkuntza isosilabikoetan testuinguru araberako bokal murrizketa moderatua baino ez da gertatzen (Toledo 2010a; Prieto eta Vanrell 2010). Bestalde, hizkuntza isoazentualetan silaba mota gehiago agertzen da besteetan baino; azentua eta silaben pisua lotuta agertzen da eta bokalak luzeagoak izaten dira (Ramus et al., 1999).

Gai hau aspaldion hainbat hizkuntzatan landu da (Ramus et al., 1999; Low et al., 2001; Grabe & Low 2002; Dellwo 2006; Toledo 2010a; besteak beste) eta euskaraz ere saioen bat egin da (Gaminde et al., 2012a, 2014).

Hizkuntzen ezaugarri erritmikoak aztertzeko metrika batzuk proposatu dira bokalen eta kontsonanteen proportzioak neurtzeko eta alderatzeko. Metrika horien helburua erritmoaren korrelato akustiko behagarriak lortzea izaten da indize zehatz batzuen bidez erritmoaren ezaugarriak azalaratzeko. Denetara lau metrika proposatu dira: (a) Ramus, 1999; Ramus et al., 1999; (b) Dellwo 2006; (c) Grabe eta Low, 2002 eta (d) Bertinetto eta Bertini, 2007, 2008.

(a) metrikari (Ramus et al., 1999) hiru indize erabiltzen dira; ΔV : bokal tarteen desbideratzea; ΔC : kontsonante tarteen desbideratzea eta %V: bokalen ehunekoa. Indize horien arabera hizkuntza isosilabikoetan emaitza txikiagoak lortzen dira ΔVn eta ΔCn isoazentualetan baino (Toledo, 2010b).

Hizketa abiadaren apaltzeko (b) metrika proposatu da (Dellwo, 2006), beronen indizeak varco-C eta varco-V izenekoak dira. Horretarako, ondoko formulen arabera, ΔVa edo ΔCa bider ehun egiten dira eta gero bokalen edo kontsonanteen iraupenen batez bestekoekin zatitzen dira:

$$\text{varco}\Delta C = \frac{\Delta C * 100}{\text{mean}C}; C = \text{duration of consonantal intervals}$$

Grabe-en eta Low-en (2002) (c) metrikari erabiltzen diren indizeak nPVI eta rPVI dira. Eurak kalkulatzeko ondoko formulak erabiltzen dira.

$$nPVI = 100 \times \left[\sum_{k=1}^{m-1} \left| \frac{d_k - d_{k+1}}{(d_k + d_{k+1})/2} \right| / (m-1) \right]$$

$$rPVI = \left[\sum_{k=1}^{m-1} |d_k - d_{k+1}| / (m-1) \right]$$

Azkenik, Bertinetto-k eta Bertini-k (2007, 2008) proposatutako metrikaren indizeak Veci eta Ccci dira. Eurok kalkulatzeko ondoko formula erabiltzen da:

$$CCI = \frac{100}{m-1} \sum_{k=1}^{m-1} \left| \frac{d_k}{n_k} - \frac{d_{k+1}}{n_{k+1}} \right|$$

Metrika bakoitzaren emaitzen interpretazioetan konbinazio asko daude (Toledo 1999, Gibbon & Gut 2002, Callier 2010, Prieto & Vanrell 2010), guk hemen orokorrenak baino ez ditugu erabiliko.

Indize hauek guztiak gure Larrabetzuko corpusean aplikatzeko 27 informatzaileen testuetan oinarrituko gara. Informatzaileetako 14 andrazkoak izan dira eta 13 gizonezkoak. Lehen belaunaldian informatzaile bi eduki ditugu, bigarreanean zortzi, hirugarrenean bederlatzi eta laugarrenean zortzi.

Kalkuluak eta grafikoak egin ahal izateko “Correlatore” izeneko programa erabili dugu (Mairano, 2017); programa honek “Praat” programak sorturiko testu artxiboak erabiltzen ditu eta sano errazten du kalkulu prozesu osoa.

Hizketa abiadatzat jotzen dugu tempoa, hau da, hiztunak daukan abiadura testua egitean. Tempo, erritmoa ez bezala, hiztunaren ezaugarri pertsonala da neurri batean eta testua gauzatzen den egoeraren baldintzen arabera izaten da. Horrela, hizkera abiada geldoa mezuari eman nahi zaion garrantziarekin edo tonu arranditsurekin lotzen da; haatik, hizkera bizia emozioekin, jarrekin edo urduri egotearekin lotu daiteke. Tempo oso ezaugarri garrantzitsua izan daiteke mezuaren esangura eta hiztunaren intentzio komunikatiboa aztertzeko.

Tempo, erritmoaren antzera, denboran egiten den soinu produkzioarekin lotuta dagoenez gero, denbora unitateko (segundoko gure kasuan) hiztunak egiten dituen silaba kopuruak kuantifikatuko ditugu. Era bitako azterketak egin daitezke (Gaminde 2010a); abiada orokorra eta artikulazio edo hizketa abiada. Abiada orokorra kuantifikatzeko testuaren denbora osoa kontuan edukiko genuke, hau da, etenaldien denbora kendu barik; artikulazio abiada kuantifikatzeko, berriz, etenaldien denbora kentzen da.

Atal hau zortzi azpiataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen azpiatalean silabez arduratuko gara, bigarreanean azentuaz, hirugarrenean oinarritzko esaldien intonazioaz, laugarrenean talde prosodikoez, bosgarrenean etenez, seigarrenean muga-tonuez, zapigarrenean erritmoaz eta zortzigarreanean abiaduraz. Azpiatal guztietan gertakari

deskripzioez gainera, informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera aldakortasuna ere aztertuko dira.


3.1. Silabak

Azpiatal honen helburua da Larrabetzun topa ditugun silaben aspektu batzuk aztertzea. Alde batetik, topatu ditugun silaba motez jardungo dugu eta bestetik silaba mota batzuen iraupenak aztertuko ditugu.

3.1.1. Silaba motak

Silabak oinarritzko hiru osagai dauzka: gunea, eta marjinetako hasiera eta koda. Hiru hauetatik Larrabetzun gunea baino ez da ezinbestekoa, beste biak aukeran daude.

Guneak segmenturik ozenena biltzen du, ozentasuna segmentuen propietate abstraktutzat hartzen da. Euskaraz gunean beti egoten da bokal bat (V) eta alboetan berriz kontsonanteak (C). C eta V konbinatuaz, silaben oinarritzko tipologia bat egin da: CVC, CV, VC eta V. Silaben azterketetan aurkitu diren asimetriak hobeto harrapatzeko, gunea eta koda biltzen dituen tarteko maila bat proposatu da. Maila hori errima da, orduan silabek 3.2. irudian erakusten den egitura hierarkikoa daukate.



Silabaren guneetan bokal soilak eta diptongoak egon daitezke. Corpus osoan denetara 3873 gune silabiko daukagu: eurotarik 3567 (% 92,10) bokalak dira eta 306 diptongoak (% 7,90).

Bokal soilen batezbestekoa 91,93 da, desbideratzea 2,47, minimoa 88,16, maximoa 96,75 eta heina 8,59. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (94,3), 2b (90,66), 3b (92,35) eta 4b (92,16), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki

esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (91,94) eta gizezkoek (91,93), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Diptongoen batezbestekoa 8,07 da, desbideratzea 2,45, minimoa 3,25, maximoa 11,84 eta heina 8,59. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (5,71), 2b (9,34), 3b (7,65) eta 4b (7,84), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (8,06) eta gizezkoek (8,07), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Diptongo gehienak beheranzkoak dira (237, % 77,45), goranzkoak askozaz urriagoak dira (69, % 22,55). Corpusean agertu zaizkigun beheranzko diptongoak 3.1. taulan agertzen dira euron kopuruekin eta ehunekoekin.

	"ai"	"ao"	"au"	"ei"	"eu"	"oi"	"ou"
Kopuruak	39	1	60	20	107	9	1
%	16,46	0,42	25,32	8,44	45,15	3,80	0,42

3.1. taula: Beheranzko diptongoen kopuruak eta ehunekoak.

Corpusean agertu zaizkigun goranzko diptongoen kopuruak eta ehunekoak dira 3.2. taulan erakusten direnak.

	"ia"	"ie"	"oa"	"wa"	"we"	"wi"
Kopuruak	2	1	46	3	13	4
%	2,90	1,45	66,67	4,35	18,84	5,80

3.2. taula: Goranzko diptongoen kopuruak eta ehunekoak.

Silaba hasierari dagokionez, eurak hutsak izan daitezke (753, % 19,44) edo beteak; beteetan hasiera bakunak (C) (3050, % 78,75) eta hasiera konplexuak (CC) (70, % 1,81) topa ditzakegu.

Hasiera hutsaren ehuneko batezbestekoa 19,52 da, desbideratzea 3,01, minimoa 13,79, maximoa 26,04 eta heina 12,25. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (16,5), 2b (17,89), 3b (20,45) eta 4b (20,88), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, baina belaunaldirik belaunaldi ehuneko batezbestekoa haziz doala ikus dezakegu. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (19,27) eta gizezkoek (19,8), aldea oso txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.

"C" hasieraren ehuneko batezbestekoa 78,59 da, desbideratzea 2,8, minimoa 72,48, maximoa 84,48 eta heina 12. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.3. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 8,040$; $p = 0,045$); ikusten den moduan, lehen eta bigarren belaunaldietan ehunekoak handiagoak dira hirugarren eta

laugarren belaunaldietan baino. Generoaren arabera aldea, andrazkoek (78,88) eta gizonezkoek (78,28), oso txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	80,64	0,27	80,45	80,83	0,38
2	80,54	2,28	77,47	84,48	7,01
3	77,19	2,96	72,48	81,82	9,34
4	77,71	2,61	72,92	80,37	7,45


3.3. taula: "C" hasieraren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

"CC" hasieraren ehunekoaren batezbestekoa 1,88 da, desbideratzea 1,10, minimoa 0,55, maximoa 4,47 eta heina 3,92. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (2,86), 2b (1,56), 3b (2,36) eta 4b (1,42), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (1,84) eta gizonezkoek (1,92), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Kodak, hasierak bezala, hutsak izan daitezke (2987, % 77,12) edo bakunak (C) (881, % 22,75) eta konplexuak (CC) (5, % 0,13). Koda hutsaren ehunekoaren batezbestekoa 77,53 da, desbideratzea 4,49, minimoa 68,72, maximoa 86,18 eta heina 17,46. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (72,28), 2b (80,16), 3b (77,37) eta 4b (76,39), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (76,88) eta gizonezkoek (78,23), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

"C" kodaren ehunekoaren batezbestekoa 22,36 da, desbideratzea 4,54, minimoa 13,82, maximoa 31,28 eta heina 17,46. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (27,31), 2b (19,84), 3b (22,52) eta 4b (23,46), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (22,97) eta gizonezkoek (21,7), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Informatzaileek eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta, multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 3.3. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 7 informatzaile kokatzen dira (% 25,93) eta B multzoan 20 (% 74,07). Informatzaileen belaunaldien arabera, A multzoan lehen belaunaldiko informatzaile bat (% 50), bigarren belaunaldiko beste bat (% 12,5), hirugarren belaunaldiko hiru (% 33,33) eta laugarren belaunaldiko bi (% 25) kokatzen dira. Banaketa honetan agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoari dagokionez, A multzoan 4 andrazko (% 28,57) eta hiru gizonezko (% 23,08) kokatzen dira; alde hau ere ez da estatistikoki esanguratsua.



3.3. irudia: Informatzaileen sailkapena silabaren osagaien ehunekoaren arabera.

Silaba motak aztertu berri ditugun guneen, hasieraren eta koden konbinazioen bidez sortzen dira. Aztertu ditugun testuetan denetara 3873 silaba agertu zaizkigu. Silaba motak adierazteko erabiliko ditugun ikurrak honako hauek dira: kontsonantea C, bokala V eta diptongoa W. 3.4. taulan topatu ditugun silaba motak eta euren kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

Mota	Kopurua	Ehunekoa
CV	2208	57,01
CVC	583	15,05
V	470	12,14
VC	234	6,04
CW	209	5,40
CCV	57	1,47
CWC	49	1,27
W	43	1,11
CCVC	11	0,28
WC	4	0,10
CCVCC	2	0,05
VCC	2	0,05
CWCC	1	0,03
Orotara	3873	100

3.4. taula: Silaba mota nagusien kopuru osoak eta euren ehunekoak.

3.4. taulan ikusten den bezala, ehunekorik altuenak dauzkaten silabak CV (% 57,01), CVC (% 15,05), V (% 12,14) eta VC (% 6,04) dira; euren artean % 90,24 osatzen dute.

“CV” silaba motaren ehunekoaren batezbestekoa 57,10 da, desbideratzea 3,85, minimoa 48,32, maximoa 64,65 eta heina 16,33. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (56,90), 2b (58,18), 3b (56,62) eta 4b (56,62), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (56,82) eta gizonezkoek (57,4), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

“CVC” silaba motaren ehunekoaren batezbestekoa 14,64 da, desbideratzea 3,61, minimoa 8,08, maximoa 21,35 eta heina 13,27. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (19,16), 2b (14,18), 3b (14,27) eta 4b (14,4), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (15,3) eta gizonezkoek (13,94), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

“V” silaba motaren ehunekoaren batezbestekoa 12,24 da, desbideratzea 2,77, minimoa 8,08, maximoa 17,07 eta heina 8,99. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (10,24), 2b (12,6), 3b (12,46) eta 4b (12,13), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (12,05) eta gizonezkoek (12,44), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


“VC” silaba motaren ehunekoaren batezbestekoa 6,04 da, desbideratzea 2,31, minimoa 1,32, maximoa 10,66 eta heina 9,34. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.5. taulan; bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 10,159; p = 0,017$). Lehen eta bigarren belaunaldietan silaba mota honen ehuneko txikiagoa da hirugarren eta laugarren belaunaldietan agertzen dena baino. Alta generoaren araberako aldea, andrazkoek (5,87) eta gizonezkoek (6,23), ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	4,74	0,37	4,47	5,00	0,53
2	4,14	2,11	1,32	6,60	5,28
3	6,64	1,16	5,05	8,72	3,67
4	7,59	2,43	4,29	10,66	6,37

3.5. taula: “VC” silabaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

Informatzaileek silaba moten arabera eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta, multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 3.4. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 21 informatzaile kokatzen dira (% 77,78) eta B multzoan 6 (% 22,22). Informatzaileen belaunaldien arabera, B multzoan bigarren belaunaldiko hiru informatzaile (% 37,50), hirugarren belaunaldiko bi (% 22,22) eta laugarren belaunaldiko bat (% 12,50) kokatzen dira. Banaketa honetan agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoari dagokionez, B multzoan andrazko bi

(% 14,29) eta lau gizonezko (% 30,77) kokatzen dira; alde hau ere ez da estatistikoki esanguratsua.



3.4. irudia: Informatzaileen sailkapena silaba moten arabera.

3.1.2. Silaben iraupenaz

Informatzaileen edadeak eta generoak silaben iraupenari eragiten dioten ala ez ikertzea da sekzio honen helburua. Horretarako gehien erabiltzen den silaba motaren iraupena aztertu dugu, hau da “CV” motarena. Bestalde, egongunearen eragina ekiditeko, talde prosodikoaren hasieran eta amaieran daudenak baztertu ditugu, izan ere, hasierakoak berez laburragoak izan daitezke eta amaierakoak luzeagoak ohikoak baino.

“CV” silaba motaren batezbestekoa 116,82 ms.koa da, desbideratzea 33,54, minimoa 40, maximoa 310 eta heina 270. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.6. taulan; bertan ikus daitezkeen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($H = (a.m. 3) 21,377; p = 0,000$).

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	112,85	38,91	40	310	270
2	113,96	31,95	40	230	190
3	122,93	35,69	40	300	260
4	114,62	29,47	40	200	160

3.6. taula: “CV” silabaren iraupenaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.7. taulako emaitzak lortzen dira; bertan ikusten den bezala, gizonezkoek laburrago egiten dute

andrazkoek baino, aldea estatistikoki esanguratsua da Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -6,840$, $p = 0,000$; andrazkoen batezbesteko heina 939,89 da eta gizonezkoen batezbesteko heina 775,349.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
andrazkoak	121,29	33,09	40	300	260
gizonezkoak	111,35	33,29	40	310	270

3.7. taula: "CV" silabaren iraupenaren datuak informatzaileen generoaren arabera.

3.2. Azentuaz

Azpiatal honetan azentu arloan gertatzen diren aldaketak aztertuko ditugu, balizko aldaketa horiek aztertzeko lehenengo eta behin azentu sistemaren arau orokorrak deskribatu behar dira. Horretarako Gamindek (1998a, 2010a, 2011) proposatutako irizpideak erabiliko ditugu:

- Azentu bereizgarria bai edo ez
- Azentua txertatzeko eremua: erroa, berba edo talde klitikoa
- Azentua txertatzeko norabidea eta silaba: [1, [2, [3, 2], 1]

Behin irizpideak finkatuta, informatzaileen erabileretan oinarrituta, non gertatzen diren aldaketak azter daiteke.

Orain arte Larrabetzuko azentu ereduaz hiru lan egin dira (Gaminde, 1995a, 1998a eta Pascual, 2013). Lan horietan azentu ereduaren ezaugarri orokorrak deskribatzen dira eta hitz markatuen erabileraren bilakaera (Pascual, 2013) aztertzen dira. Larrabetzuko azentu ereduaren ezaugarriak aipatzean (Gaminde, 1998a) honakoak ematen dira:

- (1) Azentu bereizgarria
- (2) Eremua talde klitikoa
- (3) Arau orokorra: Azken silaba estrametrikala
Arau nagusia [2]

Jarraian gerra aurreko informatzaileekin bildutako adibideak ematen ditugu izen eta adjektiboen silaba kopuruak kontuan hartuta. 3.8. taulan silaba bikoak, 3.9. taulan hirukoak eta 3.10. taulan lauukoak ematen dira.

ántza	árra	átxa	átzo	báltza	báya
béye	bítze	étzi	éuntze	éutze	gátza
giltze	kía	látza	lúrre	mátza	máye
mía	óla	óna	ótza	óya	sárta
sáye	súe	súrre	txárta	úre	

3.8. taula: Silaba biko berben azentuera (ó-o).

adárta	adúrre	agíne	agóa	aistéa	aítite
aixía	aldátza	amáma	anáya	andíe	ankía
apóa	ardie	aréa	argála	argíe	arie
arótza	arpéla	arrie	arróa	artóa	artzéa
asála	asía	asíe	askía	astía	astóa
asúle	asúne	asúrre	atía	atxúrre	atzéna
axía	babéa	baría	barrúe	beárta	bedárta
begie	belúne	berándu	beróa	besóa	bidía
bigúne	bildúrre	biótza	bírrine	bixárta	burúe
busténa	edúrre	egála	egóa	egúne	egúrre
erlía	errie	erróa	eskúe	eskúrre	esnía
espána	estía	estíe	estúe	estúle	etzia
eulie	euríe	eusóa	galbáya	garbía	garíe
garríe	gastáya	gastía	gibéla	gixóna	gorríe
gurdie	idie	ilúne	inútze	itzéla	itzúe
kakóa	katúe	labía	labúrre	lagúne	lañóa
lastóa	legárta	lodie	malmíse	mutíle	narrúe
nasáye	neskía	odóla	ogíe	ollóa	orpóa
orrie	patíne	pipérra	pipíle	sabála	sagárta
sakúe	saldie	sardéa	sorríe	subíe	suríe
surrúne	sustérra	tanbórra	trugóya	txakúrre	txarrie
txikérra	tximúrre	txiplóya	txorie	ulía	untzéa

3.9. taula: Hiru silabako berben azentuera (o-ó-o).

abádea	abértaza	afárie	afróntue	alábia	améntala
aráñia	arítoa	armósue	arnásea	arrátoya	arrúsie
arrútzia	askórdine	askórea	astélena	atórrea	atzámarra
atzásala	barikue	bekókíe	belárrie	bellégíe	bentánia
berástune	besápia	betúlea	burrúñea	bustérrie	domékia
ebágíe	egúrdie	egústena	elíxea	elmédea	eráñotza
erástune	errámue	errékia	errótia	eskólia	ikéria
ilúndia	indábía	inúrrie	irúntzie	isérdie	itárgie
itúrrie	itxósoa	ixékoa	ixéria	kabíllea	kamíxea
karrájue	katíllue	keréixia	kípólia	kuntzúrune	landária
lapíkoa	larátzue	makálloa	makérea	mallúkíe	morópíle
neskátoa	okárana	okélia	ollóskoia	origoia	orkóloa

3.10. taula: Lau silabako berben azentuera (o-ó-o-o).

3.11. eta 3.12. tauletan berba markatuen adibide batzuk ematen ditugu; kasu hauetan guztietan azentua berbaren lehen silaban txertatzen da.

ábie	ámia	ánkia	árpie	átzia	básue
égie	éurrea	éuskie	gángarra	gónia	ikoa
intxurre	kárea	káxea	kójoa	kórtia	lékue
lória	nébea	nórtea	óllarra	órratza	pórrue
sémia	sórgine	sútia	télea	txindorra	úmia

3.11. taula: Hiru silabako berba markatuen azentuera (ó-o-o).

békokie	béskarie	dénporea	légusue	sápatue	trébedea
---------	----------	----------	---------	---------	----------

3.12. taula: Lau silabako berba markatuen azentuera (ó-o-o-o).

Azentuaren arau orokorrari dagokionez, esan behar da hiru silabako berbeekin azentua ezkerretik hasita bigarren silaban txertatzen dela kasu gehienetan: “*alábia*”, “*abératza*”, “*atzámarra*”, “*alárgune*”, e.a. Badira hirugarren silaban azentua txertatzen dutenak: “*aberátza*”, “*alargúne*”, “*biribile*”, “*errosóya*”, “*martitzéna*”, “*txakolíne*”, “*karakóla*” e.a. Kasu guztiotan erroaren azken silaba silaba astuna da, hau da, tratatua edo diptongoduna. Honelako kasuetan joera handia dago horrela azentuatzeko gerra osteko belaunaldietan.

Aditz partizipioei dagokienez, joera berberak topatzen ditugu, 3.13. eta 3.14. tauletan erakusten den bezala.

áltzeu	ártu	ási	bátu	édan	éldu
émon	éntzun	érain	érne	érre	ésan
éuki	gáldu	géitu	ío	itxi	páreu
sáldu	sóldu	yági	yósi		

3.13. taula: Silaba biko partizipioen azentuera (ó-o).

agértu	agórtu	akábeu	amáitu	amárreu	amáteu
apúrtu	argáldu	asétu	astíndu	atára	atértu
atrébidu	axétu	bajátu	baltzitu	begitu	berátu
berótu	bigóndu	bilóstu	biórtu	biríndu	ebági
egósi	ekárrri	entérrreu	erálgi	erántzi	emégeu
erósi	erréseu	eskátu	eskégi	estútu	garándu
garbitu	gobérneu	igérrri	igértu	ikúsi	ilúndu
iríkin	irúntzi	ixétu	lusétu	makáldu	makúrtu
ostóndu	sabáldu	sorróstu	umótu		


3.14. taula: Hiru silabako partizipioen azentuera (o-ó-o).

Adibide asko jaso ez dugun arren, hiru silabako partizipio markatuak ere badaude; honelakoetan azentua lehen silaban txertatzen da: “*ixartu*”, “*lúmetu*”.


Lan honetan azentu bereizgarriaz jarduteko aztertuko dugu ea beronen bidez singularrak eta pluralak bereizten diren. Horretarako galdekizunean galdera multzo bi sartu ditugu; multzo batean sintagma baten singularra eta plurala bereizten diren aztertu nahi da (*lagunena* “lagunarena” – *lagunena* “lagunena”) eta bestean erakusleen singularrak eta pluralak bereizten diren aztertuko da (*oneri* “honi” – *oneri* “hauci”).

Sintagmen singularraren eta pluralaren arteko bereizkuntzari dagokionez, gure informatzaile batzuek (% 58,33) bereizi egiten dituzte eta beste batzuek (% 41,67) ez. Lehen belaunaldiko informatzaile guztiek bereizkuntza egiten dute, bigarren belaunaldian hiru andrazkok eta hiru gizonezkoak eta hirugarren belaunaldian batek ere ez. Honetan argi eta garbi erakusten da aldaketa bigarren belaunaldian gertatzen hasi dela eta generoak ez daukala eraginik.

Bereizkuntza egiten dutenek tonuaren bidez egiten dute, izan ere, bai singularrean bai pluralean azentua silaba berean txertatu arren, singularrean L*+H azentu tonuduna txertatzen da eta pluralean H*+L. Honek esan nahi du L*+H txertatzen denean sintagmaren gailurra azentuaren osteko silaban kokatzen dela (3.5. irudiko sonograma) eta H*+L txertatzen denean, berriz, silaba azentuduncan (3.6. irudiko sonograma). Sistema honek antza dauka Hualde et al.ek (2002a) Mallabirako deskribatutakoarekin.



Bereizkuntza egiten ez duten informatzaileen kasuan, silaba azentuduncan H*+L azentu tonuduna txertatzen da bai singularrean bai pluralean (3.7. eta 3.8. irudietako sonogrametan).



Erakusleen singulararen eta pluralaren arteko bereizkuntza informatzaile guztiek egiten dute, beraz tasun honek ez dauka balio sailkatzailerik.

Aurreko lan batean (Gaminde, 1998a) azentuaren eremutat talde klitikoak jotzen zen; honen arabera isolatuki edo talde klitikoan silaba bakarreko erroak desberdin azentuatzen dira (1). Arazo hau ikertzeko galdera multzo bat sartu dugu gure oraingo galdekizunean.

- (1) txárra txarrá da
óna oná da


Azentu eremutat talde klitikoak hartzen duten informatzaileak % 54,17 izan dira eta berba hartzen dutenak % 45,83. Adinaren arabera, nagusien taldean % 91,67k hartzen dute talde klitikoak azentuaren eremutat eta gazteen taldean, ostera, % 16,67k. Mann-Whitney U probaren arabera, adinaren aldea estatistikoki esanguratsua da, $z = -3,609$, $p = 0,000$; nagusien batezbesteko heina 17 da eta gazteen batezbesteko heina 8. Generoaren arabera, gizonetako azentuaren eremutat talde klitikoak hartzen dutenak % 66,67 dira eta andrazkoetan % 41,67. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Pascualek (2013) esan bezala, badirudi hitz markatuak galtzeko joera dagoela; arazo hau aztertzeko gure gerra aurreko informatzaileen datuak erabilia, eurek markatutako erabiltzen zituzten 10 hitz aukeratu ditugu gure oraingo informatzaileek zenbateraino markatutako jotzen dituzten edo erregularizatu dituzten ikusteko. Aukeratutako hitzak: “sútia” (sukaldea), “lékue” (lekua), “sémia” (semea), “txístue” (txistua), “déndia” (denda), “intxurre” (intxaurra), “léngusue” (lehengusua), “órmia” (horma), “béskarie” (bazkaria) eta “sillia” (aulkia) izan dira.

Hitz markatueta dauden 240 aukeretatik markatuta egin dira 187 (% 77,92). berba batzuk informatzaile guztiek egiten dituzte markatuta (“sútia”, “txístue” eta “sillia”), gainerakoetan joera desberdinak daude: “lékue” (% 95,83), “déndia” (% 91,67), “intxurre” (% 79,17), “órmia” (% 79,17), “sémia” (% 58,33), “béskarie” (% 45,83) eta “léngusue” (% 29,17).

Markatu kopuruak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen belaunaldian % 76,25 egiten direla, bigarrenean % 82,5 eta hirugarrenean % 75. Generoaren arabera andrazkoek % 83,33 markatu egiten dituzte eta gizonetakoek % 72,5. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsua ez belaunaldien arabera ez eta generoaren arabera ere.

Azentuaren tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 12.9. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira; A multzoan 9 informatzaile (% 37,5) eta B multzoan 15 informatzaile (% 62,5) kokatzen dira. A multzoan hirugarren belaunaldiko informatzaile guztiak eta bigarren belaunaldiko andrazko bat kokatzen dira; belaunaldien arabera aldea hau estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 20,267$; $p = 0,000$). Generoaren arabera agertzen den aldea oso txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.




3.3. Esaldien intonazioaz

Azpiatal honetan oinarrizko esaldien intonazio ereduak aztertuko ditugu. Aukeratu ditugun ereduak adierazpen esaldiak, bai/ez galderak, N-z galderak, hautazko

galderak, oihartzun galderak eta zalantzako galderak dira. Azpiatalaren datuak esaldirik esaldi aurkeztuko ditugu; amaieran informatzaileen sailkapena egingo dugu esaldi moten emaitzetan oinarrituta.

3.3.1. Adierazpen esaldiak

Adierazpen esaldietan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak bi izango dira; sintagmaren gailurraren silaba eta aditzaren gailurraren silaba. Sintagmaren gailurra bigarren silaban ager daiteke (3.10. irudiko sonograma) edo hirugarrenean (3.11. irudiko sonograma); lehena % 37,5 kasutan erabiltzen da eta bigarrena % 62,5 kasutan.



3.10. irudia: Sintagmaren gailurra bigarren silaban.

3.11. irudia: Sintagmaren gailurra hirugarren silaban.


Datuak belaunaldien arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu lehen eta hirugarren belaunaldietan joera nagusia gailurra 3. silaban kokatzea dela (6, % 75); bigarren belaunaldian joera hau hiru kasutan baino ez da erabiltzen (% 37,5). Generoaren arabera, andrazkoetan gailurra 2. zein 3. silabatan % 50 kasutan erabiltzen da; gizonezkoetan gailurra 3. silaban % 75 kasutan erabiltzen da eta 2.ean % 25 kasutan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Aditzaren gailurra beti bigarren silaban kokatzen da. Era berean esaldiaren gailurra kasu guztietan sintagman kokatuta agertu zaigu. Honenbestez eredu nagusi bi dauzkagu; batean sintagmaren gailurra sintagmaren bigarren silaban kokatzen da eta bestean sintagmaren gailurra beronen hirugarren silaban kokatzen da.

3.3.2. Bai/ez galderak


Bai/ez galderetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak sintagmaren gailurraren silaba eta esaldiaren muga-tonua izango dira.

Gure informatzaile guztiek sintagmaren gailurra beronen azken silaban kokatzen dute (3.12. irudiko sonograma). Hiru muga-tonu agertu zaizkigu: HL (3.12. irudiko espektrograma), L (3.13. irudiko sonograma) eta H (3.14. irudiko sonograma). Gehien erabiltzen den muga-tonua HL da (% 87,5), gero L (% 8,33) eta gutxien erabiltzen dena H (% 4,17).



3.12. irudia: HL muga-tonua.

3.13. irudia: L muga-tonua.



3.14. irudia: H muga-tonua.


Adinaren arabera, HL muga-tonua lehen belaunaldian agertzen den bakarra da (% 100), bigarren belaunaldian % 87,5ean erabiltzen da eta hirugarren belaunaldian % 75ean. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua, baina belaunaldietan aurrera egin ahala bere chunekoa murriztuz doa. Generoaren arabera, andrazko guztiek muga-tonu hau erabiltzen dute eta gizonezkoek % 75 kasutan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

3.3.3. N-z galderak

Esaldi mota honetan muga-tonuak baino ez ditugu kontuan hartuko. Gure informatzaileetan muga-tonu bi agertu zaizkigu L (3.15. irudiko sonograma) eta LH

(3.16. irudiko sonograma). L da gehien erabiltzen dena (% 79,17) eta gero LH (% 20,83).


Lehen belaunaldiko informatzaile guztiek L muga-tonua erabiltzen dute; bigarren belaunaldian 7 informatzailek L erabiltzen dute eta batek LH; azkenik, hirugarren belaunaldiko lau informatzailek L erabiltzen dute eta lauk LH. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Generoaren arabera, hamar andrazkok (% 83,33) L erabiltzen dute eta bik LH (% 16,67); gizonetzkoetan zazpi L erabili dute (% 75) eta hiruk LH (% 25), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.



3.3.4. Hautazko galderak

Galdera mota hau informatzaile guztiek “ala” ren bidez egiten dute. Galdera mota hauetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak sintagmaren eta aditzaren gailurraren silaba; esaldiaren gailurra sintagman ala aditzean kokatzen den eta esaldiaren muga-tonuak izango dira.

Sintagmaren gailurra beti izaten da hirugarrena (3.17. irudiko sonograma). Aditzaren gailurra edozein izan daiteke: lehena, bigarrena eta hirugarrena. Bigarrena da (3.18. irudiko sonograma) gehien erabiltzen dena (% 58,3), gero hirugarrena (3.17. irudiko sonograma) (% 37,5) eta gutxien lehena (% 4,2).



Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu, 3.15. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m. 4) 10,238; p = 0,037$).

Belaunaldia	1 silaba	2. silaba	3. silaba
1	0	12,5	20,8
2	4,2	12,5	16,7
3	0	33,3	0

3.15. taula: Aditzaren gailurra kokatzen deneko silaba informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.16. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Generoa	1 silaba	2. silaba	3. silaba
andrazkoak	0	29,2	20,8
gizonetzkoak	4,2	29,2	16,7

3.16. taula: Aditzaren gailurra kokatzen deneko silaba informatzaileen generoaren arabera.

Esaldiaren gailurra sintagman (3.19. irudiko sonograma) eta aditzean (3.17. eta 3.18. irudietako sonogramak) ager daiteke. Bigarrena da gehien erabiltzen dena (% 79,2), lehena (% 20,8).



Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu, 3.17. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m. 2) 6,568$; $p = 0,037$)

Belaunaldia	Aditza	Sintagma
1	16,7	16,7
2	29,2	4,2
3	33,3	0

3.17. taula: Esaldiaren gailurra kokatzen deneko osagaia informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.18. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Generoa	Aditza	Sintagma
andrazkoak	37,5	12,5
gizonezkoak	41,7	8,3

3.18. taula: Esaldiaren gailurra kokatzen deneko osagaia informatzaileen generoaren arabera.

Esaldiaren amaieran agertzen diren muga-tonuak hiru izan daitezke: L (% 83,33), H (% 8,33) eta LH (% 8,33). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu, 3.19. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Belaunaldia	L	H	LH
1	33,3	0	0
2	25	0	8,3
3	25	8,3	0

3.19. taula: Esaldiaren muga-tonuen ehunekoak informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.20. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Generoa	L	H	LH
andrazkoak	41,7	0	8,3
gizonezkoak	41,7	8,3	0
Guztira	83,3	8,3	8,3

3.20. taula: Esaldiaren muga-tonuen ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.

3.3.5. Oihartzun galderak

Galdera mota hau "esta" edo "es" erabilita egin daiteke. Galdera mota hauetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak "esta" ala "es" erabiltzen den, sintagmaren eta aditzaren gailurraren silaba; esaldiaren gailurra sintagman ala aditzean kokatzen den eta esaldiaren muga-tonuak izango dira.

Informatzaileen artean "esta" da gehien erabiltzen dena (% 75) eta "es" gutxien (% 25). Datuak belaunaldien arabera aztertuta, estatistikoki esanguratsuak ez diren arren, ikusten dugu joera dagoela belaunaldi gazteagoetan "es" gehiago erabiltzeko, 3.21. taulan erakusten den bezala.

Belaunaldia	esta	es
1	87,5	12,5
2	75	25
3	62,5	37,5

3.21. taula: Morfema mota informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.22. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, baina gizonezkoen artean "es" erabiltzeko joera handiagoa dago andrazkoen artean baino.


Generoa	esta	es
andrazkoak	83,3	16,7
gizonezkoak	66,7	33,3

3.22. taula: Morfema mota informatzaileen generoaren arabera.

Sintagmaren gailurra gehienetan hirugarren silaban (% 91,67) kokatzen da (3.20. irudiko sonograma) eta bigarren silaban (% 8,33) askozaz gutxiagotan, bigarren silaban kokatzen den kasuetan "es" erabiltzen da. Bigarren silaban erabiltzen dituzten informatzaileak lehen eta bigarren belaunaldietako informatzaile bana dira, bata gizonezkoa eta bestea andrazkoa. Honetan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, ez belaunaldien arabera ez eta generoaren arabera ere.

Aditzaren gailurra bigarren silaban koka daiteke (3.21. irudiko sonograma) edo hirugarrenean; lehena % 91,67 kasutan gertatzen da eta bigarrena % 8,33 kasutan. Bigarren aukera lehen eta bigarren belaunaldietako andrazko bik egiten dute.

Esaldiaren gailurra sintagman koka daiteke (3.20. irudiko sonograma) edo aditzean (3.21. irudiko sonograma); lehena % 95,83 kasutan gertatzen da eta bigarrena % 4,17 kasutan; azken aukera hau bigarren belaunaldiko andrazko batek egiten du.



Muga-tonuei dagokienez, hiru mota agertu zaizkigu: H, LH eta HL. H da gehien erabiltzen dena (% 87,5), gero LH (% 8,33) eta gutxien erabiltzen dena HL da (% 4,17).

3.3.6. Zalantzazko galderak

Zalantzazko galderak “ete” (ote) partikularen bidez egiten direnak dira. Gure informatzaileetan baten kasuan izan ezik denek erabili dituzte (% 95,83). Galdera mota hauetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak sintagmaren eta aditzaren gailurraren silaba; esaldiaren gailurra sintagman ala aditzean kokatzen den eta esaldiaren muga-tonuak izango dira.


Sintagmaren gailurra beti agertzen da hirugarren silaban. Aditzaren gailurra gehienetan bigarren silaban agertzen da % 75 kasutan, lehen silaban % 20,83 kasutan agertzen da. Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu, 3.23. taulako ehunekoak lortzen dira; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Hala ere, aditzaren lehen silaban agertzeko ehunekoak murriztuz doa belaunaldietan aurrera egin ahala. Generoaren arabera ez dago ezelako alderik.

Belaunaldia	2. silaba	1. silaba
1	62,5	37,5
2	75	25
3	87,5	12,5

3.23. taula: Aditzaren gailurra kokatzen deneko silaba informatzaileen belaunaldien arabera.


Esaldiaren gailurrari dagokionez, berau sintagman agertzen da % 87,50 kasutan eta aditzean % 8,33 kasutan. Esaldiaren amaieran agertzen diren muga-tonuak L (3.22. irudiko sonograma), HL eta LH (3.23. irudiko sonograma) dira. L da gehien erabiltzen

dena (% 75), gero HL (% 12,5) eta gutxien LH (% 8,33). Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak, ez belaunaldien arabera ezta generoaren arabera ere.



3.3.7. Informatzaileen sailkapena

Esaldi mota bakoitzeko aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 3.24. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 13 (% 54,17) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 11 (% 45,83). Belaunaldien arabera A taldean lehen belaunaldiko gizonezko bat kokatzen da, bigarren belaunaldiko andrazko bi eta gizonezko bi eta hirugarren belaunaldiko informatzaile guztiak. B taldean lehen belaunaldiko lau andrazko eta hiru gizonezko kokatzen dira eta bigarren belaunaldiko andrazko bi eta gizonezko bi. Belaunaldien arabera agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 2) 12,420; p = 0,002$) eta generoaren arabera, berriz, ez.



3.24. irudia: Informatzaileen sailkapena intonazioaren tasunen arabera.

3.4. Talde prosodikoak

Azpiatal honetan talde prosodikoen luzerak eta iraupenak ikertuko dira. Luzerak aztertzeko talde prosodiko bakoitzeko egiten diren silaba kopuruak kontuan hartuko dira eta iraupenak ikertzeko euron denbora.

Talde prosodiko guztien artean 3875 silaba biltzen dira. Talde prosodiko bakoitzaren silaba kopuruak 1 eta 25 bitartean kokatzen dira. 3.24. taulan talde prosodiko bakoitzaren silaba kopuruaren arabera erakusten dira.

Sil.	Kop.	%	Sil.	Kop.	%	Sil.	Kop.	%
1	40	6,58	9	34	5,59	17	2	0,33
2	79	12,99	10	30	4,93	18	4	0,66
3	60	9,87	11	18	2,96	19	3	0,49
4	69	11,35	12	20	3,29	20	3	0,49
5	54	8,88	13	15	2,47	23	2	0,33
6	60	9,87	14	13	2,14	24	1	0,16
7	45	7,40	15	7	1,15	25	1	0,16
8	42	6,91	16	6	0,99			

3.24. taula: Talde prosodikoen kopuruak eta ehunekoak silaba kopuruaren arabera.

3.24. taulan erakusten den bezala, talde prosodiko gehienak nahiko laburrak dira, multzo bitan banatuz gero, 1-10 silaba bitartekoak % 84,38 osatzen dute eta 11-25 bitartekoak % 15,63; datu hau erkatzen badugu Gamindek et al.ek (2012) Bermeoko informatzaileekin lortutakoekin, harrigarriro bada ere, oso antzekoa dela ikusten da, han % 84,82 eta % 15,18 lortu ziren eta.

Silaba kopuruaren arabera talde prosodikoen luzera aztertuta eta 1-10 silaba bitarteko talde prosodikoen ehunekoak kontuan hartuta, ikus ditzakegu zeintzuk diren aldeak informatzaileen adinaren eta generoaren arabera. Orokorrean talde prosodiko laburren ehunekoaren batezbestekoa 82,94 da, desbideratzea 7,89, minimoa 63,64, maximoa 94,44 eta heina 30,80.

Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (87,02), 2b (85,15), 3b (80,13) eta 4b (82,87), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (84,61) eta gizonezkoek (81,14), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldi gazteagoek joera daukate talde prosodiko luze gehiago erabiltzeko, generoari dagokionez, andrazkoek talde prosodiko laburrak gehiagotan erabiltzen dituzte gizonezkoek baino. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Talde prosodikoen denboraren ehunekoaren batezbestekoa testuko 70,92 ms.koa da, desbideratzea 8,49, minimoa 57,90, maximoa 95,06 eta heina 37,16. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (66,87), 2b (66,48), 3b (71,49) eta 4b (75,74), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak; hala ere, belaunaldi guzteagoetan luzeagoak dira zaharragoetan baino. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (70,62) eta gizonezkoek (71,24), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

3.5. Etenak

Azpiatal honetan, sarreraren etenak sailkatzeko erabili ditugun irizpideak gogotan, eten moten banaketa aztertuko da, euron kopuruaren eta ehunekoaren oinarrituta; bestalde, isiluneen iraupena ere ikertuko da.

3.5.1. Eten motak

Aztertu ditugun testuetan etenak isilunedunak edo isilune bakoak izan daitezke. Isilunedunak 469 dira (% 77,14) eta isilune bakoak 139 (% 22,86).

Testu bakoitzeko eten isilunedunen ehunekoaren batezbestekoa 77,12 da, desbideratzea 10,57, minimoa 52,63, maximoa 93,75 eta heina 41,12. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (85,7), 2b (82,92), 3b (74,41) eta 4b (72,24), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Hala ere, lehen eta bigarren belaunaldietan gehiagotan erabiltzen dira hirugarren eta laugarren belaunaldietan baino. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (76,12) eta gizonezkoek (78,20), aldea ez da estatistikoki esanguratsua, andrazkoek gutxiagotan erabiltzen dituzte gizonezkoek baino.

Bokal luzapena edo txertaketa 363 kasutan gertatzen da (% 59,70) eta 245 kasutan ez (% 40,30). Testu bakoitzeko luzapenen edo txertaketen ehunekoaren batezbestekoa 61,95 da, desbideratzea 16,28, minimoa 30,43, maximoa 90,91 eta heina 60,48. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (41,94), 2b (54,64), 3b (64,61) eta 4b (71,27), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Hala ere, Pearsonen korrelazioa egiten badugu, berau 0,99koa dela ikusten dugu; hau da, bokal txertaketen edo luzapenen kopurua eta belaunaldia estuki korrelazionatuta agertzen zaizkigu. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (59,97) eta gizonezkoek (64,07), aldea

ez da estatistikoki esanguratsua, gizonzkoek andrazkoek baino gehiagotan erabiltzen dituzten arren.

Irizpide biak, isiluneduna edo isilune bakoa eta bokal txertaketa edo luzapena konbinatuz ondoko ehunekoak lortzen ditugu: “v%” (260, % 42,76), “%” (209, % 34,38), “v\$” (103, % 16,94) eta “\$” (36, % 5,92).

“v%” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 44,64 da, desbideratzea 16,10, minimoa 13,04, maximoa 75,00 eta heina 61,96. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (36,78), 2b (43,36), 3b (43,55) eta 4b (49,1), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (42,27) eta gizonzkoek (47,18), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

“%” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 32,49 da, desbideratzea 14,88, minimoa 5,56, maximoa 65,22 eta heina 59,66. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.25. taulan; bertan ikus daitekeen bezala aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Kasu honetan eten motaren ehunekoaren eta belaunaldien arteko korrelazioa negatiboa da baina oso indartsua (-0,999). Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (33,85) eta gizonzkoek (31,02), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	48,92	3,17	46,67	51,16	4,49
2	39,56	14,36	21,05	65,22	44,17
3	30,86	10,94	18,75	52,17	33,42
4	23,14	15,49	5,56	52,17	46,61

3.25. taula: “%” eten motaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

“v\$” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 17,31 da, desbideratzea 10,45, minimoa 0, maximoa 40 eta heina 40. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.26. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 8,653; p=0,034$). Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (17,71) eta gizonzkoek (16,88), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	5,16	2,58	3,33	6,98	3,65
2	11,28	8,86	0	22,22	22,22
3	21,05	10,78	6,25	40	33,75
4	22,17	8,05	7,41	33,33	25,92

3.26. taula: “v\$” eten motaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

“\$” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 5,56 da, desbideratzea 5,18, minimoa 0, maximoa 15,79 eta heina 15,79. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (9,15), 2b

(5,8), 3b (4,53) eta 4b (5,59), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (6,17) eta gizonzkoek (4,91), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Azpiatal honetan aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 3.25. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 20 (% 74,07) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 7 (% 25,93). Informatzaileen banaketa multzoen arabera aztertuta, ikusten da banaketa ez dela estatistikoki esanguratsua, ez belaunaldien arabera ezta generoaren arabera ere.



3.5.1. Isiluneen iraupenaz

Isiluneen denboraren ehunekoaren batezbestekoa testuko 27,44 ms.koa da, desbideratzea 8,40, minimoa 4,94, maximoa 40,49 eta heina 35,55. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.27. taulan; bertan ikus daitekeen bezala, lehen eta bigarren belaunaldietako informatzaileek isiluneak luzeagoak egiten dituzte hirugarren eta laugarren belaunaldietakoek baino. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (28,35) eta gizonzkoek (26,46), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	31,19	2,90	29,14	33,24	4,10
2	32,55	5,49	24,96	40,49	15,53
3	26,49	8,46	16,04	39,26	23,22
4	22,47	9,27	4,94	35,89	30,95

3.27. taula: Isiluneen iraupenaren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

3.6. Muga-tonuak

Azpiatal honetan talde prosodikoaren eskumako mugan agertzen diren tonu motez edo muga-tonuez arduratuko gara. Hiru azterketa egingo ditugunez gero, azpiatala hiru sekzioan banatuta aurkezten dugu. Lehen sekzioan muga-tonu mota bakoitzaren hedaduraz jardungo dugu, bigarrenean muga-tonuen eta eten moten arteko eralazioak ikertuko dira eta hirugarrenean informatzaileen sailkapena egingo da aztertutako ezaugarrien arabera.

3.6.1. Muga-tonuen banaketa

Sekzio honetan muga-tonuen banaketa aztertuko da. Denetara 608 muga-tonu batu ditugu 27 testutan; gehien erabiltzen dena L da (263, % 43,26), gero H (176, % 28,95), HL (110, % 18,09) eta LH (59, % 9,70).

Gehien erabiltzen den L muga-tonuaren batezbestekoa 42,03 da, desbideratzea 14,47, minimoa 7,69, maximoa 64,00 eta heina 56,31. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (45,43), 2b (40,39), 3b (43,48) eta 4b (41,18), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (41,68) eta gizonezkoek (42,4), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

H muga-tonuaren batezbestekoa 30,31 da, desbideratzea 14,83, minimoa 13,64, maximoa 84,62 eta heina 70,98. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (28,96), 2b (37,79), 3b (29,3) eta 4b (24,31), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (28,02) eta gizonezkoek (32,77), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

HL muga-tonuaren batezbestekoa 18,24 da, desbideratzea 10,90, minimoa 0, maximoa 40,74 eta heina 40,74. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (16,47), 2b (15,92), 3b (17,37) eta 4b (21,99), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (21,41) eta gizonezkoek (14,83), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

LH muga-tonuaren ehunekoaren batezbestekoa 9,42 da, desbideratzea 9,04, minimoa 0, maximoa 27,27 eta heina 27,27. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (9,15), 2b (5,91), 3b (9,85) eta 4b (12,52), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (8,89) eta gizonezkoek (10), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

3.6.2. Muga-tonuak eta etenak

Sekzio honetan muga-tonuen eta eten moten arteko eralizioez arduratuko gara. Aurreko azpiatalean aztertu dugun eten mota bakoitzeko gertatzen diren muga-tonuak arakatzean, ikus dezakegu etenen eta muga-tonuen artean dagoen erlazioa estua dela, hau da, muga-tonu batzuk eten mota batzuekin gehiagotan agertzen dira beste batzuekin baino; agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 9, N = 608) 79,781, p = 0,000$).

3.28. taulan ikus daitekeen bezala, H muga-tonua isiludedun etenekin erabiltzen da batez ere (% 82,9), beronen barruan gehiagotan erabiltzen da bokal luzapen edo txertaketarekin hain barik baino.

	v%	%	vS	S
kopurua	97	49	21	9
%	55,1	27,8	11,9	5,1
% osoa	16	8,1	3,5	1,5

3.28. taula: H muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

L tonuarekin antzera gertatzen da (% 79,1), 3.29. taulan erakusten den moduan, baina kasu honetan gehiago gertatzen da txertaketa edo luzapen bako etenetan.

	v%	%	vS	S
kopurua	77	131	28	17
%	29,3	49,8	14,4	6,5
% osoa	12,7	21,5	6,3	2,8

3.29. taula: L muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

HL muga tonuaren kasuan, 3.30. taulan agertzen den bezala, berau batez ere gertatzen da bokal txertaketa edo luzapena dagoenean (% 76,4), etena isiluneduna zein isilune bakoa izan daiteke.

	v%	%	vS	S
kopurua	50	16	34	10
%	45,5	14,5	30,9	9,1
% osoa	8,2	2,6	5,6	1,6

3.30. taula: HL muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.


Azkenik, 3.31. taulan agertzen den moduan, LH muga-tonua isilunedun etenekin erabiltzen da batez ere (% 83), isilunea bokal luzapenarekin edo txertaketarekin egiten denean gehiagotan erabiltzen da.

	v%	%	vS	S
kopurua	36	13	10	0
%	61,0	22,0	17	0
% osoa	13,8	6,2	9,7	0

3.31. taula: LH muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

3.6.3. Informatzaileen sailkapena

Azpiatal honetan aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 12.26. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 18 (% 66,67) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 9 (% 33,33). Informatzaileen banaketa multzoen arabera aztertuta, ikusten da banaketa ez dela estatistikoki esanguratsua, ez belaunaldien arabera ezta generoaren arabera ere.



3.7. Erritmoa

Azpiatal honetan gure helburu nagusia Larrabetzuko euskararen erritmoa ikertzea da; helburu orokor honek helburu zehatz bi dauzka; batetik, metrika guztien indizeak kalkulatu ditugu eta, bestetik, informatzaileen belaunaldi eta genero aldagaiek indizeetan eduki dezaketen eragina aztertuko dugu.

(a) metrikaren indizeak %V bokalen proportzioak eta ΔC kontsonanteen desbideratzea dira. ΔV indizearen emaitzetan oso dispersio handia gertatzen da honelako testu motetan, talde prosodikoaren amaieretan bokal luze asko agertzen delako (Gaminde et al, 2012a).


%V indizearen batezbestekoa 50,75 da, desbideratzea 2,86, minimoa 43,92, maximoa 56,86 eta heina 12,94. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (47,67), 2b (49,49), 3b (52,33) eta 4b (51,02), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.32. taulako emaitzak lortzen dira; bertan agertzen den aldea doi doi da estatistikoki esanguratsua Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -1,966$, $p = 0,049$; andrazkoen batezbesteko heina 11,11 da eta gizonezkoen batezbesteko heina 17,12.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
andrazkoak	49,69	2,93	43,92	53,99	10,07
gizonezkoak	51,90	2,37	47,72	56,86	9,14

3.32. taula: "%V" indizearen datuak informatzaileen generoaren arabera.

ΔC indizearen batezbestekoa 32,93 da, desbideratzea 3,97, minimoa 26,58, maximoa 40 eta heina 13,42. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (36,11), 2b (30,54), 3b (33,64) eta 4b (33,74), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (34,04) eta gizonezkoek (31,75), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Metrika honen indize bien arteko emaitzak konbinatuta 3.27. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaile gehienek gune zentrala osatzen dute eta bertatik gehien aldentzen direnak lehen belaunaldiko andrazko bat eta hirugarren belaunaldiko andrazko bat eta gizonezko bat dira.




(b) metrikaren indizeak varcoV eta varcoC dira. VarcoV indizearen batezbestekoa 57,62 da, desbideratzea 13,88, minimoa 38,36, maximoa 91,23 eta heina 52,87. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.33. taulan; bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 11,079; p = 0,011$). Generoaren arabera aztertzen baditugu, andrazkoek (56,1) eta gizonezkoek (59,26), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	48,65	1,31	47,72	49,57	1,85
2	47,74	6,03	38,36	59,44	21,08
3	66,34	14,16	48,75	91,23	42,48
4	59,94	14,54	38,47	84,50	46,03

3.33. taula: "VarcoV" indizearen datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

VarcoC indizearen batezbestekoa 45 da, desbideratzea 3,57, minimoa 39,95, maximoa 53,34 eta heina 13,39. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (49,87), 2b (43,3), 3b (44,44) eta 4b (46,12), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (43,77) eta gizonezkoek (46,33), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Metrika honen idize bien arteko emaitzak konbinatuta 3.28. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaileak oso sakabanaturik agertzen dira.



(c) metrikaren indizeak nPVI-V eta rPVI-C dira. nPVI-V indizearen batezbestekoa 42,80 da, desbideratzea 4,35, minimoa 35,32, maximoa 54,24 eta heina 18,82. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.34. taulan; bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 3) 12,551; p = 0,006$). Generoaren arabera aztertzen baditugu datuak, andrazkoek (42,44) eta gizonezkoek (43,19), agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	39,09	0,85	38,49	39,69	1,20
2	39,69	2,63	35,32	43,07	7,75
3	45,74	3,98	41,88	54,14	12,26
4	43,54	4,30	35,92	48,89	12,97


3.34. taula: "nPVI-V" indizearen datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

rPVI-C indizearen batezbestekoa 35,49 da, desbideratzea 4,65, minimoa 27,81, maximoa 47,08 eta heina 19,27. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (37,08), 2b (33,27), 3b (36,61) eta 4b (36,06), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu datuak, 3.35. taulako emaitzak lortzen dira; bertan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -2,038, p = 0,042$; andrazkoen batezbesteko heina 17 da eta gizonezkoen batezbesteko heina 10,77.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
andrazkoak	37,24	4,64	31,45	47,08	15,63
gizonezkoak	33,62	4,01	27,81	41,53	13,72

3.35. taula: "rPVI-C" indizearen datuak informatzaileen generoaren arabera.


Metrika honen idize bien arteko emaitzak konbinatuta 3.29. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaileak oso sakabanaturik agertzen dira.



(d) metrikaren indizeak Vccl eta Ccci dira. Vccl indizearen batezbestekoa 25,94 da, desbideratzea 5,96, minimoa 17,72, maximoa 45,01 eta heina 27,29. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (21,54), 2b (22,59), 3b (28,86) eta 4b (27,11), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (26,94) eta gizonezkoek (24,86), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Ccci indizearen batezbestekoa 24,78 da, desbideratzea 2,86, minimoa 19,42, maximoa 30,92 eta heina 11,50. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (24,51), 2b (26,06), 3b (24,8) eta 4b (23,6), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (25,31) eta gizonezkoek (24,25), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Metrika honen idize bien arteko emaitzak konbinatuta 3.30. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, datuak erdialdeko gunean batzen dira eta gehien aldentzen direnak bigarren belaunaldiko gizonezko bat, hirugarren belaunaldiko andrazko bat eta gizonezko bat eta laugarren belaunaldiko andrazko bat dira.




Indize bakoitzaren desbideratzeak eta heinak aztertzen baditugu (3.36. taula); desbideratzerik txikienak dauzkaten indizeak “%V” eta “Ccci” dira, metrika hauexetan heinik txikienak ere gertatzen dira.

	Desbideratzea	heinak
%V	2,86	12,94
ΔC	3,97	13,42
VarcoV	13,88	52,87
VarcoC	3,57	13,39
nPVI-V	4,35	18,82
rPVI-C	4,65	19,27
Vccl	5,96	27,29
Ccci	2,86	11,50

3.36. taula: Metrika guztien indizeen desbideratzeak eta heinak.

Informatzaileek indize guztietan eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 3.31. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 14 informatzaile kokatzen dira (% 51,85) eta B multzoan 13 (% 48,315). Informatzaileen belaunaldien arabera, A multzoan lehen belaunaldiko informatzaile biak, bigarren belaunaldiko 7 (% 87,5), hirugarren belaunaldiko 2 (% 25) eta laugarren belaunaldiko 3 (% 37,5) kokatzen dira. Banaketa honetan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.: 3) 9,754; p = 0,021$).

Generoari dagokionez, 9 andrazko (% 64,29) A multzoan kokatzen dira eta 5 (% 38,46) gizonezko; haatik, alde hau ez da estatistikoki esanguratsua.



3.8. Abiadura

Atal honen hasieran esaneko moduan, abiadura aztertzean orokorra eta hizketa abiadura bereiziko ditugu.

Abiadadura osoa aztertzen dugunean, batezbestekoa 4,73 silaba segundokoa da, desbideratzea 0,71, minimoa 3,32, maximoa 5,91 eta heina 2,59. Datuak belaunaldien arabera aztertuta, 1b (4,73), 2b (4,68), 3b (4,73) eta 4b (4,77), agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera egiten badugu, andrazkoek (4,57) eta gizonezkoek (4,89), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hizketa abiadura aztertzean, batezbestekoa 6,56 silaba segundokoa da, desbideratzea 0,69, minimoa 4,88, maximoa 8,17 eta heina 3,29. Datuak belaunaldien arabera sailkatuta erakusten dira 3.37. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoaren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Belaunaldia	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
1	6,87	0,33	6,63	7,10	0,47
2	6,86	0,93	5,32	8,17	2,85
3	6,37	0,69	4,88	7,09	2,21
4	6,41	0,38	5,88	7,18	1,30

3.37. taula: Hizketa abiaduraren datuak informatzaileen belaunaldien arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 3.38. taulako emaitzak lortzen dira; bertan ikusten den bezala, gizonezkoek arinago egiten dute

andrazkoek baino, aldea estatistikoki esanguratsua da Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -2,135$, $p = 0,033$; andrazkoen batezbesteko heina 10,86 da eta gizonezkoen batezbesteko heina 17,38.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
andrazkoak	6,32	0,61	4,88	7,30	2,42
gizonezkoak	6,83	0,69	5,32	8,17	2,85

3.38. taula: Hizketa abiaduraren datuak informatzaileen generoaren arabera.

4. Izen Morfologia

Atal honetan izen morfologiaren ezaugarriak oinarritzkoenak aurkeztuko ditugu. Euskararen gainean egin diren lan askotan egiten izan denaren antzera, gure helburu nagusia atal honetan deklinabidearen morfemak aurkeztea eta aztertzea da. Erabileraren gainean adibideren edo azalpenen bat edo beste aurkeztuko dugun arren, ez da gure helburua kasuen funtzionamendua bera lantzea, ezperez formari erreparatzea eta gertatu diren eta gertatzen ari diren aldaketak aurkeztea. Horretarako ohiko euskal gramatiketan erabiltzen diren tauletan oinarrituko gara. Tauletan paratu ditugun adibide gehienak gerra aurrean jaiotako belaunaldiarenak dira. Aldakortasuna azertzean gainerako belaunaldien adibideak zeintzuk diren adieraziko da.

Morfemekin batera euren alomorfoak ere aurkeztuko ditugu. Atalean zehar ikusiko den moduan, gaur egun Larrabetzuko euskaldunek erabiltzen dituzten alomorfo batzuk gramatika baldintza zehatz batzuen arabera gauzatzen dira; beste batzuk, oster, aldaki sozialak dira, batzuk baldintza sozial zehatzen arabera gauzatzen direnak zenbaitetan eta beste batzuk behin honezkero aldatukotzat jo behar ditugunak. Aipatu ditugun alomorfo batzuen gramatika baldintza horietako asko fonologiaren eta morfologiaren arteko erlazioetatik sortzen dira.

Arlo honetako aldakortasuna azertzeko zortzi ezaugarri aukeratu dira: adjektiboaren hirugarren graduako graduatzailea, bukatuzko adlatibo edo muga-adlatibo kasuaren morfemaren erabilera, destinatibo kasuaren morfemaren erabilera, bizidunen adlatibo pluralaren morfemaren erabilera, sozietibo kasua denbora arloan erabiltzea ala ez, partitiboaren erabilera ablatiboaren ordez denbora erlazioetan, ablatiboaren bidez egiten diren lehen graduako leku aditzondoaren erabilera eta berdintasunezko konparatiboak egiteko erabiltzen diren postposizioak.

Atala zortzi azpiataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen azpiatalean artikuluz jardungo dugu, bigarrenean erakusleez, hirugarrean izenordainez, laugarrean adjektiboez, bosgarrean bizidunen deklinabideaz, seigarrean bizigabeen deklinabideaz, zazpigarrean aditzondoez eta zortzigarrean izen morfologiaren bariazioaren azterketa kuantitatiboaz.

4.1. Artikulua

Artikuluaren morfemak “-Ø”, “-a”, “-ak” eta “-ok” ditugu. Bizkaieraren garaiko barietate guztietan jazotzen den legez, hemen ere mugatzailea erasteen aldaketa batzuk jazotzen dira. Aldaketa horiek azaltzeko ondoko arauok eman ditzakegu. 4.1. eta 4.2. tauletan deribazioen adibideak ematen dira.

- (1) a > ø / ____ ak ##
- (2) a > e / ____ a ##
- (3) a > e / i,u (C) ____
- (4) e ---> i / ____ a

	alaba+a	seme+a	idi+a	asto+a	esku+a	lagun+a
Afijazio	alabaa	semea	idia	astoa	eskua	laguna
(2)	alabea	-	-	-	-	-
(3)	-	-	idie	-	eskue	lagune
(4)	alabia	semia	-	-	-	-
Azkenik	alabia	semia	idie	astoa	eskue	lagune

4.1. taula: Artikulu mugatu singularra afijatzean egiten diren deribazioak.

(4) araua ez dute informatzaile guztiek sistematikoki aplikatzen, izan ere, “alabea”, “semea”, “neskea”, “arrebea”, “etzea”, e.a. ere entzuten dira.

	alaba+ak	seme+ak	idi+ak	asto+ak	esku+ak	lagun+ak
Afijazio	alabaak	semeak	idiak	astoak	eskuak	lagunak
(1)	alabak	-	-	-	-	-
(2)	-	-	-	-	-	-
(3)	-	-	idiek	-	eskuek	lagunek
(4)	-	semiak	-	-	-	-
Azkenik	alabak	semiak	idiek	astoak	eskuek	lagunek

4.2. taula: Artikulu mugatu plurala afijatzean egiten diren deribazioak.

Plural hurbilaren erabilerearen adibide batzuk ematen dira jarraian (5).

- (5) “orrek berbok igual ba estires ibiltzen segiduen”
(*horiek berbok beharbada ba ez dira erabilten segituan*)
- “orrek gastiok bardingoa tire”
(*horiek gazteok berdingoak dira*)
- “gu biok posik bisiko gintikosena”
(*gu biok pozik biziko gintezken*)

4.2. Erakusleak

Hiru erakusle erabiltzen dira: “au”, “ori” eta “a”. Determinatzaile gisa zein izenordain gisa erabil daitezke hirurak. Azpialt honetan erakusle arruntak (4.3. eta 4.4.

taulak), indartuen (4.5. eta 4.6. taulak) eta berrindartuen (4.7. eta 4.8. taulak) era deklinatuak emango ditugu.

kasua	hau	hori	hura
Absolutua	au	ori	a
Ergatiboa	onek	orrek	arek/ak
Datiboa	oneri	orreri	areri
Genitiboa	onena	orrera	arena
Soziatiboa	onegas	orregas	aregas
Destinatiboa	onentzako	orrentzako	arentzako
Motibatiboa	onegaitik	orregaitik	aregaitik
Adlatiboa	onegana	orregana	aregana/agana

4.3. taula: Erakusle arrunt singularren deklinabidea.

kasua	hauek	horiek	haiak
Absolutua	onek	orrek	arek
Ergatiboa	onek	orrek	arek
Datiboa	oneri	orreri	areri
Genitiboa	onena	orrera	arena
Soziatiboa	onekas	orrekas	arekas
Destinatiboa	onentzako	orrentzako	arentzako
Motibatiboa	onekaitik	orrekaitik	arekaitik
Adlatiboa	onekana	orrekana	arekana

4.4. taula: Erakusle arrunt pluralen deklinabidea.

kasua	hauxe	horixe	huraxe
Absolutua	auxe	orixe	aixe/areixek
Ergatiboa	onexek	orrexek	aixek/areixek
Datiboa	onexeri	orrexeri	aixeri/areixeri
Genitiboa	onexena	orrexena	aixena/areixena
Soziatiboa	onexegas	orrexegas	aixegas/areixegas
Destinatiboa	onexentzako	orrexentzako	aixentzako/areixentzako
Motibatiboa	onexegaitik	orrexegaitik	aixegaitik/areixegaitik
Adlatiboa	onexegana	orrexagana	aixegana/areixegana

4.5. taula: Erakusle indartu singularren deklinabidea.

kasua	hauek	horiek	haiak
Absolutua	oneiek	orieiek	aieiek/areieiek
Ergatiboa	oneiek	orieiek	aieiek/areieiek
Datiboa	oneixerri	orieixerri	aixerri/areixerri
Genitiboa	oneixena	orieixena	aixena/areixena
Soziatiboa	oneiekas	orieiekas	aiekas/areiekas
Destinatiboa	oneixentzako	orieixentzako	aixentzako/areixentzako
Motibatiboa	oneiekaitik	orieiakaitik	aiekaitik/areiekaitik
Adlatiboa	oneiekana	orieiakana	aiekana/areiekana

4.6. taula: Erakusle indartu pluralen deklinabidea.

kasua	berau	berori	bera
Absolutua	berau	berori	bera
Ergatiboa	beronek	berorrek	berak
Datiboa	beroneri	nerorreri	berari
Genitiboa	beronena	berorrena	berana/beria
Soziatiboa	beronegas	berorregas	beragas
Destinatiboa	beronenzako	berorrenzako	berantzako
Motibatiboa	beronegaitik	berorregaitik	beragaitik
Adlatiboa	beronegana	berorregana	beragana

4.7. taula: Erakusle berrintartu singularren deklinabidea.

kasua	eurok	eurak
Absolutua	eurok	eurek
Ergatiboa	eurok	eurek
Datiboa	eurori	eureri
Genitiboa	eurona	eurena
Soziatiboa	eurokas	eurekas
Destinatiboa	eurontzako	eurentzako
Motibatiboa	eurokaitik	eurekaitik
Adlatiboa	eurokana	eurekana

4.8. taula: Erakusle berrintartu pluralen deklinabidea.

Tauletan “berana” eta “beria” biak paratu ditugun arren, ez dirudi gaur egun inongo desberdintasunik egiten denik euron artean; aitzitik, biak distribuzio barik erabiltzen direla dirudi. Jarraian jaso ditugun adibide batzuk paratuko ditugu “bere”rekin (5) eta “beren/beran”ekin (6).

(5) “arek ekar deu bere liburue”

(*hark ekarri du bere liburua*)

“bere lagune etorri ako”

(*bere laguna etorri zaio*)

“orrek bere semia ikusi deu fumetan”

(*horrek bere semea ikusi du erretzen*)

“orrek ekarritus olloak eta bere nebiak il deitus”

(*horrek ekarri ditu oiloak eta bere nebak hil ditu*)

“Mikelek esan deu bere lagune etorri dala”

(*Mikelek esan du bere laguna etorri dela*)

(6) “beren aitek yo deu”

(*bere aitak jo du*)

“beren amak beti euskeras berba iten dotzo”

(*bere amak beti euskaraz berba egiten dio*)

“beran arrebia takar afarie”

(*bere arrebak dakar afaria*)

“suk saldu dosu beran etzia”

(*zuk saldu duzu bere etxea*)

“orreri beren ardie il yako”

(*horri bere ardia hil zaio*)

4.3. Izenordainak

Izenordainei dagokienez, pertsona izenordeen deklinabidea, galdetzaileak, izenordain zehaztugabeak, bihurkariak eta elkarkariak aurkeztuko ditugu.

Pertsona izenorde arrunten deklinabidea 4.9. taulan aurkezten dugu eta izenorde indartuena 4.10. taulan.

kasua	ni	hi	gu	zu	zuek
Absolutua	ni	i	gu	su	suek
Ergatiboa	nik	ik	guk	suk	suek
Datiboa	niri	iri	guri	suri	sueri
Genitiboa	niria	iria	guria	suria	suena
Soziatiboa	niges	iges	guges	suges	suekas
Destinatiboa	nitzako	itzako	gutzako	sutzako	suentzako
Motibatiboa	nigaitik	igaitik	gugaitik	sugaitik	suekaitik
Adlatiboa	nigana	igana	gugana	sugana	suekana

4.9. taula: Pertsona izenorde arrunten deklinabidea.

kasua	neu	heu	geu	zeu	zeuk
Absolutua	neu	eu	geu	seu	seuok
Ergatiboa	neuk	euk	geuk	seuk	seuok
Datiboa	neuri	euria	geuri	seuri	seuori
Genitiboa	neuria	euria	geuria	seuria	seuona
Soziatiboa	neuges	euges	geuges	seuges	seuokas
Destinatiboa	neutzako	eutzako	geutzako	seutzako	seuontzako
Motibatiboa	neugaitik	eugaitik	geugaitik	seugaitik	seuokaitik
Adlatiboa	neugana	eugana	geugana	seugana	seuokana

4.10. taula: Pertsona izenorde intentsiboen deklinabidea.

Galdetzaileekin singularrak erabil daitezke “nor”, “sein” eta “ser” (4.11. taulan euron deklinabidea ikus daiteke) eta pluralak “nortzuk”, “seintzuk” eta “sertzuk” (4.12. taula).

kasua	nor	zein	zer
Absolutua	nor	sein	ser
Ergatiboa	nok	señek	sek
Datiboa	nori	señeri	seri
Genitiboa	nona	señena	sena
Soziatiboa	nogas	señegas	segas
Destinatiboa	nontzako	señentzako	-
Motibatiboa	nogaitik	señegaitik	segaitik
Adlatiboa	nogana	señegana	-

4.11. taula: Galdetzaile singularren deklinabidea.

kasua	nortzuk	zeintzuk	zertzuk
Absolutua	nortzuk	seintzuk	sertzuk
Ergatiboa	nortzuk	seintzuk	sertzuk
Datiboa	nortzuri	seintzuri	sertzuri
Genitiboa	nortzune	seintzune	sertzune
Soziatiboa	nortzukes	seintzukes	sertzukes
Destinatiboa	nortzuntzako	seintzuntzako	-
Motibatiboa	nortzukaiatik	seintzukaiatik	sertzukaiatik
Adlatiboa	nortzukana	seintzukana	-

4.12. taula: Galdetzaile pluralen deklinabidea.

Izenordain zehaztugabeetan “seuser” (7), “eser” (8), “edoser” (9), “iñor” (10)

(4.13. taulan deklinabide osoa ikus daiteke) eta “edosein” (11) erabiltzen dira.

(7) “seuser erosi dosu?”

(zer edo zer erosi duzu?)

“emen seuser iten da euskera”

(hemen zer edo zer egiten da euskara)

“amen nabil seuser iten”

(hemen nabil zer edo zer egiten)

“orrek seuser bayakiena”

(horiek zer edo zer bazakiten)

(8) “estot ekarri eser”

(ez dut ekarri eser)

“badabil ori esetan ba?”

(badabil hori ezertan bada?)

“aitek amari esebe etxotxena esan”

(aitak amari ezer ere ez ziona esan)

“suek amari eser esa seskiue”

(zuek amari ezer esan zenieziokete)

“suek esebestakixue”

(zuek ezer ere ez dakizue)

(9) “esaixu edoser gause”

(esan ezazu edozer gauza)

(10) “edosein etorri leitike”

(edozein etorri liteke)

“orrek edosein lekutera doas”

(horiek edozein lekutara doaz)

“ori edosein lekuten tope seinke”

(hori edozein lekutan tope zenezake)

(11) “ikusi dosu iñor?”

(ikusi duzu inor?)

“estot iñor ikusi”

(ez dut inor ikusi)

“inok iten botzo erderas yibitia dekola”

(inork egiten badio erdaraz jibitea daukala)

Kasua	iñor
Absolutua	iñor
Ergatiboa	iñok
Datiboa	iñori
Genitiboa	iñona
Soziatiboa	iñogas
Destinatiboa	iñontzako
Motibatiboa	iñogaitik
Adlatiboa	iñogana

4.13. taula: “iñor” izenordainaren deklinabidea.

Azkenik, bihurkariak egiteko, barietate askotan legez, “burue” erabiltzen da (12) eta elkarkariak egiteko “arkal” (13).

(12) “orrek erre kara bota dau bere burue”

(horrek erre kara bota du bere burua)

“bere burue urketu in deü”

(bere burua urkatu egin du)

“barretie da baye estotzo bere burueri barrerik eiten”

(barre egitea da haina ez dio bere buruari barrerik egiten)

(13) “orrek arkalegas etorri dire”

(horiek elkarrekin etorri dira)

“arkalen atzean yarri gara”

(elkarren atzean jarri gara)

“guk u, neska lagunek iten gontzien arkaleri”

(guk, neska lagunek egiten genion elkarri)

“arkal ikusi be ixin deurie”

(elkar ikusi ere ezin dute)

4.4. Adjektiboak

Predikatu osagarria, “izan” aditzarekin dela, edo “egon” aditzarekin dela, artikuluaekin edo artikulua barik agertzen da; “izan” aditzari dagokion galdetzailea “selangoa” da eta, berriz, “egon” aditzari dagokiona “selan”. “Egon” aditzarekin erabiltzen denean, artikulua barik erabiltzen da (14).

(14) “ori mingos dau”

(hori mingots dago)

“errekoa loi dau”

(erreka lohi dago)

“yana gasi dau”

(jana gazi dago)

“ardaba garras dau”

(ardoa garratz dago)

“gaste dau ori ondino”

(gazte dago hori oraindino)

Adjektiboaren ordean, predikatu osagarri gisa izena erabiliz gero, berau ere mugatzaile barik agertzen zaigu (15).

(15) “ori kriedu bialdu deude”

(hori morroi bidali dute)

“ori imini deude alkate”

(hori ipini dute alkate)

“ori abade dau errien”

(hori abade dago herrian)

“nire anaya dau pastore”

(nire anaia dago artzain)

Konparaketak egin behar direnean, “-en” (16), “-ago”, “-egi” eta “-txu” graduatzaileak eta euron bidez osa daitezkeen lokuzioak erabiltzen dira.

(16) “ori mutilori gastiena da”

(hori mutil hori gazteena da)

“ori andriori sarrena da”

(hori andre hori zaharrena da)

“-en” graduatzailea erabiltzen den kasu gehienetan izenari “-rik” kasu marka eranstean zaio (17).

(17) “ori andrarik sarrena da”

(hori andrerik zaharrena da)

“ori erriko neskarik lodiena da”

(hori herriko neskarik lodiena da)

“au de etzeko umerik gastiena”

(hori da etzeko umerik gazteena)

“ori de mutilik gastiena”

(hori da mutilik gazteena)

Morfema bera erabiltzen da multzo batetik aukera egiten denean (18).

(18) “gure umiatan au de andiena edo sarrena”

(gure umeetan hau da handiena edo zaharrena)

“etzeko andratatik gasteena esta etorri”

(etzeko andreetatik gazteena ez da etorri)

“orretatik andiena elejidu deude”

(horietatik handiena aukeratu dute)

“ume danetatik txikerrena bota deude”

(ume denetatik txikiena bota dute)

Graduatzaile honen bidez ondoko (19) adibideetan agertzen diren moduko lokuzioak egiten dira.

(19) “ekarri biada al danik eta txikiena”

(ekarri behar da ahal denik eta txikiena)

“erosi biada al danik eta andiena”

(erosi behar da ahal denik eta handiena)

“-ago” graduatzailea kasu batzuetan osorik agertzen den arren, gehienetan “-ao” eta “-au” moduan erabiltzen da (20).

- (20) “ori andiau da”
(hori handiagoo da)
 “ori txikiagoo da”
(hori txikiagoo da)
 “ori gatxaoa da”
(hori gaitzagoo da)
 “ori ixin litike ixen andiaoa”
(hori ezin liteke izan handiagoo)
 “ori inusenteaoa ixin litike ixen”
(hori inuzenteagoo ezin liteke izan)

Graduatzaile honen bidez esaldi konparatiboak egiten dira; bai nolakotasunak konparatzeko (21), bai kantitateak konparatzeko (22). Era berean, hainbat lokuzio egin daitezke “askos” (23), “geroago” (24) eta “senbet” (25) gehituta.

- (21) “ni su baño gastiaoa nas”
(ni zu baino gazteagoo naiz)
 “ori su baño sarraoa da”
(hori zu baino zaharragoo da)
 “ori au baño obia da”
(hori hau baino hobea da)
 “ori au baño txarraoa da”
(hori hau baino txarragoo da)
 “ni su baño obeto nau”
(ni zu baino hobeto nago)
 “su ori baño txarrau saus”
(zu hori baino txarrago zaude)
- (22) “suk ni paño giau ekar dosu”
(zuk nik baino gehiago ekarri duzu)
 “orrek gu paño gitxiau erosiuen”
(horrek guk baino gutxiago erosi zuen)
- (23) “ori askos be fasilaoa da”
(hori askoz ere errazagoo da)
 “ori askos be gatxaoa da”
(hori askoz ere gaitzagoo da)

- (24) “ori geroau te andiaoa da”
(hori geroago eta handiagoo da)
 “ori geroau te sarrau de”
(hori geroago eta zaharragoo da)
- (25) “senbet eta gorau sausen obeto”
(zenbat eta gorago zauden hobeto)
 “senbet eta urrau sausen obeto entzuten dosu”
(zenbat eta hurbilago zauden hobeto entzuten duzu)
 “senbet eta txikiau obeto”
(zenbat eta txikiagoo hobeto)
 “senbet eta andiau txarrau”
(zenbat eta handiagoo txarrago)

“-egi” graduatzailea adjektiboari erantsita erabiltzen den arren (26), berau ez da aukera bakarra, “lar” ere erabil daiteke (27) eta oraingo informatzaileen artean “lar –egi” ere agertzen da.

- (26) “ori txikiegia da”
(hori txikiegia da)
 “andiegia da”
(handiegia da)
 “otzegi dau”
(hotzegi dago)
- (27) “ori lar ona da”
(hori lar ona da)
 “larrondo in deude”
(lar ondo egin dute)
 “ori lar andie da”
(hori lar handia da)

Izen morfologia arloko bariazioa aztertzeke hau da aukeratu dugun ezaugarrietako bat. Ikusi berri dugun bezala, adjektiboaren gradu hau adierazteke hiru aukera daude: “-egi”, “lar” eta “lar –egi”. Gerra aurreko informatzaileen datuetan lehen erabilera biak baino ez ditugu jaso. Egungo informatzaileen artean lehen aukera 11

informatzailek erabiltzen dute (% 45,83); bigarren aukera beste 11 informatzailek (% 45,83) eta hirugarren aukera informatzaile bik (% 8,33). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen eta bigarren belaunaldietako informatzaileek aukera berberak erabiltzen dituztela eta ehuneko berberak ere bai. Hirugarren belaunaldiko informatzaileek “*lar -egi*” aukera ez dute erabiltzen eta gehien erabiltzen dutena “*lar*” da, ondoko hierarkiak osatuz; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “-egi” (% 50) > “lar” (% 37,5) > “lar -egi” (% 12,5)
2. belaunaldia “-egi” (% 50) > “lar” (% 37,5) > “lar -egi” (% 12,5)
3. belaunaldia “lar” (% 62,5) > “-egi” (% 37,5)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

- Andrazkoak “-egi” (% 50) > “lar” (% 41,67) > “lar -egi” (% 8,33)
Gizonenezkoak “lar” (% 50) > “-egi” (% 41,67) > “lar -egi” (% 8,33)

Azkenik, “-txu” atzizkia beste barietate batzuetako “*samar*”en orde erabiltzen da (28).

- (28) “ori berotxu dau”
(*hori bero samar dago*)
“ori ostxu dau”
(*hori hotz samar dago*)
“ori loditxue da”
(*hori lodi samar dago*)

Berdintasuna konparatu nahi denean, “*besteko*” (29) eta “*moduko*” erabiltzen dira (30).

- (29) “ori seuk ikusi sendun besteko andie da”
(*hori zeuk ikusi zenuen besteko handia da*)
(30) “ori neuk ekar doten moduko txikie da”
(*hori neuk ekarri dudana moduko txikia da*)

Bariazioa aztertzeko aukeratu dugun beste ezaugarri bat konparatibo ez jokatuak egiteko erabiltzen diren posposizioei dagokie. Gerra aurreko informatzaileek (31) aukera “*sure moduko*” erabili dute.

- (31) “sure moduko andie nas”
(*zure moduko handia naiz*)

Gaur eguneko informatzaileen artean postposizio bi agertzen dira “*moduko*” eta “*besteko*” eta izenordaina genitibo kasuarekin edo absolutu kasuarekin ager daiteke. Era honetara lau aukera erabiltzen dira: (a) “*sure moduko*” (5, % 20,83), (b) “*su moduko*” (1, % 4,17), (c) “*sure besteko*” (15, % 62,5) eta (d) “*su besteko*” (3, % 12,5).

- (a) “sure moduko andie nas”
- (b) “su moduko andie nas”
- (c) “sure besteko andie nas”
- (d) “su besteko andie nas”

Aukeren erabilera maila aztertzen badugu ondoko hierarkiak lortzen ditugu informatzaileen belaunaldien arabera; (c) aukera da gehien erabiltzen dena belaunaldi guztietan eta proportzio berean; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia (c) % 62,5 > (a) % 37,5
2. belaunaldia (c) % 62,5 > (a) % 12,5 = (b) % 12,5 = (d) % 12,5
3. belaunaldia (c) % 62,5 > (d) % 25 = (a) % 12,5

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

- Andrazkoak (c) % 66,67 > (a) % 16,7 > (b) % 8,33 = (d) % 8,33
Gizonenezkoak (c) % 58,33 > (a) % 25 > (d) % 16,7

4.5. Bizidunen deklinabidea

Azpiatal honetan bizidunen deklinabidea hartuko dugu aztergaitzat. 4.14. taulan erabiltzen diren morfemak agertzen dira.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	o	a	ak
Ergatiboa	k	ak	ak
Datiboa	ri	ari	ari
Genitiboa	na	ana	ana
Soziatiboa	gas	agas	akas
Destinatiboa	ntzako	antzako	antzako
Motibatiboa	gaitik	agaitik	akaitik
Adlatiboa	gana	agana	akana
Partitiboa	rik		
Prolatiboa	tzat		

4.14. taula: Bizidunen deklinabidearen kasuen morfemak.

Bizidunen deklinabidearen erabileraren ereduak zazpi hitz aukeratu ditugu, bokal bakoitzeko bat eta kontsonantez amaitutako beste bi. Aukeratu ditugun hitzak “alaba” (4.15. taula), “seme” (4.16. taula), “idi” (4.17. taula), “asto” (4.18. taula), “lehengusu” (4.19. taula), “gizon” (4.20. taula) eta “txakur” (4.21. taula) izan dira.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	alaba	alabia	alabak
Ergatiboa	alabak	alabak	alabak
Datiboa	alabari	alabari	alabari
Genitiboa	alabana	alabiana	alabana
Soziatiboa	alabagas	alabiagas	alabakas
Destinatiboa	alabantzat/tzako	alabiantzat/tzako	alabantzat/tzako
Motibatiboa	alabagaitik	alabiagaitik	alabakaitik
Adlatiboa	alabagana	alabiagana	alabakana
Partitiboa	alabarik		
Prolatiboa	alabatzat		

4.15. taula: “alaba” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	seme	semia	semiak
Ergatiboa	semek	semiak	semiak
Datiboa	semeri	semiari	semiari
Genitiboa	semena	semiana	semiana
Soziatiboa	semegas	semiagas	semiakas
Destinatiboa	sementzat/tzako	semiantzat/tzako	semiantzat/tzako
Motibatiboa	semegaitik	semiagaitik	semiakaitik
Adlatiboa	semegana	semiagana	semiakana
Partitiboa	semerik		
Prolatiboa	semetzat		

4.16. taula: “seme” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	idi	idie	idiek
Ergatiboa	idik	idiek	idiek
Datiboa	idiri	idieri	idieri
Genitiboa	idine	idiena	idiena
Soziatiboa	idiges	idiegas	idiekas
Destinatiboa	idintzet/tzako	idientzat/tzako	idientzat/tzako
Motibatiboa	idigaitik	idiegaitik	idiekaitik
Adlatiboa	idigana	idiegana	idiekana
Partitiboa	idirik		
Prolatiboa	iditzet		

4.17. taula: “idi” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	asto	astoa	astoak
Ergatiboa	astok	astoak	astoak
Datiboa	astori	astoari	astoari
Genitiboa	astona	astoana	astoana
Soziatiboa	astogas	astoagas	astoakas
Destinatiboa	astontzat/tzako	astoantzat/tzako	astoantzat/tzako
Motibatiboa	astogaitik	astoagaitik	astoakaitik
Adlatiboa	astogana	astoagana	astoakana
Partitiboa	astorik		
Prolatiboa	astotzat		

4.18. taula: “asto” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	lengusu	lengusue	lengusuek
Ergatiboa	lengusuk	lengusuek	lengusuek
Datiboa	lengusuri	lengusueri	lengusueri
Genitiboa	lengusune	lengusuena	lengusuena
Soziatiboa	lengusuges	lengusuegas	lengusuekas
Destinatiboa	lengusuntzet/tzako	lengusuentzat/tzako	lengusuentzat/tzako
Motibatiboa	lengusugaitik	lengusuegaitik	lengusuekaitik
Adlatiboa	lengusugana	lengusuegana	lengusuekana
Partitiboa	lengusurik		
Prolatiboa	lengusutzet		

4.19. taula: “lehengusu” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	gixon	gixona	gixonak
Ergatiboa	gixonek	gixonak	gixonak
Datiboa	gixoneri	gixonari	gixonari
Genitiboa	gixonena	gixonana	gixonana
Soziatiboa	gixonegas	gixonagas	gixonakas
Destinatiboa	gixonentzat/tzako	gixonantzat/tzako	gixonantzat/tzako
Motibatiboa	gixonegaitik	gixonagaitik	gixonakaitik
Adlatiboa	gixonagana	gixonagana	gixonakana
Partitiboa	gixonik		
Prolatiboa	gixontzat		

4.20. taula: “gizon” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutua	txakur	txakurre	txakurrek
Ergatiboa	txakurrek	txakurrek	txakurrek
Datiboa	txakurreri	txakurreri	txakurreri
Genitiboa	txakurrena	txakurrena	txakurrena
Soziatiboa	txakurregas	txakurregas	txakurrekas
Destinatiboa	txakurrentzat/tzako	txakurrentzat/tzako	txakurretzat/tzako
Motibatiboa	txakurregaitik	txakurregaitik	txakurrekaitik
Adlatiboa	txakurgana	txakurregana	txakurrekana
Partitiboa	txakurrik		
Prolatiboa	txakurtzet		
4.21. taula: "txakur" hitzaren deklinabidea.			

Absolutu kasuaren bidez erabiltzen diren posposiziorik garrantzitsuenak "baño"

(32), "barik" (33), "ixen esik" (34) eta "barru" (35) dira.

(32) "estoas ekarri bi baño"

(ez ditut ekarri bi baino)

"ori esta emekoa Mungiekoea baño"

(hori ez da hemengoa Mungikoea baino)

"arpela baño itxie da"

(alperra baino utzia da)

"lotzorra baño isile da"

(lotsorra baino isila da)

"etxean estau ama baño"

(etxean ez dago ama baino)

(33) "diru barik yoan dire"

(diru barik joan dira)

(34) "danak etorri dire orixe ixen esik"

(denak etorri dira horixe izan ezik)

"danak yoan siren nebia ixen esik"

(denak joan ziren neba izan ezik)

(35) "aste bete barru yoango dire"

(aste bete barru joango dira)

"ameti iru egun barru etorri ingo da"

(hemendik hiru egun barru etorri egingo da)

Datiboaren gainean "grasik" posposizio gisa erabiltzen da (36).

(36) "trena koyu gendun grasiek anayari"

(trena koiu genuen eskerrak anaiari)

Genitiboaren bidez egiten diren posposizioak "antza" (37), "antzian" (38), "antzeko" (39), "begire" (40), "beste" (41), "bile" (42), "eske" (43), "ganera" (44), "ganian" (45), "kontra" (46), "konture" (47), "moduen" (48), "modukoa" (49) eta "ordes" (50) dira.

(37) "onek aiten antza deko"

(honek aitaren antza dauka)

"orrek sure antza deko"

(horrek zure antza dauka)

(38) "orreve aiten antzian esteko sustentzi andirik"

(horrek ere aitaren antzean ez dauka sustantzia handirik)

(39) "ori sure antzekoa da"

(hori zure antzekoa da)

"ori nire aistian antzekoa da"

(hori nire ahizparen antzekoa da)

"neure antzekoak dosag bai"

(neure antzekoak dituk bai)

(40) "neure begire daus"

(neure begira daude)

"orrek autobusen begire daus"

(horiek autobusaren begira daude)

"elixaldera yoan biu te neure begire daus"

(elizaldera joan behar dugu eta neure begira daude)

(41) "suk neure beste diru dekosu"

(zuk neure beste diru daukazu)

"orrek anayan beste yan deu"

(horrek anaiaren beste jan du)

"dekosu orrexen beste diru"

(daukazu horrexen beste diru)

(42) "aiten bile yoan dires"

(aitaren bila joan dira)

"neure bile etorri dires"

(neure bila etorri dira)

- (43) “neure eske etor dires”
(*neure eske etorri dira*)
“diruen eske yoan dire etzera”
(*diruaren eske joan dira etzera*)
- (44) “orren ganera baskarie be eroan geinke”
(*horren gainera bazkaria ere eroan genezake*)
- (45) “orren ganian berba in du”
(*horren gainean berba egin dugu*)
“onexen ganian gabiltzes”
(*honexen gainean gabiltza*)
- (46) “orrek euren kontra daus”
(*horiek euren kontra daude*)
- (47) “orrek aman konture bixi dire”
(*horiek amaren kontura bizi dira*)
- (48) “nik in dot biarra sure moduen”
(*nik egin dut beharra zure moduan*)
“ontara, sein de eskilarian moduen”
(*honetara, zein da eskilararen moduan*)
- (49) “ori aiten modukoa da”
(*hori aitaren modukoa da*)
“orren moduko andie sara su”
(*horren moduko handia zara zu*)
“ni nas sure modukoa”
(*ni naiz zure modukoa*)
- (50) “lengusuen ordes anaya etorri sen”
(*lehengusuaren ordez anaia etorri zen*)
Soziatiboaren morfema denbora alorrean erabiltzen da hainbat kasutan (51).
- (51) “egunokas esta etorri”
(*egunokin ez da etorri*)
“egunokas estot ikusi”
(*egunokin ez dut ikusi*)
“iru egunokas esta etorri”
(*hiru egunokin ez da etorri*)

- Partitiboaren morfemaren bidez ablatibo zaharra deitua izan dena ere egiten da (52).
- (52) “basori baso yoan dires”
(*basorik baso joan dira*)
“aterik ate etor dires”
(*aterik ate etorri dira*)
“ibili nes kaleri kale”
(*ibili naiz kalerik kale*)

Azpiatal honetako bariazioa aztertzeko hiru ezaugarri aukeratu ditugu: destinatiboaren morfema, adlatibo pluralaren morfema eta soziatiboaren erabilera denbora erlazioetan.

Destinatiboaren morfemak aldaki bi dauzka “*antzat*” (gixonantzat) eta “*antzako*” (gixonantzako). Gerra aurreko informatzaileen artean ere biak erabiltzen dira. Gaurko informatzaileen artean “*antzat*” 10ek erabiltzen dute (% 41,7) eta “*antzako*” 14k (% 58,3). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu ondoko hierarkiak lortzen dira; lehen eta bigarren belaunaldietan ez dago alderik; hirugarren belaunaldiko informatzaileek “*antzako*” gehiagotan erabiltzen dute, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “*antzat*” (% 50) = “*antzako*” (% 50)

2. belaunaldia “*antzat*” (% 50) = “*antzako*” (% 50)

3. belaunaldia “*antzako*” (% 75) > “*antzat*” (% 25)

Gauza bera egiten badugu informatzaileen generoaren arabera, ikusten dugu ez dagoela ezelako alderik andrazkoen eta gizezkoen artean: “*antzat*” % 41,7an erabiltzen da eta “*antzako*” % 58,3an.

Adlatibo pluralaren morfemaren erabilerari dagokionez; beronek aldaki bi dauzka “*akana*” (gixonakana) eta “*angana*” (gixonangana). Gerra aurreko informatzaileen artean “*akana*” baino ez dugu jaso. Gaurko informatzaileen artean “*akana*” 17 informatzailek erabili dute (% 70,8) eta “*angana*” 7k (% 29,2). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu ondoko hierarkiak lortzen dira; lehen eta hirugarren belaunaldietan “*akana*” nagusitzen da eta Erdiko belaunaldian,

berri, aukera bien emaitzak parekatuta agertzen dira; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “akana” (% 87,5) > “angana” (% 12,5)

2. belaunaldia “akana” (% 50) = “angana” (% 50)

3. belaunaldia “akana” (% 75) > “angana” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; andrazkoek “akana” gizonezkoek baino gehiago erabiltzen duten arren, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Andrazkoak “akana” (% 83,3) > “angana” (% 16,7)

Gizononezkoak “akana” (% 58,3) > “angana” (% 41,7)

Bizkaiko mendebaldeko barietateetan sozietatiboa kasua denbora arloan erabiltzea nahiko arrunta izan da (Gaminde, 1990c); haatik, badakigu atzeraka doana eta beronen orde besta molde batzuk erabiltzen direna. Gure gerra aurreko informatzaileek “egunokaz” arrunt erabiltzen zuten. Gaur eguneko informatzaileen artean bost aukera erabili dira; (a) “-okas” (4, % 16,7), (b) “-etan” (2, % 8,3), (c) “-otan” (5, % 20,8), (d) “onetan....-etan” (12, % 50) eta (e) “o...onetan” (1, % 4,2).

(a) egunokas esta etorri

(b) egunetan esta etorri

(c) egunotan esta etorri

(d) onetan egunetan esta etorri

(e) egun onetan esta etorri

Aukeren erabilera maila aztertzen badugu belaunaldien arabera ondoko hierarkiak lortzen ditugu. Bertan ikusten den bezala, erdiko belaunaldia da nahasterik handiena erakusten duena eta hirugarren belaunaldian “e” aukera agertu da eta “a” aukera guztiz desagertu da. Hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “e” (% 50) > “a” (% 37,5) > “b” (% 12,5)

2. belaunaldia “e” (% 37,5) = “d” (% 37,5) > “a” (% 12,5) = “b” (% 12,5)

3. belaunaldia “d” (% 62,5) > “c” (% 25) > “e” (% 12,5)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; bertan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Andrazkoak “d” (% 50) > “a” (% 25) > “b” = “c” = “e” (% 8,3)

Gizononezkoak “d” (% 50) > “c” (% 33,3) > “a” = “b” (% 8,3)

4.6. Bizigabeen deklinabidea

Azpiatal honetan bizigabeen deklinabidearen gainean jardungo dugu. 4.22. taulan erabiltzen diren morfemak agertzen dira.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Inesiboa	tan	(e)an	atan
Ablatiboa	tara	ra	atara
Adlatiboa	tati(k)	ti(k)	atati(k)
Adlatibo direk.	tarantza	rantza	atarantza
Muga-adlatiboa	tararte/taraño	rarte/raño	atararte/atarano
Genitiboa	takoa	koa	atakoa

4.22. taula: Bizigabeen deklinabidearen kasuen morfemak.

Bizigabeen deklinabidearen adibidetzat hiru berba aukeratu ditugu: “etxe” (4.23. taula), “herri” (4.24. taula) eta “baso” (4.25. taula)

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Inesiboa	etzetan	etzian	etziatan
Adlatiboa	etzetara	etzera	etziatara
Ablatiboa	etzetati(k)	etzeti(k)	etziatati(k)
Adlatibo direk.	etzetarantza	etzerantza	etziatarantza
Muga-adlatiboa	etzetararte	etzerarte	etziatararte
Genitiboa	etzetakoa	etzekoa	etziatakoa

4.23. taula: “etxe” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Inesiboa	erriten	errien	errietan
Adlatiboa	erritera	errire	errietara
Ablatiboa	erriteti(k)	erriti(k)	errietati(k)
Adlatibo direk.	erriterantza	errirantza	errietarantza
Muga-adlatiboa	erriterarte	errirarte	errietararte
Genitiboa	erritekoa	errikoa	errietakoa

4.24. taula: “herri” hitzaren deklinabidea.

Kasua	Mugagabea	Singularra	Plurala
Inesiboa	basotan	basoan	basoatan
Adlatiboa	basotara	basora	basoatara
Ablatiboa	basotati(k)	basoti(k)	basoatati(k)
Adlatibo direk.	basotarantza	basorantza	basoatarantza
Muga-adlatiboa	basotararte	basorarte	basoatararte
Genitiboa	basotakoa	basokoa	basoatakoa

4.25. taula: “baso” hitzaren deklinabidea.

Muga-adlatiboaren kasuan “*arte*”-dun adibideak paratu ditugu tauletan, baina “*raño*”-dunak ere erabiltzen dira: “*etzetaraño*”, “*etzeraño*”, “*etziataraño*”, “*erriteraño*”, “*erriraño*”, “*errietaraño*”, “*basotaraño*”, “*basoraño*” eta “*basoataraño*”.

Ablatiboaren kasu marken ordez, denbora adierazten denean, “*-rik*” erabiltzen da mendebaldeko barietate askotan gertatzen den bezala (53).

(53) “txikiterik asi ikastolara”

(*txikitatik hasi ikastolara*)

“amalau urterik aste arek dendan daus”

(*hamalau urtetik hasita haiek dendan daude*)

“ordurik ona, esta etorri”

(*ordutik hona ez da etorri*)

“nosik ona esta etorri?”

(*noiztik hona ez da etorri?*)

Azpiatal honetako barietateak aztertzeko ezaugarri bi aukeratu ditugu, muga-adlatiboaren morfema eta partitiboaren erabilera ablatiboaren ordez denbora erlazioetan.

Muga-adlatiboaren morfemari dagokionez, informatzaileen artean hiru aukera agertu zaizkigu: (a) “*raño*” (erriraño), (b) “*rarte*” (errirarte) eta (c) “*rartiño*” (errirartiño). Gerra aurreko informatzaileen artean “*rarte*” baino ez dugu jaso. Gaurko informatzaileen artean “*raño*” aukera 10ek erabiltzen dute (% 41,7) “*rarte*” 12k (% 50) eta “*rartiño*” bik (% 8,3). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu ondoko hierarkiak lortzen dira; aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “*rarte*” (% 50) > “*raño*” (% 37,5) > “*rartiño*” (% 12,5)

2. belaunaldia “*raño*” (% 50) > “*rarte*” (% 37,5) > “*rartiño*” (% 12,5)

3. belaunaldia “*rarte*” (% 62,5) > “*raño*” (% 37,5)

Gauza bera egiten badugu informatzaileen generoaren arabera ondoko hierarkiak lortzen dira. Nabarmenena da gizonezkoen artean “*rartiño*” ez agertzea; hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Andrazkoak “*rarte*” (% 41,7) = “*raño*” (% 41,7) > “*rartiño*” (% 16,7)

Gizonezkoak “*rarte*” (% 58,3) > “*raño*” (% 41,7)

Bizkaiko mendebaldeko barietateetan denbora adierazteko ablatiboaren “*tik*” morfemaren ordez “*rik*” erabili izan da (Gaminde, 1991a). Larrabetzuko gerra aurreko informatzaileek ere (54) moduko esaldiak erabili izan dituzte:

(54) “atzorik ona estot ikusi”

(*atzotik ez dut ikusi*)

Gaurko informatzaileetan aukera bi agertzen dira (a) “*rik ona*” (9, % 37,5) eta (b) “*tik*” (15, % 62,5). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu ondoko hierarkiak lortzen dira; bertan ikusten den moduan, aldaketa handia gertatu da belaunaldi batetik bestera, aldaketa lehen belaunaldian burutzen hasi zen eta hirugarren belaunaldirako guztiz burututa dago. Belaunaldien artean dagoen aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m.: 2) 13,867; p = 0,001$).

1. belaunaldia “*rik*” (% 87,5) > “*tik*” (% 12,5)

2. belaunaldia “*tik*” (% 75) > “*rik*” (% 25)

3. belaunaldia “*tik*” (% 100)

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuta, ondoko hierarkiak lortzen dira. Gizonezkoek “*tik*” gehiago erabiltzen dute andrazkoek baino; hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Andrazkoak “*tik*” (% 58,3) > “*rik*” (% 41,7)

Gizonezkoak “*tik*” (% 66,7) > “*rik*” (% 33,3)

4.7. Aditzondoak

Aditzondoan azpiatal honetan leku, denbora eta modu aditzondoan gainera adibideak eta oharrak baino ez ditugu batuko.

4.7.1. Leku aditzondoak

Erakusleetatik erakartzen diren leku aditzondoak arruntak (4.26. taula), indartuak (4.27. taula), “a” gehitzen dutenak (4.28. taula) eta berrindartuak izan daitezke (4.29. taula). Leku galdetzaileak 4.30. taulan ematen dira.

Kasua	hemen	hor	han
Inesiboa	emen	or	an
Ablatiboa	emetik	ortik	andik
Adlatiboa	ona	orra	ara
Adlatibo direk.	onantza	orrantza	arantza
Muga-adlatiboa	onarte/onario	orrate/orraio	ararte/araio
Genitiboa	emekoa	orkoa	angoa

4.26. taula: Leku aditzondo arruntak.

Kasua	hementxe	hortxe	hantxe
Inesiboa	ementxe	ortxe	antxe
Ablatiboa	emetixik	ortixik	andixik
Adlatiboa	onaxe	orraxe	araxe
Muga-adlatiboa	onaixarte	orraixarte	araixarte
Genitiboa	emekoaxia	orkoxia	angoxia

4.27. taula: Leku aditzondo indartuak.

“arte”rekin ezeze “año”rekin ere erabil daitezke: “onaixeño”, “orraixeño” eta “araixeño”.

Kasua	hamen	haor
Inesiboa	amen	aur
Ablatiboa	ametik	aurtik
Adlatiboa	aona	aurra
Adlatibo direk.	aonantza	aurrantza
Muga-adlatiboa	aonarte/aonario	aurrate/aurraio
Genitiboa	amekoa	aurkoa

4.28. taula: “a-” gehitzen duten leku aditzondoak.

Kasua	berton	bertan
Inesiboa	berton	bertan
Ablatiboa	bertotik	bertatik
Adlatiboa	bertora	bertara
Adlatibo direk.	bertorantza	bertarantza
Muga-adlatiboa	bertorarte/bertoraio	bertararte/betaraio
Genitiboa	bertokoa	bertakoa

4.29. taula: Leku aditzondo berrindartuak.

Kasua	
Inesiboa	non
Ablatiboa	nondik/nondi
Adlatiboa	nora
Adlatibo direk.	norantza
Muga-adlatiboa	norarte/norario
Genitiboa	nongoa

4.30. taula: Galdetzaileak.

Aditzondo konposatuetan hiru mota nagusi topatu ditugu, “ainbat” (55) edo “arenbat” (56) deklinatuta erabiltzen direnak eta galdetzaileei “i-” gehituta sortzen direnak; azken hauek 4.31. taulan agertzen dira.

Kasua	
Inesiboa	iñon
Ablatiboa	iñondik/iñondi
Adlatiboa	iñora
Adlatibo direk.	iñorantza
Muga-adlatiboa	iñorarte
Genitiboa	iñongoa

4.31. taula: “i-” gehitzen duten aditzondo konposatuak.

(55) “ori ainbaten ikusi deude”

(*hori hainbaten ikusi dute*)

“ainbatera yoan dires?”

(*hainbatera joan dira?*)

(56) “orrek arenbatera badoas”

(*horiek arenbatera badoaz*)

“arenbatetik etor dire”

(*arenbatetik etorri dira*)

Azpiatal honetako bariazioa aztertzeke ezaugarri bat aukeratu dugu, galdera hau ablatiboan egiten diren lehen graduko leku aditzondoan formari dagokio. Bizkaiko leku askotan gertatzen den bezala, Larrabetzun aditzondo hau “emetik” izaten da; gerra aurreko informatzaileek ere berau baino ez dute erabiltzen. Azkenaldion, euskara estandarren eraginez ziurrenik, beronen ordean “emendik” erabiltzen da¹. “emetik” 11 informatzailek erabili dute (% 45,8) eta “emendik” 13 informatzailek (% 54,2). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu ondoko hierarkiak lortzen dira; bertan ikusten den moduan, aldaketa lehen belaunaldian hasi da gertatzen eta prozesua arean garatu da bigarren eta hirugarren belaunaldietan; hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “emetik” (% 75,5) > “emendik” (% 25)

2. belaunaldia “emendik” (% 62,5) > “emetik” (% 37,5)

3. belaunaldia “emendik” (% 25) > “emetik” (% 75)

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuta, ondoko hierarkiak lortzen dira. Andrazkoek aukera bien erabilera parekatua egiten dute eta gizonezkoek

¹ Antzera gertatzen da “emekoa” eta “emengoa” aditzondoekin ere bai.

“emendik” gehiago erabiltzen dute andrazkoek baino; hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Andrazkoak “emetik” (% 50) = “emendik” (% 50)

Gizonezkoak “emendik” (% 58,3) > “emetik” (% 41,7)

4.7.2. Denbora aditzondoak

Denbora aditzondoei dagokienez, galdetzaileak eta aditzondo konposatuak ikusiko ditugu. Galdetzaileak 4.32. taulan agertzen direnak dira.

nos
nosik ona
nos arte/nos arteño/nosartian
nosko
4.32. taula: Denbora aditzondoen galdetzaileak.

Konposatu zehaztugabeetan baiezko esaldietan “nosonos” (57) eta “nosgure” (58) jaso ditugu eta ezezkoetan eta galderetan “iños” (59).

(57) “nosonos agertuko dire”

(noiz edo noiz agertuko dira)

“nosonos etorri dire”

(noiz edo noiz etorri dira)

“nosonos seuser falta badosue etorri”

(noiz edo noiz zer edo zer falta baduzue etorri)

(58) “nosgure etor seintikes”

(noizgura etor zintezke)

(59) “ori estator iños be ondo”

(hori ez dator inoiz ere ondo)

“estator iños arin”

(ez dator inoiz arin)

“iños egon sara or?”

(inoiz egon zara hor?)

4.7.3. Modu aditzondoak

Modu aditzondoei dagozkien galdetzaileak “selan” eta “selangoa” dira. Erakusleetatik erakartzen direnetan arruntak eta indartuak dauzkagu (4.33. taula).

	Arruntak	Indartuak
selan	olan	olantxe
	alan	alantxe
selangoa	olangoa	olangoxia
	alangoa	alangoxia

4.33. taula: Modu aditzondoak

Hauetzaz gainera “edoselan/edosetara” (60), “eselan” (61), “seuselan” (62), “selangure (63) eta “selan edo alan” (64) ere erabiltzen dira

(60) “ori edoselan ingu”

(hori edozelan egingo dugu)

“ori edosetara ingu”

(hori edozertara egingo dugu)

“ori edoselan esaten da”

(hori edozelan esaten da)

(61) “ori estosu ondo ingo ba eselan bes”

(hori ez duzu ondo egingo bada ezelan ere ez)

(62) “seuselan ingu ondo”

(zer edo zelan egingo dugu ondo)

(63) “selangure ingu”

(zelagura egingo dugu)

“selangure esaten da”

(zelangura esaten da)

(64) “selan edo alan akabeu in biada”

(zelan edo halan amaitu egin behar da)

“selan edo alan goraño igongo deude”


(zelan edo halan goraino igongo dute)

4.8. Datuen azterketa kuantitatiboa

Datuen azterketa kuantitatiboa egiteko aurreko azpiataletan egin ditugun ezaugarrien azterketa linguistikoen emaitzetan oinarrituko gara. Ikusi dugun bezala, ezaugarri batzuek aukera bakarra daukate informatzaileen erantzunetan; beste batzuek aukera bi edo gehiago daukate. Ezaugarri batek aukera bakarra daukanean berori izango da matrizean erabiliko duguna, aukera bi daudenean euretariko bat agertuko da eta erabiltzen den tasuna informatzaileek erabiltzen dutenean 1 ezarriko da eta

erabiltzen ez dutenean 0. Galderaren aukerak 3 direnean aukera bakoitzeko tasun bat sartuko da matrizean, e.a. Era honetara aztertu ditugun izen morfologiari buruzko ezaugarriek 17 tasun edukiko dituzte matrizean.

Matrizearen tasunak, informatzaileen erabileren arabera, 1 eta 0 zenbakien bidez beteko dira matrize dikotomikoa osatuz. Azkenean, informatzaile bakoitzaren erantzunak bektore bat osatuko dute. Izen morfologiaren tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 4.1. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira.



A multzoan informatzaileen % 58,33 eta B multzoan informatzaileen % 41,67 kokatzen dira. Bertan ikusten den bezala, lehen belaunaldiko informatzaileak multzo bietan kokatzen dira % 50ean, bigarren eta hirugarren belaunaldietako informatzaile gehienak (% 62,5 bakoitzeko) A multzoan kokatzen dira; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoaren arabera, A taldean 7 gizonezko eta 7 andrazko kokatzen dira eta B taldean 5 andrazko eta 5 gizonezko.

Hemen aurkeztu ditugun ezaugarrien datuen argitara esan dezakegu, izen morfologiak aldaketak dauden arren, eurak ez direla nahikoa informatzaileen artean talde homogeenok egiteko, ez adinaren arabera ez eta generoaren arabera ere.

5. Aditz Morfologia

Atal honetan aditz morfologiaren ezaugarri nagusiak deskribatu eta azaldu egingo ditugu. Deskribapena bideratzeko eta jaso ditugun datuak zelan edo halan ordenaturik aurkezteko aditzaren osagaiak oinarritzat hartuko ditugu. Aditzaren erabileran aditz jokatuak eta aditz jokatuak bereizten dira. Aditz jokatuaren osagaiak hiru multzo nagusitan (1) banatu ditzakegu; partizipioa (PAR), aspektuaren morfemak (ASP) eta aditz laguntzailea (LAG).

(1) PAR ASP LAG

Azpiatal guztietan jaso ditugun eredu nagusiak, kontrarik esaten ez den artean, gerra aurrean jaiotako informatzaileek eman dituztenak dira.

Aldakortasuna aztertzeko lau galdera egin dira aditz ez jokatuaren atalean, hogeita bost aditz jokatuaren arloan, alokutiboaren erabilerari dagokion galderaren gaineko erantzun bat hartu da eta beste hiru menderagailuen arloan.

Atal hau bederatzi azpiataletan banatuta aurkeztu dugu. Lehen azpiatalean aditz ez jokatuak aztertu ditugu. Bigarren azpiatalean aditz aspektu motak eta euron erabilerak ikusiko dira. Hirugarren azpiatala aditz laguntzaileek osatuko dute. Laugarren azpiatalean aditz trinkoak agertuko dira. Bosgarren azpiatalean alokutiboak ikertuko dira. Seigarren, zazpigarren eta zortzigarren azpiataletan juntagailuak, lokailuak eta menderagailuak ikusiko ditugu. Azkenik, bederatzigarren azpiatalean datuen azterketa kuantitatiboa egingo dugu.

5.1. Aditz ez jokatuak

Azpiatal honetan aditz ez jokatuaren erabileraren gainean jaso ditugun esaldi ereduak batzen ditugu. Aditz ez jokatuak partizipioak eta aditz izenak izan daitezkeenez gero, azpiatal hau sekzio bitan banatuta aurkeztu dugu.

5.1.1. Partizipioak

Aditz partizipioak artikularekin, deklinabide atziki batzuekin, “-ta” morfemarekin eta hainbat posposizioarekin batera erabil daitezke. Partizipio soila erabil daiteke azaleko ezelako marka barik (2).

- (2) “ein sariri pestau obeto da erosi”
(egin saririk ere ez dago hobeto da erosi)
 “eiteri pesteu meresidu oba da erosi”
(egiterik ere ez du merezi hobe da erosi)

Partizipioa artikulua gehituta ere erabil daiteke absolutu kasu markarekin esaldiaren predikatu osagarri gisa (3).

- (3) “damutute nau berandu etorri biarra”
(damututa nago berandu etorri beharra)
 “au de penia arinao etorri bear esa”
(hau da pena arinago etorri behar eza)
 “estekot damurik yoan esa se emen ondo gaus”
(ez daukat damurik joan eza ze hemen ondo gaude)
 “damutute nau yan esa”
(damututa nago jan eza)
 “ori emen yayoa da”
(hori hemen jaioa da)

Aditz partizipioa absolutuan galdetzaile batekin batera erabiltzen denean, zehar galdera ez jokatuak egiten dira (4), partizipioari partitiboaren kasu marka gehitu dakioko (5).

- (4) “eskoas errire espadeku non yoan”
(ez goaz herrira ez badaukagu non joan)
 “badakit nondik sartu”
(badakit nondik sartu)
 “badakit ser esan”
(badakit zer esan)
 “estekosu segaitik esan”
(ez daukazu zergatik esan)

- (5) “estekosu segaitig yoanik”
(ez daukazu zergatik joanik)

(6), (7) eta (8) adibideetan soziationarekin, motibatiboarekin eta intrumentalarekin batera agertzen da.

- (6) “ori ekarriegas estu eser iten”
(hori ekarriarekin ez dugu ezer egiten)
 “ori esanagas estosu eser konponduten”
(hori esanarekin ez duzu ezer konpontzen)
 “posi nau ikusiegas su”
(pozik nago ikusiarekin zu)
 “akabeuegas batera apurtu in de”
(amaituarekin batera apurtu egin da)
 “etorriegas batera ogera yoan sien”
(etorriarekin batera ohera joan ziren)
 (7) “parkatu ixu berandu etorriagaitik”
(parkatu ezazu berandu etorriagaitik)
 (8) “eiñes iñes saldu iteituz”
(eginez eginez saldu egiten ditu)
 “kendues kendues yoan dire”
(kenduz kenduz joan dira)

Intrumentalarekin batera “gero” erabilita, baldintza ez jokatuak lortzen dira; (9)ko adibideetan ikusten den bezala, aukera bat baino gehiago bildu dugu.

- (9) “bera etorrieskero berba ingo neunke nik”
(bera etorritz gero berba egingo neuke nik)
 “denpora ona ineskero yoango gintikes”
(eguraldi ona eginez gero joango ginateke)
 “fabriken gizona ibiliskeron bakixu andriak in in biadeu”
(fabrikan gizona ibiliz gero badakizu andreak egin egin behar du)
 “olan einesco arrie istutu iten da”
(hola eginez gero harria estutu egiten da)
 “da txoleta koyueskoan berak segidu biar isteuen”
(eta txoleta koiuz gero berak segitu behar izaten zuen)

Inesiboa partizipioari berari erantsita, beste barietate batzuetako “-t(z)eko zorian” modukoak adierazteko erabiltzen da (10).

- (10) “ie ie etorrien egonas”
(ea ea etorrian egon naiz)
 “ia yeusien egon da be bai”
(ea jausian egon da ere bai)

“-ko” genitiboaren morfema partizipioari eransten zaionean, erlatibo ez jokatuak egiteko erabiltzen da (11). Erlatibo ez jokatu honekin “beste” posposizioa ere erabil daiteke (12).

- (11) “ori amak eiñekoa ixen da”
(hori amak eginekoa izan da)
 “Bilboti ekarrikoa gordeta dau”
(Bilbotik ekarrikoa gordeta dago)
 “ori kanpoti etorrikoa da”
(hori kanpotik etorrikoa da)
 “amen dau seuk eiñekoa”
(hemen dago zeuk eginekoa)
 “orrek gixon orrek ekarrikoa aldendu de”
(gizon horrek ekarrikoa aldendu da)
- (12) “ekar du amak esaneko beste”
(ekarri dugu amak esaneko beste)
 “erosi dot seuk esaneko beste”
(erosi dut zeuk esaneko beste)

Bariazioaren azterketa egiteko erlatibo ez jokatuaren gainean galdera bi egin ditugu. Lehen galderari dagokionez, gaur eguneko informatzaileen artean hiru aldaki jaso ditugu: “ko” (12, % 50) partizipioari deusola, “tako” (6, % 25) eta “a” artikulua partizipioari deusola (6, % 25). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen belaunaldian “ko” dela gehien erabiltzen dena, baina bigarren belaunaldian “tako”rekin parekatuta agertzen da eta hirugarren belaunaldian berau da gutxien erabiltzen dena. Era berean bata murriztuz doan neurrian besteak haziz doaz. Aldea, hala ere, ez da estatistikoki esanguratsua.

1. belaunaldia “ko” (% 87,5) > “a” (% 12,5)
 2. belaunaldia “ko” (% 37,5) = “tako” (% 37,5) > “a” (% 25)
 3. belaunaldia “tako” (% 37,5) = “a” (% 37,5) > “ko” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira, bertan ikusten den moduan, generoaren arabera ez dago ezelako alderik.

- Andrazkoak “ko” (% 50) > “tako” (% 25) = “a” (% 25)
 Gizononezkoak “ko” (% 50) > “tako” (% 25) = “a” (% 25)

Bigarren galderari dagokionez, aurrekoan jaso ditugun aukera berberak agertu zaizkigu, baina ehunekoak ez datoz bat: “ko” (% 54,2), “tako” (% 29,2) eta “a” (% 16,7). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen eta bigarren belaunaldietan “ko” dela gehien erabiltzen dena, baina hirugarren belaunaldian “tako” nagusitzen da. Agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


1. belaunaldia “ko” (% 87,5) > “tako” (% 12,5)
 2. belaunaldia “ko” (% 37,5) > “tako” (% 25) = “a” (% 25)
 3. belaunaldia “tako” (% 50) > “a” (% 25) = “ko” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira; bertan ikusten den moduan, hierarkia bera erabiltzen da baina ehunekoak ez datoz bat; hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

- Andrazkoak “ko” (% 66,7) > “tako” (% 25) > “a” (% 8,3)
 Gizononezkoak “ko” (% 41,7) > “tako” (% 33,3) = “a” (% 25)

Galdera bien emaitzak aztertzen baditugu, ikusten dugu “ko” gehien erabiltzen dena dela (% 52,1), gero “tako” (% 27, 1) eta gutxien “a” (% 20,8). Belaunaldika ondoko hierarkiak lortzen dira. Bertan ikusten den legez, lehen eta bigarren belaunaldietan “ko” da gehien erabiltzen dena, baina hirugarren belaunaldian “tako” eta gutxien erabiltzen dena “ko” (5.1. irudiko grafikoa). Aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 4) 13,228; p = 0,010$).

1. belaunaldia “ko” (% 87,5) > “tako” (% 6,3) = “a” (% 6,3)
 2. belaunaldia “ko” (% 43,8) > “tako” (% 31,3) > “a” (% 25)
 3. belaunaldia “tako” (% 43,8) > “a” (% 31,3) > “ko” (% 25)



Datuen azterketa informatzaileen generoaren arabera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira, era bakoitzaren ehunekoak arean desberdinak dira eta adierazten dute gizonezkoak berrizaleagoak direla andrazkoak baino, aldeak estatistikoki esanguratsuak izan ez arren.

Andrazkoak “ko” (% 58,3) > “tako” (% 25) > “a” (% 16,7)
 Gizononezkoak “ko” (% 45,8) > “tako” (% 29,2) = “a” (% 25)

Egoerak adierazteko edo, nahiago bada, partizipioetan oinarritutako adberbio egiturak sortzeko erabiltzen da “-ta” morfema (13).

- (13) “entzunde dekot ori”
 (entzunda daukat hori)
 “olango seuser ulertute badekot”
 (holako zer edo zer ulertuta badaukat)
 “ori yarrite egon da”
 (hori jarrita egon da)
 “ogie gordeta euki dot”
 (hori gordeta eduki dut)
 “oin orra etorrite dau”
 (orain horra etorrita dago)
 “ori apurtute dau”
 (hori apurtuta dago)
 “ondo esanda dau”
 (hori esanda dago)

“dirue koyute eskape deu”
 (dirua koiuta ihes egin du)

Honelakoetan “-TA” morfema aditz partizipioari erantzen zaionean, (14)ean agertzen diren arau fonologiko biak aplikatzen dira (5.1. taula).

- (14) t > d / n ____
 a > e / i, u (C₀) ____

Araua	etorri+ta	esan+ta
Afjazioa	etorrita	esanta
t > d / n	-	esanda
a > e / i, u (C ₀)	etorrite	-
Azkena	etorrite	esanda

5.1. taula: “-ta” morfemari eragiten dioten arau fonologikoak.

Ondoko adibideetan ikus dezakegun bezala, “-ta” honekin batera postposizio batzuk erabil daitezke: “gero” (15) eta “be” (16).

- (15) “basoan ibili te gero yoan gintzesan afalduten”
 (basoan ibili eta gero joan ginen afaltzera)
 “beskaldu te gero yoango gara etzera”
 (bazkaldu eta gero joango gara etxera)
 “biar in de gero beskalduko du”
 (behar egin eta gero bazkalduko dugu)
 (16) “errikoa ixenda be esetu bestu iten”
 (herrikoa izanda ere ezagutu ere ez dugu egiten)
 “kotxean yoanda be ya eskara allegetan denporas”
 (kotxean joanda ere ja ez gara ailegatzen denboraz)

Jarraian aditz partizipioekin batera erabiltzen diren postposizio batzuen erabileren adibideak emango ditugu: “aginik” (17), “ala” (18), “arren” (19), “arte/artian” (20), “barik” (21), “barik be” (22) “biarrian” (23), “esian” (24) eta “orduko” (25). Era berean aitzinkariekin egiten diren erabilera batzuen adibideak aurkezten ditugu: “aunke” (26), “selan... alan...” (27) eta “senbet eta” (28).

- (17) “umia yeusi aginik egon da”
 (umea jausi aginean egon da)
 (18) “irebasi ala gasteu iten deude”
 (irabazi ahala gastatu egiten dute)

- “orrek koyu ala yaten deitus”
(*horrek koiu ahala jatend itu*)
- (19) “etorri esarren esteko ardure”
(*etorri ez arren ez dauka ardura*)
- “edadekoak ixen arren goraño igon deude”
(*edadekoak izan arren goraino igon dute*)
- (20) “akabeu artian itxarongo yatzu”
(*amaitu artean itxarongo zaizu*)
- “lagundu in dotzut ori amaitu arte”
(*lagundu egin dizut hori amaitu arte*)
- “etorri arte emen egongo gara”
(*etorri arte hemen egongo gara*)
- (21) “ori apurtu barik eroan”
(*hori apurtu barik eroan*)
- “gorantza in barik apur bet eskoarantza ixue”
(*gorantz egin barik apur bat eskoatarantz egizue*)
- “inusetekeriek esaten ibili barik obeto ixilik egongo basintikes”
(*inuzentekeriak esaten ibili barik hobeto isilik egongo bazina*)
- “ori in baritau”
(*hori egin barik dago*)
- (22) “ikusi bari pe esetu in dot”
(*ikusi barik ere ezagutu egin dut*)
- “eskatu bari pe emon dosku”
(*eskatu barik ere eman digu*)
- (23) “etzian yan biarrian kanpora yoango gara yaten”
(*etxean jan beharrean kanpora joango gara jaten*)
- “berakatzak ekarri biarrian kinpulek ekarri situesan”
(*berakatzak ekarri beharrean kinpulek ekarri zituzten*)
- (24) “esi litike yoan kotxerik euki esian”
(*ezin liteke joan kotxerik euki ezean*)
- “esi lei ikusi goixetik yoan esian”
(*ezin liteke ikusi goizetik joan ezean*)
- (25) “ikusi orduko ba esetu in dot”
(*ikusi orduko bada ezagutu egin dut*)

- “eskatu be in orduko emon dosku”
(*eskatu ere egin orduko eman digu*)
- “sue ixetu orduko bentanea serratu ixu”
(*sua piztu orduko leihoa itxi ezazu*)
- “beskaldu orduko eskuek garbitu ixus”
(*bazkaldu orduko eskuak garbitu itzazu*)
- “gure aite erdi tratantia san eskondu orduko”
(*gure aita erdi tratantea zen ezkondu orduko*)
- (26) “aunke denpora txarra in yoango gara mendire”
(*eguraldi txarra egin arren joango gara mendira*)
- “aunke lagun asko etorri danak afalduko deude”
(*lagun asko etorri arren denek afalduko dute*)
- (27) “selan etorri alan gasteu”
(*zelan etorri hala gastatu*)
- (28) “senbet eta ume gitxiu egon obeto”
(*zenbat eta ume gutxiago egon hobeto*)

5.1.2. Aditz izenak

Aditz izenak egiteko gehien erabiltzen den morfema “-TE” da, beronen alomorfoa den “-TZE” kasu bakan batzuetan ager daiteke (ikus 5.2. azpiatala). –KERA morfema erabiltzen da denborazko esaldi ez jokatu batzuk egiteko.

5.1.2.1. -TE/-TZE

Aditz izenak deklinabide morfema batzuekin erabiltzen dira: absolutua (29), ergatiboa (30), datiboa (31), partitiboa (32), sozilatiboa (33) motibatiboa (34), inesiboa (35) eta genitiboa (36). Absolutuarekin erabiltzen denean (29), funtzio bi betetzen dira, esaldiaren subjektua izan daiteke (a) edo objektua (b). (36)ko “-ko” morfemari beste morfema batzuk atxiki dakizkioke, “-tekotan” (37) eta “-tekotzat” (38).

- (29a) “egie esatea naikoa da”
(*egia esatea nahikoa da*)
- “umiari olgetia gustetan yakie”
(*umeei olgatzea gustatzen zaie*)

- “orreri aistu in yako euskeras berba itia”
(*horri ahaztu zaio euskaraz berba egitea*)
- “aistu in yata atia itxitia”
(*ahaztu egin zait atea ixtea*)
- “ori esatia estau ondo”
(*hori esatea ez dago ondo*)
- “orreri ondo yatia gustetan yakie”
(*horiei ondo jatea gustatzen zaie*)
- “amari gustetan yako etzian yatia”
(*amari gustatzen zaio etxean jatea*)
- (29b) “gure deude gu emen egotia”
(*gura dute gu hemen egotea*)
- “gure dot ori etortia”
(*gura dut hori etortzea*)
- (30) “ondo ikusi esiteag buruko mine emoten deu”
(*ondo ez ikusteak buruko mina ematen du*)
- “asko edatiak kalte ilixu”
(*asko edateak kalte egin liezazuke*)
- (31) “garie ereitari itxin dotzie”
(*garia ereitari utzi diote*)
- “orrek itxi otzo fumeteari”
(*horrek utzi dio erretzeari*)
- (32) “erosteripesdeu meresidu”
(*erosterik ere ez du merezi*)
- “eiteri pesteu meresidu oba da erosi”
(*egiterik ere ez du merezi hobe da erosi*)
- “onen ama ta ni juntetan bagara be esteku amaituterik”
(*honen ama eta ni elkartzen bagara ere ez daukagu amaitzerik*)
- (33) “posig nau emen egotiagas”
(*pozik nago hemen egoterekin*)
- “egie sateagas naikoa da”
(*egia esatearekin naikoa da*)
- “kantzeta nau bedarra ebagiteagas”
(*nekatuta nago belarra ebakitzearekin*)

- “akorde nas erostiegas”
(*gomutatu naiz erostearekin*)
- “ikusi estiagas buruko mine”
(*ez ikustearekin buruko mina*)
- (34) “parkatu ixu berandu etorritiagaitik”
(*barka ezazu berandu etortzeagaitik*)
- “kafia artziarren lorik in esinik eonas”
(*kafea hartzearren lorik egin ezinik egon naiz*)
- “larrarin yoatearren yausi de”
(*lar arin joatearren jausi da*)
- “afaldu estearren yoan dire”
(*ez afaltzearren joan dira*)
- “yaten doas asak edo aselgak loditu estearren”
(*jaten ditut azak edo azelgak ez loditzearren*)

Aditz izenak inesibo kasu markarekin hiru erabilera dauzka nagusiki; finala (35a), modala (35b) eta azkenik, sarrien erabiltzen dena, aspektu ezperfektoaren marka ere bada (ikusi 5.2. azpiatala).

- (35a) “etzera noa yaten”
(*etxera noa jatera*)
- “ama ikusten etorri nes”
(*ama ikustera etorri naiz*)
- “afalduten gelditu de”
(*afaltzera gelditu da*)
- (35b) “akorde nas erosten”
(*gomutatu naiz erosten*)
- “asines yaten”
(*hasi naiz jaten*)
- “txistu yoten ikisi deu”
(*txistua jotzen ikasi du*)
- “erakutzi dotzet iten”
(*erakutsi diot egiten*)

- “beskarie berotuten imini dot”
(*bazkaria berotzen ipini dut*)
- “orrek bere semia ikusi deu fumetan”
(*horrek bere semea ikusi du erretzen*)
- “koitan atrebidu de”
(*hartzen ausartu da*)
- “ori sinestuten gatxa da”
(*hori sinesten gaitza da*)
- “ori fasile da iten”
(*hori erraza da egiten*)
- “itxaroten ernegeta nau”
(*itxaroten ernegatuta nago*)
- “itxi dostie segitan”
(*itxi didate segitzen*)
- “ori nekes lotzean da lo iten”
(*hori nekez lotzen da lo egiten*)
- (36) “esan tzut isilik egoteko”
(*esan dizut isilik egoteko*)
- “amak esan deu emen egoteko”
(*amak esan du hemen egoteko*)
- “au erosi dot umiari emoteko”
(*hau erosi dut umiari emoteko*)
- “ori iteko dau”
(*hori egiteko dago*)
- “yosteko makine apurtu in de”
(*josteko makina apurtu egin da*)
- “esteko yateko ganarik”
(*ez dauka jateko gogorik*)
- “aleginek in doas arin akabetako”
(*ahaleginak egin ditut arin amaitzeko*)
- “su akorde saites gero erosteko”
(*zu gomuta zaitez gero erosteko*)
- “biarra akabetako ondio denporia badeku”
(*beharra amaitzeko oraindino astia badaukagu*)

- “au ekar dot seuk eroateko”
(*hau ekarri dut zeuk eroateko*)
- (37) “itekotan ondo in biada edo espabe bapes”
(*egitekotan ondo egin behar da edo ezpabere bat ere ez*)
- “ie ie etortekotan egonas”
(*ia ia etortzekotan egon naiz*)
- “txarto itekotan in es oba”
(*txarto egitekotan egin ez hobe*)
- “txarto berba itekotan obeto ixilik egon”
(*txarto berba egitekotan hobeto isilik egon*)
- (38) “arkondara bat erostekotzat yoanas dendara”
(*alkandora bat erostekotzat joan naiz dendara*)
- “basora yoanas egurre ekartekotzat”
(*basora joan naiz egurra ekartzekotzat*)
- “estot ekarri baye egurre ekartekotzat yoanas”
(*ez dut ekarri baina egurra ekartzekotzat joan naiz*)

Bizkaiko mendebaldeko barietate askotan ezezko nominalizazioak egitean (Gaminde, 1990a) “es” aditzondoa aditz partizipioa eta aditz izena bihurtzeko morfemaren artean kokatzen da (39). Larrabetzuko gerra aurreko informatzaileek horrela egiten izan dituzte era honetako esaldiak (40); Kasu batzuetan “ite” morfema erabiltzen izan dute (41)

- (39) ibili_es_te
- (40) “afaldu estearren yoan dire”
(*ez afaltzearren joan dira*)
- “ibili estia esta ondo”
(*ez ibiltzea ez da ondo*)
- “ikusi estiagas buruko mine”
(*ez ikustearekin buruko mina*)
- (41) “loditu esiteko gitxi yan biada”
(*ez loditzeko gutxi jan behar da*)
- “ibili esitia txarra da”
(*ez ibiltzea txarra da*)

Erabilera hau aztertu ahal izateko galdera bi egin ditugu; lehen galderan “*tea*” aztertuko da eta bigarrean “*teko*”. Lehen galderari dagokionez, hiru erabilera jaso ditugu; (a) erabilera “*es*” “*te*” morfemaren aurrean kokatuta erabiltzen da (% 50); (b) erabilera “*te*”ren ordez “*ite*” morfema agertzen da (% 16,67) eta (c) erabilera “*te*” partizipioari deusala erabiltzen da (% 33,33). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen eta bigarren belaunaldietan (a) dela gehien erabiltzen dena, baina hirugarren belaunaldian (c) agertzen da nagusi. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

1. belaunaldia “a” (% 62,5) > “b” (% 37,5)
2. belaunaldia “a” (% 50) > “c” (% 37,5) > “b” (% 12,5)
3. belaunaldia “c” (% 62,5) > “a” (% 37,5) > “b” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; ikusten den moduan, andrazkoen artean gehien erabiltzen den aukera (a) da eta gizonezkoen artean, berriz, (c).

- Andrazkoak “a” (% 66,7) > “c” (% 25) > “b” (% 8,3)
Gizononezkoak “c” (% 41,7) > “a” (% 33,3) > “b” (% 25)

Bigarren galderari dagokionez, lehenengoan bezala, hiru erabilera jaso ditugu; (a) erabilera “*es*” “*te*” morfemaren aurrean kokatuta erabiltzen da (% 62,5); (b) erabilera “*te*”ren ordez “*ite*” morfema agertzen da (% 16,7) eta (c) erabilera “*te*” partizipioari deusala erabiltzen da (% 20,8). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu belaunaldi guztietan gehien erabiltzen dena (a) dela, (b) lehen eta bigarren belaunaldietan agertzen da eta (c) bigarrean eta hirugarrean. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “a” (% 62,5) > “b” (% 37,5)
2. belaunaldia “a” (% 62,5) > “c” (% 25) > “b” (% 12,5)
3. belaunaldia “a” (% 62,5) > “c” (% 37,5)

Generoaren arabera azterketa bera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira andrazkoen eta gizonezkoen artean; ikusten den moduan, generoaren arabera ez dago alderik hurrenkeretan, bai, oster, ehunekoetan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua, baina ehunekoak aztertuta ikusten dugu gizonezkoak berrizaleagoak direla andrazkoak baino.

- Andrazkoak “a” (% 75) > “c” (% 16,7) > “b” (% 8,3)
Gizononezkoak “a” (% 50) > “c” (% 25) > “b” (% 25)


Galdera bi hauen emaitzak batera aztertuta, ikusten dugu ez direla ehuneko berberetan gauzatzen; horrela bada absolutu kasu markarekin (c) aukeraren ehunekoak altuagoa da genitibo kasu markarekin gertatzen dena baino. 5.2. taulan aukera guztien ehunekoak erakusten dira kasu marka bakoitzeko.

	(a)	(b)	(c)
absolutua	50	16,67	33,33
genitiboa	62,5	16,7	20,8

5.2. taula: Aukera bakoitzaren ehunekoak ezezko nominalizazioaren kasuaren arabera.

Galdera bien emaitzak batera aztertuta belaunaldika ondoko hierarkiak lortzen ditugu, bertan ikusten dugu belaunaldika “a” aukeraren ehunekoak gutxituz doazela “c”renak haiziz doazen artean eta “b” aukera desagertu egin dela hirugarren belaunaldian (5.2. irudiko grafikoa). Aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 4) 14,761; p = 0,005$).

1. belaunaldia “a” (% 62,5) > “b” (% 37,5)
2. belaunaldia “a” (% 56,3) > “c” (% 31,3) > “b” (% 12,5)
3. belaunaldia “a” (% 50) = “c” (% 50)



Generoaren arabera azterketa bera eginda, ondoko hierarkiak lortzen dira, ikusten den moduan, ez dago alderik hurrenkeretan, bai, oster, ehunekoetan. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua, baina ehunekoak aztertuta ikusten dugu gizonezkoak berrizaleagoak direla andrazkoak baino.

- Andrazkoak “a” (% 70,8) > “c” (% 20,8) > “b” (% 8,3)
Gizononezkoak “a” (% 41,7) > “c” (% 33,3) > “b” (% 25)

5.1.2.2. -KERAN

Aditz izenak egiteko orain arte ikusiko baliabideez gain badugu beste bat ere, -KERA atzizkia, hain zuzen. Atzizki honen bidez aditz partizipioak aditz izen bilaka daitezke ondoko era honetara:

“urtekeran atia itxixu”

(*irtekeran atea itxi ezazu*)

“atia itxikeran giltze apurtu in de”

(*atea itxikeran giltza apurtu egin da*)

“ixetukeran erre ines”

(*piztukeran erre egin naiz*)

“eskue ebagi deu bentanea apurtukeran”

(*eskua ebaki du leihoa apurtukeran*)

“etzetik urtekeran txakurrek aginke iyotzen”

(*etxetik irtekeran txakurrak haginka egin zion*)

5.2. Aditz jokatuaren aspektuak

Aspektuetan hiru mota bereizten dira: burutua, ez-burutua eta geroa. Aditz partizipioa, lexikoan agertzen den moduan, eta aspektu burutua bat dira aztertzen ari garen barietatean. Aspektu perfektuan aditz partizipioek amaiera desberdinak eduki ditzakete (5.3. taula).

Amaiera	Adibideak
-a	atara, bota
-e	erre, erne, gorde
-o	yo, yayo
-i	egosi, erosi, ikixi, ikusi, yosi, asi, yeusi, ekarri, etorri, itxi, yantzi, igurdi, ibili, imini
-tu	artu, batu, lotu, sartu, aistu, bistu, ostu, sorrostu, amostu, orrastu, siñistu, agertu, apurtu, atertu, biurtu, igertu, makurtu, okertu, tximurtu, garbitu, kinetu, loditu, lumetu, lusetu, nasaitu, ondatu, osatu, parkatu, oratu
-itu	baltzitu, otzitu, putzitu, utzitu, motzitu
-du	eldu, galdu, kendu, saldu, argaldu, bigundu, afaldu, beskaldu, epeldu, ixildu, makaldu, sapaldu, sabaldu, tximeldu, agindu, sildu, soldu
-idu	kabidu, mobidu, prijidu, segidu
-eu	agarreu, aguanteu, akabeu, allegeu, amarreu, amateu, aparteu, entereu, enterreu, ernegeu, kontesteu, pregunteu, prepareu, mastikeu, kanteu, gasteu, gusteu, inkeu, pentzeu, pikeu, pixeu, podeu, tapeu, topeu
-n	edan, egon, emon, entzun, esan, igon, ixin, itxun, yakin, yagon, urten, yan, ein, irikin, eroan
-l	il

5.3. taula: Aditz partizipioen amaieren adibideak.

Erdararik hartzen diren maileguetan bereizi egiten dira alde batetik “-ar” amaiera daukaten aditzak eta, bestetik “-er” eta “-ir” daukatenak; berorren arabera ondoko erauk proposa daitezke:

Erdaraz -AR denean Larrabetzun -EU: “amateu”, “gusteu”, “kanteu”, e.a.

Erdaraz -ER edo -IR direnean Larrabetzun -IDU: “kabidu”, “segidu”, “leidu”, e.a.

Aditza jokatuaren, aditz partizipioa gehi laguntzailea batuta, “-eu”-z amaituko partizipioekin berau “e” bihurtzen da, adibidez: “guste dat”, “agarre dot”, “akabe dot”, “akorde nas”, e.a.

Partizipio batzuen “i” ere galdu egin liteke aurreko kontsonantea +sonantea bada; adibidez: “ekar dot”, “ibil nas”, “imin dot”, e.a.

Aspektu ez perfektua egiteko Larrabetzun hainbat alomorfo aurki ditzakegu, hala nola “-ten”, “-tan” eta “-tzian”. Alomorfook partizipioaren amaiera eta silaba kopuruaren arabera aukeratzen dira. Gauza jakina da, bestalde, aspektu ez perfektuaren morfema erantsikeran partizipioaren zenbait fonema eta silaba ezabatu behar direna, esate baterako /n/: “edaten”, “yaten”, e.a. Beraz, “n”z amaituko aditz partizipioekin “-ten” alomorfoa erabiltzen da, afijazioaren ostean “n” ezabatzen da, partizipio hauekin ez da silaba kopurua kontutan hartzen:

“a”z eta “o”z amaituko aditz partizipioekin “-ten” erabiltzen da eta “e”z amaitutakoekin, ostera, “-tan”; adibidez: “ataraten”, “botaten”, “yayoten”, “yotzen”, “erretan”, “gordetan”, “ernetan”, e.a.

“i”z amaituko partizipioekin “-ten” erabiltzen da gehienetan; hala ere, “i” zenbait kasutan ezabatzeko arau bat proposatu behar dugu. “i” ezabatzen da beronen aurreko kontsonantea herskaria eta afrikatua ez denean; adibidez: “egosten”, “erosten”, “asten”, “ekarten”, “etorten”, “itxiten”, “erantziten”, “bustiten”, “ibiltzen”. “-ten” morfemaren “e” “a” bihurtzen da aurreko silaban “e” bat badago: igertan. Beronek suposatzen du arinago /i/ galdu behar dela /e/ desimilatu baino lehen (5.4. taula).

	egosi+ten	etorri+ten	igerri+ten
Afijazioa	egositen	etorriten	igerriten
i > o	egosten	etortzen	igertzen
e > a/ e (C ₀)	-	-	igertan

5.4. taula: “ten” afijatzean aplikatzen diren arauen adibideak.

“-tu” eta “-du” amaierak dauzkaten partizipioekin jokabide bat baino gehiago dago. Silaba biko edo gehiagoko partizipioekin amaieran “-tu” badaukate “-tu” ez da

galtzen eta “-ten” morfema gehitu baino ez da egiten: “*aistuten*”, “*bistuten*”, “*ostuten*”, “*sorrostuten*”, “*amostuten*”, “*orrastuten*”, e.a. Silaba biko partizipioen kasuan, “-tu” eta “du”ren aurrean “r”, “l” edo bokala badago, orduan “-tzian” alomorfoa agertzen da: “*artzian*”, “*sartzia*”, “*batzian*”, “*lotzian*”, “*eltzian*”, “*galtzian*”, “*kentzian*”, “*saltzian*”. Partizipioa izen edo adjektibo batetik erakarria denean, araua ez da betetzen eta “-ten” erabiltzen da: “*sartuten*” (zahartzen), “*silduten*”, “*solduten*”, “*finduten*”.

“-tu”ren aurreko silaban diptongoren bat badago “-ten” erabiltzen da eta “-tu” ez da kentzen: “*loituten*”, “*geituten*”, “*aituten*”, “*beituten*”. Hiru silabako partizipioek “-tu”ren aurrean “r” badaukate, orduan “-ten” erabiltzen da “-tu” kendu barik: “*agertuten*”, “*apurtuten*”, “*atertuten*”, “*biurtuten*”, “*igertuten*”, “*makurtuten*”, “*okertuten*”, “*tximurtuten*”, “*atxurtuten*”. Hiru silabako partizipio hauekin “-tu”ren aurrean “i”, “e”, “n” edo “l” badaude, orduan “-tu” kentzen da eta “-tan” erabiltzen da: “*garbitan*”, “*loditan*”, “*argitan*”, “*suritan*”, “*siketan*”, “*esetan*”, “*ixetan*”, “*afaltan*”, “*beskaltan*”, “*sapaltan*”, “*sabaltan*”, “*tximeltan*”, “*argaltan*”, “*eskontan*”, “*garantan*”, “*iluntan*”, “*konpontan*”, “*epeltan*”, “*ixiltan*”, “*makaltan*”, “*laguntan*”, “*sakontan*”, “*biguntan*”, e.a. “-tu”ren aurreko bokalak “a”, “o” eta “u” direnean, orduan “-tu” ez da kentzen eta “-ten” erabiltzen da: “*ondatuten*”, “*osatuten*”, “*parkatuten*”, “*oratuten*”, “*bajatuten*”, “*beratuten*”, “*berotuten*”, “*estututen*”, “*sorotuten*”, “*yorratuten*”.

“-itu” amaiera daukaten hiru silabako partizipioekin “-ten” erabiltzen da “-tu” kendu barik: “*baltzituden*”, “*otzituden*”, “*putzituden*”, “*utzituden*”, “*motzituden*”. Gauza bera gertatzen da “-idu” amaiera daukatenean: “*kabiduten*”, “*segiduten*”, “*mogiduten*”, “*prijiduten*”, “*leiduten*”.

“-eu” amaiera daukaten partizipioekin “-tan” baino ez da erabiltzen; “-eu” monoptongatuz gero, gorago aipatu dugun desimilazio erregela bera aplikatu egiten da; adibidez: “*amarretan*”, “*gustetan*”, “*akordetan*”, “*akabetan*”, “*tapetan*”, “*ernegetan*”, e.a.

Gero aldiaren aspektuaren morfema “-ko” dugu nagusiki, berau aditz partizipioari erasten zaio zuzenean; adibidez: “*erreko*”, “*gordeko*”, “*yoko*”, “*salduko*”, e.a. “-n” amaituko partizipioekin “-ko”ren ordez “-go” erabiltzen da: “*edango*”, “*esango*”, “*yango*”, e.a.

Aditz partizipioa “-eu”z amaitukoa bada, “-ko”ren aurrean “eu” “e” bihurtzen da: “*akordeko*”, “*akabeko*”, “*amarreko*”, “*gusteko*”, e.a. Azkenik, “ri” amaierako partizipioen kasuan “-ko” eranstea “i” galtzen da sarritan: “*etorko*”, “*ekarko*”, “*igerko*”.

5.3. Aditz laguntzaileak

Azpiatal honetan jaso ditugun aditz laguntzaileak emango ditugu. Jaso ditugun aditz laguntzaileak indikatiboari, baldintzei, ahalezkoei eta aginterari dagozkienez gero, horrela emango dugu banatuta azpiatal hau.

5.3.1. Indikatiboa

Sekzio honetan indikatiboaren orain eta iragan aldiko adizkiak aurkezten ditugu ohiko sailen arabera banatuta, hau da, “Nor”, “Nor-Nori”, “Nork-Nor” eta “Nork-Nori-Nor” sailen arabera banatuta. Sail bakoitzeko adizkiekin batera, bariazioaren azterketarako aukeratu ditugunak ere emango ditugu.

5.3.1.1. Nor

	Oraina	Iragana
ni	nas	nitzen
hi	gas	gintzen
hura	da	san
gu	gara	gintzesan/gintzen
zu	sara	sintzen
zuek	sarie	sintzien
haiek	dire/dires	sien

5.5. taula: “nor” saileko adizkiak.

Gerra aurreko informatzaileek “nas”, “gas”, “da” eta “san” adizkien aurreko bokala “i” eta “u” denean “nes”, “ges”, “de” eta “sen” erabiltzen dituzte.

5.3.1.2. Nor-Nori

	Oraina		Iragana	
	hura	haiek	hura	haiek
niri	yat/dat	yatas	yatan	yatesan
hiri (m)	yak/dak	yasak/dasak	yakan	yakasan
hiri (n)	yana/dana	yasana/dasana	yakana	yakasana
hari	yako/dako	yakos	yakon	yakosan
guri	yaku	yakus	yakun	yakusen
zuri	yatzu	yatzus	yatzun	yatzusen
zuei	yatzue	yatzues	yatzuen	yatzuesan
haiei	yakie	yakies	yakien	yakiesan

5.6. taula: “nor-nori” saileko adizkiak.

Bariazioaren azterketarako sail honetako lau adizki aukeratu ditugu: “*zaio*”, “*zait*”, “*zaizkigu*” eta “*zitzazkion*”.


“**zait**” adizkiak ordain bi dauzka (5.7. taula): “*yako*” (10, % 41,7) eta “*dako*” (14, % 58,3); orain aldiari aztertu ditugun hiru adizkien emaitzak ikusita, ikusten dugu informatzaile bik “*da-*”-dun zein “*ya-*”-dun adizkiak erabili dituztela. Gerra aurreko informatzaileen artean “*dako*” eta “*yako*” biak agertu dira, gaurko informatzaileen artean biak agertzen dira, baina hirugarren belaunaldiko informatzaileek ez dute “*yako*” erabiltzen.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	yako, dako	yako, dako	yako, dako
Gizonezkoak	yako, dako	yako, dako	dako

5.7. taula: “zait” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Datuak belaunaldika aztertuta ondoko hierarkiak lortzen dira; bertan agertzen denez, belaunaldietan aurrera egin ahala “*yako*”-ren ehunekoa murriztuz doa eta “*dako*”-rena haziz doa (5.3. irudia); aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

1. belaunaldia “*yako*” (% 62,5) > “*dako*” (% 37,5)
2. belaunaldia “*dako*” (% 62,5) > “*yako*” (% 37,5)
3. belaunaldia “*dako*” (% 75) > “*yako*” (% 25)



Datuak generoaren arabera aztertuta, ikusten dugu andrazkoen artean erabilerak parekatuta daudela, baina gizonezkoetan “*yako*” gehiagotan erabiltzen da; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

- Andrazkoak “*yako*” (% 50) = “*dako*” (% 50)
 Gizonezkoak “*dako*” (% 66,7) > “*yako*” (% 33,3)

“**zait**” adizkiari dagozkion erantzunak lau izan dira (5.8. taula): “*yat*” (6, % 16,67), “*yate*” (6, % 25), “*date*” (11, % 45,83) eta “*daste*” (3, % 12,5). Gerra aurreko

informatzaileek “*yat*” eta “*date*” erabili dituzte. Gaurko informatzaileen erabileren arabera ezaugarri bi azter daitezke; hasieran “*da-*” (% 58,33) edo “*ya-*” (% 41,67) eta “*niri*” alomorfoetan “*-t*” (% 16,67), “*-te*” (% 70,83) edo “*-ste*” (% 12,5) erabiltzea.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	yat, yate, date	yate, date, daste	yate, date
Gizonezkoak	yat, yate, date	yat, yate, date	date, daste

5.8. taula: “zait” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Hasierak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta honako hierarkiak lortzen dira, bertan agertzen denez, “*zait*” adizkiarekin bezala, belaunaldietan aurrera egin ahala “*ya-*”-ren ehunekoa murriztuz doa eta “*da-*”-rena haziz doa.

1. belaunaldia “*ya-*” (% 62,5) > “*da-*” (% 37,5)
2. belaunaldia “*da-*” (% 62,5) > “*ya-*” (% 37,5)
3. belaunaldia “*da-*” (% 75) > “*ya-*” (% 25)

Datuak generoaren arabera aztertuta, ikusten dugu andrazkoen artean erabilerak parekatuta daudela, baina gizonezkoetan “*ya-*” gehiagotan erabiltzen da; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

- Andrazkoak “*ya-*” (% 50) = “*da-*” (% 50)
 Gizonezkoak “*da-*” (% 66,7) > “*ya-*” (% 33,3)

Pertsonaren morfemak belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu “*te*” nagusia dela belaunaldi guztietan, baina “*t*”-ren erabilera murriztu egiten dela hirugarren belaunaldian desagertu arte eta “*ste*”-ren erabilera bigarren belaunaldian hasten dela eta hazi egiten dela hirugarren belaunaldian.

1. belaunaldia “*te*” (% 62,5) > “*t*” (% 37,5)
2. belaunaldia “*te*” (% 75) > “*t*” (% 12,5) = “*ste*” (% 12,5)
3. belaunaldia “*te*” (% 75) > “*ste*” (% 25)

Generoaren arabera aztertuta, ikusten dugu andrazkoen eta gizonezkoen arteko aldeak oso txikiak direla eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

- Andrazkoak “*te*” (% 75) > “*t*” (% 16,7) > “*ste*” (% 8,3)
 Gizonezkoak “*te*” (% 66,7) > “*t*” (% 16,7) = “*ste*” (% 16,7)

“**zaitzigu**” adizkiaren gaineko erantzunak hiru izan dira (5.9. taula): “*yakus*” (12, % 50), “*dakus*” (8, % 33,33) eta “*daskus*” (4, % 16,67). Gerra aurreko

informatzaileetan “yakus” baino ez dugu jaso. Gaurko informatzaileen erabileren arabera ezaugarri bi azter daitezke; hasieran “da-” (% 50) edo “ya-” (% 50) erabiltzea eta “guri” alomorfoetan “ku” (% 83,33) edo “sku” (% 16,67) erabiltzea.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	yakus, dakus	yakus, dakus, daskus	yakus, dakus, daskus
Gizonezkoak	yakus, dakus	yakus, dakus	yakus, dakus, daskus

5.9. taula: “zaizkigu” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Hasierak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta honako hierarkiak lortzen dira, bertan agertzen denez, belaunaldietan aurrera egin ahala “ya-”ren ehunekoak murriztuz doa eta “da-”rena haziz doa. Datuak generoaren arabera aztertuta ez dago ezelako alderik.

1. belaunaldia “ya-” (% 62,5) > “da-” (% 37,5)
2. belaunaldia “ya-” (% 50) = “da-” (% 50)
3. belaunaldia “da-” (% 62,5) > “ya-” (% 37,5)

Pertsonaren morfemak belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu “ku” nagusia dela belaunaldi guztietan; “sku” bigarren belaunaldian agertzen da eta beronen ehunekoa hazi egiten da hirugarren belaunaldian. Generoaren arabera ez dago alderik.

1. belaunaldia “ku” (% 100)
2. belaunaldia “ku” (% 87,5) > “sku” (% 12,5)
3. belaunaldia “ku” (% 62,5) > “sku” (% 37,5)

“zitzaizkion” adizkiak bost erantzun dauzka (5.10. taula): “yakosan” (12, % 50), “yakosen” (3, % 12,5), “dakosen” (7, % 29,17), “akosan” (1, % 4,17) eta “akosen” (1, % 4,17). Gerra aurreko informatzaileek “akosan” eta “yakosan” erabili dituzte. Adizkien ezaugarriak dagokienez, hiru hasiera dauzkagu “ya-” (% 62,5), “da-” (% 29,17) eta “a-” (% 8,34). Pluralaren morfemaren eta azken “n”ren artean erabiltzen den bokala “a” da gehienetan (% 54,17), gainerako kasuetan “e” da (% 45,83).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	yakosan, akosen	yakosan, yakosen, akosan	yakosan, yakosen, dakosen
Gizonezkoak	yakosan, dakosen	yakosen, yakosen	yakosan, dakosen


5.10. taula: “zitzaizkion” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Tasun hauen guztien arabera informatzaileen multzokatze azterketa egiten badugu, 5.5. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen dira multzo nagusi bi; A

multzoan 14 (% 58,33) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 10 (% 41,67). 5.11. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldika; bertan ikusten den bezala, belaunaldien ehunekoak oso desberdinak dira multzo batean edo bestean (5.4. irudia), aldea estatistikoki esanguratsua izan ez arren.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	37,5	62,5	75
B multzoa	62,5	37,5	25


5.11. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldika.



5.12. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera, bertan ikusten den moduan andrazkoak proportzio berean kokatzen dira multzo bietan; gizonezkoen eta andrazkoen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	50	66,7
B multzoa	50	33,3

5.12. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



5.3.1.3. Nork-Nor

Sail honetako indikatibo orain aldiaren adizkiak 5.13. taulan ematen ditugu eta iragan aldikoak 5.14. taulan.

	ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
nik		aut	dot		saitut	saituet	do(d)as
hik (m)	nok		dok				dosak
hik (n)	nona		dona				dosena
hark	neu	au	deu	gaitu(s)	saitu	saitue	deitus
guk			du				dus
zuk	nosu		dosu				dosus
zuek	nosue		dosue				dosues
haiek	neure		deud(i)e ¹	gaitue(s)	saitue	saitue	deitues

5.13. taula: "nork-nor" saileko adizkiak, orain aldia.

	ni	hura	gu	haiek
nik		neuen		nitusen
hik (m)		gendun		gendusen
hark	nindun	euen	gindusen	situsen
guk		gendun		gendusen
zuk		sendun		sendusen
zuek		senduen		senduesan
haiek	ninduen	euren	ginduesan	situesan

5.14. taula: "nork-nor" saileko adizkiak, iragan aldia.

¹ "deure" eta "deurie" ere bai.

Bariazioaren azterketarako sail honetako hamar adizki aukeratu ditugu; sei orain aldikoak: "naute", "gaituzte", "dute", "ditut", "ditu" eta "dituzte". Eta lau iragan aldikoak: "ninduen", "nituen", "zituen" eta "genituen".

"naute" adizkiak 5 erataraz agertzen da (5.15 taula); hauetako 13 ("neude" % 4,17; "neudie" % 16,67; "neure" % 4,17 eta "neurie" % 29,17) Nork-Nor sailekoak dira (% 58,33) eta 11 ("dostie") "nork-nori-nor" sailekoak (% 45,83). Gerra aurreko informatzaileek "neudie" eta "neure" erabili dituzte. Adizki honen ezaugarriak dagokienez, lehen paradigma aldaketa gertatzea (% 45,83) edo ez (% 54,17) izango da, hau da, "dostie"ren bidez ordezteko edo ez; bigarrena "nork-nor" saileko adizkietan "r" (% 33,33) edo "d" (% 20,83) erabiltzea eta, hirugarrena, "e" (% 8,33) edo "ie" (% 45,83) erabiltzea pluralgiletzat.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	neurie, dostie	neudie, neurie, dostie	neudie, neude, neure, dostie
Gizonezkoak	neurie, dostie	neudie, neurie, dostie	neudie, neurie, dostie

5.15. taula: "naute" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"dute" adizkiari dagokionez, bost era jaso ditugu (5.16. taula): "deure" (13, % 54,17), "deurie" (8, % 33,33), "deudie" (1, % 4,17), "daurie" (1, % 4,17) eta "dere" (1, % 4,17). Gerra aurreko informatzaileek "deure", "deurie" eta "deudie" erabili dituzte. Hiru eratarako aldaketak agertzen dira, erroarekin hasierako bokalak osatzen duen diptongoari dagokiona, hau da, "eu" (% 91,67), "au" (% 4,17) eta "e" (% 4,17) izatea eta "haiek" morfemarekin gertatzen diren aldaketa biak, hots, "d" eta "r" txandaketa eta "ie" "e" txandaketa. Lehenari dagokionez, "d" kasu bakar batean agertzen da (% 4,17); bigarrenari dagokionez, "ie" 10 kasutan agertzen da (% 41,67) eta "e" 14 kasutan (% 58,33).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	deure, deurie	deurie, daurie, deudie, dere	deure
Gizonezkoak	deure, deurie	deure, deurie	deure, deurie

5.16. taula: "dute" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"gaituzte" adizkiak hiru aldaki dauzka (5.17. taula); horietako 14 ("gaitues" 1, % 4,17 eta "gaitue" 13, % 54,17) "nork-nor" sailekoak dira (% 58,33) eta 10 "nork-nori-nor" sailekoak (% 41,67). "nork-nor" saileko adizkien artean aldaketa nagusi bat gertatzen da; informatzaile gehienek (% 54,17) pluralgile bakarra "it" darabilte eta informatzaile batek bi "it" eta "s" (% 4,17). Gerra aurreko informatzaileetan "gaitues" baino ez zaigu agertu.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	gaitue(s), doskue	gaitue, doskue	gaitue, doskue
Gizonezkoak	doskue	gaitue	gaitue, doskue

5.17. taula: "gaituzte" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"ditut" adizkiak hiru aldaki dauzka (5.18. taula): "doas" (16, % 66,67), "dotas" (4, % 16,67) eta "dotes" (4, % 16,67). Gerra aurreko informatzaileetan "doas" baino ez zaigu agertu. Adizkiotan ikusten den legez, aldagaiak multzo bitan bil daitezke; batetik "t" (% 33,33) eta "o" (% 66,67) erabiltzea dugu eta bestetik pluralaren morfemaren aurrean "a" (% 83,33) edo "e" (% 16,67) txertatzea.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	doas, dotes	doas, dotas, dotes	doas
Gizonezkoak	doas	doas, dotas	dotas, dotes

5.18. taula: "ditut" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"ditu" adizkiari dagokionez 7 aldaki agertu zaizkigu (5.19. taula): "daus" (2, % 8,33), "deus" (9, % 37,5), "deitu" (3, % 12,5), "deitus" (3, % 12,5), "ditu" (2, % 8,33), "ditus" (3, % 12,5) eta "tus" (2, % 8,33). Gerra aurreko informatzaileek "deitus" eta "ditus" erabili dituzte. Adizkien ezaugarriei bagazozkie, batetik pluralgileen erabilerarenak dauzkagu, hau da, "it" (% 20,83), "s" (% 45,83) edo biak batera erabiltzea (% 33,33). Beste batetik, "s" pluralgile soila erabiltzen denean "au" (% 8,33) eta "eu" (% 37,5) agertzen dira; "it" erabiltzen denean "ei" (% 25) ager daiteke eta "i" (% 20,83) ere bai. Azkenik, informatzaile bik egiten duten moduan, hasierako silaba gal daiteke (% 8,33).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	deitu, ditus, tus	deitus, ditu, daus	deitu(s), deus
Gizonezkoak	ditus, deus	deitus, ditu, deus	ditus, deus

5.19. taula: "ditu" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"dituzte" adizkiak 8 aldaki dauzka (5.20. taula): "deitue" (1, % 4,17), "deitues" (5, % 20,83), "ditues" (4, % 16,67), "dotues" (1, % 4,17), "tues" (1, % 4,17), "deurries" (7, % 29,17), "deures" (4, % 16,67) eta "deres" (1, % 4,17). Gerra aurreko informatzaileek "deitues" baino ez dute erabili. Aurreko adizkiarekin ikusi dugun bezala, kasu honetan ere pluralaren morfemak "it" (% 4,17) eta "s" (% 50) izan daitezke edo biak batera (% 45,83). "s" erabiltzen denean, lehen silaban "eu" (% 45,83) agertzen da eta "e" (% 4,17) ere bai. "it" erabiltzen denean hasierako silaban "ei" (% 25), "i" (% 16,67) eta "o" (% 4,17) ager dakizkiguke. "nork" morfema "e" (% 70,83) izan daiteke eta "ie" (% 29,17) ere bai. Azkenik, hasierako silaba osoa gal daiteke (% 4,17).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	deitues, ditues, dotues, tues	deitues, deuries, deres	deitues, deitue, deuries, deures
Gizonezkoak	ditues, deures	deitues, deuries, deures	ditues, deuries

5.20. taula: "dituzte" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"ninduen" adizkiak 6 aldaki dauzka (5.21. taula); horietako hiru "nork-nor" sailekoak ("nendun" 2, % 8,33; "nindun" 2, % 8,33 eta "neuen" 5, % 20,83) eta beste hiru "nork-nori-nor" sailekoak ("dosten" 8, % 33,33; "osten" 2, % 8,33 eta "yosten" 5, % 20,83). Orain aldiko adizkiekin ikusi dugun moduan, adizkien ezaugarrietako bat paradigma aldaketari dagokio, hau da, "nork-nor" saila (% 37,5) erabiltzen den edo "nork-nori-nor" (% 62,5). "nork-nor" saileko adizkiekin informatzaile batzuek (%) iragana lortzen dute orain aldiari "-en" (% 20,83) gehituta: *neu* > *neuen*. Bestalde, "nend" (% 8,33) zein "nind" (% 8,33) morfema biak erabiltzen dira. Gerra aurreko informatzaileetan agertu zaigun bakarra "nendun" izan da. "nork-nori-nor" saileko adizkiotan hasieran gertatzen den aldaketa kontuan hartuko dugu, bertan "y" (% 20,83), "d" (% 33,33) eta "o" (% 8,33) erabiltzen dira.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	neuen, yosten, dosten	nendun, neuen, yosten, dosten	nindun, yosten, dosten
Gizonezkoak	neuen, osten, dosten	nendun, nindun, yosten, osten	neuen, yosten, dosten

5.21. taula: "ninduen" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"nituen" adizkiak 4 aldaki dauzka (5.22. taula): "neitusen" (8, % 33,33), "nitusen" (3, % 12,5), "notusen" (3, % 12,5) eta "neusen" (10, % 41,67). Gerra aurreko informatzaileek "nitusen" eta "neusen" erabili dituzte. Aldakiak aztertuta ikus dezakegun moduan, pluralgilea "s" (% 41,67) soila izan daiteke edo "it" eta "s" batera (% 58,33). Gainerako aldaketak "ei" silabari dagozkio, berau "ei" (% 33,33), "i" (% 12,5) eta "o" (% 12,5) izan daiteke.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	neitusen, notusen	neitusen, notusen, neusen	neitusen, nitusen, neusen
Gizonezkoak	nitusen, neusen	neitusen, neusen	neitusen, neusen

5.22. taula: "nituen" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"zitzen" adizkiak 6 aldaki dauzka (5.23. taula): "eusen" (2, % 8,33), "seusen" (7, % 29,17), "seitusen" (9, % 37,5), "situen" (1, % 4,17), "situsen" (3, % 12,5) eta "tusen" (2, % 8,33). Gerra aurreko informatzaileetan "situsen" baino ez zaigu agertu. Adizkiaren pluralgileari bagazozkie, berau "s" (% 37,5) eta "it" (% 4,17) izan daiteke

eta baita biak batera ere (% 58,33). Hasierako morfema “s” (% 83,33) izan daiteke edo “ø” (% 8,33). “ei” silabaren diptongoa desegin daiteke “i” eginez (% 16,67). Azkenik, informatzaile bik egiten duten moduan, hasierako silaba osoa gal daiteke (% 8,33).

	1. belaunaldia		2. belaunaldia		3. belaunaldia
Andrazkoak	seitusen, tusen	situsen,	seitusen, seusen	seitusen, seusen	seitusen, seusen
Gizonezkoak	seitusen, seusen	situsen,	seitusen, situen, seusen	situsen, seusen	seitusen, seusen

5.23. taula: “zituen” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

“genituen” adizkiak aldaki bi dauka (5.24. taula): “gendusen” (23, % 95,83) eta “dusen” (1, % 4,17). “dusen” orainari “n” gehituta sortzen da; besteetan subjektuaren leku aldaketa gertatzen da² eta morfema aldaketa; morfema aldaketari dagokion tasunak ez du ezer ere gehitzen, izan ere, aurrekoarekin batera gertatzen da. Gerra aurreko informatzaileek “gendusen” eta “genusen” erabili dituzte.


	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	gendusen	gendusen	gendusen
Gizonezkoak	gendusen, dusen	gendusen	gendusen

5.24. taula: “genituen” adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Sail honetan landu ditugun tasunen arabera informatzaileen multzokatze azterketa egiten badugu 5.7. irudiko dendograma lortzen dugu. Oraingo honetan multzoak parekatuta agertzen dira informatzaile kopuruei dagokienez, izan ere, bakoitzeko 12 inforntzaile kokatzen dira. 5.25. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldia; aldea ez da estatistikoki esanguratsua, baina ikusten den bezala ehunekoak oso desberdinak dira belaunaldiko (5.6. irudia).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	37,5	50	62,5
B multzoa	62,5	50	37,5


5.25. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldia.



5.26. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera; kasu honetan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ($X^2 = (a.m.: 1) 6,000$; $p = 0,014$).

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	25	75
B multzoa	75	25

5.26. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



² Ikusi beherago “genion” adizkiaren azalpena.

5.3.1.4. Nork-Nori-Nor

Sail honetako indikatibo orain aldiaren adizki singularrak 5.27. taulan ematen ditugu eta pluralak 5.28. taulan. Iragan aldiko adizki singularrak 5.29. taulan agertzen dira eta pluralak 5.30. taulan.

	niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		duet/dunet	dotzet		dotzut	dotzuet	dotziet
hik (m)	dostek		dotzek	duskuk			dotziek
hik (n)	dostena		dotzena	doskune			dotziena
hark	dost	due/dune	dotzo	dosku	dotzu	dotzue	dotzie
guk		yak/yana	dotzegu		yatzu	yatzue	dotzegu
zuk	dostesu		dotzesu				dotzesu
zuek	dostesue		dotzesue				dotzesue
haiek	dostie	due/dune	dotzie	doskue	dotzue	dotzue	dotzie

5.27. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak, orain aldia "hura".

	niri	hiri	huri	guri	zuri	zuei	haiei
nik		duesat/du(e)senat	dotzedas		dotzudes	dotzuedas	dotziedas
hik (m)	dostesak		dotzesak	doskusek			dotziesak
hik (n)	dostesena		dotzesena	doskusena			dotziesena
hark	dostes	dues/duesena	dotzos	doskus	dotzus	dotzues	dotzies
guk		yasak/yasana	dotzegus		yatzus	yatzues	dotzegus
zuk	dostesus		dotzesus				dotzesus
zuek	dostesues		dotzesues				dotzesues
haiek	dosties	dues/duesena	dotzies	doskues	dotzues	dotzues	dotzies

5.28. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak, orain aldia "haiek".

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri		geusten	osten		seusten	seustien	ostien
hiri (m)	nuan			yakan			
hiri (n)	nuana			yakana			
hari	neutzen	geutzean	otzen	geuntzen	seuntzen	seuntzien	otzien
guri			oskun				oskuen
zuri	neutzun		otzun	yatzun			otzuen
zuei	neutzuen		otzuen	yatzuen			otzuen
haiei	neutzien	geutzien	otzien	geuntzien	seuntzien	seuntzien	otzien

5.29. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak, iragan aldia "hura".

	nik	hik	hark	guk	zuk	zuek	haiek
niri			ostesan				ostiesan
hiri (m)	nayosen			yakasan			
hiri (n)	nayosena ³			yakasana			
hari	neutzesan	geutzesan	otzesan	geuntzesan	seuntzesan	seuntziesan	otziesan
guri			oskusen				oskuesan
zuri	neutzusen		otzusen	yatzusen			otzuesan
zuei	neutzuesan		otzuesan	yatzuesan			otzuesan
haiei	neutziesan	geutziesan	otziesan	geuntziesan	seuntziesan	seuntziesan	otziesan

5.30. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak, iragan aldia "haiek".

³ "niosena" ere bai.

Bariazioaren azterketarako sail honetako bost adizki aukeratu ditugu: "dizkiot", "zidan", "genion", "zenion" eta "nizkion".

"dizkiot" adizkiak 5 aldaki dauzka (5.31. taula): "dotzedas" (5, % 20,83), "dotzeas" (11, % 45,83), "dotzias" (1, % 4,17), "dotzetas" (3, % 12,5) eta "dotzetes" (4, % 16,67); gerra aurreko belaunaldian "dotzeas" baino ez dugu jaso. Gertatzen diren aldaketa fonetikoak hiru multzotan bil daitezke; batetik "t" (% 29,17), "d" (% 20,83) eta "o" (% 50) agertzen dira. Bestetik, pluralaren morfemaren aurrean "a" (% 83,33) eta "e" (% 16,67) ager daitezke. Azkenik "tze" morfemaren "e"ren ordez "i" (% 4,17) ere ager daiteke.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	dotze(d)as	dotzeas, dotzetas, dotzetes	dotzeas, dotzias
Gizonezkoak	dotze(d)as, dotzetes	dotze(d)as	dotzetas, dotzetes

5.31. taula: "dizkiot" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"zidan" adizkiak 4 aldaki dauzka (5.32. taula): "osten" (6, % 25), "eusten" (1, % 4,17), "yosten" (8, % 33,33) eta "dosten" (9, % 37,5). Gerra aurreko informatzaileek "osten" baino ez dute erabili. Erroan kasu gehienetan "o" agertzen da eta kasu bakar batean "eu" (% 4,17). Hasieran hiru aukera agertzen dira "y" (% 33,33), "d" (% 37,5) eta "o" (% 29,17).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	yosten, dosten, osten, eusten	yosten, dosten, osten	yosten, dosten
Gizonezkoak	osten, dosten	yosten, dosten, osten	yosten, dosten

5.32. taula: "zidan" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Hasierak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta honako hierarkiak lortzen dira, bertan agertzen denez, "o" lehen eta bigarren belaunaldietan erabiltzen da, baina hirugarren belaunaldian desagertuta dago; bestalde, hierarkiak eurrak aldatuta daude belaunaldi bakoitzeko. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua, baina joera nabarmena adierazten da.

1. belaunaldia "o" (% 62,5) > "d-" (% 25) > "y-" (% 12,5)
2. belaunaldia "y-" (% 50) > "o" (% 25) = "d-" (% 25)
3. belaunaldia "d-" (% 62,5) > "y-" (% 37,5)

Datuak generoaren arabera aztertuta, ikusten dugu andrazkoen artean erabilera nagusia "y-" dela eta gizonezkoen artean "d-"; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Andrazkoak "y-" (% 41,7) > "d-" (% 33,33) > "o" (% 50)
 Gizonezkoak "d-" (% 41,7) > "o" (% 33,3) > "y-" (% 25).

"genion" adizkiak 9 aldaki dauzka (5.33. taula): "geuntzen" (5, % 20,83), "geuntzon" (1, % 4,17), "gontzen" (3, % 12,5), "dotzegun" (5, % 20,83), "dotzun" (1, % 4,17), "otzegun" (2, % 8,33), "yotzegun" (5, % 20,83), "yotzogun" (1, % 4,17) eta "tzun" (1, % 4,17). Gerra aurreko informatzaileek "geuntzen" eta "gontzen" erabili dituzte. Adizkietan ikusten den moduan, batzuk orain aldiari "n" gehituta eta beste aldaketa batzuk eginda sortzen dira (a). Beste batzuek, ostera, tradiziozko bidetik egiten direnek, subjektuaren leku aldaketa eta morfema eta erroa amalgamatzen dira (b).

(a) d_o_tze_gu_+n
 |
 Subj.

(b) g_o_n_tze_n
 | |
 Subj

Aldaketei bagazozkie, subjektu aldaketa egotea (% 62,5) edo ez (% 37,5) ezaugarri bat izango da. Horrezaz gainera erroa ere aldatzen da, gehienetan "o" (% 70,83) erabiltzen da baina "eu" (% 25) ere agertzen da. Nori-ren morfema kasu gehienetan "tze" (% 83,33) da, baina "tzo" (% 8,33) ere izan daiteke. Subjektu aldaketa gertatzen ez den kasuetan hasieran hiru aukera daukagu "y" (% 25), "d" (% 25) eta "o" (% 8,33). "gu" morfemaren "g" gal daiteke (% 8,33). Azkenik kasu baten, "tzun", hasierako silaba osoa galdu da (% 4,17).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	geuntzen, yotzegun, otzegun	gontzen, yotzegun, otzegun, dotzegun	yotzegun, dotzegun
Gizonezkoak	geuntzen, dotzun, tzun	geuntzen, geuntzon, gontzen, yotzegun	gontzen, yotzogun, dotzegun

5.33. taula: "genion" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"zenion" adizkiak 7 aldaki dauzka (5.34. taula): "seuntzen" (5, % 20,83), "seuntzon" (1, % 4,17), "sontzen" (3, % 12,5), "dotzesun" (5, % 20,83), "otzesun" (5, % 20,83), "yotzesun" (3, % 12,5) eta "otzesun" (5, % 20,83). Gerra aurreko informatzaileetan "seuntzen" baino ez zaigu agertu. Aurreko adizkiarekin bezala; kasu batzuetan subjektuaren leku aldaketa (% 37,5) gertatzen da. Erroan molde bi ager

daitezke "o" (% 70,83) eta "eu" (% 25). Nori morfema gehienetan "tze" (% 95,83) den arren, "tzo" (% 4,17) ere ager daiteke. Subjektu aldaketa egiten ez den kasuetan hiru hasiera daukagu "y" (% 12,5), "d" (% 20,83) eta "o" (% 25). Azkenik, kasu baten lehen silaba ere gal daiteke (% 4,17).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	seuntzen, otzesun, yotzesun, tzesun	sontzen, otzesun, yotzesun, dotzesun	seuntzen, yotzesun, dotzesun
Gizonezkoak	seuntzen, otzesun	seuntzen, seuntzon, sontzen, otzesun	sontzen, otzesun, dotzesun

5.34. taula: "zenion" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"nizkion" adizkiak 9 aldaki dauzka (5.35. taula): "nentzesan" (1, % 4,17), "neuntzesan" (2, % 8,33), "neutzesan" (1, % 4,17), "nontzesan" (7, % 29,17), "notzesan" (8, % 33,33), "notzesan" (1, % 4,17), "yotzesan" (1, % 4,17), "dotzetesan" (1, % 4,17) eta "dotzetesan" (2, % 8,33). Gerra aurreko informatzaileek "nontzesan" eta "neutzesan" erabili dituzte. Aurreko adizki batzuetan gertatzen den moduan, hemen ere subjektuaren leku aldaketa gerta daitezke (% 83,33) ala ez (% 16,67). Subjektuaren leku aldaketa gertatzen den kasuetan -n- artizkia gal daiteke kasu batzuetan (% 41,67) "neutzesan". Erroan "o" (% 83,33), "eu" (% 12,5) eta "e" (% 4,17) erabiltzen dira. Subjektu aldaketa gertatzen ez den kasuetan adizkiaren hasieran "d" (% 12,5) eta "y" (% 4,17) ager daitezke. Azkenik pluralaren morfema eta amaierako "n"ren artean txertatzen den bokala "a" (% 83,33) izaten da gehienetan, baina "e" (% 16,67) ere izan daiteke. Subjektuaren leku aldaketa bako adizkiak bigarren belaunaldiko andrazkoen artean hasi dira erabiltzen eta euron ehunekoak hazi dira hirugarren belaunaldian.


	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	neutzesan, nontzesan, nentzesan, notzesan	nontzesan, yotzesan	nontzesan, notzesan, dotzetesan
Gizonezkoak	neuntzesan, notzesan	neuntzesan, notzesan	notzesan, dotzetesan, dotzetesan

5.35. taula: "nizkion" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Sail honetako tasunen bidez informatzaileen multzokatze azterketa eginez gero, 5.9. irudiko dendograma lortzen da. Dendograman agertzen diren multzo nagusiak nahikoa desorekatuta agertzen dira, A multzoan 19 (% 79,17) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 5 (% 20,83). 5.36. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldika; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 6,568; p = 0,037$), hau da, multzo bakoitzeko agertzen diren belaunaldien ehunekoak aldatuz doaz proportzionalki (5.8. irudia).

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	100	87,5	50
B multzoa	0	12,5	50


5.36. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldia.



5.37. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera; kasu honetan agertzen diren aldeak txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	75	83,3
B multzoa	25	16,7

5.37. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



5.3.2. Baldintzazko aditzak

Baldintzazko adizkiak hiru sailetan bildu ditugu; "Nor" (5.38. taula), "Nork-Nor" (5.39. taula) eta "Nork-Nori-Nor" (5.40. taula).

ni	neitike
hi	geintike
hura	leitike
gu	geintikes
zu	seintikes
zuek	seintikie
haiek	leitikes

5.38. taula: "nor" saileko baldintzazko adizkiak.

	hura	haiek
nik	neuke	neukes
hik	geunkek	geunkesak
hark	leuke	leukes
guk	geunke	geunkes
zuek	seunke	seunkes
zuek	seunkie	seunkies
haiek	leukie	leukies

5.39. taula: "nork-nor" saileko baldintzazko adizkiak.

	hari (s)	hari (p)
nik	neuskio	neuskios
hik	geuskio	geuskios
hark	leuskio	leuskios
guk	geuskio	geuskios
zuek	seuskio	seuskios
zuek	seuskiue	seuskiues
haiek	leuskiue	leuskiues

5.40. taula: "nork-nori-nor" saileko baldintzazko adizkiak.

Baldintzen sailean bariazioa aztertzeke aukeratu ditugun adizkiak hiru izan dira: "nintzateke", "litzateke" eta "nuke".

"nintzateke" adizkiak 5 aldaki dauzka (5.41. taula): "nitzeke" (1, % 4,17), "nitzike" (1, % 4,17), "nintike" (5, % 20,83), "nitike" (13, % 54,17) eta "nintzen" (4, % 16,67). Gerra aurreko informatzaileetan "neitike" eta "nintike" jaso ditugu. lau informatzailek (% 16,67) baldintzaren ordez indikatibo iragana erabiltzen dute, informatzaile bik (% 8,33) "tz" daukaten morfemak darabiltzate ("tze" eta "tzi") eta gainerakoek "ti" daukatenak; azken morfema hau ahalezkoa egiteko erabiltzen den bera da. Bestalde "nin" (% 20,83) eta "ni" (% 54,17) erabil daitezke. 5.41. taulan ikusten den bezala, "tz" dun adizkiak lehen belaunaldiko andrazkoek baino ez dituzte erabiltzen eta indikatibo iragana baldintzen ordez hirugarren belaunaldiko gizonezkoek baino ez dute erabiltzen.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	nitike, nitzeke, nitzike	nintike, nitike	nintike, nitike
Gizonezkoak	nintike, nitike	nitike	nintzen

5.41. taula: "nintzateke" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

"**litzateke**" adizkiak 6 aldaki dauzka (5.42. taula): "*litzeke*" (1, % 4,17), "*litzike*" (1, % 4,17), "*leitike*" (2, % 8,33), "*letike*" (1, % 4,17), "*litike*" (6, % 25) eta "*san*" (13, % 54,17). Gerra aurreko belaunaldian "*leitike*" eta "*litike*" jaso ditugu. Adizki honen kasuan baldintzaren ordez iragana 13 informatzailek erabili dute. Informatzaile bik "tz" dun adizkiak erabiltzen dituzte eta gainerakoek "ti" dunak. "tze" eta "tzi" txandaketa gertatzen da. "ti" dunetan "ei", "e" eta "i" erabiltzen dira.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	litzeke, litzike, litike, san	litike, san	leitike, litike, san
Gizonezkoak	leitike, letike, litike	litike, san	san

5.42. taula: "litzateke" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Baldintzaren ordez indikatibo iragana erabiltzea lehen belaunaldiko andrazkoen artean hasitakoa da eta gero belaunaldi guztietan joan da zabalduz. Informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta honako hierarkiak lortzen dira, bertan agertzen denez, lehen belaunaldian gehiago erabiltzen da baldintza eta hurrengo bietan, berriz, indikatibo iragana baldintzen ordez; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 8,392; p = 0,015$).

1. belaunaldia "baldintza" (% 87,5) > "indikatibo iragana" (% 12,5)
2. belaunaldia "indikatibo iragana" (% 75) > "baldintza" (% 25)
3. belaunaldia "indikatibo iragana" (% 75) > "baldintza" (% 25)

Datuak generoaren arabera aztertuta, ikusten dugu andrazkoen artean erabilerak parekatuta daudela, baina gizonezkoetan "indikatibo iragana" gehiagotan erabiltzen dela; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

- Andrazkoak "baldintza" (% 50) = "indikatibo iragana" (% 50)
 Gizonezkoak "indikatibo iragana" (% 58,3) > "baldintza" (% 41,7)

"**neuke**" adizkiak 3 aldaki dauzka (5.43. taula): "*neuke*" (18, % 75), "*neke*" (5, % 20,83) eta "*neuen*" (1, % 4,17). Gerra aurrekoen artean jaso dugun bakarra "*neuke*" izan da. Gainerako baldintzetan gertatu den moduan, hemen ere informatzaile batek (% 4,17) baldintzaren ordez iragana erabili du. Gainerako kasuetan erroan baino ez dira aldaketak

gertatzen; informatzaile batzuek "eu" (% 75) darabilte eta beste batzuek "e" (% 20,83). "e" erroan adizkiak lehen belaunaldikoa informatzaileek eta bigarren belaunaldiko gizonezko batzuek baino ez dituzte erabiltzen.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	neuke, neke	neuke	neuke
Gizonezkoak	neuke, neke	neuke, neke	neuke, neuen

5.43. taula: "neuke" adizkiaren aldakiak belaunaldien eta generoaren arabera.

Ikusi berri ditugun hiru ezaugarrien tasunen arabera informatzaileen multzokatze azterketa eginda, 5.10. irudiko dendograma lortzen dugu. Hemen ere multzoetan kokatzen diren informatzaile kopuruak desorekatuta agertzen dira; A multzoan 20 (% 83,3) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 4 (% 16,67). 5.44. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldika; aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 9,600; p = 0,008$).


	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	100	100	50
B multzoa	0	0	50

5.44. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldika.

5.45. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera; kasu honetan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsua dira ($X^2 = (a.m. 1) 4,800; p = 0,028$).

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	100	66,7
B multzoa	0	33,3

5.45. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



5.3.4. Ahalezkoak

Ahalezko adizkiak hiru sailetan batu ditugu; “Nor” (5.46. taula), “Nork-Nor” (5.47. taula) eta “Nork-Nori-Nor” (5.48. taula).

ni	neitike
hi	geintike
hura	leitike
gu	geintikes
zu	seintikes
zuek	seintikie
haiek	leitikes

5.46. taula: “nor” saileko ahalezko adizkiak.

	hura	haiek
nik	neike	neikes
hik	geinke	geinkes
hark	leike	leikes
guk	geinke	geinkes
zuk	seinke	seinkes
zuek	seinkie	seinkies
haiek	leikie	leikies

5.47. taula: “nork-nor” saileko ahalezko adizkiak.

	hari (s)	hari (p)
nik	neyo	neyos
hik	geyo	geyos
hark	leyo	leyos
guk	geiskio	geiskios
zuk	seiskio	seiskios
zuek	seiskiue	seiskiues
haiek	leyue	leyues

5.48. taula: “nork-nori-nor” saileko ahalezko adizkiak.

5.3.5. Agintera

Aginterari dagokionez, jaso ditugun adizki apurrak “Nor” (5.49. taula), “nork-nor” (5.50. taula) eta “nork-nori-nor” (5.51. taula) sailekoak dira.

hi	adi
zu	saites/saite
zuek	saitesie

5.49. taula: “nor” saileko adizkiak.

	hura	haiek
zuk	ixu	ixus
zuek	ixue	ixues

5.50. taula: “nork-nor” saileko adizkiak.

	zuk (s)		zuek (p)	
niri	istesu	istesus	istesue	istesues
hari	iyosu	iyosus	iyosue	iyosues

5.51. taula: “nork-nori-nor” saileko adizkiak.

5.4. Aditz trinkoak

Azpiatal honetan aditz trinkoen arloan jaso ditugun adizkiak ematen ditugu. Azpiatala sekzio bitan banatuta aurkezten dugu. Lehen sekzioan aditz trinko iragangaitzak emango ditugu eta bigarreanean iragankorrak.

5.4.1. Aditz trinko iragangaitzak

Sekzio honetan “egon”, “joan”, “etorri” eta “ibili” aditzen “nor” saileko adizkiak ematen ditugu hasieran (5.52. taula), gero “joan” (5.53. taula), “etorri” (5.54. taula) eta “ibili” (5.55) aditzen “nor-nori” sailekoak emateko.

	Egon	Joan	Etorri	Ibili
ni	nau	noa	nator	nabil
hi	gau	goa	gator	gabil
hura	dau	doa	dator	dabil
gu	gaus	goas	gatos	gabis
zu	saus	soas	satos	sabis
zuek	sausie	soasie	satosie	sabisie
haiek	daus	doas	datos	dabis

5.52. taula: Aditz trinko iragangaitzen “nor” saileko adizkiak.

	ni	hura	gu	haiek
niri		doaste		doastes
hari	noako	doako	goakos	doakos
guri		doaku		doakus
zuri	noatzu	doatzu	goatzus	doatzus
zuei	noatzue	doatzue	goatzues	doatzues
haiei	noakie	doakie	goakies	doakies

5.53. taula: Joan aditzaren “nor-nori” saileko adizkiak.

	ni	hura	gu	haiek
niri		datoste		datostes
hari	natorko	datorko	gatorkos	datorkos
guri		datorku		datorkus
zuri	natorizu	datortzu	gatorzus	datortzus
zuei	natorizue	datortzue	gatorzues	datortzues
haiei	natorkie	datorkie	gatorkies	datorkies

5.54. taula: Etorri aditzaren “nor-nori” saileko adizkiak.

“zu” denean ondoko era honetakoak erabiltzen dira: “datostesu”, “datortzesu”, “datortzesue”, “datoskusu”.

	ni	hura	haiek
niri		dabiste	dabistes
hari	nabilko	dabilko	dabilkos
guri		dabilku	dabilkus
zuri	nabiltzu	dabiltzu	dabiltzus
zuei	nabiltzue	dabiltzue	dabiltzues
haiei	nabilkie	dabilkie	dabilkies

5.55. taula: Ibili aditzaren “nor-nori” saileko adizkiak.

5.4.2. Aditz trinko iragankorrak

Sekzio honetan aditz trinko iragankorren adizkiak jasoko ditugu. Aditz trinko hauen erabilera kasu guztietan bat ez denez gero, banan aurkeztuko ditugu. “*Eduki*”, “*ekarri*” eta “*eroan*” aditzen adizki batzuk aukeratu ditugu bariozioaren azterketarako. Adizkien aurkezpenarekin batera euron azterketa ere emango dugu; sekzioaren amaieran aditz trinkoen azterketa kuantitatiboa egingo da.

5.4.2.1. Jakin

“*Jakin*” aditzaren kasuan “nork-nor” (5.56. taula) eta “nork-nori-nor” (5.57. taula) sailetako adizkiak jaso ditugu.

	hura	haiek
nik	dakit	dakites/dakides
hik (m)	dakik	dakixek
hik (n)	dakine	dakixena
hark	daki	dakis
guk	dakigu	dakigus
zuk	dakixu	dakixus
zuek	dakixue	dakixues
haiek	dakie	dakies

5.56. taula: “nork-nor” saileko adizkiak.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		dakitzet		dakitzut	dakitzuet	dakitzi
hark	dakiste	dakitzo	dakisku			dakitzie
guk		dakitzu		dakitzu	dakitzue	dakitzu
zuk	dakistesu	dakitzesu				dakitzesu
zuek	dakistesue	dakitzesue				dakitzesue
haiek	dakistie	dakitzie	dakiskue	dakitzue	dakitzue	dakitzie

5.57. taula: “nork-nori-nor” saileko adizkiak.

5.4.2.2. Eduki

“*Eduki*” aditzaren kasuan “nork-nor” (5.58. taula) eta “nork-nori-nor” (5.59. taula) sailetako adizkiak jaso ditugu.

	hura	haiek
nik	dekot	dekoas
hik (m)	dekok	dekosak
hik (n)	dekona	dekosena
hark	deko	dekos
guk	deku	dekus
zuk	dekosu	dekosus
zuek	dekosue	dekosues
haiek	deukie/dekie	deukies/dekes

5.58. taula: “nork-nor” saileko adizkiak.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		dekotzet		dekotzut	dekotzuet	dekotzi
hark	dekoste	dekotzo	dekosku	dekotzu	dekotzue	dekotzie
guk		dekotzu				dekotzu
zuk	dekostesu	dekotzesu				dekotzesu
zuek	dekostesue	dekotzesue				dekotzesue
haiek	dekostie	dekotzie	dekoskue	dekotzue	dekotzue	dekotzie

5.59. taula: “nork-nori-nor” saileko adizkiak.

“*daukat*” adizkiak 4 aldaki dauzka (5.60. taula): “*dekoas*” (16, % 66,67), “*deketas*” (1, % 4,17), “*dekotes*” (3, % 12,5) eta “*dekotas*” (4, % 16,67). Gerra aurreko

belaunaldian “dekoas” baino ez dugu jaso. Gaurko informatzaileen erabilerak aztertuta, hiru ezaugarri aldatzen dira; erroan “ko” (% 95,83) edo “ke” (% 4,17) agertzea, “t” galtzea (% 66,67) edo gordetzea (% 33,33) eta pluralaren morfemaren aurrean “a” (% 87,5) edo “e” (% 12,5) erabiltzea. “t”-dun adizkiak belaunaldi guztietan gertatzen diren arren, joera gehiago egitea da denbora aurrera egin ahala; horrela lehen belaunaldian % 12,5ean erabiltzen da, bigarrenean % 25ean eta hirugarrenean % 37,5ean. Generoaren arabera ez dago ezelako alderik. “a”-ren ordean “e” erabiltzeari dagokionez, berau bigarren belaunaldian agertzen hasi da eta hirugarren belaunaldiko gizonezkoen artean zabaldu da.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	dekoas, deketas	dekoas, dekotas, dekotes	dekoas
Gizonezkoak	dekoas	dekoas, dekotas	dekotas, dekotes

5.60. taula: “dauzkat” adizkiaren ordainak informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera.

5.4.2.3. Eroan

“Eroan” aditzaren kasuan “nork-nor” (5.61. taula) eta “nork-nori-nor” (5.62. taula) sailetako adizkiak jaso ditugu.

	hura	haiek
nik	daroat	daroatas
hik (m)	daroak	daroasak
hik (n)	daroana	daroasena
hark	daroa	daroas
guk	daroagu	daroagus
zuk	daroasu	daroasus
zuek	daroasue	daroasues
haiek	daroardie	daroardies

5.61. taula: “nork-nor” saileko adizkiak.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		daroatzet		daroatzut	daroatzuet	daroatziet
hark	daroaste	daroatzo	daroasku	daroatzu	daroatzue	daroatzie
guk		daroatzu				daroatzu
zuk	daroastesu	daroatzesu				daroatzesu
zuek	daroastesue	daroatzesue				daroatzesue
haiek	daroastie	daroatzie	daroaskue	daroatzue	daroatzue	daroatzie

5.62. taula: “nork-nori-nor” saileko adizkiak.

“daroate” adizkiak 6 aldaki dauzka (5.63. taula): “daroardie” (13, % 54,17), “daroardie” (5, % 20,83), “daroarie” (2, % 8,33), “daroudie” (2, % 8,33), “doorie” (1, % 4,17) eta “perifrastikoa” (1, % 4,17). Gerra aurreko informatzaileetan “daroardie” baino ez dugu jaso. Gaurko informatzaileen erabilerak kontuan hartuta hiru ezaugarri

landu daitezke; aditz trinkoa erabiltzea (% 95,83) ala ez (% 4,17), erroan gertatzen diren aldaketak “roa” (% 83,3), “rou” (% 8,33) eta “oo” (% 4,17) eta “nork” morfeman “d” (% 62,5), “rd” (% 20,83) edo “r” (% 12,5) erabiltzea; azken honi dagokionez joera nagusia “d”-dun aldekoa da.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	daroardie, daroardie, daroarie	daroardie, daroardie, daroudie	daroardie, daroudie
Gizonezkoak	daroardie, doorie, eroaten deurie	daroardie, daroardie, daroarie	daroardie

5.63. taula: “daroate” adizkiaren ordainak informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera.

5.4.2.4. Ekarrri

“Ekarrri” aditzaren kasuan “nork-nor” (5.64. taula) eta “nork-nori-nor” (5.65. taula) sailetako adizkiak jaso ditugu.

	hura	haiek
nik	dakat	dakadas
hik (m)	dakak	dakasak
hik (n)	dakana	dakasena
hark	dakar	dakas
guk	dakagu	dakagus
zuk	dakasu	dakasus
zuek	dakasue	dakasues
haiek	dakardie	dakardies

5.64. taula: “nork-nor” saileko adizkiak.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		dakartzet		dakartzut	dakartzuet	dakartziet
hark	dakaste	dakartzo	dakasku	dakartzu	dakartzue	dakartzie
guk		dakartzu				dakartzu
zuk	dakastesu	dakartzesu				dakartzesu
zuek	dakastesue	dakartzesue				dakartzesue
haiek	dakastie	dakartzie	dakaskue	dakartzue	dakartzue	dakartzie

5.65. taula: “nork-nori-nor” saileko adizkiak.

“dakarte” adizkiak 3 aldaki dauzka (5.66. taula): “dakardie” (20, % 83,33), “dakardie” (2, % 8,33) eta “perifrastikoa” (2, % 8,33). Gerra aurreko informatzaileetan “dakardie” da jaso dugun bakarra. Gaur eguneko informatzaileen erabilerak kontuan hartuta, ezaugarri bi erkatu daitezke; batetik aditz trinkoa erabiltzea (% 91,67) edo ez (% 8,33) eta, bestetik, “nork”-en morfemari dagokiona, hau da, “die” (% 83,3) edo “ie” (% 8,3) erabiltzea.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
Andrazkoak	dakardie, ekarten deurie	dakardie, dakarrie	dakardie
Gizonezkoak	dakardie, dakarrie, ekarten deurie	dakardie	dakardie

5.66. taula: "dakarte" adizkiaren ordainak informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera.

5.4.2.5. Erabili

"Erabili" aditzaren kasuan "nork-nor" (5.67. taula) eta "nork-nori-nor" (5.68. taula) sailetako adizkiak jaso ditugu.

	hura	haiek
nik	darabit	darabias
hik (m)	darabik	darabixek
hik (n)	darabine	darabixena
hark	darabil	darabix
guk	darabigu	darabigus
zuk	darabixu	darabixus
zuek	darabixue	darabixues
haiek	darabildie ⁴	darabilles

5.67. taula: "nork-nor" saileko adizkiak.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		dabiltzet		dabiltzut	dabiltzuet	dabiltziet
hark	dabiste	dabiltzo	dabisku	dabiltzu	dabiltzue	dabiltzie
guk		dabiltzu				dabiltzu
zuk	dabistesu	dabiltzesu				dabiltzesu
zuek	dabistesue	dabiltzesue				dabiltzesue
haiek	dabistie	dabiltzie	dabiskue	dabiltzue	dabiltzue	dabiltzie

5.68. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak.

5.4.2.6. Esan

"Esan" aditzari dagokionez, "nork-nor" (5.69. taula) eta "nork-nori-nor" (5.70.) saileko adizkiak jaso ditugu. "in" eta "in" dauzkaten adizkiak entzun daitezke.

nik	dinot/diñot
hik (m)	dinok/diñok
hik (n)	dinona/diñona
hark	dino/diño
guk	dinogu/diñogu
zuk	dinosu/diñosu
zuek	dinosue/diñosue
haiek	dinoudie/diñourie/diñue

5.69. taula: "nork-nor" saileko adizkiak.

⁴ "darabile" ere bai.

	niri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		diñotzet		diñotzut	diñotzuet	diñotziet
hark	diñoste	diñotzo	diñosku	diñotzu	diñotzue	diñotzie
guk		diñotzu				diñotzu
zuk	diñostesu	diñotzesu				diñotzesu
zuek	diñostesue	diñotzesue				diñotzesue
haiek	diñostie	diñotzie	diñoskue	diñotzue	diñotzue	diñotzie

5.70. taula: "nork-nori-nor" saileko adizkiak.

5.4.2.7. Eretxi

"Eretxi" aditzaren gainean jaso ditugun adizkiak "nork-nori-nor" sailekoak dira. 5.71. taulan agertzen den "deritxof" horren ordez "deritxel" ere jaso dugu.

nik	deritxot
hik (m)	deritxok
hik (n)	deritxona
hark	deritxo
guk	deritxogu
zuk	deritxosu
zuek	deritxosue
haiek	deritxie

5.71. taula: "eretxi" aditzaren adizkiak.

5.4.2.8. Eragon

"Eragon" aditzari dagokionez, esan behar dugu erabili gerra aurreko informatzaileek baino ez dutela erabiltzen izan; gerra osteko informatzaile batzuek ezagutzen dute baina ez dute erabiltzen. Beronen erabileraren adibide batzuk (42)an erakusten dira. 5.72. taulan ikus daitezkeen moduan aditza era bitara jotkatzen da.

(42) "eurie baragoyo"

(euria badaragoio)

"sueg seri daragoyosue?"

(zuek zeri daragiozue?)

"biarrian baragoyue"

(beharrean badaragoioe)

"tallatue arregletan baragoyue"

(teilatua konpontzen badaragoioe)

"indabea apartetan baragoyue"

(indaba apartatzen badaragoioe)

"berbetan daragoyue"

(berbetan daragoioe)

- “orrexegaitik baragoyue”
(*horrexegatik badaragoioe*)
- “aixegaitig daragoyue”
(*harexegatik daragoioe*)
- “gusture daragoyo”
(*gustura daragoio*)
- “inisitue badaragoyo”
(*tximista badaragoio*)

nik	daragiot	daragiotzet
hik (m)	daragiok	daragiotzek
hik (n)	daragiona	daragiotzena
hark	daragio	daragiotze
guk	daragiogu	daragiotzu
zuk	daragiosu	daragiotzesu
zuek	daragiosue	daragiotzesue
haiek	daragiue	daragiotzie

5.72. taula: “eragon” aditzaren adizki molde biak.

5.4.2.9. Gainerakoak

Azkenik, “erdu” eta “erducie” ere erabiltzan dira aditz trinko moduan. Bestalde, “eutsi” (43) eta “erion” (44) aditzen adizki fosilduak ere erabiltzen dira.

- (43) “oneri dautzela dau suetia”
(*honi deutsola dago sukalde*)
- (44) “babea dariola dau”
(*adurra dariola dago*)

5.4.2.10. Aditz trinkoen ezaugarrien azterketa kuantitatiboa

Aditz trinkoen gainean hiru ezaugarri landu ditugu bariazioa aztertzeko, horien arabera informatzaileen multzokatze azterketa eginez gero, 5.11. irudiko dendograma lortzen da. Multzo nagusi biak nahiko desorekatuta agertzen dira, A multzoan 19 (% 79,17) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 5 (% 20,83). 5.73. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldika; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	62,5	87,5	87,5
B multzoa	37,5	12,5	12,5

5.73. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldika.

5.74. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera; kasu honetan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	75	83,3
B multzoa	25	16,7

5.74. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



5.11. irudia: Informatzaileen multzokatzea aditz trinkoen ezaugarrien arabera.

5.5. Alokutiboak

Azpiatal honetan jaso ditugun adizki alokutiboak emango ditugu. Adizkiak errazago ordenatzeko azpiatala sekzio bitan benatuta aurkeztuko dugu; lehen sekzioan aditz laguntzaileen alokutiboak ikusiko ditugu eta bigarrenean aditz trinkoenak. Taulak osatu dira gure gerra aurreko informatzaileen datuak erabilita batez ere.

Alokutiboen erabilerari dagokionez, esan behar da andrazkoenak guztiz galduta daudela gerra ostean jaiotako informatzaileen artean; gure gerra aurreko informatzaileen adierazpenen arabera eurak ere, jakin arren, oso gutxitan erabiltzen zituzten. Gizonezkoen alokutiboak gerra osteko lehen eta bigarren belaunaldietako informatzaileek oraindino erabiltzen dituzte, nahiz eta bigarren belaunaldiko informatzaileerik gazteenek honezkero uzi dioten erabiltzeari.

Gaurko informatzaileek sistema bi erabiltzen dituzte “nor” saileko aditz trinkoak egitean. Alokutiboak neutroetatik ateratzean entzulearen sexuari dagokion morfema (“k” gaur egun) gehitu ondoren, hirugarren pertsonaren “d” palatalizatu egiten

da “y” bihurtuta (“yatok”, “yoasak”). “ni” eta “gu” denean aukera bi dauzkate informatzaileek; batzuek “*nayatok*” eta “*gayatosak*” modukoak darabiltzate eta beste batzuek “*ñatok*” eta “*gatoxak*” modukoak.

5.5.1. Aditz laguntzaileen alokutiboak

Aditz laguntzaileen adizki alokutiboak indikatiboan, baldintzetan eta ahalezkoetan batu ditugu.

5.5.1.1. Indikatiboa

Indikatiboan jaso ditugun orain zein iragan aldietako adizkiak aurkeztuko ditugu ohiko sailen arabera sailkatuta: “Nor”, “Nor-Nori”, “Nork-Nor” eta “Nork-Nori-Nor”.

	oraina		iragana	
	(m)	(n)	(m)	(n)
ni	nok	nona	nitzoan	nitzona
hura	dok	dona	soan	sona
gu	gosak	gosena	gintzoasen	gintzoasena
haiek	dosak	dosena	soasen	soasena

5.75. taula: “nor” saileko adizki alokutiboak.

Iraganean tauletan paratu ditugun adibideez gain, orain aldikoak erabiltzen dira “-n” gehituta: “*gosaken*”, “*dosaken*”.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
niri	yatak/yatek	yatena	yatesak/yatasak	yatesana
hari	yakok	yakona	yakosak	yakosena
guri	yakuk	yakune	yakusek	yakusena
haiei	yakiek	yakiena	yakiesak	yakiesana

5.76. taula: “nor-nori” saileko adizki alokutiboak, orain aldia.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
niri	yatan	yatena	yatasan	yatasana
hari	yakoan	yakona	yakoasan	yakosena
guri	yakukun	yakune	yakuasan	yakusena
haiei	yakian	yakiena	yakiasan	yakiesena

5.77. taula: “nor-nori” saileko adizki alokutiboak, iragan aldia.

	oraina		iragana	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hark	nayok/ñok	nayona	ninduan	ninduna
haiek	nayuek/ñeur(i)ek	nayuena	ninduen	ninduena

5.78. taula: “nork-nor” saileko adizki alokutiboak, “ni” denean.

	oraina		iragana	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yoat	yonat	nayoan	nayoana
hark	yok	yona	yoan	yoana
guk	yuk	yune	geifuan	geifuaana
haiek	yeuriek/yeuek	yuena	yeur(i)en/yeuen	yuena

5.79. taula: “nork-nor” saileko adizki alokutiboak, “hura” denean.

	oraina		iragana	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hark	gayosak	gayosena	ginduesan	ginduesena
haiek	gayuesak	gayuesena	ginduesan	ginduesena

5.80. taula: “nork-nor” saileko adizki alokutiboak, “gu” denean.

	oraina		iragana	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yoasat	yosenat	nayoasan	nayosana
hark	yosak	yosena	yoasan/yosan	yoasena
guk	yusek	yusena	gayoasan	gayuesena
haiek	yeuriesak/yeuesak	yuesena	yeuriesan/yuesan	yuasena

5.81. taula: “nork-nor” saileko adizki alokutiboak, “haiek” denean.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hark	yostek	yostena	yostesak	yostesena
haiek	yostiek	yostiena	yostiesak	yostiesena

5.82. taula: “nork-nori-nor” saileko adizki alokutiboak, “niri” denean, orain aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yotxeat	yotxenat	yotxesat	yotxesenat
hark	yotxek	yotxena	yotxesak	yotxesena
guk	yotxuk	yotxegune	yotxusek	yotxegusena
haiek	yotxiek	yotxiena	yotxiesak	yotxiesena

5.83. taula: “nork-nori-nor” saileko adizki alokutiboak, “hari” denean, orain aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hark	yoskuk	yoskune	yoskusek	yoskusena
haiek	yoskuek	yoskuena	yoskuesak	yoskuesena

5.84. taula: “nork-nori-nor” saileko adizki alokutiboak, “guri” denean, orain aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yotxiet	yotxienat	yotxiesat	yotxiesenat
hark	yotxiek	yotxiena	yotxiesak	yotxiesena
guk	yotxuk	yotxegune	yotxusek	yotxegusena
haiek	yotxiek	yotxiena	yotxiesak	yotxiesena

5.85. taula: “nork-nori-nor” saileko adizki alokutiboak, “haiei” denean, orain aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hari	notxian	notxiana	notxeasen ⁵	notxesena
haiei	notxien	notxiena	notxiesan	notxiesena

5.86. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak, "nik" denean, iragan aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
niri	yostian	yostiana	yostesan	yostesana
hari	yotxian	yotxiana	yotxesan	yotxesana
guri	yoskuen	yoskuena	yoskusen	yoskusena
haiei	yotxien	yotxiena	yotxiesan	yotxiesana

5.87. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak, "hark" denean, iragan aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
hari	gontxian	gontxiana	gontxiasen	gontxesena
haiei	gontxien	gontxiena	gontxiesan	gontxiesena

5.88. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak, "guk" denean, iragan aldia.

	singularra		plurala	
	(m)	(n)	(m)	(n)
niri	yostien	yostiena	yostiesan	yostiesena
hari	yotxien	yotxiena	yotxiesan	yotxiesena
guri	yoskuen	yoskuena	yoskuesan	yoskuesena
haiei	yotxien	yotxiena	yotxiesan	yotxiesena

5.89. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak, "haiek" denean, iragan aldia.

5.5.1.2. Baldintzak

Baldintzetan jaso ditugun adizki alokutiboak "nor" (5.90. taula), "nork-nor" (5.91. taula) eta "nork-nori-nor" (5.92.) sailei dagozkie.

	(m)	(n)
ni	neitikok	neitikona
hura	leitikok	leitikona
gu	geintikosak	geintikosena
haiek	leitikosak	leitikosena

5.90. taula: "nor" saileko adizki alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	neukek	neukena	neukesak	neukesena
hark	leukek	leukena	leukesak	leukesena
guk	geunkek	geunkena	geunkesak	geunkesena
haiek	leukiek	leukiena	leukiesak	leukiesena

5.91. taula: "nork-nor" saileko adizki alokutiboak.

⁵ "notxesan" ere bai.

	hari	
	(m)	(n)
nik	neuskiok	neuskiona
hark	leuskiok	leuskiona
guk	geuskiok	geuskiona
haiek	leuskiuek	leuskiuena

5.92. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak.

5.5.1.3. Ahalezkoak

Ahalezkoetan jaso ditugun adizki alokutiboak "Nor" (5.93. taula), "Nork-Nor" (5.94) eta "Nork-Nori-Nor" (5.95.) sailei dagozkie.

	(m)	(n)
ni	neitikok	neitikona
hura	leitikok	leitikona
gu	geintikosak	geintikosena
haiek	leitikosak	leitikosena

5.93. taula: "nor" saileko adizki alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	neikek	neikena	neikesak	neikesena
hark	leikek	leikena	leikesak	leikesena
guk	geinkek	geinkena	geinkesak	geinkesena
haiek	leikiek	leikiena	leikiesak	leikiesena

5.94. taula: "nork-nor" saileko adizki alokutiboak.

	hari	
	(m)	(n)
nik	neiskioek	neiskiona
hark	leikiok	leikiona
guk	geiskioek	geiskiona
haiek	leikiuek	leikiuena

5.95. taula: "nork-nori-nor" saileko adizki alokutiboak.

5.5.2. Aditz trinkoen alokutiboak

Sekzio honetan jaso ditugun aditz trinkoen alokutiboak aurkeztuko ditugu. Jaso ditugun adizkiak "egon", "joan", "etorri", "ibili", "jakin", "eduki", "ekarri", "eroan", "erabili", "esan", "erexi" eta "eragon" aditzei dagozkie.

	egon		joan	
	(m)	(n)	(m)	(n)
ni	nayauk/hauk	nayaune	nayoak/ñoak	nayoana
hura	yauk	yaune	yoak	yoana
gu	gayausek/gauxek	gayausena	gayosak/goaxek	gayosena
haiek	yausek	yausena	yoasak	yoasena

5.96. taula: "egon" eta "joan" aditz trinkoen alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yakiat	yakinet	yakiasat	yakisenat
hark	yakik	yakine	yakisek	yakisena
guk	yakiuk	yakiune	yakiusek	yakiusena
haiek	yakiek	yakiena	yakiesak	yakiesena

5.98. taula: "jakin" aditz trinkoaren alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yekoat	yekonat	yekoasat	yekoasena
hark	yekok	yekona	yekosak	yekosena
guk	yekuk	yekune	yekusek	yekusena
haiek	yekiek/yeukiek	yekiena	ye(u)kiesak	yekiesena

5.99. taula: "eduki" aditz trinkoaren alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yakat	yakanat	yakasat	yakasena
hark	yakak	yakana	yakasak	yakasena
guk	yakaguk	yakagune	yakagusek	yakagusena
haiek	yakardiek	yakardiena	yakardiesak	yakardiesena

5.100. taula: "ekarri" aditz trinkoaren alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yaroat	yaroatena	yaroasat	yaroatesena
hark	yaroak	yaroana	yaroasak	yaroasena
guk	yaroaguk	yaroagune	yaroagusek	yaroagusena
haiek	yaroardiek	yaroardiena	yaroardiesak	yaroardiesena

5.101. taula: "eroan" aditz trinkoaren alokutiboak.

	hura		haiek	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yarabiat	yarabinet	yarabiasat	yarabisenat
hark	yarabik	yarabine	yarabixek	yarabixena
guk	yarabiguk	yarabigune	yarabigusek	yarabigusena
haiek	yarabildiek	yarabildiena	yarabildiesak	yarabildiesena

5.102. taula: "erabili" aditz trinkoaren alokutiboak.

	(m)	(n)
nik	yifioat	yifionat
hark	yifioak	yifiona
guk	yifiozuk	yifiozune
haiek	yifiozdiek	yifiozdiene

5.103. taula: "esan" aditz trinkoaren alokutiboak.

	eretxi		eragon	
	(m)	(n)	(m)	(n)
nik	yeritxeat	yeritxenaat	yaragioat	yaragionat
hark	yeritxok	yeritxona	yaragiok	yaragiona
guk	yeritxoguk	yeritxogune	yaragiuk	yaragiune
haiek	yeritxiek	yeritxiena	yaragiuek	yaragiunea

5.104. taula: "eretxi" eta "eragon" aditz trinkoaren alokutiboak.

5.6. Juntagailuak

Azpiatal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendarekin batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu. Juntagailuen gainean Euskaltzaindiak (1994) egin duen banaketan emendiozkoak, hautakariak eta aurkaritzakoak bereizten dira.

5.6.1. Emendiozkoak

Emendiozko juntagailurik garrantzitsuena eta gehien erabiltzen dena "eta" da. Berau osorik agertzen da kontsonantez amaitutako berba baten ostean edo eten baten ostean; bokalez amaitutako berba baten ostean agertuz gero "e" galdu egiten da eta sarritan "t" "d" bihurtzen da. Bestalde, aurreko berbaren amaieran "i" edo "u" agertuz gero "a" "e" bihurtzen da (45).

- (45) "orrek in deu biarra ta geuk eroan du"
(horrek egin du beharra eta geuk eroan dugu)
 "amak in deu eta geug yan du"
(amak egin du eta geuk jan dugu)
 "ni etzian lotu nintzen, eta orrekalera yoan sien"
(ni etxean lotu nintzen, eta horiek kalera joan ziren)
 "orrek ekarritus olloak eta beren nebiak il deitus"
(horrek ekarri ditu oiloak eta bere nebak hil ditu)

Esaldien orden logikoa aldatuz gero, hau da, "eta" dun esaldia amaieran erabilia beronek ñabardura kausala hartzen du (46).

- (46) "estot lorik in kafia artu dot eta"
(ez dut lorik egin kafea hartu dut eta)

“banoa berandu de ta”

(banoa berandu da eta)

“guardasola daroa euri ingo deunen antza dau te”

(euritakoa daroa euri egingo duenaren antza dago eta)

Honezaz gain “ez eze” (47), “bai... bai...” (48) eta “es... es...” (49) ere jaso ditugu.

(47) “yakia esese, erosikot arkondara ba pe”

(jaka ez eze erosiko dut alkondara bat ere)

“nebia esese, lengusue be etorko da”

(neba ez eze lehengusua ere etorriko da)

(48) “bai goixian da bai arrastien, jente asko dabil”

(bai goizean eta bai arrategian jente asko dabil)

“bai barruen da bai kanpoan bero andie iten deu”

(bai barruan eta bai kanpoan bero handia egiten du)

(49) “orrek esdeude berbarik eingo es suges es niges”

(horiek ez dute berbarik egingo ez zurekin ez nirekin)

“nik estot salduko es beye es saldie”

(nik ez dut salduko ez behia ez zaldia)

5.6.2. Hautakariak

Juntagailu hautakarietan hiru mota jaso ditugu “ala” (50), “edo” (51) eta “nai” (52).

(50) “sein gurosu au ala ori?”

(zein gura duzu hau ala hori?)

“ser gurosu arda ala ure?”

(zer gura duzu arda ala ura?)

“estakit emekoag diresan ala Bilbokoak”

(ez dakit hemengoak diren ala Bilbokoak)

(51) “beskarie edo yana berotuten imini dot”

(bazkaria edo jana berotzen ipini dut)

“selan edo alan goraño igongo deude”

(zelan edo halan goraino igongo dute)

“besoetan eroan deude, edo lepoan eroan deude”

(besoetan eroan dute, edo lepoan eroan dute)

(52) “nai basoan nai etzian beti dabil biarrian”

(nahi basoan nahi etxean beti dabil beharrean)

“nai etzian nai kanpoan beti iten deu euskeras berba”

(nahi etxean nahi kanpoan beti egiten du euskaraz berba)

“esaterako nai beskarie nai afarie”

(esaterako nahi bazkaria nahi afaria)

“nai” sintagma bien hasieran egon barik, artean behin agertuta nahikoa izaten da (53).

(53) “alan nai olan akabeu in biada”

(hala nahi hola amaitu egin behar da)

5.6.3. Aurkaritzakoak

Hauen artean “baye” (54) eta lehen esaldia ezezkoa denean “baño” (55) jaso ditugu.

(54) “denpora ona iten deu baye arrastireko eurie dator”

(eguraldi ona egiten du baina arratsalderako euria dator)

“esan deu etorko dala baye estot sinestuten”

(esan du etorri dela baina ez dut sinesten)

“umian bile etor dire baye esta egon etzian”

(umearen bila etorri dira baina ez da egon etxean)

“esta etorri baye esteko ardure”

(ez da etorri baina ez dauka ardura)

(55) “ori esta berdian asule baño”

(hori ez da berdea urdina baino)

“ori esta emekoa Mungiekua baño”

(hori ez da hemengoa Mungikoa baino)

5.7. Lokailuak

Lokailuei dagokien azpiatal honetan emendiozko “be” (56) eta beronen gainean egiten diren “be bai” (57) eta “be es” (58) jaso ditugu. Hautakarietan “espabe” eta

“ostantxian” (59) jaso ditugu. Aurkaritzako “alan da gusti be” (60), “a ta gusti be” (61), “bakarrik... be bai” (62) eta “ostera” (63) ere jaso dira. Ondoriozkoetan “alandase” (64) eta “asike” (65). Azkenik kausazkoetan “ze” jaso dugu, batzuetan “eta”rekin batera (66) eta beste batzuetan hain barik (67).

- (56) “yana ekarri dot eta ogie be erosi dot”
(jana ekarri dut eta ogia ere erosi dut)
 “afarie prepare dot eta etzia be garbitu dot”
(afaria prestatu dut eta etxea ere garbitu dut)

Ezezko esaldietan aditza fokalizatuta dagoenean “egin” aditza ezeze “be” ere erabiltzen da fokalizatutako aditzaren ondoan (56b).

- (56b) “esta etorri be in”
(ez da etorri ere egin)
 “geitu beste in”
(deitu ere ez du egin)
- (57) “amag prepare deu beskarie, eta afarie be bai”
(amak prestatu du bazkaria eta afaria ere bai)
 “ardi bi il deitues eta euntz, be pe bai”
(ardi bi hil dituzte eta ahuntz bat ere bai)
- (58) “umia esta etorriko eta aite bes”
(emua ez da etorriko eta aita ere ez)
 “orrek estire yoango etzera, eta biarrian bes”
(horiek ez dira joango etxera eta beharreen ere ez)
- (59) “neu yoango nas edo espabe umia bialdukot”
(neu joango naiz edo espabe umea bialduko dut)
 “emen imini biosu espabestau lekurik”
(hemen ipini behar duzu espabe ez dago lekurik)
 “kotxean yoan biakou espabe berandu allegeko gara”
(kotxean joan beharko dugu espabe berandu ailegatuko gara)
 “etxean congo da eta espabe tabernan”
(etxean egongo da eta espabe tabernan)
 “betik geldita san ostantxian sarriten kordelak eskapeu iteuen”
(behetik gelditzen zen osterantzean sarritan kordelak eskapatu

egiten zuen)

- (60) “iruretan etorko dires baya alan da gusti be berandu ixengo da”
(hiruretan etorriko dira baina hala eta guzti ere berandu izango da)
- (61) “kotxean etorteko dire baya a ta gusti be berandu etorko dires”
(kotxean etortzeko dira baina hala eta guzti ere berandu etorriko dira)
- (62) “ogie bakarrik estot ekarriko, ardaba be bai”
(ogia bakarrik ez dut ekarriko ardoa ere bai)
 “umia bakarrik esta etorriko, ama be bai”
(umea bakarrik ez da etorriko ama ere bai)
- (63) “ni etzian lotu nintzen eta orrek ostera kanpora yoan siren”
(ni etxean geratu nintzen eta horiek ostera kanpora joan ziren)
 “txakurre baltza da, da ostera, katue surie da”
(txakurra beltza da, eta ostera, katua zuria da)
- (64) “alandase, badakixu ser in”
(halandaze, badakizu zer egin)
 “alandase esin geinke esebe in”
(halandaze ezin dezakegu ezer ere egin)
 “alandase geuk in biaku dana”
(halandaze geuk egin beharko dugu dena)
- (65) “estosu ondo entzun asike estakixu ser esan deuen”
(ez duzu ondo entzun hagaitik ez dakizu zer esan duen)
- (66) “estakixu se estosu ondo entzun de”
(ez dakizu ze ez dugu ondo entzun eta)
- (67) “ori umiori atuxu se yausi ingo da”
(hori umeori har ezazu ze jausi egingo da)
 “berandu nator se trena galdu dot”
(berandu nator ze trena galdu dut)

5.8. Menderagailuak

Azpiatal honetan hiru menderagailuren erabileraz arduratuko gara; menderagailuok “BA-”, “-LA” eta “-N” dira.

5.8.1. BA-

Menderagailu hau baldintza motak egiteko erabiltzen da gehien bat: baldintza errealak (68), irrealak (69) eta iraganak (70).

- (68) “erosten espadeude esingu eroan”
(erosten ez badute ezingo dugu eroan)
 “etorten bada beragas berba ingot”
(etortzen bada beragaz berba egingo dut)
 “bier yoan biar badu, goxetik oira yoan biadu”
(bihar joan behar badugu, goizetik ohera joan behar dugu)
 “amarratarako afaldu biar badu oin yoan biadu”
(hamarretarako afaldu behar badugu orain joan behar dugu)
 “berandu etorriten baok afari barik lotukok”
(berandu etortzen baduk afaldu barik lotuko duk)
 “orrek ekarten bayok liburue leiduko yoat”
(horrek ekartzen badik liburua irakurriko diat)
 “beorrek gure badeu etorri leitike”
(berorrek gura badu etorri liteke)
 “laster badator ikusikot”
(laster badator ikusiko dut)
 “ori ekarten bostesue etzera eroangot”
(hori ekartzen badidazu etzera eroango dut)
 “ogirik ekarten espadeude estu afalduko”
(ogirik ekartzen ez badute ez dugu afalduko)
 “laster espadatos eskaitues ikusiko”
(laster ez badatoz ez gaituzte ikusiko)
 (69) “gurao neuke etorko balitikes”
(gurago nuke etorriko balira)
 “bera etorko baleitike berba ingo neunke nik”
(bera etorriko balitz berba egingo nuke nik)
 “denpora ona ingo baleuke yoango gintikes”
(eguraldi ona egingo balu joango ginateke)
 “dirue banenko gusteko letxikit ondo bixitia”
(dirua benauka gustatuko litzaidake ondo bizitzea)

- “basora yoango baleitikes galduko leitikes”
(basora joango balira galduko litateke)
 “suk ori ekarko baseunke geuk eroango geunke”
(zuk hori ekarriko bazenu geun eroango genuke)
 “ori euskeldune balitike geuges egongo litike”
(hori euskalduna balitz geurekin egongo litzateke)
 (70) “etzera yoan bagintzesan ikusi ingo gendun”
(etzera joan baginen ikusi egingo genuen)
 “denpora ona in bauen basora yoango gintzesan”
(eguraldi ona egin bazuen basora joango ginien)

Informatzaile gehienek “ba” hutsa erabiltzen duten arren (% 79,2), batzuek “-n” gehitzen diote aditzari (% 20,8); erabilera hau beste barietate batzuetan oso arrunta da, esate baterako Bermeon (Gaminde et al. 2012a). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen eta bigarren belaunaldietan ez dagoela alderik, baina hirugarren belaunaldian “n” dun erabilerak hazi direla. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia	“ba-” (% 87,5) > “ba- -n” (% 12,5)
2. belaunaldia	“ba-” (% 87,5) > “ba- -n” (% 12,5)
3. belaunaldia	“ba-” (% 62,5) > “ba- -n” (% 37,5)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira; ikusten den moduan andrazkoen eta gizonezkoen arteko aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Andrazkoak	“ba-” (% 83,3) > “ba- -n” (% 16,7)
Gizononezkoak	“ba-” (% 75) > “ba- -n” (% 25)

“ba” zehar galderak egiteko ere erabiltzen da azpikoa bai/ez galdera denean. Gerra aurreko informatzaileek beti “ba” erabili izan dute (71).

- (71) “ikusi dosu afaldu badeude espadeude?”
(ikusi duzu afaldu duten ez duten?)
 “estakit ekarri badeu”
(ez dakit ekarri duen)

“auxe estotzet pregunteu te ia badaki”

(hauxe ez diot itaundu eta ea dakien)

“estait egon banas”

(ez dakit egon naizen)

Gaur eguneko informatzaileek hiru eratarata darabiltzate; “ba-” (% 58,33), “ba-...-n” (% 20,83) eta “-n” (% 20,83). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu erabilera zaharraren ehunekoak murriztuz doala belaunaldirik belaunaldi; era berean bigarren belaunaldian agertu den “-n” hutsaren erabilera hirugarrenean hazi dela ikus daiteke. Hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

1. belaunaldia “ba-” (% 87,5) > “ba- -n” (% 12,5)
2. belaunaldia “ba-” (% 50) > “ba- -n” (% 25) = “-n” (% 25)
3. belaunaldia “ba-” (% 37,5) = “-n” (% 37,5) > “ba- -n” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira; ikusten den moduan andrazkoen eta gizonen hierarkiak eta ehunekoak aldatuta agertzen dira; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

- Andrazkoak “ba-” (% 66,7) > “-n” (% 25) > “ba- -n” (% 8,3)
Gizonenekoak “ba-” (% 50) > “ba- -n” (% 33,3) = “-n” (% 16,7)

Azkenik, “ba”rekin batera “be” (72) erabil daiteke kontzesibo batzuk egiteko eta “les” (73) modal batzuk egiteko.

- (72) “goisetik etorko balitike be ya eskeunke ikusiko”
(goizetik etorriko balitz ere ja ez genuke ikusiko)
“amarratako akabeko baseunke be berandu isengo litike”
(hamarretarako amaituko bazenu ere berandu izago litzateke)
- (73) “orrek aberatza balis les gastetan deu”
(horrek abertatsa balitz legez gastatzen du)
“orrek iten deu berba baleki les”
(horrek egiten du berba baleki legez)

5.8.2. “-LA”

Menderagailu hau “a”z, “e”z eta “o”z amaitutako adizkiei atxikitzen zaie aldatu barik; adizkiaren azken bokala “u” denean, menderagailuaren “a” “e” bihurtzen da. Adizkiaren amaiera diptongoa (W) edo kontsonantea (C) denean, “e” bat txertatzen da; baita “t” eta “k” amaiera daukaten adizkiekin ere (“dotela”, “yokela”, e.a.). Bestalde, iraganeko adizkien “n” kendu egiten da “-la” menderagailua atxikitzean. 5.105. taulan arauen laburpena erakusten da.

Amaiera	Lotura	Menderagailua	Adibideak
(n> o), a, e, o		la	“dekola”, “dala”, “direla”, “neuela”
u		le	“dule”, “dosule”, “gendule”
W	e	la	“dauela”, “deuela”
C	e	la	“datorrela”, “datosela”, “sausela”

5.105. taula: “la” morfema gehitzean gertatzen diren arauen adibideak.

Menderagailu honek funtzio batzuk betetzen ditu, garrantzitsuena konpletiboa izanik. Funtzio honetan baiezko esaldietan, ezezkoetan eta baiezko zein ezezko galderetan ager daiteke (74).

- (74) “akorde nas erosi dosule”
(gogoratu naiz erosi duzula)
“pentzetan yoat etorri dokela”
(pentsatzen diat etorri dela)
“atzo esauen geur ekarko deuela”
(atzo esan zuen gaur ekarriko duela)
“etorko dala esan deu”
(etorriko dela esan du)
“ekarko deuela esan deu”
(ekarriko duela esan du)
“yan deudela pentzetan dot”
(jan dutela pensatzen dut)
“bier datorrela esan deu”
(bihar datorrela esan du)
“au bai gastia dala”
(hau bai gaztea dela!)
“esan tzut ekarri dotela”
(esan dizut ekarri dudala)

- “konturatu nas erosi in dosule”
(konturatu naiz erosi egin duzula)
- “entzun dot etor direla”
(entzun dut etorri direla)
- “estotzut esan etor disela”
(ez dizut esan etorri direla)
- “nor esan dosu etorri dala?”
(nor esan duzu etorri dela?)
- “nogas etor dala esan dosu?”
(norekin etorri dela esan duzu?)
- “esan dau etorri dala?”
(esan du etorri dela?)
- “entzun dosu bier datorrela?”
(entzun duzu bihar datorrela)
- “estotzut esan erosi dotela?”
(ez dizut esan erosi dudala?)
- “estotzut esan neuk ingotela?”
(ez dizut esan neuk egingo dudala?)
- “estotzut esan txarto dauela?”
(ez dizut esan txarto dagoela?)

Subjuntiboarekin erabiltzen denean, berau menpeko esaldia izan daiteke (75) edo esaldi nagusia (76) aginteraren orde ez erabiltzen denean.

- (75) “esayosu orreri datorrela”
(esaiozu horri datorrela)
- “gustetan yat emen olge deyela”
(gustatzen zait hemen olga dezatela)
- “amari gustetan yako etzean yan deigule”
(amari gustatzen zait etxean jan dezagula)
- “esayosu dana ekar dayela”
(esaiozu dena ekar dezala)
- “amak esan deu emen egon gaitesela”
(amak esan du hemen egon gaitezela)

- (76) “ekar dayela”
(ekar dezala)
- “esteitela yoan”
(ez dadila joan)
- “esteyela yan”
(ez dezala jan)
- “arrie isen ditela tallea edo”
(harria izan dadila tailea edo)

Gerundioa adierazteko ere erabiltzen da (77); erabilera honetan, gehienetan, aditz trinkoekin agertzen da.

- (77) “afalduten gausela argie yoan da”
(afaltzen gaudela argia joan da)
- “gorantza soasela ikusiko dosu”
(gorantz zoazela ikusiko duzu)
- “eskolanabilela be ibiltensien kantaka”
(eskolan nabilena ere ibiltzen ziren kantaka)
- “eta gero olan dekosusela bota kanikea ta danag batera”
(eta gero hola daukazula bota kanika eta denak batera)
- “sabalduten noala apurtu in yat”
(zabaltzera noala apurtu egin zait)

“-la” morfemari beste morfema batzuk gehitu dakizkioke funtzio desberdinak lortzeko. Kausala adierazteko “-lako” erabiltzen da (78), “-la ta” kausalak zein modalak adierazteko erabiltzen da (79), “-lako” eta “-lakoan” (80) modal gisa erabiltzen dira.

- (78) “esta etorri berandu dalako”
(ez da etorri berandu delako)
- “berandu nator trena galdu dotelako”
(berandu nator trena galdu dudalako)
- “yan dosuleko askotxu estotzu ondo in”
(jan duzulako askotxu ez dizu ondo egin)
- “lo gitxi in dotelako kantzeute nau”
(lo gutxi egin dudalako nekatuta nago)

- (79) “ni neu etorri dala ta nau”
(ni neu etorri dela eta nago)
 “kotxe ori dala ta estala allege gara berandu”
(kotxe hori dela eta ez dela ailegatu gara berandu)
 “ori neskiori dala ta estala matrakan in du”
(neska hori dela eta ez dela matrakan egin dugu)
- (80) “bertakoa ixen salakoa bayekoat”
(bertakoa izan zelakoa bazaukaat)
 “etor dalakoan nau”
(etorri delakoan nago)
 “ekar deuelakoan nau”
(ekarri duelakoan nago)

5.8.3. “-N”

Menderagailu hau da esaldi mota gehienetan erabiltzen dena, berau hutsik ager dakiguke, deklinaturik edo postposizioen batekin. Menderagailuaren erabileraren gaineko adibideak aurkezteko sekzio hau hiru azpi-sekziotan banatuta aurkezten dugu. Menderagailu hutsa, menderagailua deklinabide atzizkiekin eta menderagailu honekin erabiltzen diren postposizioak izango dira azpi-sekzio horien gaiak.

5.8.3.1. -N

“-n” hutsa gehienbat erlatiboazko esaldiak egiteko erabiltzen da, erlatiboazko esaldiak izen deklinatu baten aurrean joan daitezke edo eurek har ditzakete deklinabide atzizkiak izena isilpean egonda. Jaso ditugun esaldiak sailkatzeko kontuan hartuko dugu erlatibatzen den menpeko esaldiaren sintagma eduki duen kasu marka; horrela bada absolutua (81), ergatiboa (82), datiboa (83), genitiboa (84), sozietiboa (85), bizidunen adlatiboa (86), inesiboa (87), bizigabeen adlatiboa (88) eta ablatiboa (89).

- (81) “etor dan gizona kanpokoa da”
(etorri den gizona kanpokoa da)
 “dirue emon dotzet etzera etor dan andreari”
(dirua eman diot etzera etorri den andreari)
 “erosi dosun liburue motza da”
(erosi duzun liburua motza da)

- “ekar dosun txakurreri yaten emon dotzet”
(ekarri duzun txakurrari jaten eman diot)
 “erosi dotena gordeta dau”
(erosi dudana gordeta dago)
 “estot esetuten suges berbas egon dana”
(ez dut ezagutzen zurekin berbas egon dena)
 “suges etor dan neskia gaixoritu”
(zurekin etorri den neska gaixorik dago)
 “erosi dosunegas estau naikorik”
(erosi duzunarekin ez dago nahikorik)
 “gerniken bisi dana gaixori tau”
(Gernikan bizi dena gaixorik dago)
 “berba ein dot etorri danagas”
(berba egin dut etorri denarekin)
 “axe soan ara yoate sana”
(huraxe zuan hara joaten zena)
- (82) “ikusi saitun mutikoagas egonas”
(ikusi zaituen mutikoarekin egon naiz)
 “au de yana ekar deuenantzat”
(hau da jana ekarri duenarentzat)
 “ori ekar deuenak arda edan deu”
(hori ekarri duenak ardoa edan du)
 “yatordue imini deuen neskeak eneu esetuten”
(jatordua ipini duen neskak ez nau ezagutzen)
- (83) “liburue ekar dotzetan umia estau”
(liburua ekarri diodan umea ez dago)
 “au ekar dotzetan gizona gero etorko da”
(hau ekarri diodan gizona gero etorriko da)
 “ure emon dotzet seuk diru emon dotzesun andra berari”
(ura eman diot zeuk dirua eman diozun andre bati)
 “esnea gustetan yakon neskia esetuten dot”
(esnea gustatzen zaion neska ezagutzen dut)

- “diru emondotzet seuk emon dotzesuneri”
(*dirua eman diot zeuk eman diozunari*)
- “etorri de etzea gustetan yakona”
(*etorri da etxea gustatzen zaiona*)
- (84) “bile yoan garan gizona esta egon”
(*bila joan garen gizona ez da egon*)
- “bile etor diresen umia esteude topeu”
(*bila etorri diren umea ez dute topatu*)
- (85) “suk berba in dosunegas egonas”
(*zuk berba egin duzunarekin egon naiz*)
- (86) “ni yoanase medikuana yoan sara”
(*ni joan naizen medikuagana joan zara*)
- “orrek yoan dire geu yoan garen andriagana”
(*horiek joan dira geu joan garen andreagana*)
- (87) “asko guste yaten elixea egon san parajia”
(*asko gustatu zitzaidan eliza egon zen ingurua*)
- “koi deude itxi dun lekun bertan”
(*koiu dute utzi dugun lekuan bertan*)
- “saldu deude egon gintzesan etzia”
(*saldu dute egon ginen etxea*)
- “egon gintzesan etzia saldu deude”
(*egon ginen etxea saldu dute*)
- “ardaua edan gendun tabernia sarratu deude”
(*ardoa edan genuen taberna itxi dute*)
- “lengoan egon gintzesan tabernia sarratu deude”
(*lehengoan egon ginen taberna itxi dute*)
- “yan dun maye apurtute dau”
(*jan dugun mahaia apurtuta dago*)
- “suok egon sarien sillia ba eroan du konponduten”
(*zuek egon zareten aulkia bada eroan dugu konpontzera*)
- (88) “orrek gu yoan garan basora doas”
(*horiek gu joan garen basora doaz*)
- “yoan garan etzia saldu in gure deude”
(*joan garen etxea saldu egin gura dute*)

- (89) “esetu in biosue suek ni etor nasen mendie”
(*ezagutu behar duzue zuek ni etorri naizen mendia*)
- “suek etor sarien etzia saldu deude”
(*zuek etorri zareten etxea saldu dute*)
- “orreg datos geu etor garan lekuti”
(*horiek datoz geu etorri garen lekutik*)

Horrez gainera, subjuntiboarekin batera erabiltzen da (90), zehar galderetan (91), esklamazioetan (92), “aunke”rekin kontzesiboak egiteko (93) eta “senbet...-ago” (94), “segun...-n” (95) eta “selan...-n” (96) egiturekin.

- (90) “etorri adi goixetik yan barig lotu eskeitiosaken”
(*etor hadi goizetik jan barik lotu ez gaitezen*)
- “orre gure deude gu emen egon gaitesan”
(*horiek gura dute gu hemen egon gaitezen*)
- “atia itxi dot otzitu esteiten”
(*atea itxi dut hoztu ez dadin*)
- (91) “etxekiat nor etorri doken”
(*ez zakiat nor etorri den*)
- “orreg bildurre deko yausiko ete dan”
(*horrek beldurra dauka jausiko ote den*)
- “bildurre dekot etorko ete diren”
(*beldurra daukat etorriko ote diren*)
- “bildurre deko yeusko ete dan”
(*beldurra daukat jausiko ote den*)
- “estakit nor etor den”
(*ez dakit nor etorri den*)
- “estakit nongoa dan”
(*ez dakit nongoa den*)
- “estakit emekoak diresan ala Bilbokoak”
(*ez dakit hemengoak diren ala Bilbokoak*)
- “aitu nor datorren”
(*aditu nor datorren*)

- “aitu non dauen”
(*aditu non dagoen*)
- (92) “se begi politetekosan umiak!”
(*ze begi politik dauzkan umeak!*)
“se denpora ederra iten deuen!”
(*ze eguraldi ederra egiten duen!*)
“bateg badaki non dauen!”
(*bateg badaki non dagoen!*)
“bateg badaki nor etorriko dan!”
(*bateg badaki nor etorriko den!*)
“a selangotza iten deuen!”
(*a zelako hotza egiten duen!*)
- (93) “aunke ondo estauen balio lei”
(*ondo ez dagoen arren balio lezake*)
- (94) “senbet eta giâu ekarten dosun obeto”
(*zenbat eta gehiago ekartzen duzun hobeto*)
“senbet eta gorau sausen obeto”
(*zenbat eta gorago zauden hobeto*)
“senbet eta urrau sausen obeto entzuten dosu”
(*zenbat eta hurbilago zauden hobeto entzuten duzu*)
- (95) “segun dinuen orrek etzea salduko deude”
(*segun dioten horiek etzea salduko dute*)
- (96) “enas konturetu ba selan sartu diresan”
(*ez naiz konturatu bada zelan sartu diren*)
“enas konturetu selan etorri diresan”
(*ez naiz konturatu zelan etorri diren*)

5.8.3.2. -N eta deklinabidearen morfemak

Azpi-sekzio honetan erlatibozko esaldien gainean egiten den deklinabide arrunta bazter utzita, deklinabide morfemak gehituta egiten diren aparteko erabilerak aztertuko ditugu.

Hasteko esadi konpletiboak egiteko “-la”ren ordez egiten den “-na”ren erabilera aztertuko dugu. Molde hau erabiltzeko baldintza zehatz batzuk bete behar dira,

baldintzok Forurako proposatutako berberak dira (Gaminde, 1989a). “-na” baiezko, ezezko eta galderazko esaldietan (97) erabil daiteke eta esklamazioetan (98).

- (97) “amen bertan ikusten da jente asko dabilena”
(*hemen bertan ikusten da jente asko dabilena*)
“konturetu nas or dauena”
(*konturatu naiz hor dagoena*)
“ulertu tzut bier datosena”
(*ulertu dizut bihar datozena*)
“bai igerri dotzut emekoa sarana”
(*bai igarri dizut hemengoa zarena*)
“ori badakit esaten sana”
(*hori badakit esaten zena*)
“badakit etorri dana”
(*badakit etorri dena*)
“astelena dana badakit”
(*astelehena dena badakit*)
“esta egie etor direna”
(*ez da egia etorri direna*)
“badakixu akabe deudena esta?”
(*badakizu amaitu dutena, ezta?*)
“ikusi dosu esta jente asko dauena?”
(*ikusi duzu ezta jente asko dagoena?*)
“estostesu igerri ondino amekoa nasena?”
(*es didazu igarri oraindino hemengoa naizena?*)
“estakisu akabe duna ala?”
(*ez dakizu amaitu duguna ala?*)
- (98) “klaro ekar deuna!”
(*jakina ekarri duena!*)
“segurutik ekar deuna!”
(*seguru ekarri duena!*)
“eskerrak etorri dana!”
(*eskerrak etorri dena!*)

“eskerrak ekar deudiena!”

(eskerrak ekarri dutena!)

Erabilera hau aukeratu dugu bariazioaren azterketarako. Aurreko adibideak gerra aurrean jaiotako informatzaileenak izan dira. Gaur egungo informatzaileen artean morfema honen erabilera murriztuz doa arin. “na” 10 informatzailek erabili dute (% 41,7) eta “la” 14k (% 58,3). Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertuta, ikusten dugu lehen belaunaldiko informatzaileek ehuneko handian erabiltzen dutela “na” eta beste belaunaldi bietan erabilera oso marginala dela. Aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 10,629$; $p = 0,005$).

1. belaunaldia “na” (% 87,5) > “la” (% 12,5)
2. belaunaldia “la” (% 87,5) > “na” (% 12,5)
3. belaunaldia “la” (% 75) > “na” (% 25)

Generoaren arabera azterketa bera eginda ondoko hierarkiak lortzen dira; ikusten den moduan andrazkoen eta gizonezkoen artean ez dago alderik.

- | | |
|---------------|-------------------------------|
| Andrazkoak | “la” (% 58,3) > “na” (% 41,7) |
| Gizononezkoak | “la” (% 58,3) > “na” (% 41,7) |

“n” morfemarekin batera erabil daitezkeen gainerako deklinabide kasuak partitiboa “-nik” konpletibo funtzioan (99), inesiboa “-nean/-nian” denborazkoak egiteko (100), adlatibo direktiboa “-nerako” (101), partitiboa “-nik + ona” (102) denborazkoak egiteko, eta ablatiboa “-netik” (103) funtzio modalez dira.

- (99) “enas entereu akabe deudenik”
(ez naiz enteratu amaitu duteneik)
 “enas konturetu emekoa saranik”
(ez naiz konturatu hemengoa zarenik)
 “esteude esan bier datosenik”
(ez dute esan bihar datozenik)
 “estostie esan ingo deudenik”
(ez didate esan egigo dutenik)
 “estot entzun geixoritaunik”
(ez dut entzun gaixorik dagoenik)

“estot pentzatan afaldu daudenik”

(ez dut pentsatzen afaldu dutenik)

(100) “akabetan dunian yoango gara etzera”

(amaitzen dugunean joango gara etzera)

“biar satesenean akabetan ongonas”

(bihar zatozenean amaitzen egongo naiz)

“erosten dosunean erakutsi ingostesu”

(erosten duzunean erakutsi egingo didazu)

“etor danean yaten egonas”

(etorri denean jaten egon naiz)

“etorri sentikes seuguredosunean”

(etor zintezke zeuk gura duzunean)

“eurie mogidu deuenian kanpoan eon gara”

(euria mugitu duenean kanpoan egon gara)

“goixean dendara yoanasenean dirurik estot euki”

(goizean dendara joan naizenean dirurik ez dut eduki)

“urtetan dosunean atia itxixu”

(irteten duzunean atea itxi ezazu)

(101) “gu yoan gintzesanerako yoan siren eurek”

(gu joan ginenerako joan ziren eurak)

“ama etor sanerako ni urtenda nengoan”

(ama etorri zenerako ni irtenda nengoan)

“akabetan dosunerako etorriko da”

(amaitzen duzunerako etorriko da)

“etzera etorri danerako ni enas egon etzean”

(etzera etorri denerako ni ez naiz egon etxean)

“satosenerako akabeta egongo da”

(zatozenerako amaituta egongo da)

(102) “gurian aite il danik ona esaten tziet aiba dirue ta yoan”

(gurean aita hil denik hona esaten diet hartu dirua eta joan)

“nik estot peridikurik artu jubile nasenik ona”

(nik ez dut egunkaririk hartu jubilatua naizenik hona)

- “etor danik ona estot ikusi”
(etorri denik hona ez dut ikusi)
- (103) “dinuenetik bier etorriko da etzera”
(diotenez bihar etorriko da etzera)
- “ikusi dunetik etzea salduko deude”
(ikusi dugunez etzea salduko dute)
- “esan deudenetik, gero etorko dires”
(esan dutenez, gero etorriko dira)

5.8.3.3. -N eta postposizioak

Jaso ditugun datuetan “-n” menderagailuarekin batera agertzen diren postposizioak honako hauek dira: “moduen” (104), “modukoa⁶” (105), “antzekoa” (106) “antzian” (107), “orduen” (108), “les” (109), “bitartean” (110), “arte” (111), “bakotxeko/bakotxian” (112), “gustien” (113), “besteko” (114) eta “eran/erara” (115).

- (104) “esan seinke seugurosun moduen”
(esan dezakezu zeuk gura duzun moduan)
- “au in dot orrek esan deun moduen”
(hau egin dut horrek esan duen moduan)
- “beskarie prepare du amak esan deun moduen”
(bazkaria prestatu dugu amak esan duen moduan)
- “ein du seuk esan dosun moduen”
(egin dugu zeuk esan duzun moduan)
- (105) “yake bat ekar dot aite tekon modukoa”
(jaka bat ekarri dut aitek daukan modukoa)
- “erosi dot gastaya seuk ikusi sendun modukoa”
(erosi dut gazta zeuk ikusi zenuen modukoa)
- “ori neuk ekar doten moduko txikie da”
(hori neuk ekarri dudan moduko txikia da)
- (106) “ekarri dot liburu bet seuk erakutzi sosten antzekoa”
(ekarri dut liburu bat zeuk erakutsi zenidanaren antzekoa)

⁶ Honen bidez gonbaratiboak ere egin daitezke.

⁷ Berau “-nean” atzikiaren funtzio bera egiteko erabiltzen da.

- “yake bat erosi dot amak tekonan antzekoa”
(jaka bat erosi dut amak daukanaren antzekoa)
- (107) “gure ixen dosun antzian ein dotzut”
(gura izan duzun antzean egin dizut)
- (108) “yoate san orduen arantza esnia emon da gero ta geugas ordu bi”
(joaten zen orduan harantz esnea eman eta gero gurekin ordu bi)
- “yoan gintzesen orduen andi mendiri mendi”
(joan ginen orduan handik mendirik mendi)
- “etor sarien orduen ikusi saitut”
(etorri zaren orduan ikusi zaitut)
- “datorren ordun beragas egongo nas”
(datorren orduan berarekin egongo naiz)
- (109) “ori kanpokoa dana les estaki euskeras berba iten”
(hori kanpokoa dena legez ez daki euskaraz berba egiten)
- “gaur astelena dana les biarran yoan gara”
(gaur astelehena dena legez beharrean joan gara)
- (110) “au iten dosuen bitartian nig beskarie preparekot”
(hau egiten duzuen bitartean nik bazkaria prestatuko dut)
- “gorantz soasen bitartian ikusiko dosu”
(gorantz zoazen bitartean ikusiko duzu)
- (111) “amaituten dosun arte etzera yoango gara”
(amaitzen duzun arte etzera joango gara)
- “da lo beti nik aisteas iteneuen eskondu sanerarte”
(eta lo beti nik ahizparekin egiten nuen ezkondu zenera arte)
- (112) “berba iten deun bakotxeko ganorabakokeri bet esaten deu”
(berba egiten duen bakoitzeko ganorabakokeria bat esaten du)
- “datorren bakotxian afalduten geldituten da”
(datorren bakoitzean afaltzen gelditzen da)
- (113) “urtetan deun gustien gero berandu dator”
(irteten duen guztian gero berandu dator)
- “datorren gustien seuser dakar”
(datorren guztian zer edo zer dakar)

“datorren gustien afalduten lotzean da”

(*datorren guztian afaltzen lotzen da*)

(114) “ori seuk ikusi sendun besteko andie da”

(*hori zeuk ikusi zenuen besteko handia da*)

(115) “koiten deitusen eran yan iten deitus”

(*koiten dituen eran jan egiten ditu*)

“datosen erara yarri iten dire”

(*datozen erara jarri egiten dira*)

5.9. Datuen azterketa kuantitatiboa

Aurreko azpiataletan egin dugun datuen azterketa linguistikoaren ondorioz informatzaileei egin zitzaizkien 33 galderen bidez 134 tasun bildu ditugu; hauetariko 12 (% 8,96) aditz ez jokatuena erabilerari dagozkio, 16 (% 9,01) Nor-Nori sailari, 50 (% 37,31) Nork-Nor sailari, 28 (% 20,90) Nork-Nori-Nor sailari, 12 (% 8,96) baldintzei, 11 (% 8,21) aditz trinkoei, 1 (% 0,75) alokutiboen erabilerari eta 4 (% 2,99) menderagailuen erabilerari.

Informatzaileak tasun guztien arabera multzokatzen baditugu, 5.12. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den legez, A multzoan 15 informatzaile (% 62,5) kokatzen dira eta B multzoan 9 (% 37,5). 5.106. taulan multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak ematen ditugu belaunaldika; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
A multzoa	62,5	87,5	37,5
B multzoa	37,5	12,5	62,5

5.106. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak belaunaldika.

5.107. taulan gauza bera agertzen da informatzaileen generoaren arabera; kasu honetan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

	andrazkoak	gizonezkoak
A multzoa	66,7	58,3
B multzoa	33,3	41,7

5.107. taula: Multzo bakoitzeko informatzaileen ehunekoak generoaren arabera.



Aurreko ataletan landu ditugun ezaugarrien aldean lexikoaren aldakortasuna aztertzea konplexuagoa da, izan ere, lexikoa berez oso esparru zabala da eta definizioz mugagabea. Bestalde, badihardugu arlo honetan lan berezi bat egiten geroago argitaratzekotan. Hemen lexikoaren alderdi batzuk baino ez ditugu aztertuko. Alde batetik, gai batzuetako lexikoaren bilakaera eta aldakortasuna aztertuko dugu, adinaren eta generoaren arabera egon litezkeen aldeak agirian jartzekotan eta baita lexikoaren bilakaera horren balizko norabideak azalertzeko; aldi berean, informatzaileak sailkatuko ditugu talde homogeen desberdinik ote dagoen ikusteko. Beste alde batetik, bat-bateko testu baten lexikoa oinarritzat hartuta, barbarik erabilienak zeintzuk diren ikertu ostean, informatzaileek erakusten duten lexiko aberastasunaren arabera ahaleginduko gara agirian jartzen egon daitezkeen azpiko egiturak eta informatzaile multzoak.

Badugu lehendik argitaratuta lan bat Larrabetzuko giza gorputzaren lexikoaren bilakaeraz eta aldakortasunaz (Gaminde et al., 2016a); bertan belaunaldi biren arteko datuak erkatu ziren, aldaki fonetikoak eta lexikoak konparagarritzat hartuta. Hango datu batzuk eta zaharrekin jasota dauzkagun beste batzuk erabilia, interesgarri iritzi diogu beste azterketa mota bat hemen plazaratzeari. Oraingo honetan orduko belaunaldirik gazteenaren datuak erabiliko ditugu zaharrenekin datuekin erkatzeko. Gai honen lexikoa jasotzeko eta aztertzeko helburuak eta metodologia geroago landu ditugun gaien lexikoa jasotzeko eta aztertzeko helburuekin eta metodologiarekin bat ez datozenez gero, berau bereiz aurkeztea erabaki dugu.

Gauzak horrela, atal hau lau azpiataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen azpiatalean giza gorputzaren lexikoa aztertuko da, bigarren azpiatalean lau gairen lexikoa hartu da aztergaitzat, gaiok meteorologia, landareak, piztiak eta abereak dira; azpiatal biotako gaien lexikoaren azterketaren bidez jakin nahi izan dugu lexiko arloko aldaketa eta higadura zenbatekoa izan den eta gaien arabera alderik ote dagoen. Azkenik, hirugarren azpiatalean bat-bateko testu baten lexikoa ikertuko da. Azpiatal

bakoitzean helburu zehatzak eta erabilitako xehetasun metodologikoak beren-beregi adieraziko dira.

6.1. Giza gorputzaren lexikoa

Azpiatal honetan giza gorputzaren lexikoaren aldakortasuna eta bilakaera aztertuko dugu. Horretarako 1981-2000 urte bitartean jaiotako informatzaileen datuak erkatuko ditugu 1924. urtean jaiotako informatzaile baten datuekin. Azpiatalaren helburua da lexikoa zertan eta zenbateraino aldatu den jakitea.

Lanari ekiteko informatzaile zaharrarekin bildutako datuetan 40 berbako zerrenda bat hartu da oinarritzat gero gazteen datuekin erkatzeko. 6.1. taulan aukeratutako berbak ematen dira.

burue	belarrie	surre	okotza	bekokie
agine	askordine	txistue	sorbaldia	lepoa
samia	besoa	atzamarra	eskubitorra	ankia
orpoa	sana	kuntzurune	asala	askuria
begitxindorra	damistikune	arpie	begie	agoa
ulia	espana	mine	sotena	tripeko sile
garrie	ukondoa	ukubilia	asatzala	beleune
orkatillia	gibela	asurre	garie	arrausie


6.1. taula: Giza gorputzaren lexikoaren bilakaera aztertzeko aukeratutako zaharren berbak.

Belaunaldi gaztearen informatzaileak 8 izan dira, 4 neska eta 4 mutil. Denak Larrabetzuko euskaldunak dira, hau da, euren ama hizkuntza bertako barietatea izan da eta D ereduan egin dituzte euren ikasketak.

Berbak jasotzeko era bi erabili ziren, kasu gehienetan itzulpenen bidez lortu ziren, hau da, inkestatzaileak gaztelaniaz ematen zizkien berbak eta eurok itzuli egiten zituzten; kasu bakan batzuetan azalpenak eman behar zitzaizkien eskatzen zena ondo uler zezaten (“*begitxindor*” edo “*azkordin*” berben kasuetan, adibidez). Informatzaileek beti ez dute itzulpena zuzenean ematen edo batzuetan guk eduki ez dugun beste ordainen bat eman dute, zalantzan geratzen dira sarritan; honelako kasuetan herrian bertan jasotako erantzunen bat proposatu zaie. Proposatutako hitzen gainean jasotako erantzunak era bitara sailkatu dira; zuzenean onartu dutenean puntu bi eman zaizkio eta ezaguntzat edo entzundakotzat jo dutenean puntu bat eman zaio. Kasu batzuetan, lagunduta ere, ez dute erantzuten jakin eta orduan sarrera horri 0 eman zaio. Era honetara, hitzen erabilera 0tik, hau da ezagutza eza, 3ra bitarteko eskala baten kokatzen da. Denetara 320 erantzun jaso dira.

Berben transkripzioak egin ondoren hitzen lematizazioa egin da, horretarako hitz bakoitzari lema bat esleitu zaio dauzkan aldaki fonetikoak kontuan hartu barik. “*giltzurrun*” izan da erabili den lema “*giltzurrun*”, “*gultzurrun*”, “*guntzurrun*” eta “*kuntzurrun*” aldakiak ordezkatzeko. Beste adibide bat “*belaun*” izan daiteke, lema honen bidez “*belaun*”, “*beleun*” eta “*belun*” aldakiak ordezkatu dira. Denetara 45 lema batu ditugu, izan ere, galdera batzuek lema bat baino gehiago izan dute; adibidez “*lepo*” eta “*bizkar*” sinonimotzat eman dira, edo “*begitxindor*” eta “*txindor*”.

Lemen datuak aztertuz gero, zaharraren aldean gazteek bost lema gehiago erabiltzen dituzte (% 8): “*lepo*”rekin batera “*bizkar*” ere erabili da, “*eskubitor*”ekin batera “*eskumutur*”, “*begitxindor*”ekin batera “*txindor*” eta “*tripeko zil*”ekin batera “*zil*” eta “*tirrin*”. Informatzaile gazte bakoitzaren puntuazioen batezbestekoa 109,13 da, beraz zaharren aldean % 9,06a aldatu dela esan dezakegu. 6.1. irudian informatzaileen sailkapena sailkapena erakusten da; bertan ikusten den moduan, A multzoan neska bi eta mutil bat agertzen dira zaharrarekin batera eta B multzoan beste neska biak eta hiru mutilak, beraz esan dezakegu mutilek aldaketa gehiago egin dituztela neskek baino. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.




Aldaketa lexikoak eta fonetikoak batera aztertzen baditugu, ikusten dugu berba guztien % 47,5 (19) berdin egiten dituztela gazteek eta zaharrak: “*burue*”, “*belarrie*”, “*bekokie*”, “*txistue*”, “*sorbaldia*”, “*besoa*”, “*atzamarra*”, “*orpoa*”, “*sana*”, “*asala*”, “*begie*”, “*agoa*”, “*espana*”, “*garrie*”, “*ukondoa*”, “*gibela*”, “*asurre*”, “*garie*” eta “*arrausie*”. Gainerakoetan aldaketa lexikoak ez eze aldaketa fonetikoak ere gertatzen dira. 6.2. taulan zaharraren aldean gazteek erabili dituzten aldakiak erakusten dira, bakoitzaren chunekoarekin batera:

Zaharra	Gazteak
"surre"	"surre" (% 12,5), "sudurre" (% 37,5), "saurre" (% 50)
"okotza"	"okotza" (% 75), "kokotza" (% 25)
"agine"	"agine" (% 25), "agiñe" (% 75)
"askordine"	"askordine" (% 25), askordine (% 25)
"lepoa"	"lepoa" (% 87,5), "biskerra" (% 12,5)
"samia"	"samia" (% 75), "samea" (% 25)
"eskubitorra"	"eskubitorra" (% 50), "eskumuturre" (% 50)
"ankia"	"anke" (% 25), "ankia" (% 62,5), "anka" (% 12,5)
"kuntzurruna"	"giltzurruna" (% 50), "gultzurruna" (% 25), "kuntzurruna" (% 12,5), "guntzurruna" (% 12,5)
"askuria"	"askuria" (% 75), "askurea" (% 25)
"begitxindorra"	"begitxindorra" (% 87,5), "txindorra" (% 12,5)
"damistikune"	"doministikue" (% 50), "doministiku" (% 37,5), "doministikun" (% 12,5)
"arpie"	"arpegie" (% 12,5), "arpegie" (% 12,5), "arpie" (% 50), "arpeye" (% 25)
"ulia"	"ulia" (% 87,5), "ulea" (% 12,5)
"mine"	"mine" (% 50), "miñe" (% 50)
"sotena"	"sotena" (% 37,5), "sotina" (% 25), "sotiñe" (% 37,5)
"tripeko sile"	"tripeko sile" (% 25), "sile" (% 37,5), "siye" (% 12,5), "tirrine" (% 25)
"ukubilia"	"ukubilea" (% 12,5), "ukubile" (% 12,5), "ukabiye" (% 37,5), "ukabillea" (% 12,5), "ukabiyea" (% 12,5)
"asatzala"	"asatzala" (% 25), "atzasala" (% 75)
"beleune"	"beleune" (% 12,5), "belaune" (% 12,5), "belune" (% 75)
"orkatillia"	"orkatiyea" (% 50), "orkatillea" (% 12,5), "orkatiye" (% 37,5)

6.2. taula: Lemen aldaki fonetikoak eta euren ehunekoak.

Aldaketa lexikoak eta fonetikoak batera kontuan hartzen badira 79 ezaugarri lortzen dira. Informatzaileak ezaugarri horien arabera sailkatzen baditugu 6.2. irudian agertzen den dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, lemen araberako sailkapen bera lortzen dugu. B multzoan neska bi eta mutil bat agertzen dira zaharrenekin batera eta A multzoan beste neska biak eta hiru mutilak, hemen ere esan dezakegu mutilek gehiago aldatzen dutela neskek baino. Aldea ez da estatistikoki esanguratsua.



6.2. Lexikoaren bilakaera gaika

Sarreraren aipatu den legez, azpiatal honetan belaunaldi gazteenak zaharren lexiko tradizionalari zenbatean eusten dion aztertu nahi da. Azterketa burutu ahal izateko lau gai aukeratu dira: meteorologia, landareak, piztiak eta abereak. Gaiok kultura eta bizimodu tradizionalan oso errotuta egon dira eta euren lexikoa oso arrunta izan da. Gaur egun bizimodua aldatu da eta etengabe aldatzen dabilenez gero, alde aurretik espero daiteke gaion berbak ere aldatuta egotea. Aldaketa horien eragileak hirutzuk izan daitezke: belaunaldi gazteen hiritartze prozesu azkarra, beste barietate batzuetako euskararekin eta gaztelaniarekin lotura estuagoa izatea eta eskolaren eragina, kontuan hartu behar da gure informatzaile guztiek euren ikasketak D eremuan egin dituztela.

Denetara 88 berba aukeratu dira: meteorologian 20, landareen atalean 20, piztien atalean 24 eta abereen atalean 24. Datuak biltzeko 10 informatzaile izan ditugu, 5 neska eta 5 mutil. Denek Larrabetzuko euskara ama hizkuntzatzat jaso dute eta euren ikasketak D eremuan burutu dituzte. Belaunaldi gazteena aztertu nahi izan dugunez gero, 1992. eta 1998. urte bitartean jaioko informatzaileak aukeratu dira.

Berbak jasotzeko inkestak prestatu ziren eta informatzaileei gaztelaniaz edo azalpenen bidez aurkezten zitzaizkien euren erara esateko. Inkestagileok alde aurretik bertako zaharrek emandako aldakiak eduki genituen eta informatzaileek gure zerrendetan agertzen zen berbaren bat esaten ez zutenean, gure aukera esaten zitzaien jakiteko ezagutzen zuten ala ez. Horrela 880 sarrerako corpusa batu genuen.

Behin grabazioak jasoz gero, entzutean esandako berba bakoitzari puntuazioa ematen zitzaion erantzun motaren arabera aurreko azpiatalean bezala (Gaminde et al., 2012b, 2016a). Informatzaileak lehen aukeran ematen zuten berbari 3 puntu ematen zitzaizkion, inkestatazaileen laguntza behar izatekotan puntu bi ematen zitzaizkion, informatzaileak proposatutako berba entzunda eduki zutenean edo berba ezagutu bai baina berea ez zela esaten zutenean puntu bat ematen zitzaion eta guztiz ezezaguna eta berbarik eduki ez zutenean orduan 0 izan da galdera horren puntuazioa. Berben aldaketa fonetikoak ez dira kontuan hartu puntuak ematean, aldaki lexikoak baino ez dira aztertu. Era honetara, aldakiek euren lortzen duten puntuazioaren arabera hiru kategoria egin daitezke: (1) lexiko aktiboa (21-30 bitarteko puntuazioarekin), (2) lexiko pasiboa (11-20 bitarteko puntuazioarekin) eta (3) Galbidean edo ordeztu bidean dauden berbak (0-10 bitarteko puntuazioarekin).

Informatzaileek emandako erantzunak era honetara puntuatuta, lortzen da jakitea zenbateraino ezagutzen duten bertako lexiko tradizionala eta zenbateraino erabil dezaketen. Horrela bada, informatzaile batek bertako lexiko tradizionala erabiltzen badu inolako zalantza barik atera dezakeen puntuaziorik altuena 264koa da. Kontuan hartu behar da puntuazio txikiagoa edukitzeak ez duela esan nahi informatzaileak lema horretarako ez daukanik ordezkorik, adierazten dugun gauza bakarra da berba tradizionala ordeztu izana. Aldaki tradizionalen ordeztu informatzaileek beste batzuk erabiltzen dituztenean, aldaki berriok euskara estandarretik edo gaztelaniatik har daitezke.

Era berean esan behar dugu ezen, oso interesgarri iritzi diogula genero aldagaiaren eragina aztertzeari eta sekzio guztiak era honetako azterketekin mukurutu ditugu.

Beraz, datuen azterketa sekzio guztietan berdin aurkeztuko da. Hasteko gaia aztertzeko aukeratu diren lema eta zaharren aldakiak euron oharrekin aztertu ondoren, gaiaren puntuazio orokorra emango da eta ze ehunetara gordetzen den lexiko tradizionala adieraziko da. Jarraian berben puntuazioak kontuan hartuta lehen aipatu ditugun kategoriatan sailkatuta aurkeztuko dira. Hurrengo urratsa ordezkapenak aurkeztuko dira euron kopuruekin. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuko dira, era bitako azterketak eginez. Batetik, informatzaileen puntuazio orokorren arabera azterketa egingo da eta, bestetik, aldaki bakoitzeko lortu diren puntuazioen batezbestekoak lortuta, ikusiko dugu balizko aldeak estatistikoki esanguratsuak diren ala ez. Azkenik, multzokatze azterketa izeneko teknika erabilita informatzaileen sailkapena egingo dugu jakiteko azpiko egitura zehatzik azaleratzen den. Multzokatze azterketa burutzeko erabili behar diren datu matritzetan aldaki guztiak erabiliko dira, bai lexiko tradizionalakoak zein eurok ordezkatu dituzten aldaki berriak. Datuak doitzeko aldaki bakoitzak jaso duen puntuazioa erabiliko da datu dikotomikoen ordeztu. Kalkulua egiteko unean Ward izeneko metodoa erabiliko da eta distantzia mota euklidear karratua izango da.

Azpiatala bost sekziotan banatuta aurkezten dugu hartu dugun gai bakoitzaren arabera. Gai bakoitzaren datuen analisia burututa, bosgarren sekzioan gai guztien emaitzak bateratuta aurkeztuko ditugu eta azpi-gai honen ondorio nagusiak laburbilduko dira.

6.2.1. Meteorologia

Gai honetako lexikoaren bilakaera aztertzeko aukeratu ditugun 20 lema eta zaharrekin jasotako aldakiak 6.3. taulan erakusten dira. Gai honen puntuaziorik altuena 600koa izan daiteke eta informatzaile guztien artean 532 atera dira, honek esan nahi du lexiko tradizionalaren % 88,67 gordetzen dela.

Lema	Aldakia	Lema	Aldakia
eguzki	eguskie	ostadar	(s)ustrukue
elur	edurre	potxingo	potxingoa
huri	eurie	sargori	sargorie
haize	axia	sikate	siketia
hodei	lañoa	tangada	tangadia
ihintz	garoa/iñutze/iñotza	trumoi	truboya
iretargi	itargie	tximista	inisiue
izar	ixerra	txingor	inetasie
laino	belañoa	uriol	uriola
lei	leye	zaparrada	saparradia

6.3. taula: Meteorologia gaia lantzeko aukeratutako 20 lema.

“iñutze, iñotza” eta “garoa” ez dira fenomeno bera izaten informatzaile guztientzat; batzuen iritzi “garoa” kanpoan egoten den bustitzea da, baina berori euriak eraginekoa izaten da; “inutze/ iñotza”, berriz, euria egin barik sortzen den bustitzea da. Gure hemengo helburuetarako hirurak onartu ditugu bertakotzat. “ostadar” lema dagokionez, aukera bi agertu dira zaharren artean: “ustrukue” eta “sustrukue”, informatzaile gazteek biak erabiltzen dituzte. “itargie” aldakiaren kasuan gazteek “iretargie”, “iritargie” eta “igitargie” modukoak ere erabili dituzte.

6.4. taulan aldakien puntuazioak ematen ditugu azpiatal honen sarreran zehaztu ditugun kategorien arabera; bertan ikusten den legez, aldaki gehienak hiztegi aktibokoak dira eta bi baino ezin jo daitezke hiztegi pasibotzat.

Kategoria	Aldakiak
(1)	eguskie (30), edurre (30), eurie (30), axia (30), ixerra (30), (s)ustrukue (30), truboya (30), belañoa (28), sargorie (28), garoa/iñutze (27), leye (27), saparradia (27), lañoa (26), inisiue (26), inetasie (25), itargie (24), tangadia (24), potxingoa (23)
(2)	uriola (20), siketia (19)


6.4. taula: Aldakien puntuazioak eta euron banaketa hiru kategoriatan.

Aldakien ordezkapenei dagokienez, 10 aldakirekin gertatzen direla ikus dezakegu 6.5. taulan; bertan aldaki bakoitzaren ordezkapen kopurua ere ematen dugu. Datu horiek aztertuta ordezkapenak % 18,5koa direla esan dezakegu.

Aldaki tradizionalak	Aldaki berriak
lañoa	"odeya/odeye" (4)
leye	"isotza" (2)
saparradia	"txaparroya" (2)
itargie	"ilargie, iyargie" (5)
inisiñue	"tximista" (1)
tangadia	"tanta" (3), "gotia" (1)
potxingoa	"putzue" (4), "txarkoa" (2)
iñetasie	"txingorra" (5)
uriola	"inundasiñoa" (5)
siketia	"sekia" (3)

6.5. taula: Aldaki tradizionalen ordain berriak.

Emaitzak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu mutilen puntuazioak (277, aldaki tradizionalen % 92,33) altuagoak direla neskenak (255, aldaki tradizionalen % 85) baino (6.3. irudiko grafikoa).




6.6. taulan aldaki tradizionalen puntuazioen batezbestekoak (\bar{x}), desbideratzeak (sd), minimoa (min), maximoa (max) eta heina ematen ditugu informatzaileen generoaren arabera sailkatuta; hala ere, agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
neskak	12,75	2,77	6	15	9
mutilak	13,85	1,31	11	15	4

6.6. taula: Aldaki tradizionalen datuak informatzaileen generoaren arabera.

6.4. irudiko dendograman informatzaileen sailkapena ikus daiteke, sailkapen hau egiteko gai honetan agertu zaizkigun 32 aldakiak erabili dira. Bertan ikusten den moduan, mutil guztiak multzo batean agertzen dira eta nesken % 40a beste batean. A multzoan azpi multzo bi egin daitezke, A1 azpi-multzoan hiru neska agertzen dira eta mutil bi; A2 azpi-multzoan, ostera, agertzen diren informatzaile guztiak mutilak dira. Beraz, esan dezakegu generoak badaukala nolabaiteko eragina multzoak eta azpi-multzoak osatzean.



6.2.2. Landareak

Gai honetako lexikoaren bilakaera aztertzeko aukeratu ditugun 20 lema eta zaharrekin jasotako aldakiak 6.7. taulan ematen dira. Gai honen puntuaziorik altuena 600koa izan daiteke eta informatzaile guztien artean 487 atera dira, beraz lexiko tradizionalaren % 81,17 gordetzen da.

Lema	Aldakia	Lema	Aldakia
arto	artoa	marrubi	mallukie
asun	asune	masusta	masustia
aza	asia	mihimen	mimena
berakatz	berakatz	muskila	muskile
errama	erramia	okaran	okarana
gerezi	kerixia	orri	orrie
hur	urretxa	piku	ikoa
ilar	iderra	piperr	piperra
ira	idia	sasi	sasie
kipula	kinpulia	zuztar	susterra

6.7. taula: Landareen gaia lantzeko aukeratutako 20 lema.

6.8. taulan aldakien puntuazioak ematen ditugu zehaztu ditugun kategorien arabera; bertan ikusten den legez, aldaki gehienak hiztegi aktibokoak dira, bi hiztegi pasibokotzat jo daitezke eta beste bi galbidean edo ordeztu bidean agertzen dira.

Kategoria	Aldakiak
(1)	artoa (30), asune (30), kinpulia (30), mallukie (30), ikoa (30), piperra (30), berakatz (29), erramia (29), kerixia (28), asia (27), sasie (27), urretxa (23), orrie (23), susterra (23), iderra (23), okarana (21)
(2)	masustia (20), muskile (16)
(3)	idia (10), mimena (8)

6.8. taula: Aldakien puntuazioak eta euron banaketa hiru kategoriatan.


“*erramia*”rekin batera “*adarra*” ere erabiltzen da eta beraz aldaki tradizionaltzat jo daiteke, nahiz eta tradizioan beti guztiz sinonimoak izan ez. “*susterra*” aldakiarekin batera informatzaile batek “*erpi*” erabili du.

6.9. taulan aldakien ordezkapenak eta bakoitzaren kopuruak erakusten dira. Ordezkapenak 5 aldakiarekin gertatzen dira eta denetara 17 dira, hau da, kopuru osoaren % 8,5.

Aldaki tradizionalak	Aldaki berriak
urretxa	“urre” (1)
idia	“iratzeta” (2), “garoa” (1)
masustia	“moria” (4)
orrie	“ostoa” (5)
susterra	“sustraye” (4)

6.9. taula: Aldaki tradizionalen ordain berriak.

Emaitzak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu mutilen puntuazio orokorrak (262, aldaki tradizionalen % 87,33) altuagoak direla neskenak (225, aldaki tradizionalen % 75) baino (6.5. irudiko grafikoa).




6.10. taulan aldaki tradizionalen puntuazioen batezbestekoak, desbideratzeak, minimoa, maximoa eta heina ematen ditugu informatzaileen generoaren arabera sailkatuta; agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
neskak	11,25	4,28	0	15	15
mutilak	13,10	2,69	7	15	8

6.10. taula: Aldaki tradizionalen datuak informatzaileen generoaren arabera.

6.6. irudiko dendograman informatzaileen sailkapena ikus daiteke. sailkapen hau egiteko gai honetan agertu zaizkigun 26 aldakiak erabili dira. Bertan ikusten den moduan, mutil guztiak multzo batean agertzen dira eta nesken % 60a beste batean; beraz, generoak badauka eragina multzoen osaketan.



6.6. irudia: Informatzaileen sailkapena gai honetako 26 aldakien arabera.

6.2.3. Piztiak

6.11. taulan ikus daitezke gai honetako lexikoaren bilakaera aztertzeko aukeratu ditugun 24 lema eta zaharrekin jasotako aldakiak. Gai honen puntuaziorik altuena 720koa izan daiteke eta informatzaile guztien artean 577 atera dira, honek adierazten du lexiko tradizionalaren % 80,14ri eusten zaiola.

Lema	Aldakia	Lema	Aldakia
aramu	aramue/arañia	luki	lukie
arkakuso	ardie	marigorringo	marigorringoa
arratoi	arratoya	musker	muskerra
bare	baria	sator	satorra
basurde	basurdia	sits	sitze
elai	elaye	sugandila	subelandaria
euli	eulie	tximeleta	txilipitañia
inurri	iñurrie	txindor	txindorra
ipurtargi	epetargie	txiritxirri	txiritxirrie
kirikolatx	kirikolatza	ugaraxo	ugaraxoa
kotxo	arra/kotxoa	zapaburu	sapaburue
kurloi	kurloya	zorri	sorrie

6.11. taula: Piztien gaia lantzeko aukeratutako 24 lema.

“aramu” lema dagokionez, zaharrekin aldaki bi jaso ditugu “*aramue*” eta “*arañia*”. Era berean, “kotxo” lemarekin “*arra*” eta “*kotxoa*” aldaki biak onartu ditugu tradizionaltzat, nahiz eta biek gauza bertsua adierazi ez. “ipurtargi” lemaren kasuan “*ipurtargie*” onartu dugu, izan ere, bertako euskaraz “*epetargie*” esaten den arren, euskara estandarren aldakiaren hurbiltasun fonetikoagatik informatzaile gehienek (9) horrela eman dute eta “*epetargie*” bik baino ez dute bertakotzat jo.

6.12. taulan aldakien puntuazioak ematen ditugu sarrerako kategorien arabera; bertan ikusten den moduan, aldaki gehienak hiztegi aktibokoak dira, bost hiztegi pasibokotzat jo daitezke eta bi galbidean edo ordeztu bidean agertzen dira.

Kategoria	Aldakiak
(1)	arratoya (30), satorra (30), sorrie (30), basurdia (29), eulie (29), inurrie (29), kirikolatza (29), marigoringoa (29), sapaburue (28), ipurtargie (28), ardie (28), lukie (27), sugelandaria (26), txilipitaña (26), baria (26), txirritxirrie (23), aramue (22)
(2)	kotxoa (20), muskerra (20), sitze (20), ugaraxoa (19), elaye (18).
(3)	txindorra (7), kurloya (4).


6.12. taula: Aldakien puntuazioak eta euron banaketa hiru kategoriatan.

6.13. taulan aldakien ordezkapenak eta bakoitzaren kopuruak erakusten dira. Ordezkapenak 10 aldakirekin gertatzen dira eta denetara 37 dira, hau da, kopuru osoaren % 15,42.

Aldaki tradizionalak	Aldaki berriak
aramue/araña	"armiarma" (5)
baria	"limakoa" (1)
elaye	"enara" (1)
kotxoa/arra	"sisarea" (1)
kurloya	"gorrioya" (1), "txolarrea" (1)
lukie	"aserie" (2)
txilipitaña	"tximeleta" (2)
txindorra	"txantxagorrie" (10)
txirritxirrie	"kilkerra" (7)
ugaraxoa	"igela" (6)

6.13. taula: Aldaki tradizionalen ordain berriak.

Emaitzak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu mutilen puntuazioak (303, aldaki tradizionalen % 84,17) altuagoak direla neskenak (274, aldaki tradizionalen % 76,11) baino (6.7. irudiko grafikoa).




6.14. taulan aldaki tradizionalen puntuazioen batezbestekoak, desbideratzeak, minimoa, maximoa eta heina ematen ditugu informatzaileen generoaren arabera sailkatuta; agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
neskak	11,42	4,07	2	15	13
mutilak	12,63	3,29	2	15	13

6.14. taula: Aldaki tradizionalen datuak informatzaileen generoaren arabera.

6.8. irudiko dendograman informatzaileen sailkapena ikus daiteke, sailkapen hau egiteko gai honetan agertu zaizkigun 35 aldakiak erabili dira. Bertan ikusten den moduan, mutil guztiak multzo batean agertzen dira eta nesken % 60a beste batean; beraz, generoak badauka nolabaiteko eragina multzoen osaketan.



6.2.4. Abereak

6.15. taulan ikus daitezke gai honetako lexikoaren bilakaera aztertzeko aukeratu ditugun 24 lema eta zaharrekin jasotako aldakiak. Gai honen puntuaziorik altuena 720koa izan daiteke eta informatzaile guztien artean 553 atera dira, honek adierazten du lexiko tradizionalaren % 76,81 gordetzen da.

Lema	Aldakia	Lema	Aldakia
adar	adarra	errape	errapia
aharito	aritoa	ezten	estena
ahausi	ausie	gangar	gangarra
ahume	eumia/euskumia	kukurruku	kukurrukue
ahuntz	euntze	luma	
apatx	apatxa	mando	mandoa
arrantza	arrantzia	oilanda	ollandia
artxo	artxoa/bildotza	oilar	ollarra
atzapar	erpia	oilo	oltoa
behi	beye	zaldi	saldie
behor	biorra	zekor	sekorra
bigantxa	beintxia	zuringo	suringoa

6.15. taula: Abereen gaia lantzeko aukeratutako 24 lema.

6.15. taulan ikusten den bezala, lema biren kasuan zaharrekin aldaki bi jaso ditugu, lema horiek “ahume” (“*eumia*” eta “*euskumia*” aldakiekin) eta “artxo” (“*artxo*” eta “*bildotza*” aldakiekin) dira.

6.16. taulan aldakien puntuazioak ematen ditugu sarrerako kategorien arabera; bertan ikusten den moduan, aldaki gehienak hiztegi aktibokoak dira, bost hiztegi pasibokotzat jo daitezke eta bi galbidean edo ordeztu bidean agertzen dira.

Kategoria	Aldakiak
(1)	adarra (30), beye (30), ollarra (30), olloa (30), saldie (30), suringoa (29), lumia (29), euntze (29), artxo/bildotza (27), eusie (26), kukurrukue (26), aritua (25), beorra (25), errapia (25), mandoa (23), arrantzia (22), apatxa (21).
(2)	gangarra (19), eumia (18), estena (18), erpia (16), ollandia (13)
(3)	beintxia (8), sekorra (7)

6.16. taula: Aldakien puntuazioak eta euron banaketa hiru kategoriatan.


Informatzaileek emandako erantzunetan eta egin dituzten iruzkinetan argi islatzen da gai honen lexiko tradizionala ezagutu arren, eurok ez daukatela erlazio handirik hemengo lexikoarekin. Esate baterako, “*erroa*” eta “*errapea*” nahasi izan dituzte zenbait kasutan, beste batzuek “*errapeak*” pluralean erabili dute hitza. “*Aharitua*” eta “*akerra*” bereizten kostatu zaie gehienei eta antzera gertatu da “*artxo*” eta “*ahumea*”. “*bigantxa*”ren ordez hainbatek “*txahala*” eman dute eta berba biak ezagutu arren ez dute bien artean bereizkuntza garbirik egiten izan. Geroago ikusiko dugun moduan, gai honen lexikoa da gehien higatu dena, higadura horren isla ere bada hiztegi pasiboak jasaten duen lausotze eta nahaste prozesua.

6.17. taulan aldakien ordezkapenak eta bakoitzaren kopuruak erakusten dira. Ordezkapenak 7 aldakirekin gertatzen dira eta denetara 26 dira, hau da, kopuru osoaren % 10,83.

Aldaki tradizionalak	Aldaki berriak
eusie	“saunke” (2)
artxo/bildotza	“arkumea” (1)
erpia	“atzaparra” (2)
beintxia	“txala” (8)
errapia	“titie” (1)
gangarra	“krestia” (2)
sekorra	“sesena” (9), “toroa” (1)

6.17. taula: Aldaki tradizionalen ordain berriak.

Emaitzak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu mutilen puntuazioak (304, aldaki tradizionalen % 84,44) altuagoak direla neskenak (252, aldaki tradizionalen % 70) baino (6.9. irudiko grafikoa).




6.18. taulan aldaki tradizionalen puntuazioen batezbestekoak (\bar{x}), desbideratzeak (sd), minimoa (min), maximoa (max) eta heina ematen ditugu informatzaileen generoaren arabera sailkatuta; agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
neskak	10,50	4,27	2	15	13
mutlak	12,67	3,06	3	15	12

6.18. taula: Aldaki tradizionalen datuak informatzaileen generoaren arabera.


6.10. irudiko dendograman informatzaileen sailkapena ikus daiteke, sailkapen hau egiteko gai honetan agertu zaizkigun 32 aldakiak erabili dira. Informatzaileen banaketan generoak ez dauka eraginik, izan ere, bai mutilak bai neskek multzo bietan banatuta agertzen dira proportzio berean.



6.2.5. Ondorioak

Sekzio honetan aurreko sekzioetan aurkeztu ditugun datuen azterketen ondorio nagusiak laburbilduko ditugu. Horretarako gai guztien emaitzak bateratuko ditugu.

Gaien puntuazio orokorre dagokienez, ondoen gordetzen den gaia meteorologia da (% 88,67), landareak (% 81,17), piztiak (% 80,14) eta txartoen abereen gaia (% 76,81). 6.11. irudiko grafikoa emaitzak batera erakusten dira ehunekoaren arabera.




Azpiatal honen hasieran egin ditugun kategorien arabera sailkapena gogotara ekarrita, esan dugu aldakien puntuazioen arabera hiru kategoria nagusi bereiz daitezkeela:

- (1) Hiztegi aktiboa (21-30)
- (2) Hiztegi pasiboa (11-20)
- (3) Galbidean edo ordeztu bidean daudenak (0-10)

Kategoria hauen arabera aldakien ehunekoak erakusten dira 6.19. taulan gai bakoitzeko. Bertan ikusten den moduan hiztegi aktiboaren ehunekoak altuena meteorologia gaiak dauka eta baxuenak piztiak eta abereak izeneko gaiek (6.12. irudiko grafikoa).

Gaia	(1)	(2)	(3)
Meteorologia	90	10	0
Landareak	80	10	10
Piztiak	70,83	20,83	8,33
Abereak	70,83	20,83	8,33


6.19. taula: Hiztegi kategoria bakoitzaren ehunekoak gaika.



Aldakien ordezkapen dagokienez, 6.20. taulan ordezkaten diren aldakien kopurua, ordezkapen kopuruak eta ehunekoak ematen dira gai bakoitzeko (6.13. irudiko grafikoa)

Gaia	Aldaki kopurua	Ordezkapen kopurua	%
Meteorologia	10	37	18,5
Landareak	5	17	8,5
Piztiak	10	37	15,42
Abereak	7	26	10,83


6.20. taula: Ordezkatzen diren aldaki kopuruak eta ordezkapen kopuruak eta ehunekoak.



Gaien puntuazioen emaitzak informatzaileen generoaren arabera sailkatuta ematen ditugu 6.21. taulan, bertan ikusten den moduan mutilak kontserbatzaileagoak dira neskek baino, hau da, puntuazio altuagoak daukate neskek baino gai guztietan (6.14. irudiko grafikoa). Ehunekoetan alderik handiena abereen gaian gertatzen da (14,44), gero landareetan (12,33), piztietan (8,06) eta txikiena, berriz, meteorologian (7,23).

Gaia	Neskek		Mutilak	
	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%
Meteorologia	255	85	277	92,23
Landareak	225	75	262	87,33
Piztiak	274	76,11	303	84,17
Abereak	252	70	304	84,44


6.21. taula: Gai bakoitzaren puntuazio kopuruak eta ehunekoak informatzaileen generoaren arabera.



Azkenik, aldaki bakoitzaren puntuazioen batezbestekoak gaika aztertzen baditugu (6.22. taula), ikusten dugu mutilek batezbesteko altuagoak dauzkatela neskek baino (6.15. irudiko grafikoa); hala ere, alde hauek ez dira behin ere estatistikoki esanguratsuak. Hemen ere alderik handiena abereen gaian gertatzen da (2,17), gero landareetan (1,85), piztietan (1,21) eta txikiena meteorologian (1,1).


Gaia	Neskek		Mutilak	
	\bar{x}	sd	\bar{x}	sd
Meteorologia	12,75	2,77	13,85	1,31
Landareak	11,25	4,28	13,10	2,69
Piztiak	11,42	4,07	12,63	3,29
Abereak	10,50	4,27	12,67	3,06

6.22. taula: Gai bakoitzaren aldakien puntuazioen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen generoaren arabera.



6.15. irudia: Gai bakoitzaren aldakien puntuazioen batezbestekoak informatzaileen generoaren arabera.

Azkenik, 6.16. irudiko dendograman informatzaileen sailkapena ematen da. Sailkapen hori burutu ahal izateko erabili den datu matrizean jaso ditugun aldaki guztiak erabili dira, aldakiak denetara 128 izan dira. Bertan ikusten den moduan, B multzoan nesken % 60a kokatzen dira eta A multzoan mutil guztiak eta nesken gainerako % 40a.



6.16. irudia: Informatzaileen sailkapena gai guztietako 128 aldakien arabera.

6.3. Bat-bateko testuaren lexikoa

Azpiatal honetan gure informatzaileek bat-bateko testu batean erabili duten lexikoaren azterketa aurkezten dugu. Informatzaile guztiek lehen atalean agertzen den komikiaren istorioa kontatu zuten eta bertan erabilitako lexikoa da hemengo azterketarako baliatu duguna. Denetara 32 testu jaso ditugu. Informatzaileen adinari eta generoari dagokienez, 17 andrazkoak eta 15 gizonezkoak izan dira. Informatzaileak hiru belaunalditan banatuta daude; lehen belaunaldia, 1941-1960 urte artekoa; bigarrena 1961-1980 urte artekoa eta hirugarrena 1981-2000 urte artekoa. 6.23. taulan belaunaldi bakoitzeko eduki ditugun informatzaile kopuruak agertzen dira euron generoaren arabera sailkatuta.

Belaunaldia	Generoa	
	Andrazkoak	Gizonezkoak
1941-1960	4	3
1961-1980	4	4
1981-2000	9	8
Denetara	17	15



6.23. taula: Eduki ditugun informatzaileak belaunaldika eta generoka.

Informatzaileek erabili dituzten berba guztiak ez ditugu erabili gure azterketan; horrela bada, lokailuak, erakusleak, izen ordainak, aditz laguntzaileak eta gramatika erlazioak adierazten dituzten berbak baztertu ditugu. Aukeratu ditugunak eduki semantikoa (Roberto et al., 2012) daukatenak izan dira, hau da, izenak, aditzak, adjektiboak, aditzondoak, adberbioak, interjekzioak eta aditz lagunak. Gauza jakina da berbak deklinaturik ager daitezkeena eta aditz partizipioen kasuan aspektu markekin edo beste morfema batzuekin. Esate baterako, “ikusiko”, “ikusten” eta “ikusite” agertzen badira hiru sarrera hauek izendatzeko lema bakarra aukeratu dugu: “ikusi”. Aditz trinkoak erabiltzen direnean partizipioa hartu da lematzat; adibidez “doas”, “doa” eta “noa” adizkien lema “joan” izan da.

Behin lematizazio prozesua burututa, corpusaren datu basea egin da eta azterketari ekin zaio. Era bitako azterketak egin dira; bata berben azterketa orokorretik abiatuta eta bestea informatzaile bakoitzaren erabileretatik abiatuta.

galapaka (adlag.): galapaka; galapan, karraderan eta arineketan ere bai (3; 0,0027)	zertu (ad.): zertu (1; 0,0009)
6.25. taula: Gutxien erabiltzen diren lemen esangura, agerpen kopuruak eta probabilitateak.	

Agertzeko probabilitaterik altuena daukaten lemen arabera informatzaileak sailkatzen baditugu, 6.17. irudiko dendograman erakusten diren multzoak lortzen dira. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaile gehienak A multzoan kokatuta agertzen dira (24, % 75); B multzoan 8 informatzaile agertzen dira (% 25). B multzoan 1. belaunaldiko 3 informatzaile agertzen dira (belaunaldi honetako % 42,86), 2. belaunaldiko 4 (% 50) eta 3. belaunaldiko bakarra (% 5,88). Generoari bagazozkio, ikusten dugu B multzoan 4 andrazko daudela (andrazkoen % 23,53) eta 4 gizonezko (gizonezkoen % 26,67). Beraz, esan dezakegu lexikoaren arabera sailkapenean adina faktore garrantzitsuagoa dela generoa baino. Edozelan ere, dendograman ikusten den bezala eta dimentsio aniztun eskala proba eginda, 6.18. irudian ikus daitekeen bezala, ez dago multzo homogeenorik egiterik ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ez eta generoaren arabera ere.



6.3.2. Lexikoaren aberastasuna

Sekzio honen helburua da informatzaileak sailkatzea dauzkaten lexiko aberastasunaren indizeen arabera. Lexiko aberastasuna kalkulatzeko hainbat indize proposatu dira (Roberto et al., 2012). Gure hemengo helburua lortzeko aukeratu dugu TTR (type token ratio) deritzona. Indize hau kalkulatzeko informatzaileek testuan erabiltzen dituzten lema desberdinak (L) eta lema guztiak (N) kontuan hartzen dira:

$$TTR = \frac{L}{N}$$

Laginaren tamaina txikiaren efektua neurri batean ekiditeko (Roberto et al., 2012), logTTR izeneko indizea proposatu da. Indize hau kalkulatzeko da logaritmoak erabilia:

$$\log TTR = \frac{\log L}{\log N}$$

Kalkulu hauek eginda informatzaile bakoitzaren lexiko aberastasun indizeak lortzen dira. 6.26. taulan informatzaile guztien lexiko aberastasun indizearen batezbestekoa, desbideratzea, minimoa, maximoa eta heina ikus daitezke.

N	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
32	0,89432	0,04145	0,804220	0,955920	0,151700

6.26. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoa, desbideratzea, minimoa, maximoa eta heina.

Datuak informatzaileen belaunaldien arabera aztertzen baditugu, 6.27. taulan agertzen diren batezbestekoak eta desbideratzeak lortzen dira. Bertan ikusten den moduan, bigarren belaunaldiak dauka indizearik altuena gero lehenak eta baxuena, berriz, hirugarrenak dauka (6.19. irudiko grafikoa), dena dela, alde hauek oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Belaunaldia	N	\bar{x}	sd
1b	7	0,892	0,049
2b	8	0,918	0,033
3b	17	0,884	0,039


6.27. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen belaunaldien arabera.



Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuta 6.28. taulako emaitzak lortzen dira. Bertan erakusten den bezala, gizonzkoen indizea altuxeagoa da andrazkoena baino (6.20. irudiko grafikoa); hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	N	\bar{x}	sd
Andrazkoak	17	0,886	0,040
Gizonzkoak	15	0,903	0,043

6.28. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen generoaren arabera.



Beraz, esan dezakegu, aztertu dugun bat-bateko testu honen lexiko aberastasunari dagokionez, ez dagoela alde handirik ez belaunaldien arabera ez eta generoaren arabera ere.

Hainbat dira behin honezkero aurreko ataletan aztertu ditugun ezaugarriak Larrabetzuko hizkuntza aldakortasuna ikertzeko; azken aurreko atal honetan baina, geroak zer ekar dezakeen aurre ikusi gurako genuke gaingiroki bada ere.

Sarreran aipatu dugun bezala, Larrabetzuko populazioaren osaketa aldatuz dator eta horren ondorioz bertako euskal hiztun komunitatearena ere bai. Gehiegi sakondu gura izan ezta ere, bertako euskaldun gazteak hiru multzo nagusitan sailkatu ditzakegu (Gaminderen lanaren ildotik, 2010a):

(A) Larrabetzuko euskara ama hizkuntzatzat jaso dutenak. Talde hau ez da guztiz homogeneoa, izan ere, hiztunetako batzuek guraso biak dauzkate Larrabetzukoak, beste batzuek gurasoetako bakarra, beste batzuek gurasoetako bat euskaldun berria edo erdalduna, e.a. Gure atal honetako azterketarako Larrabetzuko euskara neurri batean ama hizkuntzatzat jaso duten hiztun guztiak talde honetan sartu ditugu.

(B) Talde honetako hiztunek guraso biak erdaldunak dauzkate eta euskararekin jabetu dira hezkuntzan txikitatik. Neurri batean edo bestean Larrabetzuko euskararen eragina eduki dezakete bertako hiztunekin batera bizi direlako.

(C) Talde honetako hiztunak euskaldun zaharrak dira baina euren guraso biak euskaldun berriak dira, hau da, euren ama hizkuntza euskara izan den arren, Larrabetzuko euskararen eragina bertako hiztunekin berba egikeran jaso dute.

Gure hasierako asmoa talde bakoitzeko lau informatzailereren ezaugarriak aztertea izan bazen ere (neska bi eta mutil bi), B taldean hiru baino ezin erabili izan ditugu, izan ere, gure baldintzak betetzen dituen mutil bakarra aurkitu dugu; beronek ez du esan gura besterik ez dagoenik guk topatu ez dugula baino.

Lana burutzeko aurreko ataletan landu ditugun ezaugarri berberak aztertu ditugu; datuak jasotzeko metodologia mistoa erabili dugu. Alde batetik, inkesta zehatzak burutu dira galdekizunen bidez eta, bestetik, 1. atalean aurkeztutako komikia erabili da testu

libreak jasotzeko. Kasu guztietan informatzaileen ama hizkuntza eta generoa izango dira datuak aztertzean eta erkatzean erabiliko ditugun aldagai sozialak.

Atal hau bederatzi azpiataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen azpiatalean fonemen eta alofonoen erabileran gertatzen den aldakortasunaz arduratuko gara. Bigarren azpiatala silabari dagokio, bertan silaba moten erabileraz eta euron iraupenaz arituko gara. Hirugarren azpiatalaren gaia azentua izango da. Laugarren azpiatalean oinarritzko esaldien intonazioa aztertuko da. Bosgarren azpiatalean testuen prosodiaz jardungo dugu. Seigarren eta zazpigarren azpiatalen gaiak izen morfologia eta aditz morfologia izango dira hurrenez hurren. Zortzigarren azpiatalean bat-bateko testuen lexikoaren erabilera arakatuko da. Azkenik, bederatzigarren azpiatalean ondorio nagusiak laburbilduko dira.

7.1. Fonemak eta alofonoak

Azpiatal honetan fonemen eta alofonoen erabileran dauden aldeak agirian utzi nahi dira. Horretarako arlo bi landuko ditugu; batetik, fonemen erabileraren maiztasuna aztertuko dugu eta, bestetik, arau fonologikoen erabilera.

7.1.1. Fonemen maiztasunak

Sekzio honetan fonemen maiztasunak aztertuko dira. Inbentario fonologikoa oinarritzat hartuta, bokalen, herskariaren, sudurkariaren, frikariaren, afrikatuaren, albokariaren eta dardarkariaren maiztasunak banan ikusiko ditugu. Arlo hauetan guztietan testuetan agertu zaizkigun kopuru orokorrekin batera fonema bakoitzarenak ere banan emango dira. Kasu guztietan informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren arabera ere aztertuko dira.

Corpuseko bokalak 1811 izan dira (corpus osoaren % 50,79). Bokal bakoitzaren arabera honako kopuruak eta ehunekoak dauzkagu: /a/ 695 (% 19,49); /e/ 516 (% 14,47); /i/ 233 (% 6,53); /o/ 204 (% 5,72) eta /u/ 163 (% 4,57). Orokorrean informatzaileen batezbestekoa % 50,94 da, desbideratzea 1,17, minimoa 49,23, maximoa 52,86 eta heina 3,62. Datuak ama hizkuntzaren arabera sailkatuta erakusten dira 7.1. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

AH.	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
A	51,30	1,29	49,88	52,58	2,70
B	50,84	0,62	50,14	51,30	1,16
C	50,65	1,55	49,23	52,86	3,62

7.1. taula: Bokalen gaineko datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 7.2. taulako emaitzak lortzen dira; bertan agertzen den aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
Neskak	51,10	1,22	49,88	52,86	2,97
Mutirik	50,75	1,23	49,23	52,58	3,35

7.2. taula: Bokalen gaineko datuak informatzaileen generoaren arabera.

/a/ bokala da maiztasunik handiena daukana; orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 19,49 da, desbideratzea 1,13, minimoa 17,77, maximoa 21,07 eta heina 3,30. Datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera sailkatuta alde txikiak agertzen dira: A (20,13), B (18,10) eta C (19,88); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldea ere oso txikia da: neskek (19,42) eta mutirik (19,57), alde hau ez da estatistikoki esanguratsua.

/e/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 14,61 da, desbideratzea 1,46, minimoa 12,30, maximoa 17,39 eta heina 5,09. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (14,20), B (15,68) eta C (14,23), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldea oso txikia da, neskek (14,63) eta mutirik (14,59), eta ez da estatistikoki esanguratsua.

/i/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 6,69 da, desbideratzea 1,50, minimoa 4,40, maximoa 9,29 eta heina 4,89. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (7,40), B (6,25) eta C (6,32), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldea ere, neskek (6,91) eta mutirik (6,44), ez da estatistikoki esanguratsua.

/o/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 5,59 da, desbideratzea 1,11, minimoa 3,77, maximoa 7,19 eta heina 3,42. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (5,46), B (5,95) eta C (5,45), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldea ere, neskek (5,47) eta mutirik (5,72), ez da estatistikoki esanguratsua.

/u/ bokalaren ehunekoaren batezbestekoa 4,56 da, desbideratzea 1, minimoa 3,04, maximoa 6,25 eta heina 3,21. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (4,11), B (4,87) eta C (4,79), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldea, neskek (4,68) eta mutirik (4,43), ez da estatistikoki esanguratsua.

Herskariak serie bitan banatuta, ahostunak /b/, /d/ /j/ eta /g/ eta ahoskabeak /p/, /t/ eta /k/ dira. Gure corpusean jaso ditugunak 914 izan dira, corpus osoaren % 25,63.

Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 25,41 da, desbideratzea 2,44, minimoa 22,64, maximoa 29,59 eta heina 6,95. 7.3. taulan kontsonante bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

	/p/	/t/	/k/	/b/	/d/	/j/	/g/
Kopurua	52	290	161	121	149	21	120
%	1,46	8,13	4,51	3,39	4,18	0,59	3,37

7.3. taula: Fonema herskariaren kopuruak eta ehunekoak.

Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (25,19), B (25,31) eta C (25,70) zein generoaren arabera, neskek (25,59) eta mutilek (25,19), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

/p/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 1,48 da, desbideratzea 0,69, minimoa 0,57, maximoa 3,04 eta heina 2,47. Datuak ama hizkuntzaren arabera sailkatuta erakusten dira 7.4. taulan; bertan agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 2) 6,48; p = 0,040$). Informatzaileen generoak, ostera, ez dauka eragin estatistikorik.

AH.	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
A	1,98	0,78	1,16	3,04	1,88
B	0,72	0,15	0,57	0,87	0,30
C	1,56	0,20	1,43	1,85	0,42

7.4. taula: /p/ herskariaren datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

/t/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 8,10 da, desbideratzea 1,56, minimoa 5,28, maximoa 10,71 eta heina 5,43. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/k/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 4,40 da, desbideratzea 1,33, minimoa 1,74, maximoa 6,26 eta heina 4,52. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/b/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 3,35 da, desbideratzea 1,06, minimoa 1,71, maximoa 5,10 eta heina 3,39. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/d/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 4,14 da, desbideratzea 0,87, minimoa 3,02, maximoa 6,08 eta heina 3,06. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/j/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 0,64 da, desbideratzea 0,62, minimoa 0,00, maximoa 2,14 eta heina 2,14. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/g/ herskariaren ehunekoaren batezbestekoa 3,29 da, desbideratzea 1,01, minimoa 1,79, maximoa 5,14 eta heina 3,35. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

Jaso ditugun sudurkariak 312 izan dira (corpus osoaren % 8,75) Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 8,82 da, desbideratzea 1,80, minimoa 6,09, maximoa 11,15 eta heina 5,06. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (7,58), B (9,63) eta C (9,44) zein generoaren arabera, neskek (8,83) eta mutilek (8,80), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

/m/ sudurkariaren ehunekoaren batezbestekoa 1,79 da, desbideratzea 0,96, minimoa 0,57, maximoa 3,57 eta heina 3. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/n/ sudurkariaren ehunekoaren batezbestekoa 6,97 da, desbideratzea 1,45, minimoa 3,91, maximoa 9,71 eta heina 5,80. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

Frikarietan lau fonema daukagu: /f/, /s/, /x/ eta /θ/ (azken hau mailegutan agertzen da). Corpusean jaso ditugunak 216 izan dira (corpus osoaren % 6,06). Ehunekorik altuena daukana /g/ da (199, % 5,58); /f/ (3, % 0,08), /θ/ (4, % 0,11) eta /x/ (10, % 0,28), berriz, oso kasu gutxitan agertzen dira. Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 6,10 da, desbideratzea 1,28, minimoa 4,58, maximoa 9,06 eta heina 4,48. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (6,61), B (5,79) eta C (5,83) eta generoaren arabera, neskek (5,8) eta mutilek (6,47), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Fonema afrikatu bi daukagu bata albeolarra /tʃ/ eta bestea sabaikaria edo sabai aurrekoa /tʃ/. Denetara corpusean 17 kasu agertu dira (corpus osoaren % 0,48): /ts/ (8, % 0,22) eta /tʃ/ (9, % 0,25). Orokorrean ehunekoaren batezbestekoa 0,49 da, desbideratzea 0,43, minimoa 0, maximoa 1,44 eta heina 1,44. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (0,25), B (0,77) eta C (0,54) eta generoaren arabera, neskek (0,28) eta mutilek (0,75), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

/tʃ/ afrikatuaren ehunekoaren batezbestekoa 0,24 da, desbideratzea 0,31, minimoa 0, maximoa 0,87 eta heina 0,87. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/tʃ/ afrikatuaren ehunekoaren batezbestekoa 0,25 da, desbideratzea 0,48, minimoa 0, maximoa 1,44 eta heina 1,44. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera datuen batezbestekoetan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak; alta,

generoaren arabera aldeak estatistikoki esanguratsuak dira, Mann-Whitney U proba erabilita, $z = -2,090$, $p = 0,037$; nesken batezbesteko heina 4,50 da eta mutilen batezbesteko heina 7,80.

Erabili dugun corpusean fonema albokari bakarra agertu zaigu /l/ (42, % 1,18). Orokorrean ehunekoen batezbestekoa 1,12 da, desbideratzea 0,88, minimoa 0, maximoa 2,58 eta heina 2,58. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (0,85), B (1,29) eta C (1,25), zein generoaren arabera, neskek (1,35) eta mutilek (0,83), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Fonema dardarkariak bi dira: /r/ eta /r/. Corpusean jaso ditugunak 254 izan dira (corpus osoaren % 7,12). Orokorrean ehunekoen batezbestekoa 7,11 da, desbideratzea 1,07, minimoa 5,22, maximoa 8,70 eta heina 3,48. 7.5. taulan kontsonante bakoitzaren kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

	/r/	/r/
kopurua	134	120
%	3,76	3,37


7.5. taula: Dardarkarien kopuruak eta ehunekoak.

/r/ dardarkariaren ehunekoen batezbestekoa 3,49 da, desbideratzea 1,11, minimoa 2, maximoa 5,22 eta heina 3,22. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

/r/ dardarkariaren ehunekoen batezbestekoa 3,63 da, desbideratzea 0,89, minimoa 2,14, maximoa 5,34 eta heina 3,20. Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ezta generoaren arabera ere.

Ikusi berri ditugun fonemen maiztasunen arabera azterketetan informatzaileen ama hizkuntza /p/rekin gertatzen diren maiztasunen aldeetan baino ez da estatistikoki esanguratsua. Generoa aldagaia estatistikoki esanguratsua da /tʃ/ fonemaren maiztasunean nesken eta mutilen artean dagoen batezbestekoen aldea azaltzeko.

Datu hauek guztiak erabilita multzokatze azterketa baten bidez informatzaileen sailkapena egiten badugu (7.1. irudiaren dendograma), informatzaile guztiak nahasirik agertzen dira. A multzoan zortzi informatzaile agertzen dira eta B multzoan hiru, baina ez dago multzo homogenerik ez ama hizkuntzagatik ez generoagatik ere.



7.2.1. Arau fonologikoak

Azpiatal honetan, bigarren atalean landu dugun fonologia segmentalaren bilakaera azpiatalean egin dugun bezala, arlo honetako ezaugarri batzuetan oinarrituta, informatzaileek eduki ditzaketen aldeak agerian utzi nahi dira.

Azpiatal berean erabili diren ezaugarrietako batzuk aukeratu dira hemengo informatzaileekin aztertzeko. Aukeraturako ezaugarriak sei multzotan banatu daitezke. Lehen multzoan fonemen inbentarioari dagozkion ezaugarri bi erabiliko ditugu; hemen "tx" eta "tz" bokalen artean bereiztea eta albokari sabaikaria erabiltzea edo ez aztertuko dugu. Bigarren multzoan "n", "l" eta "s" kontsonanteen palatalizazioari dagozkion arauen aplikazioen gauzpenak ikusiko ditugu. Hirugarren multzoan "a" bokalaren asimilazioari dagokiona sartu dugu, arau honen bidez "a" "e" bihurtzen da aurreko bokala altua denean; baina ikusi dugun moduan informatzaile guztiek ez dute berdin erabiltzen eremu guztietan. Hemen sei kasu aukeratu ditugu: "nas" eta "da" aditz laguntzaile klitikoak, deklinabidearen "-ra" eta "-gas" morfemak eta, azkenik, "-la" eta "-ta" morfemak. Laugarren multzoan "ez" aditzondoa aditz laguntzailearekin edo trinkoarekin batera agertzen denean gertatzen diren arau batzuk bildu ditugu: "ez + g", "ez + d", "ez + b" eta "ez + n". Bosgarren multzoan "eu" amaiera daukaten partizipioekin gertatzen diren arauak aztertzen dira. Partizipioa laguntzailearen aurrean agertzen denean, "eu" diptongoa "e" bihurtzen da eta "-ta" morfemarekin batera "amata" edo "amateute" erabiltzen den ikusiko da. Seigarren multzoan herskari bilkuretan gertatzen diren arauak batu ditugu. Atal honetan amaierako "k" eta "t"

ondorengo “d”z eta “b”z hasitako klitiko batzuekin elkartzean gertatzen diren emaitzak aztertzen dira. Aukeratutako inguruneak honako hauek izan dira:

“lagunek dire” – (*lagunak dira*)

“suk baño” – (*suk baino*)

“orrek be” – (*horiek ere*)

“bat dau” – (*bat dago*)

Azterketa egin ahal izateko bigarren atalean azaldu dugun metodologia bera erabiliko da, hemen eduki ditugun informatzaileekin lortu ditugun emaitzak baino ez ditugu aurkeztuko.

Lehen multzoko lehen ezaugarriari dagokionez, aukera bi dauzkagu: A taldeko neska bakar batek bokalen artean “tz”ren eta “tx”ren arteko bereizkuntzari eusten dio (% 9,09), gainerako informatzaile guztiek “tz” baino ez dute erabiltzen. Bestalde, [ʎ]ren ordez [j] erabili dute informatzaile guztiek.

Bigarren multzoan soinu batzuen palatalizazio arauak hartu ditugu aztergaitzat. “n”ren kasuan berau “i”ren ostean palatalizatzen da 9 kasutan (% 81,82); palatalizatu ez duten informatzaileak, A taldeko neska bat eta C taldeko mutil bat izan dira. “l”ren kasuan palatalizazioa egin duten informatzaileak lau izan dira (% 36,36; B taldeko neska bat eta mutil bat eta C taldeko neska biak), gainerako zazpiek (% 63,64) ez dute egin. Azkenik, “s”ren kasuan “i”ren osteko palatalizazio automatikoa informatzaile batek ere ez du egin.

“i”ren eta “u”ren osteko “a” bokalaren asimilazioari dagokionez, “nas” eta “da” aditz laguntzaileekin informatzaile batek ere ez du araua erabili; “-gas” morfemarekin informatzaile bik erabili dute, “-la” morfemarekin lauk eta “-ra” eta “-ta” morfemeekin hamarrek. Informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren arabera erabileran egon daitezkeen balizko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Laugarren multzoko arauari dagokionez, “ez” aditzondoak “g”z hasten diren aditzekin elkartzean “g”ren ordez “k” erabili dute informatzaile bik (% 18,18). “d”ren aurrean agertzen denean, “d”ren ordez “t” zazpi informatzailek erabili dute (% 63,64). “b”ren aurrean, “b”ren ordez “p” erabili dute bost informatzailek (% 45,45). Azkenik, “ez”en “z” “n”ren aurrean ezabatu dute bederatzi informatzailek (% 81,82). Informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren arabera erabileran egon daitezkeen aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Bosgarren multzoan, alde batetik, “eu” amaieradun partizipioak aditz laguntzaile batekin erabiltzen direnean “eu” “e” bihurtzen den ala ez eta, bestetik “-ta” morfemarekin “eta” edo “eute” erabiltzen den aztertu nahi izan da. Kasu bietan informatzaileek erabileran bera egin dute, hau da, hamarrek (% 90,91) “e” eta “eta” erabili dituzte.

Seigarren multzoko herskari bilkuren arauari dagokionez, esan behar dugu aukeratutako galdera mota bakoitzeko erantzun mota desberdinak jaso direla. Sintagma baten amaierako “k” ondoko aditz klitiko baten hasierako “d”rekin aukera bi daude; batean sintagmaren amaierako “k” galtzen da eta aditzaren hasierako “d” “t” bihurtzen da, bestean sintagmaren amaierako “k” “g” bihurtzen da eta aditzaren “d”ri bere horretan eusten zaio. Lehen aukera informatzaile batek egin du (% 9,91), gainerakoek bigarren aukera erabili dute.


Beste galdera batean, sintagma baten amaierako “k” ondoko klitiko baten hasierako “b”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da; erabili den ingurunea “suk baño” izan da. Kasu honetan hiru aukera agertu zaizkigu. Batean sintagmaren “k” galtzen da (8, % 72,73). Bigarren aukeran sintagmaren “k” “g” bihurtzen da klitikoaren “b”ri eusten zaion artean (2, % 18,18). Azkenik, “k” eta “b” horiei euren horretan eusten zaie (1, % 9,09).

Beste kasu batean, sintagma baten amaierako “k” ondoko klitiko baten hasierako “b”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da, honen ingurunea “orrek be” izan da. Kasu honetan hiru aukera agertu zaizkigu. Lehen aukeran sintagmaren “k” galtzen da eta klitikoaren “b” “p” bihurtzen da (1, % 9,09). Bigarren aukeran sintagmaren “k” “g” bihurtzen da klitikoaren “b”ri eusten zaion artean (8, % 72,73). Hirugarren aukeran sintagmaren “k” galdu egiten da eta klitikoaren “b”ri eusten zaio (1, % 9,09).

Azkenik, sintagma baten amaierako “t” klitiko baten hasierako “d”rekin elkartzean zer gertatzen den aztertzen da. Kasu honetan hiru aukera agertu zaizkigu. Batean sintagmaren “t” galtzen da eta klitikoaren “d” “t” bihurtzen da (4, % 36,36). Beste batean, sintagmaren “t” galtzen da eta aditzaren “d”ri eusten zaio (6, % 54,55). Azkenik, hirugarren aukeran ez dago ezelako aldaketarik eta soinu biei eusten zaie (1, % 9,09).

Informatzaileak ezaugarri guztien aukeren arabera multzokatuz gero, 7.2. irudiko dendograman erakusten diren multzoak lortzen dira. A multzoan A taldeko informatzaile guztiak agertzen dira B taldeko batekin eta C taldeko birekin batera. Datu

hau gogotan esan dezakegu A taldea homogeneoagoa dela beste biak baino. Informatzaileen generoari dagokionez, neskak multzo bietan uniformeki banatuta agertzen dira, hiruna multzo bakoitzeko; mutiletan, berriz, lau A multzoan agertzen dira eta bakarria B multzoan.



7.2. Silabak

Hirugarren atalean belaunaldien arteko azterketan egin dugun bezala, azpiatal honetan gazteen silaben azterketaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Horretarako azpiatal hau sekzio bitan banatuta ematen dugu; lehen sekzioan silaba motak eta euren banaketa ikusiko dugu eta bigarrenean CV silaben iraupenaz jardungo dugu.

Gure azterketa burutzeko erabili dugun gazteen corpusean denetara 1662 silaba jaso ditugu; 7.6. taulan kopuruak eta ehunekoak erakusten dira informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren arabera sailkatuta.

Ama hizkuntza	Generoa	Kopuruak	%
A	Mutilak	277	16,67
	Neskak	304	18,29
B	Mutilak	137	8,24
	Neskak	273	16,43
C	Mutilak	344	20,70
	Neskak	327	19,68

7.6. taula: Silaba kopuruak eta ehunekoak informatzaileen ama hizkuntzaren eta generoaren arabera.

7.1.1. Silaba motak

Hirugarren atalean adierazi dugun bezala silaban hiru zati nagusi bereizten dira: gunea, hasiera eta koda. Sekzio honen hasieran zati horien arabera aurkeztuko ditugu datuak gero silaba mota bakoitzarenak emateko.

Silabaren guneetan bokal soilak eta diptongoak egon daitezke. Corpusean 1662 gune silabiko daukagu: eurotarik 1548 (% 93,14) bokalak dira eta 114 diptongoak (% 6,86).

Bokal soilen ehunekoaren batezbestekoa 93,15 da, desbideratzea 2,63, minimoa 89,23, maximoa 98,54 eta heina 9,31. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (92,87), B (94,93) eta C (92,11), zein generoaren arabera, neskek (91,76) eta mutilek (94,82), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Diptongoen batezbestekoa 6,85 da, desbideratzea 2,63, minimoa 1,46, maximoa 10,77 eta heina 9,31. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (7,14), B (5,07) eta C (7,9), eta generoaren arabera, neskek (8,24) eta mutilek (5,18), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Jaso ditugun 114 diptongoetan gehienak beheranzkoak dira (91, % 79,82), goranzkoak askozaz urriagoak dira (23, % 20,18). Gehien erabiltzen den beheranzko diptongoa "eu" da (38, % 41,76), gero "ai" (35, % 38,46), "ai" (14, % 15,38) eta gutxien erabiltzen dena "ei" (4, % 4,40). Goranzko diptongoetan gehien agertu zaiguna "oa" (15, % 65,22), gero "we" (6, % 26,09) eta gutxien agertu zaiguna "wi" (2, % 8,70) izan da.

Silaba hasierari dagokionez, eurak hutsak izan daitezke (336, % 20,22) edo beteak; beteetan hasiera bakunak (C) (1308, % 78,70) eta hasiera konplexuak (CC) (18, % 1,08) topa ditzakegu.

Hasiera hutsaren ehunekoaren batezbestekoa 20,38 da, desbideratzea 3,59, minimoa 14,04, maximoa 27,74 eta heina 13,70. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (20,79), B (22,27) eta C (18,56), eta generoaren arabera, neskek (19,1) eta mutilek (21,92), ez dira estatistikoki esanguratsuak.


"C" hasieraren ehunekoaren batezbestekoa 78,52 da, desbideratzea 3,41, minimoa 71,53, maximoa 84,27 eta heina 12,74. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (77,92), B (76,97) eta C (80,28), eta generoaren arabera, neskek (79,87) eta mutilek (76,9), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

“CC” hasieraren ehuneko batezbestekoa 1,10 da, desbideratzea 0,45, minimoa 0,61, maximoa 1,89 eta heina 1,28. Ama hizkuntzaren araberako aldeak, A (1,3), B (0,75) eta C (1,17), eta generoaren araberakoa, neskek (1,04) eta mutilek (1,18), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Kodak, hasierak bezala, hutsak izan daitezke (1244, % 74,85) edo bakunak (C) (417, % 25,09) eta konplexuak (CC) (1, % 0,06). Koda hutsaren ehuneko batezbestekoa 75,22 da, desbideratzea 3,64, minimoa 69,67, maximoa 80,30 eta heina 10,63. Ama hizkuntzaren araberako aldeak, A (74,46), B (75,57) eta C (75,73), eta generoaren araberakoa, neskek (76,42) eta mutilek (73,79), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

“C” kodaren ehuneko batezbestekoa 24,73 da, desbideratzea 3,62, minimoa 19,70, maximoa 30,33 eta heina 10,63. A (25,54), B (24,43) eta C (24,14), eta generoaren araberakoa, neskek (23,49) eta mutilek (26,21), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Informatzaileek eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta, multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 7.3. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 6 informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 5. Hala ere multzoak ez dira homogeneoak ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ez eta generoaren arabera ere.




Silaba motak aztertu berri ditugun guneen, hasieren eta koden konbinazioen bidez sortzen dira. Aztertu ditugun testuetan denetara 1662 silaba agertu zaizkigu. 7.7. taulan topatu ditugun silaba motak eta euron kopuruak eta ehunekoak erakusten dira.

Mota	Kopurua	%
CV	922	55,48
CVC	282	16,97
V	210	12,64
VC	115	6,92
CW	83	4,99
CCV	18	1,08
CWC	20	1,20
W	11	0,66
CVCC	1	0,06
Orotara	1662	100

7.7. taula: Silaba mota nagusien kopuru osoak eta euron ehunekoak.

7.7. taulan ikusten den bezala, ehunekorik altuenak dauzkaten silabak CV (% 57,01), CVC (% 15,05), V (% 12,14) eta VC (% 6,04) dira; euren artean % 92 osatzen dute.

Informatzaileek silaba moten arabera eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 7.4. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 6 informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 5. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera, A taldeko gehienak multzo batean agertzen dira eta C taldeko gehienak bestean. Hala ere, kontuan hartu behar da ama hizkuntza eta generoa behin ere ez direla izan eragingarriak estatistikoki.



7.1.2. Silaben iraupenaz

Informatzaileen ama hizkuntzak eta generoak silaben iraupenari eragiten dioten ala ez ikertzea da sekzio honen helburua. Horretarako gehien erabiltzen den silaba motaren iraupena aztertu dugu, hau da “CV” motarena. Bestalde, egongunearen eragina ekiditeko, talde prosodikoaren hasieran eta amaieran daudenak baztertu ditugu, izan ere,

hasierakoak berez laburragoak izan daitezke edo herskari ahoskabeekin eta afrikatuekin ezin zehatz neur daitezke gune horretan eta amaierakoak luzeagoak izaten dira.

“CV” silaba motaren batezbestekoa 114,88 ms.koa da, desbideratzea 33,58, minimoa 30, maximoa 230 eta heina 200. Datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera sailkatuta erakusten dira 7.8. taulan; bertan ikus daitezkeen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 2) 14,822$; $p = 0,001$). Mann-Whitney U estatistikoa erabilita A eta B multzoen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua; haatik, A eta C multzoen artekoa ($z = -2,944$; $p = 0,003$) eta B eta C multzoen artekoa ($z = -3,477$; $p = 0,001$) bai.

AH.	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
A	116,89	32,21	40	200	160
B	120,57	33,76	50	230	180
C	109,90	34,00	30	210	180

7.8. taula: “CV” silabaren iraupenaren datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, 7.9. taulako emaitzak lortzen dira; bertan ikusten den bezala, gizonetako laburrago egiten dute andrazkoek baino, aldea estatistikoki esanguratsua da Mann-Whitney U probaren arabera, $z = -7,315$, $p = 0,000$; andrazkoen batezbesteko heina 417,16 da eta gizonetako batezbesteko heina 303,49.

Generoa	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
Neskek	123,13	32,96	40	230	190
Mutilak	105,50	31,82	30	220	190

7.9. taula: “CV” silabaren iraupenaren datuak informatzaileen generoaren arabera.

7.3. Azentua

Azpiatal honetan azentu arloan informatzaileen ama hizkuntzak eta generoak eragin ditzaketen aldeak aztertuko ditugu. Horretarako hiru ezaugarri multzo aztertuko ditugu, azentua bereizgarriari eusten zaion ala ez, azentua txertatzeko eremua hitza edo talde klitiko den eta 9 berba markaturekin gertatzen den jokabidea.

Lehen ezaugarri multzoan singularra eta pluralaren arteko bereizkuntza azentuaren bidez egiten den ala ez ikusteko galdera multzo bi egin dira; batean “*laginena*” (lagunarena) eta “*laginena*” (lagunena) galdetu zaie informatzaileei eta bestean erakusleen “*orréri*” (horri) eta “*órreri*” (horiei) bereizten diren ala ez jakin nahi izan da. Lehenengoari dagokionez, informatzaile guztiek galdu dute azentuaren bidezko

bereizkuntza. Bigarrenari dagokionez, A taldeko informatzaileek baino ez dutela egiten esan behar da.

Azentuaren eremuari dagokionez, esan behar da berba hartzen dela eremutat eta “*da*” adizki klitiko gehituta azentuaren egongunea ez dela aldatzen; hau da “*txarra*” eta “*óna*” berbei “*da*” gehituta azentua ez da aldatzen: “*txarra da*” eta “*óna da*”. Honetan informatzaile guztiak bat datoz.

Berba markatuen jokabidea aztertzeko 9 berba aukeratu ditugu: “*sütia*” (sukaldea), “*lékue*” (lekua), “*sémia*” (semea), “*txístue*” (txistua), “*déndia*” (denda), “*intxurre*” (intxaurra), “*léngusue*” (lehengusua), “*ormia*” (horma) eta “*béskarie*” (bazkaria).

Hitz markatuetan dauden 99 aukeretatik markatuta egin dira 33 (% 33,33). “*béskarie*” eta “*léngusue*” berbak behin ere ez dira markatu gisa erabili. Gainerakoak kopuru batzuekin agertzen dira: “*txístue*” (9, % 81,82), “*sütia*” (8, % 72,73), “*lekue*” eta “*ormia*” (4, % 36,36), “*déndia*” eta “*intxurre*” (3, % 27,27) eta “*sémia*” (2, % 18,18). “*déndia*” eta “*ormia*” berben kasuan kontuan hartu behar da informatzaile batzuek “*a*” artikulua eranstea “*dénda*” eta “*órma*” egiten dutela eta orduan hitzak ez dira markatuak, eypadaze arau orokorraren arabera azentuatuak.


Markatu kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuta (7.10. taula), ikusten dugu A taldeko informatzaileek gehiagotan erabiltzen dituztela besteek baino. Aldea estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = (a.m. 2) 20,125$; $p = 0,000$).

	Ez markatuak		Markatuak	
	kopurua	%	kopurua	%
A	14	38,89	22	61,11
B	21	77,78	6	22,22
C	31	86,11	5	13,89

7.10. taula: Berba markatuen kopuruak eta ehunekoak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, neskek (35) markatuen ehuneko handixeagoa daukate mutilek (31) baino; aldea, oster, ez da estatistikoki esanguratsua.

Azentuaren tasunen emaitzen arabera informatzaileak multzokatzen baditugu, 7.5. irudiko dendograman agertzen diren multzoak lortzen dira; A multzoan 8 informatzaile (% 37,5) eta B multzoan 3 informatzaile kokatzen dira. Hemen ama hizkuntzaren eragina nabarmen agertzen da, izan ere, A taldeko hiru informatzaile aparteko multzoan kokatzen dira.



7.4. Esaldien intonazioa

Esaldien intonazio ereduak aztertze eta erkatzeko aukeratu ditugun esaldiak zazpi izan dira: adierazpen esaldiak (sintagma bat eta birekin), bai/ez galderak, n-z galderak, hautazko galderak, oihartzun galderak eta zalantzako galderak. Azpiatalaren amaieran informatzaileen sailkapena egingo dugu esaldi moten emaitzen arabera.

Sintagma bakarreko adierazpen esaldietan mota bi baino ez zaizkigu agertu. Bietan esaldiaren gailurra sintagman kokatzen da, aldea lehen sintagmaren gailurra kokatzen deneko silaban gertatzen da, kasu gehienetan hirugarren silaban agertzen da gailurra (% 90,91), hau da, silaba azentudunaren ostekoan eta kasu bakar batean baino ez zaigu silaba azentuduneari bertan agertu (% 9,09). Azken erabilera hau C taldeko mutil batena izan da.

Adierazpen esaldietan sintagma bi daudenean esaldi osoaren gailurra lehen sintagman kokatzen da kasu guztietan; esaldien arteko aldeak sintagmen eta aditzaren gailurren kokaguneetan agertzen dira. Lehen sintagmaren gailurra (1. sin. gai.) kasu guztietan agertzen da hirugarren silaban, bigarren sintagmaren gailurraren (2. sin. gai.) kokaguneari dagokionez, aukera bi daude, bigarren silaban (6. % 54,55) eta hirugarren silaban (5. % 45,45). Azkenik, aditzaren gailurra (Adi. gai.) bigarren silaban kokatzen da kasu gehienetan (9. % 82,82) eta hirugarren silaban kasu bitan (% 18,18). Ezaugarri hauekin matrize bat osatzen badugu, 7.11. taulan erakusten diren bektoreak lortzen dira, bertan bakoitzaren agerpen kopuruak eta euron ehunekoak adierazten dira.

Bektorea	1. sin. gai.	2. sin. gai.	Adi. gai.	kopurua	%
1	3	2	2	5	45,45
2	3	2	3	1	9,09
3	3	3	2	4	36,36
4	3	3	3	1	9,09

7.11. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euren kopuruak eta ehunekoak.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuz gero (7.12. taula), ikusten dugu A taldea homogeneoagoa dela besteak baino, horrela bada A taldeko informatzaile guztiek 1. bektorea erabiltzen dute eta B eta C taldekoek, berriz, bektore guztiak erabiltzen dituzte. Hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

AH.	1	2	3	4
A	4	0	0	0
B	1	0	2	0
C	0	1	2	1

7.12. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Bektoreen erabilerearen hedadura informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, 7.13. taulako emaitzak lortzen ditugu. Bertan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsua ez diren arren, neskek bektore bi erabiltzen dituzte eta mutilek, ostera, denak (informatzaile gutxiago izanda ere), beraz neskek erabilera homogeneoagoa daukate mutilek baino.

Generoa	1	2	3	4
Neskak	3	0	3	0
Mutilak	2	1	1	1

7.13. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Bai/ez galderetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak sintagmaren gailurraren silaba eta esaldiaren muga-tonua izango dira.

Gure informatzaile guztiek sintagmaren gailurra beronen azken silaban kokatzen dute. Muga-tonu bi baino ez zaizkigu agertu: HL (10, %90,91) eta L (1, % 9,09). Azken muga-tonu hau A taldeko neska batek erabili du.

NZ galderetan muga-tonuak hartu ditugu aztergaitzat. Gure informatzaileetan hiru muga-tonu agertu zaizkigu: L (8, % 72,73), LH (2, % 18,18) eta H (1, % 9,09). Muga-tonu kopuruak erakusten dira 7.14. taulan informatzaileen ama hizkuntzaren arabera sailkatuta; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsua.

AH.	L	LH	H
A	2	2	0
B	3	0	0
C	3	0	1

7.14. taula: Muga-tonuen kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

7.15. taulan ikus daitekeen bezala, muga-tonuak informatzaileen generoaren arabera sailkatuz gero, aldeak oso txikiak dira.

Generoa	L	LH	H
Neskak	4	1	1
Mutilak	4	1	0

7.15. taula: Muga-tonuen kopuruak informatzaileen generoaren arabera.

Hautazko galderak egiteko informatzaileek “ala” (6, % 54,55) erabiltzen dute eta “edo ser” (5, % 45,45).

Sintagmaren gailurra hirugarren silaban agertzen da kasu guztietan; aditzaren gailurra, ostera, hirugarrenean egon daiteke (7, % 63,64) edo bigarreanean (4, % 36,36). Esaldi osoaren gailurra kasu guztietan aditzean kokatzen da. Azkenik, muga-tonu bi agertu zaizkigu: L (10, % 90,91) eta LH (1, % 9,01). Datu hauen bidez matrize bat sortzen badugu, 7.16. taulako bektoreak lortzen dira.

	Morfema	Adi. gai.	M-T	kopurua	%
1	ala	2	L	3	27,27
2	ala	3	L	2	18,18
3	ala	3	L	1	9,09
4	edo ser	3	L	4	36,36
5	edo ser	2	L	1	9,09

7.16. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euron kopuruak eta ehunekoak.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuz gero (7.17. taula), ikusten dugu C taldeko informatzaileek erabiltzen dutela bektore kopuru handiagoa beste talde bietakoek baino.

AH.	1	2	3	4	5
A	3	0	0	1	0
B	0	2	0	1	0
C	0	0	1	2	1

7.17. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Bektoreen erabilerearen hedadura informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, 7.18. taulako emaitzak lortzen ditugu. Bertan ikusten den legez, neskek bektore kopuru handiagoa erabiltzen dute mutilek baino.

Generoa	1	2	3	4	5
Neskak	2	2	1	1	0
Mutilak	1	0	0	3	1

7.18. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen generoaren arabera.

Oihartzun galderak “*esta*” edo “*es*” erabilia egin daitezke. Galdera mota hauetan kontuan hartuko ditugun ezaugarriak “*esta*” ala “*es*” erabiltzen den, sintagmaren eta aditzaren gailuraren silaba; esaldiaren gailurra sintagman ala aditzean kokatzen den eta esaldiaren muga-tonuak izango dira.

Informatzaileen artean “*esta*” da gehien erabiltzen dena (7, % 63,64) eta “*es*” gutxien (4, % 36,36). Esaldiaren gailurra kasu guztietan sintagman kokatzen da eta berau beti izaten da sintagmaren azken silaba. Aditzaren gailurra bigarren silaba izan daiteke (7, % 63,64) edo hirugarrena (4, % 36,36). Muga-tonua H izan daiteke (8, % 72,73) edo LH (3, % 27,27). Aldatzen diren ezaugarrien datuak matrizean sartuta 7.19. taulan erakusten diren bektoreak lortzen dira.

Bektoreak	Morfema	Adi. gai.	M-T	kopurua	%
1	esta	2	H	4	36,36
2	esta	2	LH	2	18,18
3	esta	3	H	1	9,09
4	es	3	H	2	18,18
5	es	3	LH	1	9,09
6	es	2	H	1	9,09

7.19. taula: Ezaugarrien bidez lortutako bektoreak eta euron kopuruak eta ehunekoak.

Bektoreen erabilera informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuz gero (7.20. taula), ikusten dugu A taldeko informatzaileek erabiltzen dutela bektore kopuru handiagoa beste talde bietakoek baino.

AH	1	2	3	4	5	6
A	1	2	0	0	0	1
B	0	0	0	2	1	0
C	3	0	1	0	0	0

7.20. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.


Bektoreen erabilerearen hedadura informatzaileen generoaren arabera aztertuz gero, 7.21. taulako emaitzak lortzen ditugu. Bertan ikusten den legez, mutilek bektore kopuru handiagoa erabiltzen dute neskek baino.

AH	1	2	3	4	5	6
Neskak	3	1	0	1	1	0
Mutilak	1	1	1	1	0	1

7.21. taula: Bektoreen kopuruak informatzaileen generoaren arabera.

Zalantzako galderak “ete” (ote) partikularen bidez egiten direnak dira. Gure informatzaileetan hiruk baino ez dute erabili (% 27,27) mota hau; hirurak A taldekoak izan dira eta bi neskek eta bat mutila. Argi dago kasu honetan informatzaileen ama hizkuntzak eragin zuzena daukana beronen erabileran, izan ere, B eta C taldeko informatzaileetan batek ere ez du erabiltzen.

Azkenik, esaldi mota bakoitzeko aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 7.6. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 8 (% 72,73) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 3 (% 27,27). Bertan argi agertzen den moduan, A taldeko informatzaile gehienak B multzoan kokatzen dira. Beronen arabera esan dezakegu esaldien intonazioaren esparruan informatzaileen ama hizkuntza faktore garrantzitsua dela eta aldea beronek eragindakoa dela.



7.5. Testuen prosodia

Azpiatal honetan bat-bateko testuen ezaugarri prosodiko batzuk aztertu nahi dira. Aukeratu diren ezaugarriak talde prosodikoaren tamaina, etenak, muga-tonuak, erritmoa eta abiadura izan dira.

7.5.1. Talde prosodikoaren tamaina

Talde prosodikoaren tamaina aztertzeko irizpide bi erabiliko ditugu. Alde batetik, talde prosodikoaren luzera ikertuko da, hau da, talde bakoitzeko egiten den silaba kopurua eta, beste alde batetik, talde prosodikoaren iraupena. Irizpide biak erlazionatuta dauden

arren, ez dira zertan bat etorri behar, etenetan egiten diren txertaketek eta luzapenek eragina eduki dezaketelako.

Batu diren 245 talde prosodikoaren artean 1682 silaba biltzen dira. Talde prosodiko bakoitzaren silaba kopuruak 1 eta 25 bitartean kokatzen dira. 7.22. taulan talde prosodiko bakoitzaren silaba kopuruaren arabeko ehunekoak erakusten dira.

Sil.	Kop.	%	Sil.	Kop.	%	Sil.	Kop.	%
1	14	5,71	10	13	5,31	19	1	0,41
2	24	9,80	11	9	3,67	20	1	0,41
3	26	10,61	12	8	3,27	21	2	0,82
4	26	10,61	13	6	2,45	22	1	0,41
5	27	11,02	14	1	0,41	23	2	0,82
6	14	5,71	15	3	1,22	24	1	0,41
7	22	8,98	16	2	0,82	25	1	0,41
8	21	8,57	17	2	0,82			
9	17	6,94	18	1	0,41			

7.22. taula: Talde prosodikoaren kopuruak eta ehunekoak silaba kopuruaren arabera.

7.58. taulan erakusten den bezala, talde prosodiko gehienak nahiko laburrak dira, multzo bitan banatuz gero, 1-10 silaba bitartekoak % 83,27 osatzen dute eta 11-25 bitartekoak % 16,73. 1-10 silaba bitarteko talde prosodiko laburren ehunekoaren batezbestekoa 82,65 da, desbideratzea 10,03, minimoa 58,82, maximoa 95,65 eta heina 36,83. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertuta, honako ehunekoaren batezbestekoak dauzkagu: A (84,62), B (83,38) eta C (80,14); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera neskek (86,86) ehunekoaren batezbesteko handiagoa daukate mutilek (77,61) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Talde prosodikoaren iraupenari dagokionez, denboraren ehunekoaren batezbestekoa testuko 74,46 ms.koa da, desbideratzea 4,26, minimoa 65,32, maximoa 80,25 eta heina 14,93. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aldeak agertzen diren arren, A (74,39), B (76,01) eta C (73,37), aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera neskek (75,13) luzexego egiten dituzte mutilek (73,66) baino, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

7.5.2. Etenak


Sekzio honetan, bigarren atalean zehaztutako irizpideak erabilita, eten moten banaketa eta isiluneen iraupena aztertuko dira.

Aztertu ditugun testuetan etenak isilunedunak edo isilune bakoak izan daitezke. Isilunedunak 189 dira (% 77,14) eta isilune bakoak 56 (% 22,86). C taldeko

informatzaileek batezbestekorik handiena daukate (84,08), gero B taldekoek (74,16) eta azkenik A taldekoek (71,80); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera mutilen (79,03) ehunekoaren batezbestekoa altuagoa da neskena (75,14) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Bokal luzapena edo txertaketa 175 kasutan gertatzen da (%71,43) eta 70 kasutan ez (% 28,57). Testu bakoitzeko luzapenen edo txertaketen ehunekoaren batezbestekoa 71,36 da, desbideratzea 14,82, minimoa 43,48, maximoa 90,91 eta heina 47,44. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (73,27), B (74,27) eta C (67,27), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Gauza bera gertatzen da generoaren arabera, neskek (68,60) eta mutilek (74,67), aldea ez da esanguratsua.

Irizpide biak, isiluneduna edo isilune bakoa eta bokal txertaketa edo luzapena konbinatuta ondoko ehunekoak lortzen ditugu (7.7. irudiko grafikoa): “v%” (130, % 53,06), “%” (59, % 24,08), “v\$” (45, % 18,37) eta “\$” (11, % 4,49).



“v%” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 52,73 da, desbideratzea 16,42, minimoa 21,74, maximoa 70,59 eta heina 48,85. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (53,02), B (51,50) eta C (53,35), ez dira estatistiko esanguratsuak. Generoaren arabera aldeak ere, neskek (49,62) eta mutilek (56,69), ez da estatistikoki esanguratsua.


“%” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 24,18 da, desbideratzea 12,74, minimoa 5,26, maximoa 52,17 eta heina 46,91. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (18,78), B (22,66) eta C (30,72), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera neskek (25,72) batezbesteko altuagoa daukate mutilek (22,33) baino, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

“v\$” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 18,63 da, desbideratzea 8,61, minimoa 0, maximoa 29,41 eta heina 29,41. Ama hizkuntzaren arabera aldeak aztertuta, A (20,25) eta B (22,77) taldeko informatzaileak elkarrengatik hurbilago

agertzen dira C (13,91) taldekoak baino; hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera alde txikia da, neskek (19,18) eta mutilek (17,97), eta ez da estatistikoki esanguratsua.

“\$” eten motaren ehunekoaren batezbestekoa 4,46 da, desbideratzea 4,95, minimoa 0, maximoa 15 eta heina 15. Ama hizkuntzaren arabera aldeei dagokienez, ikus dezakegu batezbestekorik altuena A (7,95) taldeko informatzaileek daukatela, B (3,07) eta C (2,01) taldeetako informatzaileak elkarrengandik hurbilago agertzen dira; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldeak, neskek (5,68) eta mutilek (3), ez da estatistikoki esanguratsua.

Azpiatal honetan aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 7.8. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 9 (% 81,82) informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 2 (% 18,18). Talde guztietako informatzaileak nahasirik agertzen dira multzoetan eta ez dago multzo homogeneorik.



Isiluneen denboraren ehunekoaren batezbestekoa testuko 22,41 ms.koa da, desbideratzea 3,46, minimoa 17,03, maximoa 29,19 eta heina 12,16. Ama hizkuntzaren arabera aldeak, A (22,88), B (21,91) eta C (22,31), ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera alde oso txikia da, neskek (22,34) eta mutilek (22,48), eta ez da estatistikoki esanguratsua.

7.5.3. Muga-tonuak

Azpiatal honetan talde prosodikoaren eskumako muga agertzen diren tonu motez edo muga-tonuez arduratuko gara. Azpiatala sekzio bitan banatuta aurkezten dugu. Lehen sekzioan muga-tonu mota bakoitzaren hedaduraz jardungo dugu eta bigarrenean muga-tonuen eta eten moten arteko erlazioak ikertuko dira.

7.5.3.1. Muga-tonuen banaketa

Sekzio honetan muga-tonuen banaketa aztertuko da. Denetara 608 muga-tonu batu ditugu 27 testuetan; gehien erabiltzen dena L da (107, % 43,67), gero H (60, % 24,49), HL (59, % 24,08) eta LH (19, % 7,76).

Gehien erabiltzen den L muga-tonuaren ehunekoaren batezbestekoa 44,13 da, desbideratzea 15,91, minimoa 21,05, maximoa 77,78 eta heina 56,73. B taldeko informatzaileek batezbestekorik handiena daukate (50,76), gero C taldekoek (42,96) eta azkenik A taldekoek (40,34); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aldeak handiak diren arren (mutilek 54,12 eta neskek 35,82), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

H muga-tonuaren ehunekoaren batezbestekoa 24,26 da, desbideratzea 13,96, minimoa 5,88, maximoa 52,94 eta heina 47,06. Datuak ama hizkuntzaren arabera sailkatuta erakusten dira 7.23. taulan; bertan agertzen diren aldeak Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 2) 14,822$; $p = 0,001$) estatistikoki esanguratsuak dira; C taldeko informatzaileek askozaz erabilera handiagoa egiten dute.

AH.	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
A	16,27	3,27	13,64	21,05	7,41
B	14,18	7,38	5,88	20,00	14,12
C	39,81	9,67	30,77	52,94	22,17

7.23. taula: H muga-tonuaren datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, mutilek (25,80) batezbesteko handiagoa daukate neskek (22,97) baino, hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

HL muga-tonuaren ehunekoaren batezbestekoa 23,81 da, desbideratzea 13,27, minimoa 5,56, maximoa 42,31 eta heina 36,75. A taldeko informatzaileek batezbestekorik handiena daukate (28,31), gero B taldekoek (27,80) eta azkenik C taldekoek (16,31); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera

aldeak handiak diren arren (neskek 31,53 eta mutilek 14,54), ez dira estatistikoki esanguratsuak.

LH muga-tonuaren ehunekoaren batezbestekoa 7,80 da, desbideratzea 8,37, minimoa 0, maximoa 22,73 eta heina 22,73. Datuak ama hizkuntzaren arabera sailkatuta erakusten dira 7.24. taulan; bertan agertzen diren aldeak Kruskal-Wallis probaren arabera ($H = (a.m. 2) 6,038$; $p = 0,049$) estatistikoki esanguratsuak dira. Mann-Whitney U estatistikoa erabilita A eta B multzoen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua; haatik, A eta C multzoen artekoa bai ($z = -2,366$; $p = 0,018$) eta B eta C multzoen artekoa ez.

AH.	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
A	15,08	8,33	5,00	22,73	17,73
B	7,25	6,34	0	11,76	11,76
C	0,93	1,85	0	3,70	3,70

7.24. taula: LH muga-tonuaren datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu nesken (9,68) batezbestekoa handiagoa dela mutilena (5,55) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

7.5.3.2. Muga-tonuak eta etenak

Sekzio honetan muga-tonuen eta eten moten arteko erlazioak aztertuko ditugu. Horretarako aurreko azpiatalean aztertu ditugun eten motak zein muga-tonurekin erabiltzen den gehien ikusiko dugu, izan ere, bigarren atalean adierazi den moduan, muga-tonu batzuk eten mota batzuekin gehiagotan agertzen dira beste batzuekin baino.

7.25. taulan ikus daitekeen bezala, H muga-tonua isilunedun etenekin erabiltzen da batez ere (% 88,33), beronen barruan gehiagotan erabiltzen da bokal luzapenekin edo txertaketekin hain barik baino.

H	v%	vS	%	S
kopurua	41	5	12	2
%	68,33	8,33	20,00	3,33
% osoa	16,73	2,04	4,90	0,82

7.25. taula: H muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

L tonuarekin antzera gertatzen da, isilunedun etenekin gehiagotan erabiltzen da (% 62,62), 7.26. taulan erakusten den moduan, beronen barruan gehiagotan erabiltzen da bokal luzapen edo txertaketekin hain barik baino, nahiz aldea handiegia ez den.

L	v%	vS	%	S
kopurua	48	19	35	5
%	44,86	17,76	32,71	4,67
% osoa	19,59	7,76	14,29	2,04

7.26. taula: L muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

HL muga tonuaren kasuan, 7.27. taulan agertzen den bezala, berau batez ere gertatzen da bokal txertaketa edo luzapena dagoenean (% 79,66), etena isiluneduna zein isilune bakoa izan daiteke.

HL	v%	vS	%	S
kopurua	27	20	10	2
%	45,76	33,90	16,95	3,39
% osoa	11,02	8,16	4,08	0,82


7.27. taula: HL muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

Azkenik, 7.28. taulan agertzen den moduan, LH muga-tonua isilunedun etenekin erabiltzen da batez ere (% 84,21), isilunea bokal luzapenarekin edo txertaketarekin egiten denean gehiagotan erabiltzen da.

LH	v%	vS	%	S
kopurua	14	1	2	2
%	73,68	5,26	10,53	10,53
% osoa	5,71	0,41	0,82	0,82

7.28. taula: LH muga-tonuaren ehunekoak eten moten arabera.

Azpiatal honetan aztertu ditugun ezaugarri guztien emaitzen arabera multzokatze azterketa egiten badugu, 7.9. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan agertzen den bezala, A multzoan 7 informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 4. Informatzaileen banaketa multzoen arabera aztertuta, ikusten da ez dagoela multzo homogeneorik ez ama hizkuntzaren arabera ez eta generoaren arabera ere.



7.9. irudia: Informatzaileen sailkapena muga-tonuen tasunen arabera.

7.5.3. Erritmoa


Azpiatal honetan informatzaileek egindako bat-bateko testuaren erritmoan egon daitezkeen aldeak ikertu nahi dira. Alde batetik hirugarren atalean deskribatutako metriken araberako indizeak kalkulatu dira eta bestetik informatzaileen ama hizkuntzak eta generoak indize horietan eduki dezaketen eragina aztertu da.

Erritmoa aztertzeko lau metrika proposatu dira: (a) Ramus et al., 1999; (b) Dellwo 2006; (c) Grabe & Low, 2002 eta (d) Bertinetto & Bertini, 2007, 2008. Jarraian metrika horien bidez lortu diren indizeen emaitzak emango ditugu.

(a) metrikaren indizeak %V bokalen proportzioak eta ΔC kontsonanteen desbideratzea dira. %V indizearen batezbestekoa 49,24 da, desbideratzea 1,63, minimoa 46,92, maximoa 46,89 eta heina 4,92. Informatzaileen ama hizkuntzaren araberako batezbestekoak A taldean 50,03, B taldean 49,83 eta C taldean 48,03 dira; aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertzen baditugu, ikusten dugu mutilen batezbestekoa altuxeagoa dela (50,29) neskena baino (48,37); aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

ΔC indizearen batezbestekoa 33,09 da, desbideratzea 3,37, minimoa 26,31, maximoa 38,53 eta heina 12,22. Ama hizkuntzaren araberako batezbestekoen aldeak oso txikiak dira (A: 34,45, B 33,03 eta C 31,78) eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertuta, neskek arean batezbesteko altuagoa daukate (33,56) mutilek baino (32,53); aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


Metrika honen indize bien arteko emaitzak konbinatuta 7.10. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaile gehienek gune zentrala osatzen dute dispersioa oso txikia izanik.



(b) metrikaren indizeak varcoV eta varcoC dira. VarcoV indizearen batezbestekoa 49,95 da, desbideratzea 7,62, minimoa 38,87, maximoa 58,92 eta heina 20,05. Ama hizkuntzaren arabera batezbestekoak aztertuta A (46,30) eta C (46,73) taldeen artean oso alde txikia dagoela ikusten dugu, B taldekoen batezbestekoa (55,45) gehiago aldentzen da; hala ere, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera azterketan mutilek (52,13) batezbestekoa handiagoa daukate neskek (46,30) baino, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

VarcoC indizearen batezbestekoa 45,70 da, desbideratzea 4,46, minimoa 41,01, maximoa 53,63 eta heina 12,62. Ama hizkuntzaren arabera batezbestekoen aldeak ez dira oso handiak: A (47,99), B (43,02) eta C (45,42) eta ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera mutilen batezbestekoa (47,99) altuagoa da neskena (43,79) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


Metrika honen indize bien arteko emaitzak konbinatuta 7.11. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, B taldeko informatzaileak izan ezik, gainerakoak oso sakabanaturik agertzen dira.



(c) metrikaren indizeak nPVI-V eta rPVI-C dira. nPVI-V indizearen batezbestekoa 40,80 da, desbideratzea 4,31, minimoa 35,72, maximoa 47,52 eta heina 11,80. Datuak ama hizkuntzaren arabera aztertuta, batezbestekorik handiena B taldeak (43,58) dauka, gero C taldeak (40,94) eta txikiena A taldeak (38,58); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aztertzen baditugu, mutilek (41,75) arean batezbesteko handiagoa daukate neskek (40,02) baino, alde hau oso txikia da eta ez da estatistikoki esanguratsua.

rPVI-C indizearen batezbestekoa 36,85 da, desbideratzea 3,79, minimoa 30,38, maximoa 45,58 eta heina 15,20. Ehunekoen batezbestekoak ama hizkuntzaren arabera aztertuta, oso alde txikiak agertzen dira: A (36,88), B (37,67) eta C (36,20); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aztertzen baditugu, nesken ehuneko batezbestekoa (38,30) altuagoa da mutilena (35,09) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.


Metrika honen indize bien arteko emaitzak konbinatuta 7.12. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, C taldeko neska bat da gehien aldentzen dena.



(d) metrikaren indizeak Vcci eta Ccci dira. Vcci indizearen batezbestekoa 21,85 da, desbideratzea 2,86, minimoa 17,20, maximoa 28,85 eta heina 11,65. Ehunekoen batezbestekoak ama hizkuntzaren arabera aztertuta, ikusten dugu B taldekoena handiena dela (24,12), gero A taldekoena (21,23) eta baxuena C taldekoena (20,57); aldeok ez dira estatistikoki esanguratsuak. Datuak generoaren arabera aztertuta, nesken ehunekoen batezbestekoa (22,58) arean handiagoa da mutilena (20,81) baino; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Ehunekoen batezbestekoak ama hizkuntzaren arabera aztertuta, oso alde txikiak agertzen dira: A (23,13), B (24,90) eta C (24,61); aldeok ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren arabera aztertuta, nesken ehunekoen batezbestekoa 25,05 da eta mutilena 23,07; aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Metrika honen indize bien arteko emaitzak konbinatuta 7.12. irudian erakusten den dispersio grafikoa lortzen dugu. Bertan ikus daitekeen bezala, datuek erdialdeko gunean batzen dira eta gehien aldentzen direnak C taldeko neska bat eta B taldeko beste bat dira.




Indize bakoitzaren desbideratzeak eta heinak aztertzen baditugu (7.29. taula); desbideratzeik txikiak dauzkaten indizeak “%V” eta “Ccci” dira, heinik txikiak, berriz, “%V” eta “rPVI-C” indizeek daukate.

	Desbideratzea	heinak
%V	1,63	4,92
ΔC	3,37	12,22
VarcoV	7,62	20,05
VarcoC	4,46	12,62
nPVI-V	4,31	11,8
rPVI-C	3,79	15,2
Vcci	2,86	11,65
Ccci	3,09	11,52

7.29. taula: Metrika guztien indizeen desbideratzeak eta heinak.

Informatzaileek indize guztietan eduki dituzten emaitzak kontuan hartuta multzokatze azterketa baten bidez sailkatzen baditugu 7.13. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den moduan, A multzoan 5 informatzaile kokatzen dira eta B multzoan 6. Informatzaileen ama hizkuntzaren arabera, A taldeko hiru informatzaile multzo batean agertzen dira eta B taldeko informatzaile guztiak bestean; bestalde, C taldeko informatzaileak sakabanaturik agertzen dira multzo bietan.



7.5.4. Abiadura

Abiadura aztertzeko abiadura osoa eta hizketa abiadura bereiziko ditugu. Abiadura osoa kalkulatzeko denbora osoa hartu dugu kontuan eta hizketa abiadura kalkulatzeko etenen, txertaketen eta lapsusen denbora kendu dugu. Abiadura segundoko egiten diren silaba kopuruaren arabera adieraziko dugu.

Abiadura osoa aztertzen dugunean, batezbestekoa 5,04 silaba segundokoa da, desbideratzea 0,60, minimoa 4,21, maximoa 6,43 eta heina 2,22. Datuak ama hizkuntzaren arabera sailkatuta, ikusten dugu A taldekoen batezbestekoa 4,94 silaba segundoko dela, B taldekoena 4,96 eta C taldekoena 5,20 (aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak). Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuta, mutilek batezbesteko altuagoa daukate (5,28 silaba segundoko) neskek baino (4,84 silaba segundoko), aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Hizketa abiadura aztertzean, batezbestekoa 6,77 silaba segundokoa da, desbideratzea 0,68, minimoa 5,98, maximoa 8,52 eta heina 2,54. Datuak ama hizkuntzaren arabera aztertuta, batezbestekorik altuena C taldeko informatzaileek daukate (7,09), gero A taldekoek (6,62) eta txikiena B taldekoek (6,53); aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Generoaren araberako azterketa eginda, ikusten dugu hemen ere mutilek batezbesteko altuagoa daukatela (7,16) neskek baino (6,44); hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

7.6. Izen morfologia

Azpiatal honetan hirugarren atalean erabili ditugun ezaugarri berberak aukeratu ditugu; ezaugarriok ondokoak izan dira:

- (1) Bigarren graduko adjektiboen graduatzailea
- (2) Erakusleen lekua edo sozietiboa denbora adierazteko
- (3) Destinatiboaren morfema
- (4) Adlatiboaren pluralaren morfema
- (5) Adlatibo bukatuzkoaren morfema
- (6) Ablatiboaren morfema denbora adierazteko
- (7) Ablatiboa leku aditzondoekin

Bigarren graduko adjektiboen graduatzailearen erabileran aukera bi agertu zaizkigu: “lar” eta “-egi”. “lar” gehiagotan erabiltzen da (8, % 72,73) “egi” baino (3, % 27,27).

Bigarren ezaugarriari dagokionez, gogotan hartu behar da informatzaile zaharren artean sozietiboa erabiltzen izan dela denbora adierazteko (*egunokas esta etorri*). Erabilera hau gure hemengo informatzaileen artean guztiz desagertu da, berorren ordez ondoko beste hauek agertu zaizkigu:

- (a) egunotan esta etorri (3, % 27,27)
- (b) onetan egunetan esta etorri (3, % 27,27)
- (c) egun onetan esta etorri (1, % 9,09)
- (d) egun auetan esta etorri (4, % 36,36)

Destinatibo singularraren morfemari dagokionez, hiru aukera agertu zaizkigu: “antzako” (9, % 81,82), “antzat” (1, % 9,09) eta “arentzat” (1, % 9,09). Hirugarren aukera euskara estandarren eraginez sortu dela esan dezakegu.


Bizidunen deklinabidean adlatibo pluralaren morfemari dagokionez, hiru aukera agertu zaizkigu: “akana” (2, % 18,18), “angana” (2, % 18,18) eta “engana” (7, % 63,64). “akana” erabilera tradizionalari dagokio eta “engana” euskara estandarrena da; “angana” erabilera bien arteko hibridoa dela esan dezakegu.

Adlatibo bukatuzkoaren morfemarako aukera bi agertu zaizkigu: “rarte” (6, % 54,55) eta “raño” (5, % 45,45).

Erabilera tradizionalan denbora adierazteko “rik ona” (*atzorik ona estot ikusi*) erabiltzen izan da eta “tik” (*etzetik ona etorri da*) espazioa adierazteko; belaualdi batzuetan erabilera honi oraindino eusten zaio. Gure hemengo informatzaileen artean denek “tik” erabiltzen dute arlo bietan.

Ablatiboa leku aditzondoekin erabiltzen denean, aukera bi agertu zaizkigu: “ametik/emetik” moduko tradizionalak (2, % 18,18) eta euskara estandarren eraginez sortutako “amendik/emendik” erabilera berriak (9, % 81,82).

Ikusi berri ditugun ezaugarrien emaitzen arabera informatzaileen multzokatze azterketa egiten badugu 7.14. irudiko dendograma lortzen dugu; bertan ikusten den bezala, A taldeko informatzaileak aparteko multzo homogeenoa agertzen dira denak batera. Era berean, B eta C taldeetako informatzaileek beste multzo bat osatzen dute.



7.14. irudia: Informatzaileen multzokatzea izen morfologiaren tasunen arabera.

7.7. Aditz morfologia

Azpiatal hau sekzio bitan banatuta aurkezten dugu; lehen sekzioan aditz laguntzaileen eta trinkoen aldakortasunaz jardungo dugu eta bigarrenean aditz ez jokatuaren erabilera batzuen eta sintaxi mailako beste batzuen aldakortasuna aztertuko dugu.

7.7.1. Aditz laguntzaileen eta trinkoen aldakortasuna

Aditz laguntzaileen eta trinkoen aldakortasuna aztertzeko 25 adizki aukeratu ditugu. Adizkiok honela banatzen dira sailka: Nor-Nori (4), Nork-Nor (10), Nork-Nori-Nor (5), Baldintzak (3) eta aditz trinkoak (3).

Nor-Nori sailean lau adizki aztertu ditugu; hiru orain aldian “zaio”, “zait” eta “zaizkigu”, eta bat iragan aldian “zitzaizkion”.

“zaio” adizkiak ordain bi dauzka: “dako” (7, % 63,64) eta “yako” (4, % 36,36). “zait” adizkiari dagokionak hiru izan dira: “date” (5, % 45,45), “daste” (3, % 27,27) eta “yate” (3, % 27,27). “zaizkigu” adizkia hiru erantzunekin batu dugu: “dakus” (2, % 18,18), “daskus” (6, % 54,55) eta “yakus” (3, % 27,27). “zitzaizkion” adierazteko hiru aukera agertu zaizkigu: “dakosen” (6, % 54,55), “yakosen” (4, % 36,36) eta “sitzaizkion” (1, % 9,09); azken aukera hau estandarren eraginez agertu da.

Nork-Nor sailean hamar adizki aztertu ditugu; sei orain aldikoak: “naute”, “gaituzte”, “dute”, “ditut”, “ditu” eta “dituzte” eta lau iragan aldikoak “ninduen”, “nituen”, “zituen” eta “genituen”.

“naute” adizkiak bost eratarata agertzen da: “neure” (1, % 9,09), “neurie” (1, % 9,09), “nabie” (1, % 9,09), “naute” (1, % 9,09) eta “dostie” (7, % 63,64). “neure” eta “neurie” erabilera tradizionalekoak dira; “nabie”ri dagokionez, esan dezakegun gauza bakarra da ez dela inguru honetakoa, “naute” euskara estandarri dagokion adizkia da; azkenik, “dostie”ren kasuan “nork-nor” sailaren ordez “nork-nori-nor” saileko adizkia erabiltzen da, erabilera hau herrian hedatuz doana da.

“dute” adizkiari dagokionez, 3 era jaso ditugu: “deure” (4, % 36,36), “deurie” (6, % 54,55) eta “dute” (1, % 9,09). “gaituzte” adizkiak hiru aldaki dauzka: “gaitue” (5, % 45,45), “doskue” (5, % 45,45) eta “digute” (1, % 9,09). “doskue”ren kasuan paradigma aldaketa gertatu da eta “digute”ren kasuan euskara estandarra agertzen da baina paradigma aldaketa ere bai. “ditut” adizkiak lau aldaki dauzka: “doas” (3, % 27,27), “dodas” (1, % 9,09), “dotes” (6, % 54,55) eta “ditut” (1, % 9,09). “ditu” adizkiari dagokionez hiru aldaki agertu zaizkigu: “deus” (9, % 81,82), “deitus” (1, % 9,09) eta “ditu” (1, % 9,09). “dituzte” adizkiak hiru aldaki dauzka: “deuries” (8, % 73,73), “deures” (2, % 18,28) eta “dituste” (1, % 9,09). “ninduen” adizkiak aldaki bi dauzka, biak Nork-Nori-Nor sailekoak: “dosten” (10, % 90,91) eta “sidan” (1, % 9,09). “nituen” adizkiak hiru aldaki dauzka: “nitusen” (1, % 9,09), “nituen” (1, % 9,09) eta “neusen” (9, % 81,82). “zituen” adizkiak aldaki bi dauzka: “seusen” (10, % 90,91) eta

“situen” (1, % 9,09), “genituen” adizkiak hiru aldaki dauzka: “gendusen” (7, % 63,64), “genusen” (3, % 27,27) eta “genituen” (1, % 9,09).

Nork-Nori-Nor sailean bost adizki aztertu ditugu: “dizkiot”, “zidan”, “genion”, “zenion” eta “nizkion”.

“dizkiot” adizkiak sei aldaki dauzka: “dotzedas” (1, % 9,09), “dotzeas” (2, % 18,18), “dotzias” (1, % 9,09), “dotzetas” (1, % 9,09), “dotzetes” (5, % 45,45) eta “diskiol” (1, % 9,09). “zidan” adizkiak aldaki bi dauzka: “dosten” (10, % 90,91) eta “sidan” (1, % 9,09). “genion” adizkiak hiru aldaki dauzka: “dotzegun” (9, % 81,82), “otzegun” (1, % 9,09) eta “genion” (1, % 9,09). “zenion” adizkiak hiru aldaki dauzka: “dotzesun” (9, % 81,82), “tzesun” (1, % 9,09) eta “senion” (1, % 9,09). “nizkion” adizkiak zortzi aldaki dauzka: “notzesen” (2, % 18,18), “notzosen” (1, % 9,09), “dotzeasen” (1, % 9,09), “dotzedasen” (1, % 9,09), “dotzetasen” (1, % 9,09), “dotzetesen” (3, % 27,27), “otzetesen” (1, % 9,09) eta “niskion” (1, % 9,09).


Baldintzen sailean aztertzeko aukeratu ditugun adizkiak hiru izan dira: “nintzateke”, “litzateke” eta “nuke”.

“nintzateke” adizkiak hiru aldaki dauzka: “nintike” (3, % 27,27), “nitike” (1, % 9,09) eta “nintzen” (7, % 9,09). “litzateke” adizkiaren kasuan informatzaile guztiak iragana erabili dute baldintzaren ordean. “san” agertu da 10 kasutan (% 90,91) eta “sen” behin (% 9,09). “nuke” adizkiaren kasuan, berriz, baldintzak erabili dituzte informatzaile guztiak; hamarrek “neuke” (% 90,91) eta batek “nuke” (% 9,09).

Aditz trinkoen sailean hiru adizki trinko baino ez ditugu aztertu: “dauzkat”, “dakarte” eta “daroate”.

“dauzkat” adizkiak lau aldaki dauzka: “dekoas” (3, % 27,27), “dekotas” (1, % 9,09), “dekotes” (6, % 54,55) eta “ditul” (1, % 9,09). “dakarte” adizkiari dagokionez, bost informatzailek (% 45,45) era trinkoa ez dute erabiltzen; gainerakoetan “dakardie” beste bostek erabiltzen dute (% 45,45) eta batek estandararen “dakarte” (% 9,09). “daroate” adizkia adierazteko informatzaile bik (% 18,18) era perifrastikoak erabili dituzte, batek (% 9,09) estandararen “daramete” adizkia eta gainerako zortziek (% 72,73) “daroadie” erabili dute.

Informatzaileak tasun guztien arabera multzokatzen baditugu, 7.15. irudiko dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den legez, B taldeko informatzaile bat aparte kokatzen da, informatzaile honek adizki gehienak euskara estandarrean eman ditu. Gainerakoan, A multzoan lau informatzaile kokatzen dira, euron artean C taldeko hiru eta B multzoan sei, multzo honetan A taldeko informatzaile guztiak agertzen dira.



7.15. irudia: Informatzaileen multzokatzeari aditz jokatuaren tasunen arabera.

7.7.2. Aditz ez jokatuak eta sintaxi arloko erabilerak

Sekzio honetan aditz ez jokatuarekin egiten diren erabilera batzuk aztertuko dira. Bestalde, esaldi mota batzuk egiteko erabiltzen diren aldaki batzuk ere ikusiko dira. Bosgarren atalean erabili ditugun ezaugarri berberak aukeratu ditugu; ezaugarriok ondokoak izan dira:

- (1) Ezezko nominalizazioen “ez” aditzondoaren kokalekua.
- (2) Erlatibo ez jokatuaren erabilerak
- (3) Esaldi kompletiboetan “-na” erabiltzea
- (4) Zehar galderen erabilera
- (5) Baldintza errealean erabilera
- (6) Berdintasuna adierazteko moduzko konparatiboak

Ezezko nominalizazioetan “ez” aditzondoaren egongunea aztertzeko esaldi bi erabili ditugu: “ez ibiltzea txarra da” eta “hau jaten dut ez loditzeko”. Lehen esaldiari dagokionez, aukera bi agertu dira: “ibili estea” (2, % 18,18) eta “es ibiltzea” (9, % 81,82). Bigarren esaldiaren kasuan berdina gertatu zaigu: “loditu esteko” (2, % 18,18) eta “es lodituteko” (9, % 81,82).

Erlatiboeko esaldi ez jokatuak “ko” partizipioari atxikita egiten izan dira tradizionalki. Beronen erabilera ikusteko esaldi bi aukeratu dira: “Bilbotik ekarrikoa gordeta dago” eta “Hemen dago zuk eginekoa”. Lehen esaldiari dagokionez, “ko” informatzaile batek (%9,09) baino ez du erabili, gainerakoek (% 90,91) “tako” erabili dute. Bigarren esaldiaren kasuan informatzaile guztiak “tako” erabili dute.


Baldintza zehatz batzuetan esaldi konpletiboetan “-na” morfema erabiltzen izan da tradizionalki. Gure hemengo informatzaileetan bik (% 18,18) baino ez dute erabili era hau.

Zehar galderak egiteko hiru aukera agertu zaizkigu: “ba- eta -n” gehitzea (7, % 63,64), “-n” erabiltzea (3, % 27,27) eta “ba-” erabiltzea (1, % 9,09).

Baldintza errealetan aurreko baldintza egiteko aukera bi agertu zaizkigu; batean “ba-” hutsa erabiltzen da (6, % 54,55) eta bestean “ba- eta -n” biak erabiltzen dira batera (5, % 45,45).

Berdintasuna adierazten duten moduzko konparatiboak egiteko bost aukera agertu zazikigu: “su besteko” (2, % 18,18), “sure besteko” (3, % 27,27), “su moduko” (2, % 18,18), “sure moduko” (1, 9,09) eta “su besain” (3, % 27,27).

Ikusi berri ditugun ezaugarrien emaitzen arabera informatzaileen multzokatze azterketa egiten badugu 7.16. irudiko dendograma lortzen dugu; bertan ikusten den bezala, A taldeko hiru informatzaile B multzoan agertzen dira; B eta C taldeetako informatzaileak, aldiz, sakabanatuago agertzen dira A eta B multzoetan.



7.16. irudia: Informatzaileen multzokatzea aditz ez jokatuaren eta sintaxi arloko tasunen arabera.

7.8. Lexikoaren erabilera

Azpiatal honetan gure informatzaileek bat-bateko testu batean erabili duten lexikoaren azterketa aurkezten dugu. Informatzaile guztiek lehen atalean agertzen den komikiaren istorioa kontatu zuten eta bertan erabilitako lexikoa da hemengo azterketarako baliaitu duguna. Lematizazio prozesua seigarren atalean azaltzen den

bezala burutu dugu. Era bitako azterketak egin dira; batean, berben azterketa egin da eta bestean informatzaileen lexiko aberastasun indizea oinarritzat hartu da (ikusi 6. atala).

7.8.1. Berben azterketa


Sekzio honetan gure informatzaileek komikian egon den narrazioa burutzeko erabili dituzten berbak aztertuko ditugu. Denetara 406 berba erabili dira eta lema desberdinak 93 izan dira.

Lemen maiztasunak aztertzen baditugu ikusten dugu gehien erabiltzen dena “argazki” dela ($p=0,11576$). Era berean, bost gauzapenetik gora dauzkaten lemak 27 dira (lema guztien % 29,03), gainerako 66 lemek agertzeko oso probabilitate txikia daukate eta horietariko 40 behin baino ez dira erabili informatzaile guztien testuetan ($p=0,0025$ bakoitzeko). 7.30. taulan 27 lema horien agerpen kopuruak (kop.) eta agertzeko probabilitateak (p) ematen ditugu; euron artean agerpen kopuru osoaren % 74,63 biltzen dute.

Lema	Kop.	p	Lema	Kop.	p	Lema	Kop.	p
argazki	47	0,1158	aita	11	0,0271	paratu	7	0,0172
atarra	26	0,0640	ume	11	0,0271	parke	7	0,0172
joan	17	0,0419	harri	10	0,0246	esan	6	0,0148
egon	15	0,0369	ipini	9	0,0222	agertu	5	0,0123
seme	15	0,0369	kamara	9	0,0222	ikusi	5	0,0123
jausi	14	0,0345	beste	8	0,0197	justo	5	0,0123
ur	13	0,0320	estropezu egin	8	0,0197	kolokatu	5	0,0123
gizon	12	0,0296	korrika	8	0,0197	ondoan	5	0,0123
orduan	12	0,0296	pato	8	0,0197	urten	5	0,0123

7.30. taula: Testuetan gehien erabili diren lemen agerpen kopuruak eta probabilitateak.

Agertzeko probabilitaterik altuena daukaten lemen arabera informatzaileak sailkatzen baditugu, 7.17. irudiko dendograman erakusten diren multzoak lortzen dira. Bertan ikus daitekeen bezala, informatzaile gehienak A multzoan kokatuta agertzen dira (8, % 72,73); B multzoan 2 informatzaile agertzen dira (% 18,18) eta informatzaile bat guztiz aparte agertzen da (% 9,09). Multzoen osaketari erreparatuta ikusten dugu ez daukatela inolako homogeneotasunik eta taldeetako informatzaileak nahastuta agertzen direla.



7.8.2. Lexiko aberastasuna

Sekzio honen helburua da informatzaileak sailkatzea dauzkaten lexiko aberastasunaren indizearen arabera, seigarren atalean egin dugun bezala. Aberastasuna kalkulatzeko logTTR izeneko indizea erabili dugu (ikus 6. atala).

Kalkulu hauek eginda informatzaile bakoitzaren lexiko aberastasun indizeak lortzen dira. 7.31. taulan informatzaile guztien lexiko aberastasun indizearen batezbestekoa, desbideratzea, minimoa, maximoa eta heina ikus daitezke.


N	\bar{x}	sd	min.	max.	heina
32	0,87837	0,03593	0,81296	0,91913	0,10617

7.31. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoa, desbideratzea, minimoa, maximoa eta heina.

Datuak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera aztertzen baditugu, 7.32. taulan agertzen diren batezbestekoak eta desbideratzeak lortzen dira. Bertan ikusten den moduan, C taldeak dauka indizearik altuena gero A taldeak eta baxuena, berriz, B taldeak dauka (7.18. irudiko grafikoa); dena dela, aldeok ez dira estatistikoki esanguratsuak.

AH.	N	\bar{x}	sd
A	4	0,88357	0,04354
B	3	0,85140	0,03929
C	4	0,89340	0,01773


7.32. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera.



Datuak informatzaileen generoaren arabera aztertuta 7.33. taulako emaitzak lortzen dira. Bertan erakusten den bezala, mutilen indizea altuxeagoa da neskena baino (7.19. irudiko grafikoa); hala ere, aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

Generoa	N	\bar{x}	sd
Neskak	6	0,87123	0,02944
Mutlak	5	0,88694	0,04446

7.33. taula: Lexiko aberastasunaren indizearen batezbestekoak eta desbideratzeak informatzaileen generoaren arabera.




Beraz, esan dezakegu, aztertu dugun bat-bateko testu honen lexiko aberastasunari dagokionez, ez dagoela alde handirik ez informatzaileen ama hizkuntzaren arabera ez eta generoaren arabera ere.

7.9. Ondorioak


Azpiatal honetan aurrekoetan egin ditugun azterketen emaitzak laburbilduko ditugu. Bestalde, gai batzuetan ikusi dugun moduan, informatzaileak homogeneoki sailkatu ahal izan ditugu; gai horien ezaugarri guztiak batuta informatzaileak berriro sailkatuko ditugu azpian dautzan talde konpaktuak azaleratzeko.

Aurreko azpiataletan lortu ditugun emaitzak ikusita, esan dezakegu arau fonologikoetan, azentuan, esaldien intonazioan, izen morfologian, aditz jokatuaren erabileran eta aditz ez jokatuaren eta sintaxi arloko erabileretan nolabaiteko multzo homogeneoak agertu zaizkigula informatzaileen ama hizkuntzaren arabera. Fonemen maiztasunaz, silaba motaz eta iraupenaz, testuen prosodiaren ezaugarriez eta lexikoaz egin ditugun azterketetan, ostera, hiru taldeetako informatzaileak nahasirik agertzen dira.

Sailkatzeko adierazgarriak izan daitezkeen gai horien guztien ezaugarriak 173 dira denetara; euron arabera informatzaileak berriro sailkatzen baditugu 7.20. irudiko dendograma lortzen dugu; bertan agertzen den bezala, A taldeko informatzaileek multzo bereizi bat osatzen dute. Era berean B eta C taldeetako informatzaileak elkarrengandik hurbilago daude A multzokoengandik baino. Orain arte ikusi dugun moduan, B taldeko mutilak euskara estandarren molde asko erabiltzen ditu eta A multzoan azkenengoz gehitzen den informatzailea da, guztiagatik ere A multzoko informatzaileengandik hurbilago agertzen da. Informatzaile honen eragina baztertzeko badugu. C eta B taldeetako informatzaileek oso multzo homogeneoa osatzen dutela ikusten dugu. Eskala dimentsio anizkuna izeneko azterketa erabiliz gero (7.21. irudia), A taldeko informatzaileek planoaren ezker aldeko espazioan kokatzen dira eta C eta B taldeetakoak eskuma aldean.



7.20. irudia: Informatzaileen sailkapena adierazgarriak diren ezaugarrien arabera.



7.21. irudia: Informatzaileen hedapena planoan, eskala dimentsio anizkuna izeneko azterketaren arabera.

8. Amaiera

Lanaren hasieratik harilkatzen ibili garen matazaren hariak ekarri gaitu honaino aldakortasunaren labirintoan zehar. Azken atal honetan, lana mukurutzeko tertzioan, aurreko ataletan lortu ditugun ondorioak nabarmenenak laburbilduko ditugu. Ondorioak lehenengo atalez atal aurkeztuko ditugu gero denak batera ikusteko.

Bigarren atalean soinu segmentalen gainean jardun dugu; alde batetik fonemen maiztasunak ikusi ditugu eta, bestetik, fonologiaren bilakaera. 23 fonemaren frekuentziak aztertu ditugu; horietatik informatzaileen belaunaldien eta generoaren arabera batezbestekoen alde esanguratsuak agertu zaizkigu lau kasutan: /a/, /k/, /d/ eta /tʃ/ekin. /a/, /d/ eta /tʃ/ekin batez bestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak izan dira informatzaileen belaunaldiaren arabera eta /k/ekin baino ez dira estatistikoki esanguratsuak generoaren arabera.

Herskari ahoskabeen kasuan bokalen arteko ahosuntzeak ere aztertu ditugu. Kasu honetan gauzaren kopuruen ehunekoetan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira informatzaileen generoaren arabera. /k/ren kasuan informatzaileen generoaren eragina ez eze, adinaren eragina ere estatistikoki esanguratsua da.

Fonologia segmentalaren bilakaera aztertzeko 33 tasun aztertu ditugu 6 multzotan banatuta. Multzoetan agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak izan dira hiru multzotan: (1) Fonemen inbentarioari dagozkion tasunak, (3) “a” bokalaren asimilazioa “i” eta “u” bokalen ostean eta (4) “es” aditzondoaren arauak. (1) eta (3) multzoetan batez bestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak izan dira informatzaileen adinaren arabera eta (4) multzoan, oster, informatzaileen generoaren arabera. Informatzaileak ezaugarri guztien arabera sailkatzen direnean ikusten dugu multzoak egitean adina dela faktorerik garrantzitsuena.

Hirugarren atalean prosodiaz jardun dugunean, silabaren azpiatalean silaba motak eta silabaren iraupena aztertu ditugu; bertan ikusi dugun moduan, silabaren osagaien erabileran hasierako C kopuruan baino ez ditugu topatu batezbestekoen alde estatistikoki esanguratsuak informatzaileen belaunaldien arabera. Gehien erabiltzen diren silaba motak aztertzean, informatzaileen adina estatistikoki esanguratsua izan da

“VC” motan. Gainerako kasu guztietan informatzaileak sailkatzean ez adinak ez eta generoak ere ez daukate eraginik. “CV” silaba motaren iraupena aztertzean ikusi dugun bezala, bai informatzaileen adinaren arabera zein generoaren arabera agertzen diren batezbestekoen aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Azentua aztertzean azentua txertatzeko eremuan gertatu den aldaketan informatzaileen adina garrantzitsua da, hau da, zaharrek azentu eremutat talde klitiko hartzen dute (“*txarra*” > “*txarrá da*”) eta gazteek hitza hartzen dute (“*txarra*” > “*txarra da*”). Informatzaileen sailkapena azentu ezaugarrien arabera egiten dugunean, informatzaileen adinak garrantzia dauka oro har.

Azentuaren ostean oinarritzko esaldien intonazioarekin arduratu gara eta adierazpenekoak, bai/ez galderak, n/z galderak, hautazko galderak, oihartzun galderak eta zalantzazko galderak ikusi ditugu. Bertan esaldi hauen guztien ezaugarriak aztertutakoan, informatzaileak euron arabera sailkatu ditugu eta ikusi dugu agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak direla informatzaileen adinaren arabera.

Jarraian bat-bateko testuen prosodiaren azterketan oinarrituta, talde prosodikoaren luzera, eten motak eta muga-tonu motak aztertu ditugu. Bertan erakusten den bezala, agertzen diren aldeak oso txikiak dira eta ez dira estatistikoki esanguratsuak, ez informatzaileen adinaren arabera ez eta generoaren arabera ere. Ondorio interesgarria izan da ikustea egon badagoela erlazio estua muga-tonuen eta eten moten artean.

Erritmoa aztertzeko proposatu diren metriken indizeak kalkulatu eta aztertu egin ditugu hurrengo azpi-atalean; denetara zortzi indize aztertu dira eta ikertu da informatzaileen erabileretan agertzen diren aldeak euron belaunaldiagatik edo generoagatik diren. Lau indizeren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira; adinagatik bi eta beste bi generoagatik. Informatzaileen sailkapena egiten dugunean, agertzen diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira informatzaileen adinaren arabera.


Abiadura aztertzean, hizketa abiaduran agertzen diren aldeak informatzaileen generoaren arabera estatistikoki esanguratsuak direla ikusi dugu.

Laugarren atalean izen morfologia deskribatzearekin batera hizkuntzaren aldakortasuna ikertzeko 17 ezaugarri aztertu ditugu. Atal honetako ezaugarrietan agertzen diren aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak ez belaunaldien arabera ez generoaren arabera ere.

Bosgarren atala aditz morfologiari dagokio; hemen ahalegindu gara ahal izan dugun material guztia biltzen eta sailkatzen. Gerra aurreko informatzaileekin jasota eduki ditugun adizki mota asko gaur egun guztiz galtuzat jo behar dira. Adizkien


bilakaera eta honetan dagoen aldakortasuna ikertzeko 25 ezaugarri hartu dira oinarritzat. Bertan ikusi dugun moduan, informatzaileak sailkatzean sail batzuetan bai belaunaldiak bai generoak eragina daukate, baldintzetan eta alokutiboan, Nork-Nor sailean generoa da eragile nagusia eta Nork-Nori-Nor sailean adina; Nor-Nori sailean, berriz, ez bata ez bestea.

Intuitiboki badirudi Larrabetzuko hizkuntza aldakortasunean bai informatzaileen adinak bai generoak eragina daukatela, baina adina garrantzitsuagoa dela generoa baino. Hau konprobatzeko fonologiaren, azentuaren, oinarritzko esaldien intonazioaren, izen morfologiaren, aditzaren eta sintaxiaren datuak batera erabili ditugu. Matrizea prestatu ahal izateko aldagai bakoitza dikotomizatu egin dugu, honela 224 aldagaiko matrizea lortu dugu. Multzokatze azterketa egin ondoren 8.1. irudian ikus daitekeen dendograma lortzen dugu. Bertan ikusten den bezala A multzoan 14 informatzaile agertzen dira eta B multzoan 10. A multzoko informatzaileetan lehen belaunaldiko guztiak agertzen dira, bigarren belaunaldiko andrazko bi eta gizonezko bi eta hirugarren belaunaldiko andrazko bi. B multzoko informatzaileetan bigarren belaunaldiko andrazko bi eta gizonezko bi agertzen dira eta hirugarren belaunaldiko andrazko bi eta gizonezko guztiak. Informatzaileen banaketan agertzen den aldea estatistikoki esanguratsua da informatzaileen belaunaldiaren arabera ($X^2 = (a.m.: 2), 9,600; p = 0,008$).



Eskala dimentsio aniztuna izeneko teknika estatistikoaren bidez informatzaileak planoan jarrita (8.2. irudia), antzeko sailkapena lortzen dugu. Lehen belaunaldiko

informatzaile guztiak multzo batean kokatzen dira eta hirugarren belaunaldiko informatzaile gehienak beste multzo batean kokatuta agertzen dira. Bigarren belaunaldiko informatzaileak sakabanatuago agertzen dira; bat lehen belaunaldiko multzo berean.



Seigarren atalean lexikoaren aldakortasuna landu dugu. Atala zati nagusi bitan banatuta aurkeztu dugu. Alde batetik, gai batzuetako lexikoaren bilakaera eta aldakortasuna aztertu da, adinaren eta generoaren arabera ez ezik, lexikoaren bilakaeraren norabideak ere aztertu dira. Beste alde batetik, bat-bateko testu baten lexikoan oinarrituta, informatzaileen lexiko aberastasunaren arabera informatzaile multzoak agirian jartzen ahalegindu gara. Landu ditugun gaiak giza gorputza, meteorologia, landareak, piztiak eta abereak izan dira. Erakutsi den moduan, gai guztiak ez dira aldatzen erritmo berean, honekin batera zeintzuetan gordetzen den ondoen bertako lexiko tradizionala ikusi dugu. Informatzaileen sailkapena gaietako ezaugarri lexikoen arabera egiten dugunean, ikusten da multzoen osaketan agertzen diren aldeetan generoa faktore garrantzitsua dela.

Bat-bateko testuaren lexikoa aztertzean adina agertu zaigu eragile gisa, baina multzokatze azterketa eta eskala dimentsio aniztun probak egitean agertzen diren multzoen osaketa aztertzean ezin egin daiteke multzo homogeenorik.

Zazpigarren atalean, gaingiroki bada ere, geroak zer ekar dezakeen aurreikusitako nahi izan dugu. Horretarako bertako barietate tradizionala (A) jaso duten informatzaile gazteen datuekin erkatu nahi izan ditugu barietate berriak jaso dituztenenak. Azken hauek talde bitan banatu ditugu, ama hizkuntzatik euskara jaso dutenak baina guraso

euskaldun berriak dauzkaten informatzaileak (C) eta euskara hezkuntzan txikitzen jaso dutenen multzoa (B). Azterketa guztiak eginda, ikusi dugu C taldekoak eta B taldekoak batzuek Larrabetzuko euskara tradizionalaren hainbat ezaugarriekin jabetu diren arren, oraindik alde dagoela hiru talderen artean. Alde horren arabera informatzaileak sailkatzen ditugunean A taldeko informatzaileak aparteko multzo batean kokatzen dira eta gainerako guztiak beste batean, hots, C eta B taldeetako informatzaileak hurbilago daude elkarrengandik A taldekoengandik baino.

Honaino heldu da gure lana, Larrabetzuko euskara aldatuz dator bertako hiztun komunitatea aldatuz datorren bezala. Hau argitzeko ez da azterketa handirik egin behar, hizkuntza bizien dinamikaren tasuna da eta. Gure azterketetan agirian utzi den moduan, informatzaileen generoak alderdi batzuetan garrantzitsua den arren, adina da faktorerik eragingarriena. Lexikoan batez ere ikusi dugu gaztelaniaren eta euskara estandarren eragina nabarmentzen direla eta bertako berba tradizionalak sarritan ordeztuak izaten direla. Geroak esango du noraino heltzen den ordezkatzeko prozesu hori.

Gure lan hau burutzeko datu positibo batez ohartarazi nahi dugu, euskaldun berri eta euskaldun berrien seme-alaba euskaldun zahar gazteek, oraindik bertako barietate tradizionalak ikasi dituzten euskaldunengandik bereiz agertzen diren arren, bertako euskararen hainbat ezaugarri ikasi eta erabili egiten dituzte. Honek esan nahi du herrian integratu ez ezik, bertakoekin euskara erabili ere egiten dutela. Gure ustez hizkuntzaren beraren etorkizunari eta iraupenari begira datu hau sano positibotzat jo behar da. Horrela izango ahal da!!

- Aranbarri, F. (1996). *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Arretxe, J. (1994). *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Artiagoitia, X. (1990). Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos. *ASJU* 24(2), 327-349.
- Auer, P. (1998). Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe. *Folia Linguistica XXXII/1(2)*, 1-9.
- Aurrekoetxea, G. (1995). *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: UPV/EHU Argitarapen Zerbitzua.
- Aurrekoetxea, G. (1997). Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak. *Uztaro* 87(23), 94.
- Aurrekoetxea, G. (2008). Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran. *Euskalingua* 12, 17-26.
- Aurrekoetxea, G. (2009). Bariazio sinkronikoak aztertze metodologiak. *Lapurdum XIII*, 43-59.
- Badihardugu Euskara Elkarte. (2010) *Ahotsak*. <<http://www.ahotsak.com>>
- Beckner, C., Blythe, R., Bybee, J., Christiansen, M. H., Croft, W., Ellis, N. C., Holland, J., Ke, J., Larsen-Freeman, D., & Schoenemann, T. (2011). *La lengua es un sistema adaptativo complejo*. http://www.linred.es/articulos_pdf/LR_articulo_04092011.pdf
- Bertinetto, P.M., & Bertini, C. (2007). Modelización del ritmo y estructura silábica con aplicación al italiano. *Quaderni del Laboratorio di Linguística*, 7.
- Bertinetto, P.M., & Bertini, C. (2008). On modeling the rhythm of natural languages. In *Proceedings of the Fourth International Conference on Speech Prosody*.
- Boersma, P., & Weenink, D. (2016). *Praat: doing phonetics by computer*. [Computer program]. <<http://www.praat.org>>
- Bostak Bat Elkarte. (2013). *5000 Hiztegia*. Adorez Hiztegiak. <http://www.azkuefundazioa.eus/es/tejiendo-euskerare/recursos/diccionarios/5000-hiztegia>
- Callier, P. (2010). *Prosodic variability and stylistic coherence*. Philadelphia: Penn Linguistics Colloquium 34.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Coyos, J.B. (2010). Hizkuntza ukipena. *Soziolinguística eskuliburua* (135-184). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Chambers, J.K., & Trudgill, P. (1994). *La dialectología*. Madrid: Visor.
- Dellwo, V. (2006). Rhythm and speech rate: a variation coefficient for delta C. In P. Karnowski, I. Szigeti (arg.), *Sprache und Sprachverarbeitung: Akten des 38. Linguistischen Kolloquiums in Piliscsaba*. <http://mainec.hufs.ac.kr/~tae/past/2010_2/phonetics_g/10_delwo06.pdf>
- Díaz de Rada, V. (2009). *Análisis de datos de encuesta: Desarrollo de una investigación completa utilizando SPSS*. Bartzelona: UOC.
- Ellis, N. C. (2011). The Emergence of Language as a Complex Adaptive System. In J. Simpson (ed.), *Routledge Handbook of Applied Linguistics*. London: Routledge/Taylor Francis.

- Elordieta, G. (1999). Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas. *Actas del I Congreso de Fonética Experimental*. Universitat Rovira i Virgili eta Universitat de Barcelona.
- Elordieta, G. (2000). *Mendebaldeko intonazioaren inguruan*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Elordieta, G. (2003). Intonation. In J.I. Hualde, J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Ensunza, A. (2015). *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. [Doktoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Errazti, A. (1994). *Iurretako euskara eta toponimia*. Iurreta: Iurretako Udala.
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Olalde, A., & Gaminde, U. (2016). Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzuko aditz morfologian. In A. Iglesias, A. Romero, A. Ensunza (ed.), *Linguistic variation in the Basque language and education – II / Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza – II*. Bilbo: UPV/EHU.
- Etxebarria, J.M. (1991). *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Euba: Ibaizabal.
- Etxebarria, J. (2011). *Estatistika Aplikatua: Teoria eta Praktika*. Donostia: Elhuyar.
- Euskaltzaindia. (1994). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV*. Bilbo: Euskaltzaindia, UPV/EHU.
- Euskaltzaindia. (2008tik gora). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilbo: Euskadiko Kutxa, Euskaltzaindia.
- Ezenarro, A. (2008). Etxebarri eta Bolibarko bariazio linguistikoa. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (67), 59-84.
- Gaminde, I. (1984). *Aditz Etikoa*. AEK.
- Gaminde, I. (1985). *Aditza Bizkaieraz III*. Iruñea: UEU.
- Gaminde, I. (1987a). -ENA konpletiboaz. *ELE*, 1, 139-154.
- Gaminde, I. (1987b). SANO-ren erabileraz. *Enseiukarreen*, 3, 29-34.
- Gaminde, I. (1988a). Bizkaiko aditz trinkoen alokutiboak. *FLV*, 52, 181-240.
- Gaminde, I. (1988b). Erabili, esan eta eritzi mendebaldeko bizkaieraz. *Enseiukarreen*, 4, 50-80.
- Gaminde, I. (1988c). Eragon aditzaren inguruan. *ELE*, 4, 37-42.
- Gaminde, I. (1989a). *Foruko euskararen morfoxintaxiaz*. Foru: Foruko Udala.
- Gaminde, I. (1989b). Aditz erazleak bizkaieraz. *ELE*, 5, 49-84.
- Gaminde, I. (1990a). Ezezko nominalizazioak bizkaieraz. *Uztaro*, 0, 85-98.
- Gaminde, I. (1990b). Leku denborazko kasuen mugagabeaz. *ELE*, 7, 103-130.
- Gaminde, I. (1990c). Sozietiboa denbora alorrean bizkaieraz. *ELE*, 6, 25-32.
- Gaminde, I. (1991a). Ablatiboaren balioak bizkaieraz. *Euskararen Iker Atalak*, 5, 191-200.
- Gaminde, I. (1991b). Erlatiboak Txorierrin. *Labayru Ikastegia, Euskal Sintaxiaz*, 75-90.
- Gaminde, Iñaki (1991c). Jakin eta eduki aditzen datibodun flexioez. *ELE*, 9, 33-40 orr.
- Gaminde, I. (1992a). *Urduliz eta Gatikako Herri hizkeren Azterketa Linguistikoa*. [Doktoretza-tesia]. Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1992b). Esaldi kausalak Bizkaian. In Euskaltzaindia: Luis Villasanteri Omenaldia. *Iker*, 6, 183-194.
- Gaminde, I. (1992c). Gonbaratiboak direla eta. *ELE*, 10, 119-134.
- Gaminde, I. (1992d). Bizkaieraren esaldi denborazkoak. *FLV*, 61, 405-430.
- Gaminde, I. (1993a). Bokalen asimilaziorako erregela fonologikoak Bizkaiko euskararen. *Enseiukarreen*, 9, 51-64.
- Gaminde, I. (1993b). Hotsen erabilpen frekuentziaz Bizkaian. *Euskararen Iker Atalak*, 6, 107-140.
- Gaminde, I. (1993c). Umeentzako ehun kantu Bizkaiko. *Euskararen Iker Atalak*, 6, 57-90.
- Gaminde, I. (1995a). *Bizkaieraren Azentu-Moldeez*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Gaminde, I. (1995b). Bizkaiko ahozko euskararen esaldi ereduez-I. *FLV*, 70, 431-465.
- Gaminde, I. (1997). Mendebaldeko azentuaz. In *Mendebaldeko Euskara XX. mende goienera*, (175-191). Bilbo: Mendebalde Kultur Elkartea.
- Gaminde, I. (1998a). *Euskaldunen azentuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Gaminde, I. (1998b). Bizkaiko ume-olgeten lexikoa. *FLV*, 77, 55-76.
- Gaminde, I. (1998c). Kontsonante bilkurez eta desanbiguatzeko linguistikoak. In *Mendebaldeko Euskara Euskararen Ekarria*, (27-58). Bilbo: Mendebalde Kultur Elkartea.
- Gaminde, I. (1999). Urteko jai batzuren inguruan. *Euskararen Iker Atalak*, 7, 215-238.
- Gaminde, I. (2003). Mungialdeko herskariaren eta afrikatuaren txandaketaz. *Euskalingua*, 2, 10-17.
- Gaminde, I. (2004). TONUAK eta etenak Gatikako intonazioan. *FLV*, 97.
- Gaminde, I. (2006a). Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (I). *Euskalingua*, 9.
- Gaminde, I. (2006b). Intonazio kurben etenez. In J. Lakarra, J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask*. *R.L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritza eta hizkuntzalaritza historikoak*. *ASJU* 40, 1-2.
- Gaminde, I. (2007a). *Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegi Orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (2007b). Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (II). *Euskalingua*, 11, 49-66.
- Gaminde, I. (2010a). *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelamiaz*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (2010b). Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoak. In *Bilbon Mundua Ikusi. XIV. Jardunaldiak* (35-59). Bilbo: Mendebaldeko Euskal Kultur Alkartea.
- Gaminde, I. (2011). Noraka Euskal Azentuak? In G. Aurrekoetxea, I. Gaminde (ed.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak/I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*. Bilbo: UPV-EHU.
- Gaminde, I., & Hualde, J. I. (1995). Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa. *ASJU*, 29(1), 175-197.
- Gaminde, I., Goikoetxea, J. L., & Sarriguarte, I. (2002). *Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduez: Gida didaktikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. ISBN: 84-457-1937-8.
- Gaminde, I., Goikoetxea, J. L., Gaminde, J., Elgoibar, E., Gaminde Elgoibar, J., & Zalvide, X. (2004). *Bizkaian zehar kantetan: Gida Liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. ISBN: 84-457-2121-6.
- Gaminde, I., Goikoetxea, J. L., & Elgoibar, E. (2005). *Bizkaian zehar kontetan: Gida didaktikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza. ISBN: 84-457-2350-2.
- Gaminde, I., & Romero, A. (2011). Generoa eta adina Bermeoko berbaldiaren fonemen eta hotsen frekuentzian. *FLV*, 113, 115-138.
- Gaminde, I., Romero, A., & Legarra, H. (2012a). *Gramatika eta Hizkuntz Bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala eta Campos Hegaluzea.

- Gaminde, I., Etxebarria, A., Garay, U., & Romero, A. (2012b). Lehen hizkuntzaren eragina Bizkaiko gazteen lexikoaren erabileran. *Ikastorratza*, 9, 1-16.
- Gaminde, I., Aurrekoetxea, G., Etxebarria, A., Garay, U., & Romero, A. (2014). *Ahoskera Lantzeko Argibideak eta Jarduerak. Laguntzarako materiala: Teoria eta Praktika*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, I., & Gandarias, L. (2015). Irizpide batzuk bariazioa aztertzeko intonazioan. In G. Aurrekoetxea, A. Romero, A. Etxebarria (ed.), *Linguistic Variation in the Basque an Education-I/Euskararen Bariazioa eta Bariazioaren Irakaskuntza-I* (183-205). Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, I., Gaminde, U., Olalde, A., & Etxebarria, A. (2015). Larrabetzuko testuen prosodiaz. *Euskalingua*, 27, 6-12.
- Gaminde, I., Olalde, A., Gaminde, U., & Etxebarria, A. (2016a). Populazioaren sailkapena lexikoaren arabera. *Ikastorratza. e-Revista de Didáctica*, 16, 68-84. http://www.ehu.es/ikastorratza/16_alea/4.pdf
- Gaminde, I., Etxebarria, A., Eguskiza, N., Romero, A., & Unamuno, L. (2016b). Lexikoaren bariazioa eta multzokatze-azterketa. *Euskalingua*, 28, 19-32.
- Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A., & Gaminde, U. (2016c). Hizkuntz aldakortasuna Larrabetzuko azentuan eta intonazioan. *Euskalingua*, 27, 13-21.
- Gaminde, I., Romero, A., Eguskiza, N., & Etxebarria, A. (2016d). Dardarkari bakunaren alofonoz testu irakurrietan. *FLV*, 121, 121-140.
- Gandarias, L., Plaza, J., & Gaminde, I. (2014). Lekeitioko Txistukariez: Frikariak eta Afrikatuak. *Euskalingua* 24, 6-21.
- Garmendia, L. (2008). Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskararen: ikuspegi soziolinguistikoa. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra* (1-2). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gell-Mann, M. (1994). *El quark y el jaguar: Aventuras en lo simple y lo complejo*. San Francisco: EpubLibre.
- Gibbon, D., & Gut, U. (2001). Measuring Speech Rhythm. *Proceedings of Eurospeech 2001*.
- Grabe, E. & Low, E.L. (2002). Durational Variability in Speech and the Rhythm Class Hypothesis. *Papers in Laboratory Phonology*, 7, Mouton.
- Herrera, H., Martínez, R., & Amengual, M. (2001). *Estadística aplicada a la investigación lingüística*. Madrid: EOS Universitaria.
- Hualde, J.I. (1988). *A Lexical Phonology of Basque*. [Dokoretza-tesia]. Los Angeles: University of Southern California.
- Hualde, J.I. (1997). *Euskararen azentuerak*. Bilbo eta Donostia: UPV/EHU eta GFA.
- Hualde, J.I. (1999). Basque accentuation. In H. van der Hulst (arg.), *Word prosodic systems in the languages of Europe*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, J. I. (2003). Phonology In J.I. Hualde, J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin- New York: Mouton de Gruyter.
- Hualde, J.I. (2006). Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca. *Oihenart*, 21.
- Hualde, J.I., Elordieta, G., & Elordieta, A. (1994). *The Basque Dialect of Lekeitio*. Bilbo eta Donostia: UPV/EHU eta GFA.
- Hualde, J. I., Gaminde, I. (1997). Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *ASJU XXXI*, 211-246.
- Hualde, J. I., Mugarza, P., & Zuazo, K. (2002a). The Accentual System of Mallabia Basque. *Euskalingua*, 1, 15-24.
- Hualde, J. I., Elordieta, G., Gaminde, I., & Smiljanic, R. (2002b). From pitch-accent to stress accent in Basque. In C. Gussenhoven & N. Warner (ed.), *Laboratory Phonology 7*, 547-584. Berlin: Mouton de Gruyter. ISBN: 3-11-017086-8
- Hualde, J. I., & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, J. I., Olarra, A., Escobar, A. M., & Travis, C. E. (2009). *Introducción a la lingüística hispánica*. Cambridge University Press.
- Hulst van der, H., Goedemans, R., & Zanten van, E. (2010). *A Survey of Word Accentual Patterns in the Languages of the World*. Walter de Gruyter.
- Iglesias, A. (2015). Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa. [Dokoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Iglesias, A., Gaminde, I., Gandarias, L., & Unamuno, L. (2016). Euskararen txisturkariak aztertzeko indize akustikoez. *Euskalingua*, 28, 6-18.
- International Phonetic Association. (2005) *International Phonetic Alphabet*. <http://www.langsci.ucl.ac.uk/ipa/>
- Jauregi, O. (2007). *Euskararen Silaba: Egitura eta Historia*. [Dokoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Jun, S.A., & Elordieta, G. (1997). Intonational Structure of Lekeitio Basque. In A. Botinis, G. Kouroupetroglou, G. Carayiannis (arg.), *Intonation: Theory, Models and Applications*, Proceedings of an ESCA Workshop (193-196). Atenas: ESCA.
- Labov, W. (1972). *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: U. of Pennsylvania Press.
- Legarra, H. (2011). *Muxikako euskararen azterketa linguistikoa*. [Dokoretza-tesia]. Deustuko Unibertsitatea.
- Léonard, J. L., Heinsalu, E., Patriarca, M., & Darlu, P. (2015). Modeling regional variation from eas: complexity and communal aggregates. In G. Aurrekoetxea, A. Romero, A. Etxebarria (ed.), *Linguistic Variation in the Basque an Education-I/Euskararen Bariazioa eta Bariazioaren Irakaskuntza-I* (50-58) Bilbo: UPV/EHU.
- López Rivera, J. J. (2013). Aplicación del marco de los sistemas complejos adaptativos a un modelo de variación lingüística. *Moenia* 19, 5-24.
- Low, E.L., Grabe, E., & Nolan, F. (2001). Quantitative characterisations of speech rhythm: Syllable-timing in Singapore English. *Language and Speech* 43.
- Lujanbio, O. (2016). *Hizkuntza-aldakortasuna euskararen. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. [Dokoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Mairano, P. (2017). *Correlatore*. <http://www.lfsag.unito.it/correlatore/index.html>
- Martinez, L. (2010). *Hizkuntza ukipena*. Soziolinguistika eskuliburua, (85-134). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Moreno, F. (1999). *Lenguas para fines específicos (VI). Investigación y enseñanza*. Alcalá de Henares: Universidad de Alcalá.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008). *El nacionalismo lingüístico: Una ideología destructiva*. Bartzelona. Ediciones Península.
- Murillo, F. J., & Martínez-Garrido, C. (2012). *Análisis de datos cuantitativos con SPSS en investigación socioeducativa*. Madrid: UAM.
- Ormaetxea, J.L. (2002). *Aramaioko euskara*. Aramaio: Aramaioko Udala.
- Ormaetxea, J. L. (2006). *Aramaioko euskara: Azterketa dialektologikoa*. Bilbo: UPV/EHU.
- Pascual, M. (2013). Mendebaldeko Azentua: Larrabetzuko Hitz Markatuak. (Lan argitaragabea).
- Pérez, C. (2008). *Técnicas Estadísticas con SPSS 12: Aplicaciones al análisis de datos*. Madrid: Pearson Educación S.A.

- Pérez Landa, E. (2006). Bokal-elkarketak beratarren hizkeran. *Uztaro* 57, 49-64.
- Prieto, P., & Vanrell, M.M. (2010). *Speech rhythm as durational marking of prosodic heads and edges*. <http://prosodia.upf.edu/activitats/prosodicdevelopment/presentacions/prie.to.pdf>
- Ramus, F. (1999). *Rythme des langues et acquisition du langage*. Paris: École des Hautes Études en Sciences Sociales.
- Ramus, F., Nespore, N., & Mehler, J. (1999). Correlates of linguistic rhythm in speech. *Cognition*, 73.
- Roberto, J. A., Martí, A., & Salamó, M. (2012). Análisis de la riqueza léxica en el contexto de la clasificación de atributos demográficos latentes. *Procesamiento de Lenguaje Natural*, 48, 97-104.
- Romero, E. (2016) *Estadística para todos*. Madrid: Pirámide.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 41(111), 219-248.
- Toledo, G. (1999). Jerarquías prosódicas en el español. *Revista Española de Lingüística* 29-1.
- Toledo, G. (2010a). Métricas rítmicas en microdiscursos. *Onomazein* 21. <http://www.onomazein.net/21/03-TOLEDO.pdf>
- Toledo, G. (2010b). Métricas rítmicas en tres dialectos Amper-España. *Estudios Filológicos*, 45.
- Trudgill, P. (1984). *Language in the British isles*. CUP Archive.
- Trudgill, P. (2003). *A glossary of sociolinguistics*. Oxford: Oxford University Press on Demand.
- Txillardegi. (1982). *Euskal fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- Txillardegi. (1984). *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.
- Uriarte, J.A. (1995). *Fruizko Hizkera: Aterketa Linguistikoa*. [Doktoretza-tesia]. Deustuko Unibertsitatea.
- Yarnoz, B. (2002). *Sibilants in the basque dialect of Bortziri: an acoustic and perceptual study*. Nafarroako Gobernua.
- Yrizar, P. (1981). *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*. Zarautz: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Yrizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*. Liburuki 2. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L. V., Uranga, B., & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika klusterra.
- Zuazo, K., & Goiti, U. (2016). *Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko Euskara*. Bilbo: UPV/EHU.